KATOLIKUEN ERLEJIÑOATA JOKABIDE ARAUAK

(BUP, 1[9]urtea)

# NAZARETEKO JESUS

Jose Carlos Sampedro
Miguel Riguelme/Fernando RodriguezT.

Euskeratzaillea:
Olazar'tarMartin

# LIBURU AU:

"Nor nazela ni diño jenteak
eta zuek *nornazela doñozue?*

Nazarefeko Jesus'eri buruz egiten diran itaunak,
ogei gizaldiren joanean, milloiak eta milloiak gizonen
barrua ikutu dabe.
Erttlariak euren erti-lanetan erakusten alegindu dira.
Mistikuak euren buruak eroaten rtzi dautsoe.
Teologu ak bere nortasuna ta mezua sakon ulertzen aiegindu dira.
Askok alboratu eta aurrean erabilten dabe.
Baiña kristiñauentzat
bidea,
egia eta
bizia da.

Ez da zeregin erreza
au dana orri-moltzo batera sartzea.
Baifta geure alegiña egin dogu orretarako...
Eta orrelan sortu da liburu au,
ez dau besterik nai, aundikeri barik,

NAZARET'EKO JESUS*EN

benetako irudia agertzea baiño.
guk ondo dak'igu, ikas-liburua ez dala besterik
ibilten asteko zurezko oifien antzeko zerbait baiño:
Srakaslearen azalpenak,
beste liburu batzuk begiratzeak, bakoitxaren lana,
egitekoeskinfzendira ekintzak...
orreik egingo dabe liburuan ez dagoana.

Idazleak.

I.GAIA

**ERLEJIÑOA DERITOOGUN JAZOKIZUN ORI**
**{Erlejiño-jazokizuna ta kristifiau-jazokizuna)**

Erlejjñoa ukatu-eziñeko jazokizuna da.

Gai onetan AZTERTUKO doguna...

* **Jazokizun batera urreratu: Erlejiño-arlora.**

* Jazokizun onek dakarren esanguregaz bateratu.

* Erlejiño-jazokizunen artean nagusiana **danera urreratu: Kristifiau-jazoki-zunera.**

**ZERGAITIK...**

* XX gizaldiko **gizona ez dalako ez-jakin izan bear** erlejifio-gaia dan bestean zabala dan eta **bide-lagun** dauzan **gizonik geienai ikututen dautsen gaioneri buruz.**

*** Gu,** lurralde **eta inguru onetako erri onetan, oso-osoan kristifiau-**jazokizunera sartuta **eurkitzen** garalako eta ori barik **ezer ezin ulertu** dogulako, **geure** burua bera be be ez.

• * *

## OARRAK

### 1, Er!ejlno-gaia aurrean daukagu.

* Zalantzak eta erlejiñoaren aurkako azterketak ain **ugari izan arren**, **or** dago ukatu **ezin** leiken **jazokizun** bat: rlejiño-gaia or dagoala.

* Era askotan agertzen da **jazokizun ori: Eleizak, otoitz eg'rten dabenak, askotariko erlejifioak.**. **Eta askok egiten eta berbaz azaltzen dabenaren** arteko ezbardintasuna salatzen ba'dogu, geiago oraindifio, gauzen aldietan Jaungoikoa sinistea atzerakuntza ta zentzunbakokeria dala esaten ba'dogu be, ifioz ezin izango dogu ukatu Jaungoikoaren sinistea dauken personak ba-dagozela eta olakoen bizrizeari **erlejiñoak** norabidea emoten dautsela.

* **Orregaitik ba, erlejifioa or dago, geure aukeran, ikusteko iez, orreri** emoten dautsagun azalpena bata naiz bestea dala.

### 2. Oifiarrlko rtauna.

*** Uri aundiak,** arifieketak, motorrak, kutsadura, bakerik-eza... **ori** dana eragozpen izaten dogu "besteak" aurkitzeko, basteakaz artu-emonak izateko. **Eguneroko gauzak bardiñak** izatea, ainbeste alkar-izketa **uts,** gogaibidea... sarritan barrumifia sortzeko **bide izaten jakuz,** zergaitik dan **be** jakin barik, egiten gagozena egiten dogu.

* Baifia egun baten dana aldatzen da: maitemindu egiten gara, edo aundi egiten garala konturatzen gara, edo ez dogu alkar ondo ulertzen, eta maite **dogun norbait il egiten da... Egoera barri batera sartzen gara oso-**osoan, artzeko egoerea esaten dautsanetariko batera eta orrek apurtze **bat** sortzen dau, geure bizitzeagaz aikariu-ezin bat, eta gure barruan itaun batzuk sortzen **dira; samintasunez, inoz nekatu barik**, **gure bizitzea** zartarako **dan** itauntzen **dogu;** Zergaitik eriotzea? **Zertarako bizitzea? Nondik etorri gara?** Noragoaz^Zergara, Zeriarakogabilz ikasten?

* **Gero, egunen joanean itaun oneik aiztu egiten jakuz, baiña** antzeko beste egoera baten **geure burua ikusten** dogunean, **barriro sortuko** dira gure barruan eta indar bardiñagaz, Erantzunik artu ez dabelako da ori, urtenbiderik

emon ez dautsegulako. Izan be, jakingaiak eta trebebideak ez dauke orreintzat erantzunik: Gizona bere buruarentzat itaun bat da, baiña erantzuna arin bear dauan itauna, bare eta pozik itziko dauan erantzuna, bere bizitza osoari norabidea emongo dautsona.

* Erantzun ori gizonak ezin aurkitu daike bere barruan. Kanpora urten bear dau, oifiarri bat billatu bear dau, Askatua dan norbait, bere bizrtzea bideratuko dauana, berak bakarrik erantzun ezin dauan itaun orreri erantzungo dautsona. Orregaitik, gizona erlejifioduna da, bere bizltzearen urtenbide zabala billatzen dauanean, beragandik kanpoan. Askatua **dan** norbartegan baifio ez daualako aurkitzen erantzun egokia.

**3. Erlejifto-jazoklzuna orokorra** da,

Erlejiflo-gaia gure aldikoa edo gure jakintzarena bakarrik ez dana badakigu: aldi guztietan eta jakintza guztietan egartzen da. Emen jarraian, arin-arin, gizadiaren erlejino guztiak aztertuko doguz.

* Eta erlejino-gaia, erlejiñoak eurak baifio be lenagokoa da. Gizonak. iurrean izan dauzan asieretan, antxe agertzen da. Antxifiako gaiai egin jakezan azterpenetan zeatz agertzen da, lenengo gizona zala ziur dakiguna, Neanderthal-gizona, Kristo baifio eun eta berrogei ta amar milla urte lenagokoa, geroko bizitzeagaz arduratuta agertzen da bere lur-emoneetan ikusten dan lez (gorpuaren ondoan kutxetan sartuta agertzen dira mundu onetan bereak izan ziran eta beste mundurako onuragarri izan leikiozan gauzak). Ondoren lez atera geinke ba, ez dagoala une argirik gizona erlejiño-zale biurtu zanekorik, asieratik izan zan gizona eriejiftodun.

**4. Eriejifio aundiak** Giza-moltzo jakltun aundiak.

Erlejifio-giroko agerpenak, aurrera joan ziran gizarteak, aurrera joan ziran neurrian eta erlejifioak dauan gizarte-sarea be naste aundiagoko biurtzen da. Antxinako giza-mottzo jakrtun eta aundi onein oiñarri berezitasunak bi dira: Aberri-eriejifloa izatea (erlejiñoak aginterria batu eta erakundetu egiten dau eta persona baten edo batzuen eskuetan izaten dira erri-agintaritza ta erlejiño-agintarrtza) eta Jaungoikoa era askotara agertzen da (Ortik apurka Jaungoiko asko izatea).

**Erlejiño** aundiak

Mistika-girokoak batzuk, esaterako indutasuna eta budatasuna. Onei **mistika-girokoak** deritxegu, bakoitxaren nortasuna **Jaungoikotasunean** sartu eta galdu egiten dalako. Yoga, gogateka, gerokorra griña-azpiratzea, gurari-**kentzea, eskutuan eta** beti geldian dagoan Jaungoikogana urreratzeko bideak dira erlejiño oneintzat.

**IgarJe-girokoak** beste batzuk, esaterako **kristifiautasuna**. Judatasuna **eta islamtasuna.** Besteak ez baifia kristifiautasuna sartaldean zabaldu da geienez. **Erlejifio oneitan gizonak Jaungoikogaz dauzan artu-emonak** Atkartasun **eta Alkarizketa-girokoak dira. Oneintzat Jaungoikoa eginkorra da, kondairara** sartzen dana eta nortasun argia daukana.

**Jerusalen'en erosta-ormea**

**5. Erlejifto-arloko izkera**

* Mota aundi bitako'izkerak dagoz:

**Izkera onurakorrak**. **Oneik olako *'daunai erartzuna* damotse:** "Nondik *nora* goaz"? Izkera zeatzak **eta laburrak dira eta errez neurtzeko** lako esaldiak eta berbak darabillez. **Izkera oneik egokiak dira,** aztertzako, ziurtatzeko, bizrteko, zaintzeko: **Jakituri-maillakoak** dira. Baiña **ez dira egokiak,** esaterako, gogoko egoerak alkarrari emoteko eta non<ien arteko **artu-emon** beroak sortzeko. **BIzI-giroko Izkerak:** Izkera oneik irudiak darabiflez, ez **ite ondo** zeaztuak. Barrumifiak alkarrari **emoteko dira onak, besteakaz artu-emonetara** sartzeko. Mota askotakoak **dira: Eres-girokoak, margo edo olerki-girokoak... Ez dira jakituri-maillako izkerak, baiña bai** jakituri-maiilakoen bestean **benetakoak eta** benetakoak **diran munduen** barria **dakarskue, naitza** jakituri-maillan **agertu-eziñak izan: izan be gizonaren zati on bat ez da** agerbidekoa, ba-dagon zatia ***izan arren.***

* **Erlejlflo-Izkera, blzl-gfroko fzkera da. Orlerki-izkeratik ur** dagoana, gure erlejifio-biziaren barria emoteko **egokia, gure izatea eta oiñarriko itaunai geuk erantzuna emoteko daukagun barru-bizia agertzeko ona.**

**Erlejifio-bizian egiten** dan erara, Jaungoikoagaz artu-emonetara sartzen gara, **eta ori gizonen izkuntzan ezin agerlu daike, izkera onek irudiak,** ezaugarriak eta metaforak artzen dauz bide lez, eta olakoakaz Jaungoikoa**oso-**osoan agertu ez arren, **urreratu egiten gaitue eta Bera urreratzen** dauskue (Esaterako Jaungoikoa ntre arka'tzada).

## 6. Kristautasuna besteak lakoa ez dan erlejiñoa.

* Laugarren zatian kristifiautasuna igarle-giroko erlejiftoen artera sartzen diranen **zerrendan ezarri** dogu, oiako **bat lez.** Kristiñautzeak sortaldeko gizonaren aurrerapenean eta gizonaren beraren aurrerabidean izan dauan **ikutua aztertu barik, gaur mundu-maillan jazokizun eder bat** aurkitzen **dogu: Erlejifio BAKOITXAK gauza on eta balioko lez zer** ekarri dauan **jakin** eta aintzat artzea "gizon guztiak argitzen dauzan egiaren dizdizak" erlejiño bakoitxak daukazela **ikustea.**

Orduan, eriejifio guztiak eta dira bardiñak? **Bata naiz bestea** norbera-rentzat artzea bardin eta da? Kristinautzea beste erlejiño bat eta da?

4 **Baifia erlejifio** guztiak ez dira bardifiak. Gauza bardiñak ba-dagoz **euren artean, gauza batzutan batera doaz, baifia** alde aundiak **ba bai. Ezin** parekatu geinke, esaterako, **kristifiauen aikar-maitasunerako** agindua Aztekatarren **erlejifioak** eskatzen **dauan** gizonak **opari lez** eskintzeagaz. **Orregaitik, gizonak ezin leike bardin aurrera egin eta** bere burua osotu, edozeineriejifiotan.

* Eriejifio **guztiak izan daitekez** salbamenerako bide, **santutasuna** eta egia **daukezen neurrian, oker** batzuk eta sorginkeri **batzuk barruan euki arren. izatez gizon** askorentzat salbamenerako bide **bakarra izan dira, besterik** ezagutu ez dabelako. Gizonak ez doaz salbamenera okerrakaitik, edo euren eriejifioan izan diran sorginkeriakaitik, olakoen gaifietik baifto.

Benetako salbabidea agertzeko **eta santutasun-bidea** ezarteko **Jaungoiko Aitak bialdu eban Semeak agertu eban** erlejiñoa **da** bakarra orretarako eta batera, bera da **santutasunerako ta egirako bidea**. Orregaitik, eriejifio onen **irakatsiak obeto** bateratzen **dira giza-norkiaren** duintasunaz, beste erlejiñoak irakasten dabena baiño eta erlejino onetan **gizonak aurrera egin lei, bere burua osotu be bai, eta beste erlejifio batzutan baifio** errezago salbau leiteke. Baifia "geiago **emoten** jakonai geiago eskatzenjako".

**7. Kristiñautasunean zer da jatorra ta** amaitua?

* Beste erlejiñoen aurrean, kristiñautzeak gugaz daukagun Kristo aurkezten dau, azkeneko baiio **lez: Kristo'gandik** asita bakarrik, **aurk'rtu** leike gizona estututen daben rtaun guztien erantzun egokia ta osoa.

* Eta Jesus da bakarra beragan gizonak bere deiari **erantzunik** sakonena ta egokiena **emoteko:** Glzon izatea.

* Izan be da auxe **da** kristiñauntzeak daukan gauzarik **jatorrena,** Jesus **Jainkoaren Semea dala; Jaungoikoa Jesus'en bidez, gizonen anai biurtu da.** Orixe da Barri Ona.

* Orregaitik, Jesus'egan, kristiiñautzeagaz, beste erlejiño guztiak edertuta agertzen **dira. Ez dira ukatzen euren balio aundiak, oso** ta orokor **biurtzen dira. Erlejiño** guztiak emoten dabez erantzun-zatiak gizonen itaunetarako, baina kristiñautzeak erantzun osoa ta azkena emoten dau **eta** gizonak olako **itaunak egiten** dauzanean: **zer naz?** Nondik nator? Nora noa? Zer egin bear dot? Gatasun osoa emoten dautso erantzunakaz.

**EGIN GEINKENA**

**Erdl** bitan

- I**kas-taldea** erdi bitan banatzen **da,** bakoitxean ikasie kopuru bardiña dala.

- **Erdi bateri auxe esaten jako? Zuetariko bakortxak, grtxienez** orrialde baten erdian idatzi begi **zer dan** maitetasuna deritxon giza-zomakizu**na, izkera** jakituri gaietakoa dala, al dan neurrian".

- Beste **erdiari be antzera esango jako, baiña izkerea al danik olerki-**girokoena izatekotan eta gaiatximist-erakunde bat zerdan.

- Amar-amabos1 minutu **lanean** egin **ondoren,** irakurri **lanen** ondorena etaaukeratuonenak.

- Gero eztabadatzea egiten **da,** izkerai eta **euren mota ta** elburuai buruz eta gaiagaz daukan zer-ikusia aurk'rtu.

Ta!de-lana

Ikastaldea 5-6 taldetan banatu eta talde bakortxari eskatu munduko erlejiñoak non diran agertzeko ur-irudi bat egin dagiala, lurralde bakoitxa non dagoan esan baita erlejino bakoitxak zenbat jarraitzaille dauan be.

Lana egin ondoren, alkartzea egin, okerrak kendu ta akatzak zuzendu eta gero ormarako irudia egin lan gutziak batzen dirala.

Erantzun...

Jakituhzko izkerea baiño ez ba'lego, egongo litzake federik?

BiUatu...

Kristiñautzea zergaitik zabaldu dan geiago sartaldean, sortaldean baifio. Nai dana ez da esaldi ziur bat, jokabkte orren iturriak eta bideak billatzea baiño.

EgIn...

Ikasle bokoitxak zerrenda bat, al danik luzeena, ezagutzen dauzan eriejino agertze guztiak azattzeko: Kale-izenak, gizarteko jazokizunak, norkien izenak, jaiak, esaldiak eta abar.

Zeaztu...

Ikasle bakoitxak berak bizi izan dauan muga-aldiko estualdi bat.

Azkena emon...

Osotu bako edestioneri:

Txibizki batzuk jaten ebazen artean Juantxu-Txiki jaunak bera noraiñoko abertsa zan gogoratzen eban, bera zurra be ba-zala... eta beretzat gaitxa izan

zala **ain jakituna** \a aberatsa izatera eitzea. Bere etxe ederrerantza bidez joiala, **etxegintza-lan batzun** ondotik **joiala, bagoi bai** askatu eta **kazkamotzari ikututen igaro zan bere gaiñetik. Juantxu-Txiki zuri geratu zan, gero ubel eta** ikareata **margoakigaroziranean..."{emen ikasle bakortxak asmau** azkena)

**Zeaztu...**

Jainkobakoa edo ertejifio-bakoa dan jakintza edo gtzarte-era bat,

**Antzak eta aldeak...**

Jainko asko dauken eriejiftoen artean.

**Ekarrt...**

Ikasle bakortxak jakingarri bat isian-tasunari *buruz, balfta ezaguna ez* dana, moroai **buruz janteak** daukazan aurre-errtxietakoa ez **dana. Jakingarri guztiak batzen diranean, erlejino au** zelakoa dan **jakiteko bide bat** eukiko dogu eta irakasleak osotu egingo dau.

**Egln antzera...**

**Aurreko ekintzan egin dan lez, budatasunari buruz. Zer da Yoga? Eta** gogartegerotarra?

• • •

GAIA

## ZER JAZOTEN DA GURE INGURUAN?
## (Erlejifto ta kristiñau-arazoa gure aldiko munduan)

### Zein da gure errtxia Jesus'eri buruz?

**Gaionetan EGINGO DOGUNA...**

* Eriejiñoaren **eta Jesus'en aurreanjentearen egoerakaztertu...**
* **Egoera orreik zergaitik diran olakoak** ikasi.
* **Bakoitxakgeureegoereaartu.**

**ZERGAITIKori...**

* **Jesus'eri ta Eleizeari buruz itaun askori erantzun-bearrean gagoze-lako.**
* **Jenteak erlejiñoaren aurrean artzen dauzan jokabideak, euren aurre-eritxietatik, gizarte-ingurutik eta** barru-eraginetik geiago datozelako bakoitxak egiten dauan azlerketa sakonetik baiño.

OARRAK

1. Çsaten diranak

Jaungoikoa sinisteko ez dago eleizara joan-bearrik..."

- "Nik ezagutzen dot bat, beti eleizan sartuta dagoana, baiña gero..."

- "Abadeari zer dautso ardura nire bizitzeak? Nik Jaungoikoari egiten *dautsat* neure *autortza,* bifarteko barik".

"Bakoitxak bere barruak eskatzen dautson lez, ekin dagiala".

- "Nire gurasoak bateatu egin ninduen, baiña neure baimen barik".

- "Nik federik ez daukat, baifia Eleizaz ezkontzen naz ela orrelan nire gurasoakaz eta emazlegaigaz bakea daukot".

- "Jaungoikoa bai, baiña Eleizea ez*'.

- "Abadeak eurak dira lenengoak esaten dabena ez egiten",

- "Eleizeakindaraundiadauka".

2. Zer esan nal dabe oiako esaerak?

- Askok ez dabela argi ikusien erlejiño-egiteak zertarako diran eta euren *ba\\oa zertandagoan.*

Sinisten dan lez ez bizitea, esaten danaren aurka jokatzea, gauza kaftegarria ta gaizpidekoa dala.

- Sakramentu batzuk, esaterako autortza ta gaisoen igortza ez dirala baliatzen bear dan neurrian.

- Beste sakramentu batzuk (Bateoa, Ezkontza, Eukaristia, gogoratu ienengo jaunartzea), gizarteko eginbear lez beteten dirala.

- **Fedea norberaren gauza lez, beste iñogaz zer-ikusirik ez ba'leu lez biziteko jokerea ikusten dala**.

- **Jentetza aundien artean bizi dan Eleizea, onartzen** ez **daben** alkarteakdagozala.

- Fede-bidea **aukeratzean barru-ardura geiago dagoala**. **Aukeratze au gaur ez da egiten gizarte eragiñagaitik, billaketa bat egin dondoren baiño.**

- **Fedeak barruko bizitzea eta gizartekoa aldatu dagizan jokera bat** dagoala.

- Eleiz-egintaritzari azterpen gogorra egiten **jakola eta len zan esangintza itsutik, aiztuta eukitera igaro garala.**

- **Kristiñau guztien kidekotza billatzen dauan Eleizea nai** dala.

- Kristifiauen artean be askotariko pentsaerak, aldeak dagozala.

- **Gizarteko talde batzuk,** gazteak esaterako. **Eleizatik** geroago ta urriñagodagozela.

- **Erlejiño bata naiz bestea bardin izatea, ugaritu egin dala, baiña,** batera, erlejiñoak bizitasun **barria lortu dauala**.

## 3. Zer jazo da emen?

*** Gizadia XX gizaldi onetan aurreko bere kondaira guztian baiño bizkorrago aldatu** da. Gogoratu, esaterako, **tximist-indarraren ondoren guztiak, eta gure aitita-amama "kez eben ezagutu tximist-indarra bera be.**

**Jakingaien arloan** aurrerapen ikaragarriak egin dira eta billaketak egiteko bide ta **lanabes aundiak izan** dabez. Orregaitik **uste izaten da**, billaketaz **aurkitu ezin dan ezer ez dala egia.**

**Trebebidean be aurrerapen aundiak egin dira: ezer ez daukagu urrin,** ibilgaiiluak **bizkortu egin dira, uriak geroago ta aundiagoak biurizen jakuz,** baserriak **utsik garatzen dira... Gauza** guzti **orreik gizonari euren ikutua** egiten

dautsoe eta biziera barria sortu jaku: Urira doan gizonak erriko oiturak galdu egrten dauz, ezagunak ez diran millak gizakien artean bakartadean bizi da, geroago ta diru geiago bear dau bere etxea ta berebilla ordaintzeko, bere jolasbideak beste batzukdira.

* Eta biziera barri onek erlejiñoa bizitzea be aldatu egiten dau:

Fedearen lekuan jakingaiak, itxaropenaren lekuan ziurtasuna, anaitasunaren lekuan norberekeria eta Jaungoikoaren lekuan tramankuluak eta aurrerapena ipinten dira.

Antxiñakoa dana alboratu egiten da: oiturak eta ekanduak. Beti barritasuna biliatzen da; oikunen azkenengo deadarra eta abesiari barrien abestiak. *Orreian* ba-diruri erlejiño-bideak *gailzen cioazeia ("aititaren gauzak* dira orreik"), fedea ez da ezertarako bear ("ez dago beste egirik jakingaiak agertzen dabena baiño"), Jaungoikoa gure munduarentzat it egin da (eta gizona dago lenengo lekuan). Gizonak bere burua iñoz baino geiago ikusten dau kondairaren lenengo egille lez e!a ori orrelan izatea nai dau. Ezarten jakon araurik ez dau onartzen, eta ori orrelan agiri da gizartze aundian naiz gizarte txikia dan sendian.

* Pentsaera ta bizierearen aldakuntza oneik gai dira 1[9] zatian zeaztu doguzan agerbideak azaltzeko eta 2n. zatian ber-ikusi doguzan jokabideen errazioak agertzeko.

Kristiñau izatea antxiñako gauza lez artzen da, sinisten dauana antziñakoada.

## 4. Eriejiñoa "bai" naiz "ez" bardin izatea

* Esan dogun orretatik datorren ondonik aundiena bear ba"da, dana bardin izatea da, erlejiño-arlorako oztasuna. Garrantzi aundiko ondorena da au eta gutariko askori ikututen dautso, orregaitik begiratze berezi bat bear dauala ustedogu.

* Erlejiño-arloan bata naiz bestea bardin izan dautsoenak beti izan dira. Bardin izate ori ez ba, gauza barria (naizta aspaldion orreri izen barria emon: igeskeria edo "pasotismo"). Baiña bardin *izatea* gaur *azatpena* egiteko *errazoi* barriakaz dator:

- gauzaiburuz arduralarregia(gauza-zaletasuna,oikerak, etaabar).

- galduta eta nora-ezean geure buruak ikustea (gizarte kristiñautik' sekularizaura igaro gara, baserri giroko bizieratik uri-girokora, trabebide aurreko gizartetik trebebidekora).

Errazoi oneik indar aundia dauke gaurko gizonarentzat eta onek ez dau sinisten Jaungoikoa, Jaungoikoak ez dau arduratzen, beronegandik urrin bizi da, beste mundu baten, beste ardurabatzukaz.

* Dana bardin izateko jokabide onek ikutu berezia dauka gazteengan:

Ainbat urte dira hyppiak agertu zirala, langintza-gizartea alboratzen eta bizi-era barri bat billatzen.

Gaur igeskeria, pasotismoa, agertu da, beraren ardurik-eza zuritzeko sarritan, ardurarik-eza eta alegiñik-eza zelan edo alan ontzak agertzeko.

Beste batzuk droga-bidera sartzen dira, beste mundura joan-etorria egiteko lez, gaurko mundua ontzak artzen ez dabelako eta au aldatzeko indar barik euren buruak ikusten dabezelako.

Asko dira euren norberekeri-barruan sartu eta beste ardura barik geratzen diranak eta milla bidar entzun doguzan olako esaldiak esaten dabez: "naikoa da", "beti bat", "beti zeure gauzak", "ala, ala, beste zerbait", joadi joadi.

* Dana dala, ez da gauza bat erlejiñoarako dana bardin izatea, edo fedearlokoa, eta erlejiño-arloko egiteetarako oztasuna. Aspaldiko itaunketak, sakon eta zeatz egiñak, auxe agertzen dabe: Gaurko gizona, erlejiño-egiteetarako otza izan arren oiñarriko galderai buruz arduratuta dagoala eta bere burua beti lez erlejiñotsu ikusten dauala.

5. Gorantza uger egiten

Berebildunak sarritan ikusten dau bere burua bide zabalean berebil-artean geldituta, eroapena galduta, bere kirioak sutan dauzaia: Galgea emon, lenengoan asi, amar neurki aurrera egin, atzera galgea; oztopo-saillea geroago ta aundiagoa, ezin jazan... Bat-batean albotik urleten dau motordun gazte batek bidearen ertzetik naiz erditik; eta an doa lenengoaren ondora gero estutasun barik aurrera jarraitzeko.

* Orixe jazoten da aztertzen dogun gizarte onetan be. Aurrerapenak berak geldit2en dau gizartea. Asko dira gauza-zalekeriaz samaraiño dagozenak eta urietako kutsaduraz naikoa egin dabenak, ez dau aselzen gauza-zalekeriak, ez azkenengo etorri dan edari barriak. Beste biziera bat nai leukee, ez drogeak *bulizaluia,* fedeak *arg'iiuia* baiño. Orduan besteen arteiik urten egiten dira motordun gaztearen antzera eta an doaz erabagi sendoaz.

* Gaur be ba-dago2 gure artean fedearen testigantzea eskintzen dabenak, eta bide orretara jantetza aundiak daroezenak, sinistearen pozak *eta* alaitasunak eraginda.

Kalkuta'ko Teresa, India'ko mugetatik kanpora entzuteduna, Nobel-saria irabazi arte Kristo'ren Mezua munduan zabaidu dauana.

Taize'ko lekaideak, mundu guztiko ainbeste milla gazteri deia eginda kristiñau-anaitasunaren poza biziten dabenak.

Lech VValesa, kristiñau-giroko !angi((e-bide baten buru *dalako* ainbestetan espetxeratua.

"Jesus'en eragiña" derixtoen Ipar-Ameriketako gazteak mundu guztian.

Eta gure artetik joan jakuzan *XXUl* Joan, Luther King. *ianza* de Vasto, Oskar Romero, au Salvador'en il eben Kristo'ren bakea iragarri ebalako.

* Emen gure urietan eta errietan, zarata aundi barik ba-dagoz taldeak. gazteenak natz nagusienak, euren tede kristiñaua biziten eta zelan edo alan beste batzukana zabailzen.

* Ezin ukatu leiken gauzea da XX gizaldi onen azkenengo irurenean. Jesus gaurko biurtu dala barriro, Jesus'ek beragana ekarteko indarra daukala,

**beli lez eta aldiko oikerak gogoan izan barik. Eta ez aurka jarten zan Jesus, bai urrekoa, laguna, alaia dan Jesus be. Askorentzat, batez be gazteentzat, Jesus da euren galderen erantzuna, bizitzearei buruz itaunak** egiten dabezenean, **eta gazte oneik euren bizitzak bideratzeko Jesus'ek** agertu eban bizitzearen norabidea artzen **dabe.**

## EGIN GEINKENA

### Barriak alkarrarl emotea

- **Ikasle bakoitxak orrialde baten idatzi begi erlejifio-erakundeai buruz** berak dakiana: Gazteen **ekintza-bideak,** langilleenak, **Karitas,** Unesko.

- **Gero, ikas-gelan, batu diran barri guztiak bateratu eta irakasleak osotu.**

- **Ortikasita,** eztabatzeaeginlei.

### Itaunkeiea...

- Izen barik **eta arin egiña izango da, ikasleen gelan bertan,** ikasleak naiz irakasleak naiz **alkar-lana eginda gertatu leikee. itaun lez ineik eskintzen doguz:**

- **Zein da nik Jaungoikoari buruz daukadan eritxia?**

- ZerpentsatendotnikJesus'eriburuz?

- **Zer da Eleizan** geien gustatzen jatena?

- **Zer** da eleizan gitzien gustatzen jatena?

- Gure gizartea **ba-da Kristinaua?** Zertan?

- **Itaunketea banandu ta labur erantzun danean, alkartu egiten dira** erantzunak, bardiñak leku baten **ipifi'rta.**

Batu...

Sarritan erabilten diran esaldiak eta jenteak erlejiñoari buruz daukazan egoerak ageruendabezenak.

Billatu...

Astean, illean eta urtean zenbat diru gastatzen dogun. Orretarako bakoitxak orrialde baten idazten dau *aslean* zenbat diru artzen *eta gastaizen* dauan: Orriaideak batu eta atera guztizkoa. Ori 4'gaz bidartu ezkero, illekoa ateraten da eta au 12'gaz bidartu ezkero urtekoa. Ortik atera astean bakoitzak, batez-beste, zenbat gastatzen dauan. Guztiz astean gastatzen dana ikasleen zenbakiazzatitu.

Erantzun...

Zertarako erabilten dogu gazteok gure dirua? Atera erantzunak gai onegaz dauan zer ikusia. Bide bat: Bakoitxak zer erosten dauan, axe maite dau, axe da bizitzako guraria, gustaten jakona).

Zer dira...

Aurre eritxiak? Esan geure ta besteen aurre-eritxi batzuk. Zer agertzen dabe? Esan berbak baiño esangura sakonagoa dauken esaldiak (1* zatiari begira). Zer dira jokabideak? Esan gure sendiaren jokabideak, gure lagunenak, ikastetxearenak.gizartearenak, 2n. zatiakontuandala,

Jakin...

Hyppie'en ekintza zer dan, noz asi zan, non, zer nai dauan.

Antzerak eta aldeak...

Hyppie'en eta pasota edo igestarien artean.

Zergaitik...

Gazte askok drogea artzen dau? Zein da nire eritxia drogai buruz? (Al dala izen bako erantzunak).

Jakin...

Nor izan zan Juan XXIII eta zer egin eban. Nor zan Luther King eta zer egineban.

'5*T ~*W* W

## III. GAIA

### JESUS GURl AGERTZEKO ERAK

(JesukristoVen irudia: Urteen joanean izan diran irudien aztcvketea)

Kristo kurutzean, Vetazquez'ena.

Gai onetan egingo doguna...

* Gizonok Jesus iruditu dogun erak urretik ikusi.
* Era ezbardin oneik aidi ta jakintza bakoitxeko jak'ntzaren ondorena dirala geienbat ulertu.
* Jesus agertzen dogun bakoitxean, guk bera ulertzeko daukagun eta aldi bakoitxak orretarako daukan erea artzen dogula jakin.

ZERGAITIK ORt...

* Jesus ez da mundo onegaz eta gizonakaz zer-ikusink ez daukon norbait.
* Munduak eta gizonak ezagutu ta agertu egiten dabe.

Lenengo kristiñauen aidiko
Ikitrra, ariaiñak eta amgura.

Libia'rren illobia
El Louvre. Paris'en

Arrio'tarren uguztegiko erpiña.
V gizaldiaren azkeneko *zati-ian*
Bizantzio'tarra.

Knsto mundo-gaiñean
VI gizaldiko zati-lan gizantziotarra.

Kristo'ren illobiratzea.
Lrrusia'tarren *ikonoa.*
Tetriakov'en marrazkitegian.
Moscu'n

1. Zergaitik?

* Erti-lana, edozein erti-lan, ez da, beste barik, egin eben gizonen bizitzearen agerpena; euren aldiaren ondorena be ba-da agerpen ori, Eta ori orrelan dalako, edozein erti-giroko agerpen ezin ulertu leike agerpen ori sortu eban aldia ta gizartea zeatz begien aurrean euki barik. Erti-lanak luzeak eta garrantzi auodikoak diranean be. ezin ulertu leikez aldi batzuk zelako erti-lanak egin ebezan jakin barik.

Ulertu ete leiz Goia'ren marrazkiak, esaterako, XIX gizaldiko España zelakoa zan jakin barik? Edo ulertu ere lei gure XIX gizaldia Goia'ren marrazkiak ulertu barik? Ulertu ete lei ondo Euskalerria Arrue'ren lanak ezagutu barik edo Arrue bera euskalduna dala jakin barik?

Eta erti-lanetara sartu garan ezkero, erti-giroko agerpenen bidetik gure kondaira arin-arin aztertzen dogula, urreratu gaitezan Jesus-egana, eta zelan agertua ta iruditua izan dan ikusi. Garbi-garbi esateko, berbakaz baiño errezago ulertu geinke orrelan aldi bakoitxean Jesus'eri buruz zer pentsau dan. Jesus zelan bizi izan dan, Jesus'egandik aldi bakoitxak zer eskatu dauan,

**2.- Irudirik antxiñakoenak**

* Kristiñautasunak, Erroma ta Latio'tarren artean irudiz inguratuta asi zan ezkero, ez eban izan lotsarik irudietara urreratzeko, naizta beti kontuan euki irudiak berez agertu-eziña dan gauza bat personai agertzeko bidea zirala.

* Kristiñauak izan eben lenengo erti-bideari **"pdeokristiano"** edo antxiñako kristiñauena esaten jako eta aurrean eukazan sinistebakoen irudiak erabilliz asi zan, eurakaz zan bizi be-ta, **baiña euren esangurea** aldatuta. Antzak eta gaiak jarraitu egiten dabe olako gauzak bat-batean ezin asmau izaten diralako eta asmau arren beulertu-eziñak izango ziralako jentearentzat; baiña esangurea bai aldatu zan eta irudi orreik agertzen ebena be bai. Eta beste biderik aurkitzen ez ebenean, kristiñauak euren fedea agertzeko ezaugarriak erabilten

dabez. Esate bateiak. artzain onaten irudia agertzen da. baina klasiku-tankerako agerkeiakaz. ezaugarriak (arraiña. leoia. errege-oillarra. aingerua ta oiakoak) eta ikurrak be bai onein bidez fedea agertu ta ezkutatu batera egiten dala.

* **Milan'go** errege-aginduaren ondoren, Eleizeak bere zeregiña agirian beteteko erea izan eban eta lur-zuloetatik urten egin eban. Orduan erti-lanak benetakotasuna artzen dabe; esate baterako Kristo'ren kurutzeratzea bera asieran zearbidez ezaugarritu zan (bildots bat kurutze-barrenean), eta gero asten da kurutzea non-nai agertzen, baiña Jesus barik (kristiñauak ezin ikusi ebela esan lei Jesus kurutzean iltzaille bat ba-leiteke lez) eta V gizaldian agertu ziran Jesus Kurutzean agertzen daben lenengo irudiak, naizta oraindiño dan lez ala apainduta agertu zalantzan egon.

Konstantinopolis'en izan zan lenengo Batzar Nagusia izan ondoren 692 urtean, ertilariai Jesus kurutzetuaren irudia dan lakoa agertzeko agindua emon jaken, monofisiten aurka jokatzeko, oneik Jesus'en nekeak, berau Jaungoikoa zalako, itxurazkoa baiño ez zirala izan esaten eben. Ara zelan ertiak Eleizaren barruan izandako eztabaiden arazoa be agertzen dauan.

Basatiak urreratu eta Sartaldeko Erromatar-Agintaritza ondatu zanean, Sortaldeko Bizantzio'k gizaldietan izan eban Bizantzio'tarra esaten jakon erti-tankerea eta onek Jaungoiko-Aunditasuna agertzen eban eta bere aurrerapidea izan eban kristiñauen agerpenetan, sortaldean bere ikutua izan ebana (Eslavia'tarren irudi edo ikonoena).

3.- Tankera erromanikuaren afdia,

* Urriñeko erdi-aroan apurka-apurka mundua sagaratzearen kondaira-bidea asten da: Mundua Jaungoikoaren ikuspegitik begiratzen da eta Jaungoikoa da munduaren ardatza jokabide onentzat. Agintari Nagusia Jaungoikoak aukeratzen dau eta berak agintaritzan sendotu, Eieizea bera be laterri bat da, Eleizea ta Laterria bat-batera doaz, feudo-bidea artu da giza-maillak ondo banatzen dira|a, eta jerarki-maillak dauzala gizartera sartzen da eta batera Jaungoikoa

urrindu egiten da bildurra sartzen dauan feudo-buru baten antzera, orrelan gogo-alderdiak garrantzi ta balio aundia artzen dau gizonaren gorputz-bideko arazoen aurrean.

Alguztidun erromanikoa. XII gizaldian.
Tahull'eko Klemente deunarena. Lerida'n

* Ez jakintasunaren eta abadebakoen a)di onetan, erti-arloak irakasbideko beste zeregin bai euki eban: Arrizko katekesi-liburua zan eta antxe irakurten eban erriak liburuetan berak ezin irakurri eta beste iñok be irakurten ez eutsona.

* Eta orrexegaitik, irudia gogo-girora sartzen da. Jaungoikotasuna urrindu egiten da gizonakandik etxeko lez agertu ez daiten (Orixe zan feudu-buruak bere morroiakaz eukan jokabidea). Pekatari-kontzientzia azpi-marratzen da eta orregaz batera kondenatua izateko bildurra eta biurtzearen bear-izana. Jaungoikoa Alguztidun eta munduko jaun lez agertzen da (Pantokrator gerkeraz) burua inguratzen dauan makobii luzenga baten barruan (mandorla deritxoe oneri). Kristo'ren kurutzeratzea agertzen danean, aundikiro agertzen da goitik berakoa ta beso-estalkiduna dan jantziagaz, oiñak banaka josita, gorputza artez, besoak alboetara zabal eta burestunagaz: Kristo Aundia eta miñik ez daukana da.

## 4,- Gotiku-tankerearen aldia

* Urriñako Erdi-Arotik urreko Erdi-Aroa sortu zan \ez eta Feudu-buruen giroa erregetzaren ekarle dan lez, erromaniku-tankeratik gotiku-tankerea sortzen da, Frantzia'tik asi eta Europa osoar» euren trebebide zeatzagaz Zister'eko Lekaideak zabaldua.

Jesus Irakaslea. XIII gizaldikoa
Amiens'eko Gotzain-Eleizan.

* Aldi onetan izadiari begira gizonen ardurea geitu egiten da eta Asis'eko Frantzisko da ardura onen ordezkaririk onena. izadia-

ganako ardura onek eraginda, ertilariak alegiña eg'tten dau bere agei penak aurrean ikusten dauanagaz batera joan daitezan eta bere lanak giza-arloko agerpenak izan daitezan eta ori lortu be egiten dau agerbideak eskuratzen dauzan neurrian. Frantia'ko ta España'ko irudi batzuk, argiaren bideetan, eleizpeetan eta ate-ederretan ezkutatuta edo ipiñita, apal-apal, lan ederrak dira, Erti-lan klasikuen edo Migel Angel'en lanen maillakoak, esaterako, baiña oneik, gotiku-tankerakoak. Jaungoikoa goratzeko egiñak dira.

* Aldi onetako Jesus ez da Jaungoiko aundia: batez be Gizonaren Semea da, bere mezuagaz mundurik rnundu doan Jesus Maisua. Eta kurutzeratuta agertzen danean, bere min guztiagaz agertzen jaku: Untza bakar batek zulatzen dauz bere oin biak eta orregaitik oiñak ez dagoz alkarren parean erromanikuen artean egozan lez, oiñak makurtu egiten dira eta gorputza bere astuntasun guztiagaz beso urratuetatik eskegita dago.

Gizonengandik ur dagoan Jesus da, Jesus bizia, munduko kondairareri ardatza dana eta orrelantxe agertzen dabe orrelantxe ulertu ta maitatzen ebelako: Erti gotikuak gizonak Jaungoikoaganaiño urreratzen eta eroaten ebazan.

**5.- Bir-jaiotza** eta Gizabidetasuna

* Erdi-Aroko mundua ondo orekatua zan, gauza bakoitxa bere lekuan egoan, baiña ori amaitu da. Jazokizun barriak eta mundu-aurkitze barriak lengo oiñarriari eragin egin eutsoen eta etxea dardaraka asi zan, jauskor agertzen da. eta mundu barri bat sortuko dala ikusten zan: Orixe da Bir-jaiotzako mundua.

* Izan be, Kolon'ek mundu onen barruan beste mundu bat aurkitu dau eta ordutik aurrera mundu au ez da lengoa. Gaiñera, turkoak Konstantinopolis eskuratu dabe eta ikaraz dagon mundu kristiñauari zemaika dagoz. Eta geiago, lurra ez dala munduaren ardatza ikusi dabe gizonak. Lurra eguzkiaren inguruan dabillela eta bere buruari biraka be bai. Erromako aginterritik aske diran laterriak sortzen dira. Len itxia izan dan ekonomia azoka zabal eta domu-zale biurtzen da. Eta orain ez dauka baliorik antxiñako filo-

sofi-ereduak, ez eta elerti-ereduak be (lengoak gaiñera ulertu-eziñeko iatiñez idatzita egozan, ez jenteak darabillen izkuntza bizian), eta orain eredu barriai zabaltzen jake bidea.

* Bat-batean, gizonak adorea artzen dau eta aundi egiten da; Berau da Jaungoikoaren lanik ederrena, Izadiaren ardatza. Gizonaren aunditze au ez da, berez, Jaungoikoa alboratzeko, Gri ez zan sekula egin bir-jaiotzaren giroan, bestetara baiño: Orain Jaungoikoa obea dala agertzen da, gizona dan lako izaki duiña egin daualako.

* Gizona dan lako izaki eder bat mundu barri onetan, edertasunagaz ageitu bear da. Edertasuna, Edertasunik ederrena, orixe da Bir-Jaiotzak billatzen dauana. Eta aurkitu be egin dau, erromatarren eta greziatarren tankera klasikuetan eta orrein agerbideak artzen dauz erti-lanetan. Orain erti-lana ez da irakasteko, erromanikuan zan lez, ez da gizona Jaungoikoagana eroateko tankera gotikuan lez, edertasuna agertzeko ertia da, elburu lez ertia bera ez daukan ertia, Jaungoiko-gaiak agertu arren, mundu onetako orrnen barruan ori lortzen dauan ertia.

* Erti onetan egille nagusi ez da Jaungoikoa, ez da Jesus bera be, Gizona baino... Ertilaria ez da izenbako norbait, egille lez ikusten dau bere burua. Eta bere gaia, gizona da; Gizonaren gorputza edertasunaren erroale lez agertzen da eta billosik agertzea eguneroko jokabidea. Erlejiño-gaiak ez dira alboratzen, baiña ez dira bakarrak erti-lanetan, eurakaz batera mitoloji-gaiak be agertzen dira. Baiña oneikaz bir-jaiotzako ertilariak, Jaungoikoa egin dauan ludi onetako bizitza onen edertasuna agertzen dau. Erlejiñoa-gaiak artzen dauzanean ertilariak daukan ardurarik aundiena agertze orren edertasuna zan.

Ane Deuna, Andra Maria
ta Umea.

Illobiratze Santua
Tiziano'rena. Louvre'n.

Duke Aundiaren Andra Maria. Rafael'ena
Pitti Iruditegian. Florentzian.

Berbizkundea. Greko'rena. Prado'n.

6.- Barroko-tankerea

Jatsita. Rubens'ena. Anberes'eko Gotzain-Eleizan

* Bir-Jaiotzak egin eban *\ez, jarraUzaiUea be* ba-jako ta, Barroko-tankereak be izadia artzen dau oiñarri lez. Baiña ez dau izadi ederra agertuko, ez amesezko izadia, izadia dan lakoa ikusten alegin-duko da, beronen argi-uneak eta illun-uneak geroago ta urragotik ikusita. Orregaitik tankera onetako erti-lanak edertasunaren amesezko agertzeak baiño geiago dira, barruko griñak eta sentipenak, asmapenak, agertzen dauz. Iñoz ez da egon irudi-ertia elertitik urrago (auxe da, izan be, antzerkigile aundien gizaldia).

* Irudiak garrantzi berezia lortzen dau: Ez da edertasunaren agerle bakarrik, ez da gorputz utsa. Iñoz ez da agertu, ain argi, arimea erti onetan lez: griñak, sentipenak gorputz-eragiñetan agertzen dira, aurpegietan eta egoeretan be bai... Eta irudiak bizkortzen dauzan eragiña agertzen da, ez egokiro, uste bako eran baiño, lerpen bat lez. Buru-argiaren jaungoikoa zan Apolo'k Bir-Jaiotzaren irudia agertzen ba'dau, Barrokoa agertzeko Dionisios litzake ona, berau dalako biziaren jaungoikoa.

* Erlejiño-giroko barruminik aundienak agertzen dira, asketika ta mistika-girokoak. Ez *6a* agertzen irakintzazko mezurik, barruan asmau-erazotea da elburua. España'n izan ziran gizarte ta ekonomi-arloko ondamendiak erlejiño-giroko siniskerak biztu egiten dabez eta erria, ondamendi orrein aurrean, Jaungoikoagana urreratzen *6a* erlejiño-arloan eta, asketika ta mistika-sailleko idazleak agertzen diran lez, barroko-giroan erlejiño arloko ertia sortzen dan: mirariak, martiritzak...

7.- Mundu **sekularizatua**

* Buru-Argikeriak eta Jakinkeriak jakingarrizko ikas-gai barriak sortu ebezan eta oneik aurrera egin ebenean, ondorena Langintzako iraulketea izan zan. Barriro be mundua aldatu egiten da, beste irudi bat emoten dau munduak eta sekularizatuta, Jaungoiko barik, geratzen da: Danak dauko bere azalpena, dana dabil Jaungoiko barik.

Gizonaren gizarte kontzientzia doa sortzen eta gizonak Jaungoikoa-f\ dagokion lekua berak artu nai dau.

* ErtUanak erfejiño-giroa alboratu egiten dabe. Erlejiño-giroa gai bat da. baiña apurka-apurka, gai bakarra izatea itzi egin dau, gizonaren gai bakarra be ez dalako; Klasiku-Barriaren aldian ertia baiño geiago jokabide zuzena ta ederbideak agertzen dira, eta ederbidea gitx/ agertzen ba'da, gitxiago erlejiño-ertia; geroago ta geiago ta sarriago agertzen dira ertibide barriak, gaiak gizona, mundua ta olakoak dirala, ez ainbeste Jaungoikoa ta erlejiñoa, eta oneik ertia gauza berezi lez agertzen dabe, etri-jokotik aldenduta...

* Eta erri-jokoa erti-sailie txikietarako geratzen da. Orrelan erlejiño-gaia be, gitxiago agertzen da erti-lanetan eta beste bide batzuk artzen dauz, esaterako oneraspenak, erri-aurreko agerketak...

Azken-Apariko Sakramentua. Dali'rena,
Laterriaren iruditegian. Washington'en.

## EGIN GEINKENA

### Urteera

— Urteera bat egingo dogu. erti-arloan garrantzizkoa dan erakustetxe edo eieiza batera. Gauza onei begiratu:

Erti-lan bakoitxa noizkoa dan.
Zein jakintza agertzen dauan.
Erti lez zelan egiña dan.

— Begiratu, batez be, erlejiño-giroko erti-lanai. Erti-lan bakoitxean ikasi )en esandakoa^en gaiñera eta beste edozeñetan ikasi bea-r danaren gaiñera, zein dan aldi aretako gizarteak eta ertilariak berak Jaungoikoari buruz Jesus'eri edo erljiñoari buruz, dauan eritxia.

Ikustaldi orretara ingurrazti bat eroan bear da eta oarrak artu.
Ikas-gelan. egindako urteereari buruz alkar-izketea egin.

Ikas-lana

— Ikasle bakoitxak ikas-gelara ekarri begi iauki baten argazkia edo irudi batena, edo beste argazki bat, erti-lanarena izan ez arren, baiña berak Jaungoikoari buruz daukon eritxia agertu dagiala benetan eta argi.

— Ikasle bakoitxak ikas-gelara ekarri begi, eta an azaldu zergaitik aukeratu dauan argazki edo lauki ori (au ez da zertan erti-lan bat izan, ez zuzen-zuzen erlejiño-girokoa be, ezaugarri bat izan leiteke, gosez dagoan ume bat.)

— Bitartean, ikasle talde batek ikaztofean, batera datozen aukerak batzen dauz eta azkenean or agertuko dira ikasleen artean Jaungoikoari buruz dagozan eritxiak.

Ikas-gelan bir-ikasi...

oraintsuko ertiaren kondaira. Ikusi erlejiño-agerpenak eta atera ondorenak.

Taldeetan banatuta...

egin Erti-Kondairari buruz gai onetan egin doguna eta billatu erti-agerbide bakottxaren atzean zer dagoan, baiña elertiaren kondairagaz. (Talde bakoitxak aldi bat artu iei). Ikusi erti-giroan agertzen dan Jaungoiko-eritxia ta elerti-giroan agertzen dana batera doazen ala ez.

Ekarri...

ikasle bakoitxak ikas-gelara Kristo'ren irudia dauken postalak edo laminak, bat naiz geiago, eta esan bakoitxak zer agertzen dauan, berbaz naiz idatziz. Azkenean, ikas-gelan Kristo'ri buruz zer pentsatzen dan laburpena egin.

**Egin** izen-zerrenda bat...

ezagutzen dozuzan oneraspen (debozfñoa)kaz: Etxekoak, ernkoak, Jesus'eri emoten jakozan izenak, Maria'renak, otoitzak, bederatzi-urrenak, eta abar... Bakoitxaren ondoan azaldu iabur agertzen dan erlejiño-burutasuna.

Argibidezko **irudien** ektflsldia **egin...**

Erti-kondairako irakasleagaz batera pentsau ta ikusi gaia irudi orrein bidez.

**Itaundu**...

gurasoai edo nagusi bateri: Nor da Jesus? Idatzi erantzuna eta ekarn ikasgelara. Aztertu erantzunak eta ulertu gure gurasoen gizaldiak, Jesus eurentzat zer dala uste dauan.

Billatu...

eta entzun abestiak, gaurko une onetan dan Jaungoikoari buruzko eritxia agertzen dabenak. Zeintzuk dira eritxi orreik?

**Aztertu**...

Erlejiño-giroko etxegintza eta onek Jaungoikoari buruz eritxia agertzen dauan lez, esan zelan agertzen dauan: Induen eleiza bat, basilika bat, Gotzain-eleiza bat, erromanikoa, naiz gotikoa, bir-jaiotza-giroko eleiza bat, barroko-girokoa, protestanteen eleizatxu bat, klasiku-barri tankerako eleiza bat, oraintsuko giroa dauan eleiza bat.

**Egin...**

)kus-entzun gai bat Erti-Saillekoen laguntzaz.

# IVGAIA

## JESUS, NOZ? NON?

(Jesus bizi izan zan tokia ta aldia)

Tiberiades zingira edo Galilea'ko itxasoa.

Gai onetan egingo doguna...

* Jesus'enlurraldeaezagutu
* Jesus'en lurraldeko biztanleak eta jakintza ezagutu.
* Nazaret'eko Jesus bere lurraldean eta bere aldian ezarri (edo bardin dana, Jesus'en ingurua zein zan jakin) bere obeto ulertzeko

ZERGAITIKori...?

* Ingurua zelakoa izan dan jakin barik iñorezin teikelako ondo ezagutu.

* Munduan izan dan personahk bereziena, al danik ondoen ezagutzea gauza ederra dalako. Jesus dogu persona ori.

• * • • •

Mapa: Palestina Erroma-tarren aldian Hispania, Gahlea, Erri basatiak, Panonia, Italia, Mauritania, Mazedonia, Erroma, Mediterraneo itxasoa, Itxaso Baltza, Sasanitarren Erreiñuak, Eufrates Errekea, Tigris Errekea. Nilo errekea, itxaso gorria, Indiko ilxas-aundia, Erromatarren Aginterriaren mugak...

## 1. Jesus'en Lurraldea

### Izenak

* Beste lurralde batzuk iez, Jesus'enak be ez dau beti izen bardiña euki. Lenengotan Kanaan zan bere izena, bertan kanaandarrak bizi ziralako.

* Palestina be esan jakon gero, filisteok {heberkeraz "pellistin") bizi ziralako.

* Israel'darrak ara eldu ziranean Israel ezarri eutsoen izena eta olantxe esatenjakogaur.

### Garrantzia

Lurralde onek garrantzi aundia euki eban gudetarako, munduko eginte-erririk aundienak bertatik ibilli bear izalen ebelako; Egipto, Asiria, Babilonia ta abar arduraz ibilli ziran lurralde ori menperatzeko.

Baiña sartu gaiten astiroago lurralde onetara; ezagutu dagigun apur bat obeto Jesus'en lurraldea da-ta; orixe bai, eta ez da gitxi.

## 2. Kondaira apur bat

* Iru milla ta zazpireun urle inguru diraia eldu zan Abraan lur onelara. Haran iparraldetik etorren, Abraan'ek zapaldu eban Moria mendia, gero Jerusalen uri biurtuko da.

* Kristo mundura etorri baiño iru gizaldi lenago Israel'darrak Egipto'ren buztarripetik askatu ziran eta Sinai igaro ondoren eurena zan lurraldera etorri be bai. Jerikolik sartu ziran, Jordan ibaia igaro ondoren.

* Kristo etorri-aurreko gizaldiak Israel'entzat guda-gizaldiak izan ziran Gizartea, sarritan jazo dan lez, diruaren eta agintearen egarriak eraginda, erriaren alde jokatu bearrean: politikuak, gudariak etan abade nagusiak ez eban besterik egiten betiko gudaldiak baiño

Knsto'ren aurretiko I gizaldian Ponpeio'k Palestina Erroma'tarren aginte-erriagaz batu eban. Orrelan, Siria eritxon probintziaren zati biurtu zan. Pretore-ordezkoa esaten jakon agintari baten menpean. Palestina'n eta Erroma'n, bietan egoan nagusi izateko egarriak, ia beti sorlzen ebazan gudaldiak.

* Herodes'ek Erroma'n eukazan indarrez baliatuz, aginpidea askuratzea lortu eban. 40n. urtearen azkenetan Senatuak Judea'ko Errege izendatu eban; eta lurralde barriak eskuratu ezkero, bere erreiñua Galilea'tik aurrera zabaltzeko eskubidea ba-eukan. Onen erreiñua izan zan Kristo'ren aurretiko 37n. eta 4n. urteen artean Israel'ek izan eban aldirik ederrena. Lege-giroan erromatarrakaz alkartutako erregea zan, baiña naikoa askatasun eukan bere lurralde-barruan jaurlari izateko. Erriaren zati on batek gorrotoa eutsan euren endakoa ez zalako eta judatarren eleiz-oiturak rtxuraz bete arren, judatar zintzoaezzalako.

* Herodes il zanean, bere erreiñua semeen artean banatu zan.

- Arkeiao'ri Judea, Samaria eta Idumea.

- Herodes Antipas'eri Galilea ta Perea.

- Filipo'h Batanea, Trankonitide ta Perea.

Erroma'tarrak Arkelao kendu egin eben ankerra zalako eta bere ordez Ordezkari Erromatarra ezarri eben eta onek eukan erri-aurreko egokitasuna-ren ardurea, Juda'tarren etxeko gauzen ardurea Sanedrin eritxon Batzordeak eukala.

## 3. Jesus'en iurraldeko lurra

* Gitxi gorabeera baiño ezin leikez zeaztu Palestina'ren mugak: Iparraldean Hermon mendia, egoldean Sinai Basamortua, sartaldean Lur-arte edo Mediterraneo itxasoa eta sortaldean Arabia'ko basamortua.

* Jordan ibaiak Iparraldetik Egoaldera igaroten dau Paiestina osoa. Esan lei ba, lurralde onen bizkar-azurra dala. Baifia jausita lez dagoan bizkar-azurra, lurraren sakon-une aundia dalako {Itxaso illera sartzen da eta au itxasoa baiño 392 neurki berago dago eta lur-azalak dauan sakon-unerik aundiena da).

* Jordan ibaiak Palestina zati bi egiten dau eta orrelan lurralde bi sortzen dira: Sartaldeko Paiestina edo urreko Jordan-aldea eta Sonaldeko Palestina edo urriñeko Jordan-aldea.

* Urreko Jordan-aldian ez aiztu: Lur-arteko itxas-ertza (au geiena filisteoen eskuetan egoan); Sefela deritxon laun-aldea (iurgintzarako tokirik egoktena) eta mendi-kate bat (Au Hermon'en asten da eta Galilean Esdrelon leun-unea izan ondoren Samarialsk eta Judealik Hebron mendira eltzen da).

* Lurraldea dana be txikia da; 240n. daukoz luze eta 140'tik 40 Km.'ra zabal; 30.000 Km. lautu inguru dira guztiz eta dana be Castellon, Valencia ta Alicante batera diran beste inguru da.

Baiña lurralde txiki, luze eta estu au ez da leku guztietan bardiña, ezbardintasun aundiduna baifio: Geienetan giro epeia dauka Jerusalen'en, mendi-gaiñeetan 45$^{p}$'tik-30'ra aidatzen da udatik negura; Hermon mendian urte guztian dago edurra, baiña juda'ko basamortuan kizkalzeko beroa dago; ba-dira Esdrelon eta Sefela'ren antzeko leun-une emonkonrat, baiña Jordan'en sakon-inguruan iliargi-giroko ikuspegia agiri da; itxas-illeko urak gaziak eta sulfurodunak dira, baina Jeriko'n, urrin ez egon arren, landarak errez sortzen dira.

* Mediterraneo-giroa daukan lurralde onetan (uda legorra ta negu euritsua daukazana) landarak urriak dira. Ori taguzti be, Mediterraneo'aren eta Arabia'ko basamortuaren bitartean dagoalako, ikusten diran landara-motak, gitxi izan arren askotarikoak dira: Jordan ibaiaren ertzetan landaredi bizia dago; Jeriko'n palma-ondoak, orregaitik esaten jako paimondoen uria; orio, iko, almendra-landarak, lurralde legorretako landara guztiak, edonon aurkitzen dira; garia ta garagarra legor-tokietan; ifioz, batez be egoaldean, matsondoak be ikusten dira.

* Garraio-bide lez astoa ta ganbelua erabilten dira. Idiak, eta iñoz astoak be bai. errotarri aundiak erabilten ebezan. Auntz eta ardi-taldeak aukera ona ziran bizibide lez, naizta aberastuteko beste emon ez, baserritarrentzat. Sugeak eta muzkerrak ugari ikusten ziran eta noizean bein matxinoen laiñoak be etorten ziran Jondan-alde urrinera. Arraintzarako aukerarik ez egoan Jenesare! edo Tiberiades etio Galilea'ko ixasoa esaten jakon lekuan baiño...

* Lurralde onetan gogoratu bear doguz, baita, Jesus'egaz zer-ikusia izan eben uri batzuk, batez be Belen Jesus'en jaiotza-erria. Eta Bizitzarik geiena igaro eban lekua izan zan Nazaret. Galilea'ko Itxas-ertzean egoan

Kalarnaun. emen asi eban bere agiriko bizitza eta aldi luze baten ementxe bizi izan zan. Sarritan ikertu eban bere ehotzea ikusi eban Jerusalen .

4. Jesus'en errIkIdeak: Onein ekonomI-egoerea.

Jesus'en lurraldea txiroa be ba-zan eta, errikideak be txirotasunean bizi ziran, eta txirotasun au aundiago biurtzen eben erromatarrai ordaindu bear jakezan zerga bildurgarrjak.

* Ifior ez egoan aberatsik lurzati aundien jabe ziranak izan ezik edo artalde aundien jabe ziranak (Lur-zatiak diru gitxiren truke erosten ziran).

* Ekonomi-giroan goiko maillakoak ziran, baita, zerga-batzailleak, batez be onein artean buru ziranak. Oneik lar kobratzen eban, legez kobratzekoa baifiogeiago.

* Urrengo salerosle aundiak elozan eta oneik orduko turismoagaz aberastuten ziran geien: Bidez-bide Jerusalen'era etorten ziranakaz.

Azkenez, baifia lenengo maillan bear ba'da, aberatsak ziran abadetzako leifiargiak, euren ardurapean egoalako zintzoak jauretxean eskintzen ebezan oparietako abereak saltzea.

Erdi-maillakoak ziran salerosleak, esku-langillak eta bidelarietzat *oslatuak eukezanak.*

' Baina otseiñak edo jopuak eta langilleak txirotasuna baifio beerago bizi ziran, bizitza errukarrian. Errukarri izatea eta garbikuzirik-eza ziran gaiso askoren iturri. Bideetan eta urien sarbideelan sarritan ikusten ziran eskekoak, geienak ezinduak, itsuak, elbarrituak, lepradunak...

LURRARTE-iTXASOA, Fenizia, Libano mendia, Tiro, Kafarnaun, Kana, Tiberiades itxasoa, Galilea, Nazaret, Tabor Mendia, Samaria, Jordan ibaia, Jordan-alde urriña, Jeriko, Jerusalen, Belen, Perea, Judea, Itxaso-illa, Idumea, Paiestina Jesus'en aidian.

5. **Jeus'en** errikldeak: Euren erlejiñoa

* Juda'tarren erlejiñoaren oiñarria, legea zan. Legea betetea zan erlejiñoaren muiña. Legea izatez Moises'en amar aginduak ziran, baiña erlejiño ta erri-bizitzea bideratzeko arau asko gaiñeratu jakezan amar agmdu orrei.

* Jerusalen'en jauretxea edo tenplua egoan, Israel osoarentzat otoitz-etxea, politika ta erlejiño-giroko bizitza osoaren ardatza. Salomon'ek egm eban lenengo tenplua, baiña Nabukonodosor'ek apurtu eban eta Juda'tarrak Babilonia'ko erbeste-alditik etorri ziranean barriro egin eben. Jesus mundura etorri baiño lentxuago Herodes'ek aundikiro barriztatu eban. Jauretxean baiflo ez ziran egiten eskintzak eta eskintza oneik ziran jaun-gurtzako ekintzarik gurenak. Abadeak eta Lebitarrak euren txandak eukezan" Jauretxean lana egiteko.

* Erririk gaienetan Sinagoga bat egoan. Bigarren maillako gurtza-etxeak ziran oneik. Emen egiten ziran zapatuetako batzarrak irakurgaiak entzun eta Idazti Deunaren azalpenak egiteko. Olako ekinaldiakaz, agindua zan Mesias'en itxaroteko adorea artzen eban erriak.

Jauretxea, Jerusalen'en dan antz-frudian Ikusten dan **lez.**

* israel erriak garrantzi aundia emoten eutsen bere jaiai eta jaiak erlijiño-kutsuz bete beteak ziran eta euren bidez jakin geinke gaur erlejiñoa zelakoa zan:

- Zapatua asteroko jaia zan. Jaungoikoak mundua egin ebanean artu eban atsedena gogoratzen eban. Zapatuko atsedena estu artzen eben eta auxe izaten zan Juda'tarren lenengo legea. Aldien joanean, zapatuetan egiteko debekatuak ziran lanen zerrendea egin zan

- **Pazkoa,** udabarriko jaia, jairik aundiena. Moises'en aldian egin zan Egiptotik urteera gogoratzen zan egun onetan. Sei egunean irauten eban jaiak. Jai onetan egitekorik aundiena pazko-aparia zan eta apan onetan egitekortk aundiena pazko-bildotsa zutunik eta opil asetubakoak jatea zan, orrelan Egipto'tik arin urten bear izan zala eta ez zala izan ogiak asetzeko astirikgogoratzenzan.

Pentekosies pa/koa igaro eta berrogei ta amargarren egunean uzta-batzearen |aia zan eta egun orretan Sinai Mendian Jaunagaz egindako alkartasuna edo ituna gogoratzen eban

- Txabola-jala. uda-goienean ospatzen zan eta mats-batzearen jaia zan. Txaboletan egiten eben lo basamortuan igaro ebezan berrogei urleak gogoratuz.

- Beste jai batzuk Urte Barri eta Parkamen-Eskintzarenak ziran, azkenengo onetan abadea tokirik santuenera sartzen zan eta urte guztian baten bakarrik esaten zan Jaunaren izena esaten eban; basamortuan auntza izten eben aske eta onen gainean ezarten ziran erri guztiaren pekatuak Ebertarren izkuntzaz Yom Kippur zan onen izena eta izen ori arlu dau oraintsu Israefdarren eta Egipto'tarren artean izandako guda batek be.

Pazkoa, Pentekostes eta Txabola-jaia ziran "ibiltarien jaiak" eta jai onelk ospatzeko bearrezkoa zan Jerusalen'era joatea.

## 6. Jesus'en errlkideak: Potitika ta erlejiño-glroko taldeak.

### Fariseoak

Izen orrek "banatuak" esan gura dau eta eurak dira ebanjelioan geien aitalzen diranak. Euren buruak "zuzen", estu eta lege-batetzaille lez eukezan, iege idatzia ta gozko erau artuak betetan ebezelako. Lege-betetzaille estuak izateak biotz-gogor biurtu ebazan, batez be besteak epaitzeko orduan. Orrexegaitik agertu ziran geien Jesus'en arerio lez eta Jesus'ek be gogor egiten eutsen berba (Mt. 23). Bear ba'da iñoz ez ziran eldu amar milla baino geiago izatera, baifia indar aundia izan eben.

### Zelotak

Oneik gogo bizia agertzen eben benetan judatarren girokoak ziran gauzen alde jokatzen. Orregaitik eutsen gorrotoa erromatarrai eta gogorkeri-bidez izanda be, euren aurka agertzen ziran. Kristo'ren ondorengo 70n. urtean Jerusalen apurtua izan arte, Erromaren aurkako iraultzailleaketa izukeri-zaleak ziran. Erroma-tarrai zergaz ordaintzerik nai ez ebelako, Jesus be jokabide orretara sartzea nai eban.

## Saduzeoak

**Sadoc'etik dator onein izena**. Sadoc **abade-sendi bateko buru** ospetsua **izan zan Fariseoak be-mai)lako ta erdi-maillako sendietakoak ziran, baifia saduzeoak, leiñargietakoak** eta **geienetan abade-sendietakoak ziran. Jakintza** zeatza **eta atzerritarren ikutu aundiduna zan aurena. Erroma'gaz baterako lana** egiten **eben, orrelan euren zer-galduak obeto zaintzen ebezelako. Erlejiño-giroan antxiñako oituren lagunak ziran eta edozelako barriztatzeak baztertu** egiten ebezan **eta ez eben onartzen agoz antxiñatik etorritako oiturarik (orregaitik, ez ziran ondo konpontzen fariseoakaz). Gauza-zaleak ziran, ez** eben **sinisten ezelako espiriturik egoanik eta berbizkunderik be ez. Auxe izan zan, bakarra izan ez arren, Jesus'en aurka jarteko zio bat. Ez jaken** atsegin Jesus'en **biziera txjroa be eta Jesus'ek erromatarren** aurreen agertzen eban askatasuna be ez eben ontzak artzen.

## Idazlariak

**Fariseoakaz artu-emon andia euken oneik eta** euren zeregma Legea **zuzen ulertu** eta **egokiro azaltzea** zan, Abadeak ez ziranen **artean oneik ziran buruz argienak. Jesus'eri egiten eutsoezan itaunik geienak olakoak ziran**. **Zein da egindu guztietan aundiena?**.

## Esenloak

Oneik ez dira **aitatzen ebanjelioan. Oraintsu,** I947n. urtea **ezkero,** ezagutzen doguz obeto, **Itxas-Illaren ondoan, Kumran'en aurkitu diran agirietatik. Gogo-bizitzea barriztatzeko jokabidean egozan eta** abade-giroan egoan ustelkeriaren **aurka jokatzeko sortu ziran. Kristo'ren aurretiko IV gizalditik asita bizi ziran Kumran'en, erdi lekaide eta erdi eremutar lez biziten zirala. Jesus'ek ez eban izan eurakaz artu-emon zuzenik, baiña ez zan eurakandik urrin bizi** izan basa-mortura otoitz egitera joan zanean. **Bear** ba'da, Bateatzaillea eta onen taldeko lenengo ikasleak giroonetakoak ziran.

## Kerodestarrak

Talde **au politikua zan erlejiño-girokoa baiño geiago. Herodes** Erregea ren lagunak ziran **eta euren ustez Herodes Erromatarren menpetik askatula izanbearzanErrege**.

## Senedrina edo Batzordea

Au Israel'go Senadua zan. Irirugeita amar bazkide ziran, Buru eban Abade Nagusia kontauta. Eskubide osoa euken: Legeak egitekoa, jaurketarako eta epaitzekoa. Erromatarren menpera /ausi ziranetik eskubide gitxiago euken, esaterako eriotzarako epaia emotea erromatarren eskubidea zan, ez eurena. Orregaitik, Jesus'eri eriotzarako epaia emon ondoren, Pilato'gana eroan bear izan eben, au erromatarren jaurlaria zalako epai ori sendotu eta bete egian.

## EGIN DAIKEGUNA

### Ipuln-sariketea

Ekintza au ikastaldiaren barruan naiz lan-aldian egin lei. Egin lei baita, ikastaldi baten naiz naiz ikastaldi bi artuta, esaterako baten azkena te bestearen asierea artuta. Ekitaldi pozgarria izan daiteke. Orretarako:

- Gutzion artean gai bat edo batzuk artzen doguz (esaterako "Jesus'en lurraldean ibillaldi bat", "Gaurko mutil bat Jesus'en denporako Nazaret'en", Judea'ko baserritar baten burutasunen minutu bat idatzi", edo antzeko zerbait

- Ipuin bakoitxak izan daiken luzerarik aundiena ta txikiena ondo zeaztu.

  idazteko zenbat denpora emoten dan be argi esan (ikastaldian izan azkero amabost minututik ogei ta amarrera).

- Ikasie batzuk eta irakasieak osotuko daben maiari emon lanak (beste irakasle bateri be deia egin leio, esaterako elertiaren irakasieari). Mai oneik ipuifiikonenakzenintzukdiran esangodau (irutik bostera).

- Lan aurkeratuak ikasgelan irakurriko dira.

- Lan orrei buruz berba egiten da eta autarkiak emon eztabaidea egin ondoren onena aurkeratzeko.

## Ekintza au beteteko

- Lau edo seik osotzen dabezan taldeak egin. Taide bakoitxak berbaduna aukeratzen dau **(Kontuz** gero, ez **buru izango dan bat.** abosdun bat baiño) eta onek ikastaldian taldearen izenean egingo dau berba.

- **Talde bakoitxak billaketa txiki** bat eratzen dau, **Jesus'en** lurraldeko gairen bateri buruz. Alkar osotzeko ta gauza bardiñak ez esateko, aurretiaz gaiak banatukodoguz eta takte bakoitxari bere gaia ezarri.

- **Une** onetatik talde bakoitxak **bere eratze-lana bear dau** gaia bideratzeko Kondaira-liburuak aukeratu, Jeografiakoak, Literaturakoak, Atlasak, aldizkariak, ostera-etxeak, liburutegiak, eta abar...

- Barriak **batu** ondoren, **talde bakoitxak bere batzarra egiten** dau, ikasgelan naiz kanpoan, **barri orreik** bateratzeko. Eratze au batek **edo bik** egin bear leukee, gero besteak onartu, osotu, geitu, kendu, aldatu, baifia **oinarri** batdaukela.

- **Lanak** ikastaldian irakurten dira. beste taldeak talde esalariari itaunak egitendautsez.

## Marratze-lana...

**Izenik ipiñi** barik Israel'go mapa bat egin eta an izendatu lurraldeak, **uriak,** mugak, eta abar... Lan au banaka naiz taldeka egin **lei.**

## Jazoklzunak Irakurri...

Jesus fariseoakaz egoanekoa **(Lk. 11,37-42) edo** Saduzeoakaz **(Mt. 22,23-33)** edo Herodes'tarrakaz (Mt. **22,16-22). Irakurri textu oneik** eta esan persona orreik zergaitik jokatzen daben orrelan.

Gogoratu...

Nortzukziran fanseoak, saduzeoak, Herodes-tarrak, idazlanak, Batzordea.

Irakurri...

Lk. 4,16-19 eta esan sinagogea zer zan eta bertan zer egiten eben.

**Ikasi...**

Fariseoaren edo saduzeoaren edo Herodes-tarraren edo idazlanaren edo abadearen edo esenioaren edo zeiotaren eritxia Jesus'en buruz.

# V. GAIA

## JLSUS'eii SUSTERRAK
(Jcsus'cn anrretiko jazocrak: Isracl'cn izan ziran eri lan ta crlcjiñou)

Zugatza zelakoa dan jakiteko, susterrak argibide...

Gai ooelan egingo doguna...

* Jesus nondik datorren, bere susterrak zeintzuk diran ikusi.

ᵛ Israel erria nondik nota ibilli zan, Jesus erakutsi euskun erriak zelan jokatu eban jakin.

* Biblia'ren liburuak, azaltzen daben Israel-e'n.jren kondairan dagokien lekuan ezarrt.

ZERGAITIKon...?

* Susterrak zugatza ezagutzeko laguntzen dauskun lez, Israel-erria ta bere liburuak ulertzeak Jesus obeto ulertzen lagunduko dauskuelako.

* Gaiñera, Israel'en kondairea gure salbamenaren kondairako zatia dan ezkero, gure koodairaren zatia diralako.

* * *

## OARRAK

1. Israel'en kondairoa.

a) Len-gurasoen edo Patriarken aldia

LervGuiasoen illobia
Hebron'en.

* Len-Gurasoak artzaiñak ziran, ez euken lurralde ziurrik, euren artegiak eta abereak tokt betetik bestera eurakaz eroaten ebezan. Kondaira au, geure kondairaren zati au, Kristo'ren auneko XIX gizaldian asi *zan,* gizaldi onen erdi-inguruan Abrahan len-aitagaz. Abraban' eri, Jaungoikoagan eukan smismen aundiagaitik eta Judatarren aita *za\ako,* "Fededunen Aita" esaten jako.

* (saak, Abrahan'en semea eta Jakob, Abrahan'en *iUobea, kondaira* onen jarraitzaille izan ziian eta kondaira au Jesus'enganaiño eltzen da. Oneixek dira fen-gurasoen *artean ezagunenak.*

* Jakok'ek amabi seme izan ebazan eta seme orreitatik soitu ziran Judarren erriak eukazan amabi leiñuak.

* Sendi onein kondaira Asiera deritxon liburuan 12-30 irakurri daikegu,

* Baiña, jakiña danez, idazki oneik ez dira irakurri bear jakitunak idatzitako kondaira baten antzera. Begira zei diran:

— Gurasoakandik seme-alabekana igaroten dan etxeko kondairea.

— Erri-giroko kondaira, aundikeri barik jazokizunik aundienak edesten dauzan kondairea.

— Eta, batez be, erlejiño-girol<oa dan *eta jazoera* aundielan Jaungoikoa barruko izan zala agertzen dauan kondairea.

Eta aldi aretan...
. . Ecjiplo'n Lrdi-aldiko Ayintantzaren sasoia M I I ,
... Babilonia'n Flammurabi zan enege,
... Sumeria'n, Ui 'tarren 3n. agintai itza-aldia zan.

b) Urteera ta Kanaan eskuratzea

* Knstoien aurretiko 1.700n. urte-inguran Ikso'tanakaz eta Asia'ko beste eiri batzukaz batera, Jakob'en ondorengoak Egipto'n btziten asi ziran. Eta an, lau gizaldi baiño geiagotan, baketsu bizi ziran.

* Baiña erri aundia izatera eldu ziranean, Egipto'tarrak menperatu egin ebezan eta lanik gogorrenak eurai emoten asi ziran. Faraon'ek legeak emon be egin ebazan Sem'tarren erriak ezereztuteko.

* Giroa orrelakoa zala, T^ioises'ek Jaungoikoaren deia eukala uste izan eban eta adoretsu aurkeztu zan Faraon'engana eta eniaren askatasuna lortu eban. Kristo'ren aurretiko 1.200n. urte-inguruan, Ramses II Faraon zala, Juda'tanak Egipto'tik Kanaan-alderantza urten eben. Urtete oneri emoten jako Urteera izena.

* Bidez bide, berrogei urte igaro ebezan Sinai'ko basa-mortuan. Ementxe izan zan gizadiaren salbamenaren giltzan i dan jazokizuna: Jaurigoikoareri eta Israel'en arteko alkattasuna edo ituna. Jaungoikoak bere erri aukeratu lez artu ebazan; eurak amar aginduak beteteko berbea emon eben.

* Moises'ek agindu oneik betetea aurrera atera eban eta Juda'tarren erriarentzat aginduak egokitu egin ebazan. Moises bera Kanaan'er;i eldu baiño lentxuago il zan.

* Josue izan zan Moises'en ondorengoa eta onek asi eban Kanaan eskuratzerako ekiña eta Kristo'ren aurretiko XI gizaldia arte ez zan amaitu ekin ori. Eldu zirjnean leiñu bakoitxak bere lur-zatia artu eban. Leiñu bakoitxak bere agintariak aukeratzen ebazan eta agintari onei "epaikai iak" esaten sutseen.

* Urteeia. Zenbakiak, Abadeena eta Deuteronomio deritxen

liburuetan irakurri daikegu Moises'en kondairea eta liburu oneik Uile-ei a esaten jakon liburuagaz batera, Pentateuko deritxon liburutza osotzen dabe, Josue'ren eta Epaikaiien liburuak jarraitzen dabe kondaira au.

Eta aidi aretan...
... Asiria'ko Babilonia'gandik aske izatea loitu eban;
... Ramses II zan Egipto'ko errege.
... Troia'ko gugaldia egin zan.
... Hititarren aginterria arnaitu zan.

c) Errege-aldia

* Filisteoak zemaitsu egozalako eta oraindiño Kanaan-barruan jarraitzen ebelako, amabi leiñuak alkartu egin ziran, orrelan sendoagoak izateko. Saul aukeratu eben errege.

* Saul'en ondorengoa Dabid izan zan eta onegaz asi zan Israel errege-erriaren aunditasun-aldia. Jerusalen uria eskuratu eben eta antxe jarri erreiñuaren uri-burua. Errege-aldi onetan Natan igarleak iragarki aundi ta arrigarria egin eban, jazoko zan baiño milla urte lenago: Mesias Dabid'en ondorengoa izango zala.

* Dabid'en ondoren, Salomon bere semea izan zan errege. Onek egin eban Jerusalen'go jauretxea (tenplua) eta Dabid'en aldia asitako aunditasun-aldia sendotu egin eban.

* Kondaira au Samuel'en liburuetan eta Erregeen I liburuaren 1-11'n irakurri daikegu.

Eta aldi aretan...
... Fenizioak Lurrarte (Mediterraneo) Itxasoan zabaldu ziran.
... Asiria'tarrak Sortalde osoan agintari izan ziran.

d)

* Ez zan luzaroko izan Israel'en aunditasuna. 933n. urtean. Salomon il *zanean,* errege-erria zati bi egin zan' Juda-erria, Jerusalen uriburu ebala eta Israel-erria iparraldean, Samaria uriburu ebala.

* Erri zatituak ez eban adorerik izan aurrera jarraitzeko. Eta 721 n. urtean Asiria'tarrak iruntzi eben. Erdi-utsik eta zapuztuta geratu ziran lurraldeak kanpotarrez bete ziran eta ortik sortu ziran "samaritarrak", Juda'tarren arerio biziak.

* *Igarle* batzuk, batez be Jeremtas'ek, *iragarrita eukan \ez,* Babilonia'ko gudarosteak Juda azpiratu egin eben, Jauretxea erre eta erriko nagusienak erbestera eroan. 587n. urtean izan zan ori. Gizaldi-erdi egin eban erriak erbestean eta an dana galdu eban: Lurra, erregea, jauretxea eta itxaropena be bai.

* Igarle bi izan ebezan, Ezekie! eta Isaias'en jarraitzaille bat, biurtzerako gogoa sortzeko (giroa aldatzea eskatu egien) eta itxaropenaren adorea emoteko.

* Kondaira au Erregen I liburuan 12, 22 eta I l'ean irakurri daikegu.

**Eta aidi aretan...**
... Afrika'ko iparraldean Cartago sortu zan (813)
... Italia-erdian Erroma irasi eben (753)
... Ninibe bettko galdu *zan.*

e) **Erria** ber-fcgitea

* Persia'tarren errege zan Ziro'k Babilonia azpiratu ebanean, 538n. urtean, agindua emon eban, Juda'tarrai euren lurraldera biurtzeko baimena emonez.

* Baiña ez ziran guztiak etxeratu. Erbestean bizileku ona aurkitu ebenak eta erlejiño-gaietan otzenak ziranak, Babilonia'n geratu ziran. Onei emoten jake "Diaspora'ko Juda'tarrak" izena ("diaspora". sakabanatuak esan gura dau).

* Etxerotu ziranak, Nehemias buru ebela, erria ber-egiten asi ziran. Gogoen alkartzea edo ber-egitea Edras'ek ai tu eban bere kontura.

* Esdras'en eta Nehemias'en liburuetan irakurri daikegu kondaira au.

Eta aldi' aretan...
... Persia'n Ziro ta Artajerjes izan ziran errege.
... Grezia'n, Esparta ta Atenas alkarren aurka.
Maraton'en, (490n. urtean) Persia'tarrak azpira-tuak izan ziran.

f) Grezia'tarren eta Erroma'tarren aldiak

* Alexander Aundiak emon eutson azkena Persia'tarren aginte--erriari. Onek 333n. urtean Erdiko Sortaldea eskuratu eban eta Egipto'ra arte eldu zan; Orduan zabaldu ziran alde guztietara Grezia'tarren izkuntzea ta jakintza.

* Juda'tar batzuk, guda-talde txikietan batuta, aurka jarri ziran. 167n. urtean, Alexander'en ondorengo batek, Juda'tar guztiak fedea ukatzera beartu nai izan ebazan, eriotzarako zigorraz zemaituta. Au izan zan Israel'go martirien aldia eta aldi onetakoak dira "Makabeo'tarrak" esaten jakenak, eta 164n. urtean askatasuna lortu eben.

* Baiña gizaldi bat baiño ez zan igaro eta barriro menperatuak izan zira; oraingo orietan Erroma'tarren menpera jausi ziran. 63n. urtean sartu ziran Jerusalen'era Ponpeio'ren gudariak.

* Jesus jaio zanean eldu zan azkenera kondaira luze au. Juda'ta-rren kondaira osoa elburu batera eltzeko zala esan lei eta elburu au Jesus da.

* Makabeo'tarren liburuetan eta Ester'en eta Judit'en liburuetan irakurri daikegu kondaira au.

Eta aldi *aretan...*
*...* España'ra Kartago'tarrak sartu ziran;
... eta, gero, Erroma'tarrak.

^" *Itakuni* tbyiguzan orain bdniro auneko *gainren* 1, 2, 3 eta 4 zatiak eta obeto konturatuko gara non agertu zan Jesus eta zeintzuk diran bere susterrak.

2 - Israel'darren erlejiñoa.

* Juda'tarren erlejiñoan giltzarria Jaungoikoarer. eta Eiriaien arteko alkartasuna edo ituna da. Jaunaren erria izango zan Alkartasun au Moises'en aidian egin zan.

* Alkartasun edo itun onen lenengo araua Jaungoikoa bera Jaun bakar lez artzea da. Dana al dauana, mundua egin ebana eta kondaha osoaren Jaun dana da Jaungoikoa. Zapalduak salbatzea ta askatzea nai dauan Jauna da Jaungoikoa: biotz onekoa ta errukiorra, zuzenta-*sun-zaiea ta maitetsua.* Ez da *agertzen egi* utsetan bakarrik, ez urnñe-tik, zuzen eta bakoitxagana etorten da, une egokietan, eta gizonen bizitzara sartzen da. Orregaitik Juda'tarren erriak astiro eta bere kon-dairaren bidez ezagutu eban.

* Juda-erriaren jokabideak edo morala Jaungoikoak emondako Legea betetea zan. Lege onek bizitza-zokondo guztiak artzen ebazan. jokabideak, erri-arazoak, ekonomi-adoa, erlejiñozko eginbearrak, lurraien fiutuak, jaiak, seksu-arloa, janariak, aldiak.
Baiha agindu guztien arten aundiena, judatarren jokabidea zan, Jaun-goikoaganako maitasuna oiñarri ebala gizarte zuzena sortzeko jokabidea eta, au ez zan agertzen beste errietan, urko laguna rnaitatzea.

* Jaun-gurtza edo kuitoak garrantzi aundia eukan, agiriko egite utsa izateko arriskura jausi ezikr arrisku *onen* aurka jokatu eben *beti* igarleak. Jaun-gurtzeko egiterik aundienak opariak ziran eta oneik Jerusalen'ko Jauretxean baiña ez ziran eskintzen.

* Onxe da. labur-labur, Jesus'ek bere Mezu Barria guri emoteko abiapuntu lez artu eban eilejiñoa. Orain auireko gaiaren 5n. eta 6n. zaiia trakurten ba'doguz, askoz obeto ikusiko dogu Israel-erriaren erlejiñoa zefakoa zan

3.- ISRAEL-ERRIAK bere kondaira idatzi eban

*Gai onen joanean, Isiael eii laien kondaiia'ko aldietan, esan dogu orduko jazokizunak azaltzen dabezan hburuak zentzuk izan ziran. Baiña liburu oneik oz ziran idatzi gaurko izpan ingien altzera, gauzak jazoten ziian aldi br.ratan Esateiako Len-Gurasoen eta Muises'en kondaira, jazokizunak baiño askoz geroago idalziak dira.

* Juda'tarrak Kanaan'en biziten asi eta Dabid'en eta Salomon'en erreiñua eratu-ondoren ei i ia baketsu geiatu zan eta "bere kondaira astiro ber-irakurteko" astia izan eban. Onexeren antza daukon gauzea da ori: Sendiaren argazkiak daukazan kutxea eskuetan artu eta aitita--amamen eta norbeuneri jazoerak seme-alabai edesten dautsezanaren antza, orrelantxe gogoratzen eban Israel-erriak be bere kondairea.

* Dabid eta Salomon'en aldiko ugaritasunak Juda'tarrai jakintza--giroko nasaitasuna ekarri eutsen. Eta toki batzutan, gaur eta biar, erriak bere kondairan zaindu ebazan oiturak idazten asi ziran. Geroagc egin zan idazketa bakarra eta auxe da gaur guk daukagun Biblia.

4.- Biblia'ren beste liburu batzuk.

* Azaldu doguzan kondaira-liburuak ez dira biblia dana, ba-dagoz olako beste liburu batzuk be, esaterako Kionika-liburu bi, Errut'ena eta Tobias'ena.

* Biblia-barruan dan beste liburu moltzo bat otoitz eta azterpen--girokoak dira: Jakituniarena, Esakunak, Abesti Nagusia, Job'ena, Izlariarena, Sirak'ena eta, batez be, Salmuak. Salmu-iiburua eun eta berrogei ta amar abesti dira eta oneik erriaren barru-miñik aundienak agertzen dabez: eskariak, eskertzeak, gorespenak, parka-eskatzeak, poza, itxaropena, larritasuna...

* Liburu santuen irugarren moltzoa, igarleen liburuak dira. Igarleak Jaungoikoak aukeratutako erri-gizonak ziran eta errikideai Jaungoikoaren berbea iragarten eutseen. igarte-liburuen moltsoa marrazki onetan ikusi daukegu:

| | |
|---|---|
| K.a.XI gizaldian<br>(Idatzi ez ebensk) | Samuel'ena<br>Natan |
| K.a.IX gizaldian<br>(Idatzi ez ebenak) | Elias<br>Eliseo |
| K.a. VIII gizaldian | Amos<br>Oseas<br>Mikeas<br>Isaias |
| K.a.VII gizaldian | Sofonias<br>Jeremias<br>Nahum |
| K.a.VI gizsldian | Ezekiel<br>Abdias<br>Bigarren Isaias<br>Ageo<br>Zakarias |
| K.a.V. gizaldian | Joel<br>Malakias |
| K.a.IV. gizaldian eta geroago | Jonas<br>Baruk<br>Habakuk<br>Daniel |

* Orain ulertu geinke Biblia ez dala liburu bat, liburutegi bat baiño, liburu asko dirala milla *urteren joanean* idaiziak.

* Guk orain Berzeo'ren lanak, X Alfontso Jakitunaren Zazpi Lege--liburuak, Bañez'en Teoloji-liburuak Tirso'ren Ustekabe kondenatua, Teresa Deuna'ren Iraspen-liburua, Quevedo'ren oleikiak, Machado'ren beste olerki batzuk, Ortega'ren idazki batzuk, Falla'ren eres-liburuak eta XX gizaldiko politika-edestiaren liburua alkartuko ba'gendukez milla urtean España'n izandako kondaira ta elertiaren ikuspegia aurkituko genduke iiburu orretan, naizta dana nastauta agertu.

Antzera Euskalerrian Etxepare, Lizarraga, Larramendi, Lizardi, Orixe, *Lauaxeta, Barandiaran, Lekuona ta olako batzuren* liburuak batu ezkero.

Olako zerbait da, gauza bardiña izan ez arren, Biblia Israel-erriari begira. Baiña danaren gaiñetik, Btblia Jaungoikoaren berbea da.

# ISRAEL-ERRIAREN KONDAIRA LABUR-LABUR

| Jazoklzu nak | Norklak | Aldla | Libumak |
|---|---|---|---|
| Errlaren sorkundea | Abranan-lsaak-JakoO | 1850-1700 K.a. | Asleia. |
| Egipto't ik urteera-<br>-Alkartasuna | Molses | 1250-1200 K.a. | Urteera<br>Zenbaklak<br>Dauteronomlo. |
| Kanaan eskuratzea ta<br>lurra banatzea | Josue-epallarlak | 1200-1050 K.a. | Josue-Epalkarlak |
| Errege-aldla ezartea<br>Errla alkartzea<br>Jerusalen Urlburu<br>Jauretxea, erlejlflo-leku | Saul-Dabicf-Salonrion | 1050-950 K.a. | Sam I, N.<br>Erreg. I, |
| Erreifiua zatitzea | Israei eta Juda'ko<br>Erregeak. Ellas.<br>Ellseo. Jeremlas. | 935 | Erreg. I. li. |
| Baotlonia'ra erbestera-<br>tzea | Ezeklel | 587-538 K.a. | |
| Barriro errlratzea<br>Alkartasuna barrUtatzea | Esdras, Naherr.las | 538 K.a, | Esdras *3ta<br>Nehamlas. |
| Grezia'tarren be-maitlako<br>Aglnterna. Jjdatarrak aske | Makaoeotarrak | 333-143 K.a.<br>143-63 K.a. | Makab. I, II. |
| Erroma'tarren be-malllako<br>Aglnterrta | Nazaret'eko Jesus | 63 K.a. —70 K.O.'-<br>ra | EOanJelioak<br>Ap. Eglñak. |

GUK EGIN GEINKENA

Berbazko iragarkiak

— Ikaskide bakoitxak orri baten "berbazko iragarki" bat idatzi, izparringietan egiten dan antzera.

— Iragarki bakoitxak amar berba gitxienez eta ogei geienez izango dauz.

— Iragarkiaren gaia: Israel-erriaren kondairako jazokizun aundi bat agertu edo zeaztu.

— Iragarki guztiakaz "cotage" bat egin.

— Irakasleak guztiak irakurri ta laburpena egin eta agertzen ez diran gauzakaz iragarkiak osotu.

Berbaldi laburra ta talde txikiak

— Irakasleak bost minutu baiño gitxiagoan, "berbaldi labur bat" egin eta "Jainkoaren deia zer dan azalduko da.

— Gero ikasleak iruko talde txikiak egingo dabez.

— Talde bakoitxari elburu bat ezarri: Jaungoikoaren dei baten kondaira asmau ta idatzi, geienez ogei minututan.

— Taide bakoitxak bere kondaira ori irakurri.

— Azkenean, irakasleak laburpena egingo dau arin eta "Jaungoikoaren deiaren eta Israel-erriaren deiaren arteko zer ikusia" agertuko dau.

Billaketea...

Mesias Israel'entzat zer zan.

Asmatu...

Eleizearentzat abendua zer dan.

Alkarren arteko zer-ikusia...

Abenduaren eta Israel-erriak izan eban itxaropenaren artean.

Irakurri...

Kurutzeko Juan Santuaren olerki bat eta Biblia'ko Abesti Nagusiaren zati bat. Irakaslearen laguntzagaz antzeko gauzak eta antzeko ez diranak aurkitu.

Erantzun...

Zein da Israel-erriaren kondairako jazokizunik aundiena, ardatzekoa? Eta gizadi osoaren kondairan?

Konparatu...

Juda'tarren eiiejiñoa ta kristiñauena Onek zer aitzen dau arengandik? Zer alboratu? Zer gaiñeratu?

Billatu...

Jabetasuna zelan egoan Israel'darren artean, urteera liburuan 22, 1-14 irakurrita.

Egin...

Aldien lauki bat, age baten munduaren kondairako jazokizunak, erdian urtea, beste age baten Judarren kondairako jazokizunak.

Bardin ete da...

"Esakuna" TA "errefrana"? Ikasle bakoitxak aukeratu bei Bibliako esakun bat.

Zer alde dago...

Profetaren eta izkariaren artean?

* * * * * * *
* * * * *
* * *
*

VI. GAIA

# BIBLIA, LIBURUA DA ETA BEREZIA
## (Biblia'ren alcrbidera sartzea)

Gizona egitea. Batikano'ko Sixto'ren eleizatxuan

Gai onetan egingo doguna...

* Bibliari zergaitik Liburu Santua esaten jakon *aztertu.*

* Gizabideko liburua zergait'k esaten jakon ulertu.

* Biblia zurtasunagaz irakurten ikasi.

ZERGAiTiKori...?

* Biblia irakurten dogunean agertu leikiguzan arazoak jakin bear doguz.

* Eta, batez be, Biblia irakurri-bearra daukagulako, ortxe dago egon be Jaungoikoak gizonai eta guri bialtzen dauskun mezua. Gizonok, Jaungoikoak diñoskuna ulertzeko eginbearra daukagu,

OARRAK

1.- Biblia, Liburua da.

* Gizadian izan dan "best-seller", aldi guztietan geien trakurri dan liburua Biblia da, Juda'tarren eta kristiñauen liburu santua. Ezin esan zenbatek irakurri daben: Kristiñauen lenengo aldietatik astia lekaide-etxeetan ainbeste bir-idazte eta itzulpen egin dira eta izkuntza guztieta-*ra eg'in dira* itzulpenak; Gutenberg'ek irarkola *asmau ebanean, lenengo* irarri ebana Biblia izan zan; geure artean bakarrik, amar edo amabi itzulpen naikoa onak eta ulerterrezak daukaguz.

* Munduaren kondaira bera be ez litzake bardiña izango Biblia barik. Biblia izan ez ba'litz, esaterako, erti ta elerti edo literaturaren kondaira beste bat litzake eta or agertzen diran lanik ederrenak ez ziran agertuko: Migel Angel, Greko, Leonardo, Shakespeare, Goethe, Dante, Kaideron, eta beste askok ez dabe gitxi artu Bibliatik. Euskal-idazleak ez gitxiago.

* Baiña Biblia'ren benetako garrantzia onetan dago: Liburu au Judatarrentzat eta kristiñauentzat liburu santua izatean, Jaungoikoagandik etorria dauan liburua izatean.

* Orixe zan Jesus beraren pentsabidea be: Biblia'ko berbak "Jaungoikoaren berba"lez aitatzen dauz (Mt. 22,31) eta Dabid'ek "Espiritu santuak eraginda" idatzi ebala diño (Mt. 22,43).

San Paulo'k be "Idazki deun guztiak dungoikoagandiko etorriaz idatziak" dirala uste dau (II Tim. 3,16), Eta Kepa Deunak auxe diñosku: "Espiritu Santuak eragindako gizonak, Jaungoikoaren izenean egin eben berba" (II P. 1,20-21)

2.- Zer da Goi-etorria?

* Idazle batek liburu bat idazteko iru gauza bear dauz:

— Zer-esana (Ori adimenetik dator).

— Idalzi-gurea (Ori naimenetik dator).

— Idazten asi eta idaztea (Ori adimenaren eta naimenaren ekiña da),

* Bibliaren idazleak be, beste edozein idazleren antzera, oiixeegin e ben. Euren alegiña egin, eragozpenak azpiratu, bakoitxak bere erara tdatzi, gizon lez.

Baiña batera, liburu santuak Jaungoikoaren laguntza bereziagaz idatziak dira; Jaungoikoak bere ikutua egin eban idazleengan:

— Adimena argitu, idatzi bear ebena argi ikusteko;
— Naimenari eragin, askatasuna kendu barik, idaztea erabagi egien.
— Eta idazkeran taguntza berezia emon, idazketan bertan lagundu.

Orixe da goi-etorria Biblian. Orregaitik, Bibliak gizon idazlekandik dauka bere berezitasun osoa eta batera Jaungoikoagandiko berezitasun osoa be bai, berau dalako goi-etorria emoten dauana.

3.- Bibliaren izkerea

*Erri Juda-tarrak Jaungoikoagandiko etorria eukela uste eban liburu guztiak batu ebazan. Kristoren aurretiko I! gizaldian liburu santuen moltzoa osotuta egoan eta Itun Zarra osotzen eben.

Geroago, Kristo'ren Eleizeak Kristo baiño geroagoko goi-etonidun liburuak gaiñeratu ebazan eta oneik dira Itun Barria.

* Itun Zarreko liburirik geienak Ebertarren izkuntzaz idatzi ziran, gerkeraz idatzitako batzuk eta aram-eraz idatzitako zati batzuk izan ezik. Itun Barrikoak gerkeraz idatziak dira.

Askotariko idazleak eta aldi askotakoak ziran, izkuntzak be gureetatik urrin dagozanak, orregaitik izaten da sarritan gauza gaitxa Bibliaren pentsabideak ulertzea...

* Izan be, liburu bat itzultzeko ez da naikoa izkuntza bitako iztegia eskuetan artzea: Ain urrin dagon idazki bat itzez itz itzultzen ba'da, gauza gitxik eukiko dabe benetako esangurea. Orregaitik itzulpena egiteko izkuntza biak darabiltzen jakintza, oiturak, esaerak jakin bear dira, ez dira izkuntza bietan bardtñak izaten-eta. Orregaitik dagauza bearrezkoa "idazkerak" ezagutzea, aldi bakoitzeko eta liburu bakoitxaren esaera bereziak jakitea.

* Esan geinke: Bibliari goi-etorria emon eutson Jaungoikoak zergaitik ez eban erabilli guztiok errez ulertzeko lako izkuntza?

Eta erantzuna erreza da: Olako izkuntzarik ez dagoalako. Edozein izkuntza dan lakoa da eta besteakandik ezbardiña, aldia eta erabilten *dauan erriaren jakintza bera* ezbardiña dan neurrian; eta gizon bakoitxak be bere izkerea dauka.

Lur Santua: "Magnificat" edo "Gora ta Gora"
abestia 41 izkuntzatan.

Jaungoikoak gizon egtn zanean gorputz bat berezia artu-bearra izan eban antzera, Nazaret'eko Jesus'ek bere gorputza artu eban lez, eta orrexegaitik beste gorputz bat edo beste gizon bat beregan batera ezin euki eban lez, orrelantxe JJaungoikoa izan eban eta orrexegaitik dauka bere iztegia, joskerea, eta bere esaerak, liburu santuak idazti ziran lekuan eta aldian erabilten zan izkuntzak eukezanak; eta liburu santuko idazle bakoitxak be bere berezitasunak daukaz Jaungoikoaren berbea idazten dauanean: Jaungoikoaren berba au batzutzan Markos'en ebanjelioan dagoan neurrizko izkuntzaz agertzen da, beste batzutan Isaias'ek daukan igarle-tankera berezian.

## 4.- Idazkerai **buruz zerbait...**

### " Jakitun" idazkerea

Seti da Biblia jakituriagaz diran zer-ikusietan *sartu* arren', *jakitun*-azterpena ez da: Biblia erlejiño liburua dala ez da aiztu bear.

Olako jakitun-arazoak artzen dauzanean, Bibliak beti artzen dau ein-izkera zeia. Ortegaitik da gauza baragarna Biblta gaurko gure egunetako jakituri-aurrerapenaren argibtdetik epaitzea.

Esaterako, eguzkia ta iretargia argi aundiak dirala esaten dauanean edo izarrak argi txikiak dirala diñoanean (As. 1,16) begien aurrean agertzen diran lez ezsrtzen dautse neurria, ez astronomiko gai batjakituri-bidean agertzeko. Geuk be jakituri-bidean orrelan ez dala jakin arren, antzeko esjerak erabilten doguz: "Izar txiki a ARDATZI BURUKOA DA" ESATEN DOGU.

"Kondaira" idazkerea

Kondairagaz zer-ikusia dauken gaiak artzen dauzanean, Bibliak ez dau egiten kondaira-azterpenik: Emen be ez dagigun aiztu Biblia erlejiño-liburua dala.

Ez dagiegun ba eskatu Bibltaren barruan diran kondaira-fiburuen idazleai, gaur arlo onetakoai eskatzen jaken zeaztasun guztia, kondaira idazteko gaur artzen dan bidea ori izan arren.

Arlo onetan mailla ezbardiñak dagoz, irakaste-bideko madlak:

— Gauza batzuk benetako kondaira dira. Ori orrelan izaten da jazo zana edestu nai danean.

— Beste gauza batzuk erri-giroko kondaira izaten dira. Emen jazokizunak esan bai esaten dira, baiña egunak eta tokiak, noz eta non, larregi zea2tu barik. Orrelakoa da, esaterako, len-gurasoen kondaira.

— Kondaira-giroko elebarria be izan daiteke.Olakoan idazleak jazoriko gauzea edestan dau, baiña giroa, norkiak eta egoerak bere irudimenak aldatuta. Olakoak izan daitekez Tobias, Judik eta antzeko liburuen batzuk.

"Antzerki" idazkerea

Bere barruan daukazan Itburu batzuk elertt edo hteratura-gnokoak izan arren Biblia'ren elburua ez da izaten jolasa beste barik, edo edertasuna lortzea: Ez da aiztu bear Biblia erlejiño-liburua dala.

Antzerki-liburu baten antzekoa dala esan geinkei Job'en liburua. Baiña antzerkigille batek norki bakoitxak esaten dauana beraganatzen ez dauan antzera eta irakatsi osoaren erantzukizuna bakarrik artzen dauan antzera, Job'en liburuaren idazleak be ez dau beraganatzen liburu orretan agertzen diran norkiak txarraren arazoari emoten dautsen erantzuna.

Idazkera guzt> oneik. esateko era oneik eta beste asko (legediak, Olerkiak, iragarkiak, esaidiak, atsotitzak, ikuspenak, eskutitzak eta abar...) ba-dauke euren lekua Biblian. Guztiak dira Jaungoikoaren berbearen eroabide. Iñoz agertzen ez dana, guzurra da.

5.- Biblia, erlejiño-liburua

* Antxiña esan eban buru argikoa zan Agustin Santuak Bibliak "Ez dauzala sortu gure matematika edo astronomi-zaleak, kristiñauak baiño".

* Bibliak, esaterako, erlejiñoko egi lez esaten dausku Jaungoikoak mundua egin ebala; "zelan" egin ebani Jaungoikoak mundua, jakitunak azaldu bear daben gauzea da. Bibliak erlejiñoko egi lez esaten dausku Jaungoikoak gizona egin ebala. Baiña zuzenean egin eban ala izadiko aurrerapenaren bidez, ori jakitunak billatu bear daben gauzea da.

* Izan be, Biblia ez da jakitun-liburua, ez kondaira-liburua, ez antzerki-liburua, ez olerkia (naizta gai oneik be tkutu edo olako idazkeren bidez bere agertzea egin): Biblia ertejiño-liburua da eta gure salbamena dakarren egia azaitzen dausku.

6.- Asiera liburuaren lenengo ataiak agertzen dauskuezan arazo batzuk.

* Abrahan'en kondairagaz, Asiera liburuaren 12n. atalean asten da kondaira izena emon daikeogun aldia: Beste erri batzun idazkietan eta arkeoloji-jakingarrietan ba-dagoz batera datozen jakingarn batzuk eta naikoa zeatz esan lei jazoerak noz eta non jazoak diran.

* Baiña aurrerago dagozan amaika atalak, kondaira-aurrearen illunean geratzen dira. Eta, olan eta guzti be, Biblia'ra sartzeko atadia dira eta euretan edesten dira gura kondairako oiñarrizko jazoerak.

* Beste aldi batzutan Biblia irakurten ebenak itzez itz ulertzen ebezan asiera liburuko lenengo amaika atal orreik. Gaut jakituriak jakingarri barriak ekarri dauzalako eta, gaiñera, izkuntzen arloko jakituriak be aurrera egin daualako, atal orreik ulertzeko erak erreztu egin dira.

Lenenego arazo bat

Amaika atal oneitan esaten dana jazorikoa ete da?

1948n. urtean Aita Santuaren Biblia-Batzordeak itaun oneri baietzik naiz ezetzik erantzuterik ez dagoala esan eban. Kondaira ez dirala esan ezkero, an esaten dana ukatu egiten da,eta, ba-dirala esan ezkero, dana jazoriko gauza lez ulertzeko arriskua daukagu.

Auxe da ba-atera daikegun ondorena: Or esaten diran gauzakjazonkoak be ba-dirala, baiña edestuteko erea, erri-maillakoa ta zeia dala.

Mundugintzaren arazoa

Biblia'k esan gura dauskun erlejiñozko egia, mundua Jaungoikoak egin dauaia da .

Jakitunak esan bearko dabe zelan izan zan ori (asierako laiñotxua, lenengo atomoaren lertzea, eta abar). Baiña, ziur, jazo ez zana auxe da:

Mundua gaurkoen lako 24 orduko egunetan egin zala (Bibliak beiak diñoan lez Jaungoikoak eguzkia ta izanak laugarren egunean egin baebazan, zer izan zeitekezan ori baiño aurreragoko gaua ta eguna?). Gauza argia da or jazoten dana: Biblia'k Jaungoikoaren lanari be astearen eragiña ezarten dautso eta gizonak bear dauan atsedena artu-azo, eta orrelan zazpigairen eguneko atsedenari santutasun-giroa emoten jako.

Eguzkia egitea. Migel Anjel.

Batikano'ko Sixto'ren Eleizatxuan.

Gizonaren jatorriaren arazoa

Arlo onetan Bibliak agertu nai dauskun erlejiño-giroko egia auxe da: Gizona Jaungoikoaren egite berezi baten ondoren lez sortu dala,

Asiera liburuaren idazleak gizona zelan egiña izan zan edesten dausku lenengo atal bietan eta era bitara. Edesti biak, itxuraz ain ezbardiñak, oiñarri-oiñarrian batera datoz: Gizona Jaungoikoak egiña dala, duintasun berezia daukala eta egindako beste gauza guztien gaiñetik dagoala diñozkue. Oiñarriko bardintasun ori orrelan dala, idazleak errez artzen dauz erri-giroan zabal ebiltzazan edesti-era bi, ain ezbardiñak izan arren, eta biak sartzen dauz idazkian aurretiaz ezelako azterpenik egin barik.

Gaurko jakitunak gizona beeragoko maillako piztiakandik aurrerabidez etorria dala diñoe. Bibliak ez dau aztertzen eta aztertu be ezin egin leike aurrerabidearen arazoa. Ori liburu santuak idatzi ziranean bururatu eziñeko gauzea zan. Orregaitik ez dau alboratu be egiten bide ori.c Hstiñauen fedeak ez dauka eragozpenik aurrera-bidea onartzeko, baiña baldintza oneik betetekotan: Jaungoikoaren egite berezi batek egin ebala abereagandik gizonaga aldakuntza egitea, gizonaren gogoa une orretan sortzen dala. Kristiñau batek ezelan be onartu ezin daikena, gauza-giro utseko aurrerabidea da. Onek ez dau azaltzen gizonaren eta beste piztien artean dagoan ezbardintasun izatezkoa.

## Atsegin-baratzaren arazoa

Irudizko izkuntza bide dala, Asiera hburuak lenengo gizonari emon jakozan eta Jaungoikoaren aldetik etorriak ziran duintasuna ta \zaera bereziak agertzen dauskuz.

Lenengo ta bein, baratz eder baten ipinten dau gizona, ugaritasunaren ezaugarri dan ura ugari dala. Orregaitik igalidun zugatzak be ugari egozan. An dana egoan gizonaren aukeran eta gizona zan izadiaren jauna.

Gizona Jiungoikoaren adiskide izateko deitua zan eta Jaungoikoaren bizia bera eukiteko egiña. Orregaitik esaten dau liburu santuak "Jaungoikoaren antz eta irudiko egiña" dala. Egoera oneri jatorrizko zuzentasuna esaten jako eta egoera orretan, Jaungoikoaren eskarrez, seme )ez agertzen zan gizona, Jaungoikoa ikusteko egiña eta Jaungoikoaren izakide.

Gizonak ez eukan bere barruan zatiketarik, bere griñak aurka ez ziran jagiten, bere buruaren jabe zan oso-osoan. Orregaitik diño "bi-Dosik egon arren ez zirala lotsatzen". Ez egoan areingan okerreko asmorik. Egoera orreri osotasunaren doia esaten jako.

Azkenez, illezkortasunaren berezitasuna be ba-eukarr Bizitza onetatik bestera igaroko ziran, eriotzearen illunpetik igaro bank. Jaungoikoak "bizitzearen zugatzetik" jatea debekatu eutsen. Zugatz au baratzaren erdi-erdian egoan. "Jaten ba'dozue il egingo zaree" esan eutsen.

## Jatorrizko pekatua edo lenengo pekatuaren arazoa

Berezitasun oneik galdu egin ziran, gizonak, gizadiak, izaki egiñari dagokion egoerea onartu barik, Jaungoikoaren aurka jagitea nai izan ebanean.

Gute salbamenaren bideetan ez dauka garrantzirik lenengo pekatu ori zein izan zan jakiteak, baiña, ziur-ziur, ez zan izan "sagar bat jatea". Asiera liburuaren irugarren atala irakurri ezkero laster konturatuko

gara an ez egoala ez sagarrik, ez ezelako igalerik. Zugatz bat aitatzen da eta zugatz onen izena bera ("Bizitzearen zugatza" edo "Onaren eta Txarraren zugatza") ezaugarri da eta ez dirala landaren artekoak, irudibidekoak baiño, agertzen dausku.

Jatorrizko obena. Migel Angel.
Sixto'ren eleizatxuan.

Pekatua "Onaren eta Txarraren jakituria" eukan zugatzetik jatea izan zan. Edo esangurea ulertzeko, Jaungoikoaren aurrean eukan menpetasuna kendu eta norberaren naimena ez dan edozein jokabide alboratu, Jaungoiko Egilleak berak eukan zeregiña norberak bete gura izatea.

Pekatuaren ondoren lez, gizonak eukan bere egoera berezia galdu eban. Orregaitik gizona ostendu egiten da Jaungoikoa bere billa datorrenean, billosik egotea dala-ta lotsatu egiten da eta Jaungoikoaren zigorra artu eta Atsegin-Baratzetik jaurtia izan zan.

Orregaitik, gizon orren ondorengoak garanak "etorpidezko aberastasunak" galduta jaioten gara. Galdu ziran egoera berezi aretako edertasunak.

Baiña Jaungoikoak ez ginduzan bertan-bera itzi. Gutariko bakoitxak Jaungoikoagazko adiskidetasuna barriro eskuratu geinke, baita Jainkosemeen eskerra be Kristo'ren irabaziai eskerrak.

## Uriolearen arazoa

Uriola edesten dauanean Bibliak agertu nai dauskun erlejiño-giroko egia, pekatuari dagokion zigorra izan daiteke.

Izan be, gizonaren lenengo pekatua izan zan eta gero, txarkeri asko sortu ziran, gizadia zabalduz batera. Asiera liburuak une onetan uriola aundiaren edestia dakar eta txarkeri orrein zigorra agertzen dau, or. Baiña jazokizun onen zeaztasunak batzuk sinis-gaitxak, iñoz alkarren aur-

kakoak, ain zeatz artu bear ete dira? Ez orixe, Judatar idazleak kondaira aurreko uriola aundiari buruz errian esaten ziran gauzak batu ebazan —olako gauzak esaten dira beste erri batzutzan be, naizta erri oneik urriñekoak izan judatarren mundutik— eta bizirik geratu ziranak uriolea jazo zan ingurua mundu guztiagaz .nastaturik, uriola ori "mundu guztikoa" izan zala uste izan eben.

Uriolea. Migel Angel.
Sixto'ren eleizatxuan.

Babel'eko Torrearen arazoa

Biblia'k edesti onetan gizonaren arrokeria Jaungoikoarentzat irain aundia dala diñoan erlejiño-giroko egia agertzen dausku.

Eta, bide batez, endak eta izkuntzak zelan banatu ziran azaltzen dau: Baiña au ez da Idazlearen elburua (gaur ondo dakigu jazokizun bi oneik guztiz astiro bete zirala). Idazle santuak iru gai alkartzen dauz (gizadia ugaritu zanean, mundura zabaldu egin za!a, izkuntza asko agertu zirala, eta oroigarri bat egin gura izan ebela, mailladun torre antzera, Babilonia'ko Ziggurat arein antzera), baiña ori dana ez *da* jakituri-giro azalpena egiteko, arrokeria ircin aundia dala eta arrokeriak Jaungoikoagandik eta gizonakandik aldendu egiten gaituala erakusteko baiño.

## EGIN GEINKENA

### Itaunak

— Ikasle bakoitxak bere aldetik gaia irakurten dau, bear ba'da irakasleak azalpena egin baiño lenago.

— Gero bakoitxak itaun bi egin idatzita.

— Itaun guztiak jrakurr/ eta *eranizuna ernon.*

— Jarraian, ekintza au azalpena egin aurretik bete ba'litz, gai barrura biziago sartzen da.Azaipena egin eta gero egin ba'dira itaunak, geratu diran zalantzak argituko dira orrelan.

### Antzerki irakurria

— Au egiteko, norki batzuk berba egiten daben libururen bat artu bear da, esaterako Job edo Asiera edo Urteera iiburua...

— Norki orreik ikasleen artean banatu. Edeslari bat edo batzuk irakurriko dabe Bibliaren zatia, bertako norkiren batek berba egiten ez dauanean edo liburuaren idazleak esaten dauan gauzea danean.

— Norki edo irakurle bakoitxak bere zeregiña aurretiaz gertatzen dau labur-labur eta gero irakurtea edo antzeztea asten da eta zarate-ardurea daukan batek unerik garrantzitsuenak azpi-marratzen dauz...
Gogoa ta txaloak!

### Billatu...

Uriolearen edestian diran jakingarri bikoiztuak (As. 6-8)

Billatu...

Ertiaren eta kondairaren barruan Bibliak dituan ikutuak. Egin olakoen zerrendea, al danik luzeena.

Esan zein dan...

Olerki-Iiburu bat, beste lege-bideko bat, beste igarle-giroko bat eta beste agerpen edo apokalipsis-giroko bat, Itun Zarreko liburuen artean.

Gogoratu...

Biblia aurrean ez dala, ikasle bakoitxak ezagutzen dauzan Itun Zarreko liburu guztiak. Gero esan ez diranak gaiñeratu.

Moltzoetan ipiñi...

Esandako liburu orreik, ekintza orretan aitatu diranak, euren izakerea kontuan data.

Azaldu...

Zergaitik esaten dan Len-Gurasoak ainbeste urtetan biziten zirala. (Argibide bat: Antxiñako jakintza-giroetan zenbakiak ezaugarri-balioa eukela)

Billatu...

Gai bat bera dauken ipuin bat eta saio-idazki bat. Aztertu or idazteko ereak zelako eragiña daukan gaiaren oiñean, esan dan gauza orretan. Ekarri jokabide ori gaia obeto azaltzeko.

Aztertu...

Abere-moten aurrerapenean emon dtian omkadatik aundienak. Aurrerapide orretan noiz edo zein unetan bearko zan Jaungoikoaren ikutu berezi bat?

Aztertu...

Judatarrena ez diian beste jakintza batzutan unoleari buruz edesten diran eta agoz zabalduak diran edo antziñatik artuak diran edestiak.

Ikasi...

Biblia erabilten.

* * * * * * *
* * * * *
* * *
*

# VII. GAIA

## JESUS'lvGANA GEIAGO URRF.RAT/EN GAKA
(Itun Barria: Ebanjelio bakoitxaren .sorpena, osokuntza eta oiñarrizko erakundea. Nazarefeko Jesus'eri buru? kondaira/ko jakingariak.)

**Belen: Jesus'en jaiotza-erria.**

Gai onetan auxe egingo dogu:

- Lau ebanjelioak zelan osotu ziran ezagutu.
- Ebanjelioak alkarragaz dauken zer-ikusia begiratu.
- Itun Barriko beste idazkietara urreratu.
- Biblia'tik etorriak ez diran Jesus'en buruzko barri batzuk jakin.

**IZANBE...**

- Arlo onetan zenbat eta geiago jakin, obeto ulertuko dogu Jesus.
- Eta Jesus ondo ezagutzea, Beragana urreratzea da: Orixe da gutzat jazokizunik garrantzitsuena.

**OARRAK**

**1. Ebanjelioak zelan idatzi ziran**

a) Lenengo ekiñaldia: Jesus'en berbaldiak.

• Ebanjelioak Jesus izan zala 8arri Ona eta beronek irakasten ebanaren barria dakarskue. Baiña ori eziña zeitekean Jesus izan ez ba'litz edo Jesus'ek berbaldiak egin ez ba'lituan

Augusto Erroman Nagusi zala
Jaio zan Jesus

- Jesus Juda'ko Erremuan. Belen'en, Jerusalen'dik kilometro gitxi batzuk egoalderantza jaio zan. Erodes Errege zala. Bere jaiotza-urtea gure urte-zenbakiak asi baiño 5 edo 6 urte lenagokoa izan zan. Eta bere bizitzarik geiena Nazaret'en igaro eban. aundikeri bako eskulangille baten bizitzaz

Ogei ta amar urteak bete ebazanean Jordan ibairantza urreratu zan eta an aurkitu eban Joan bateatzailleak bateatu eban. Orduan asi zan bere aginko bizitzea eta urte bi edo irutan ekin eban onetan. Asierako bere lagun zintzo batzuk asi ziran beragaz ibilten. Lagun-talde onen barruan ezagunenak amabi apostoluak dira.

- Onein aurrean agertu eban bere irakatsia eta egin ebazan bere ekintzak. Baiña oneik ez eutsoen ulertzen. Esaterakc "Tenplua" beregorputza dala (Jn. 2. 19-22) eta eurak Jerusalen'en egoan tenplu lez ulertu eben.

- Jesus'ek ondo daki noraiñokoa dan ulertu-ezin ori eta Egiaren Espiritua bialduko dautsela diñotseetaonek oso-osoan argituko dauzela (Jn. 18.22-14).

b) Bigarren **ekiñaldia Apostoluen itzaidiak**

- Jesus il ondoren Jazokizun arrigarri bi jazo ziran apostoluengan azken-eragiña izan ebenak Jesus'en berbizkundea eta Espiritu Santuaren etorrera.

Jesus'ek aurretiaz iragarri eban bere berbizkundea; baiña apostoluak ori ez eben sinistu jazo zala jakin arte. Eta dana amaitu zala uste izanik, ames guztiak zapuztuta, Emaus'era joiazanak, bera berbiztuta aurrez-aurre ikusi ebenean, osoosoan aldatu ziran (Lk.24,13-55).

Euren gaiñera Pentekoste-egunean etorri zan Espirituak osotu eban Ikasleengan izandako aidakuntza au. Jazoeraorren aurretik etxe baten sartuta eta judatarren bildurrez ateak itxita egozan (Jn. 20,19) eta gero erriaren aurrean berba egiten dabe eta edozelako jazarpenak gogo aundiaz artzen dabez. (Ap.Eg.2,l4;3eta4'atalak).

- Une onetatik aurrera apostoiuak gogotsu asi ziran guztiai Barri Ona emoten. Jesus en ebanjelioa azaltzen. Eta garbi agertzen dabe euren sinismena, Jesus il eta berbiztu egin dala. Sinismen, fede, ori -esan leike baten batek- ez ete zan izan jazokizunak okertzeko bidea?

Baiña fedeak, benetakoa danean, -eta apostoiuena, zalantza barik, benetakoa zan- ez dauko ezer oker esan-bearrik, on egin ezkero fede on beste barik apurtuta geratuko litzake okertzeillearen biotzean. Bestetara bai, ikusi, ebena eta Jesus'en entzuna obeto ulertzen laguntzen dautse. Gaiñera asko ziran jazokizunak ikusi ebezanak eta ez guztiak adiskideak, esaterako agintanak, eta oneik ez eben parkatuko Jesus goratzen asmatu zeitekean ezelako okerrik.

- Berbaldiak egiten gogoz asi ziranean Apostotuak euren "Txartelak'" idazten ebezan: Mirari bat, ipuin bat, aiztuta egoan esaldi bat... Eta olako txartelakaz, gaiak alkartu eta txarteltegi bat osotu eben: Orrelan da esaterako Mateo'ren 13n. atala, ainbeste ipuin batera dakazena edo Mateo beraren 8n. atala ainbeste mirari edesten dauzana, edo itzaldi luze bat (Mt.5-7) egun askotan Jesus'ek esandako esaldiak batzen dauzana.

c) Irugarren ekiña/dia: Idazketa

«Jerusalen apurtua izan zan 70n. urtetik asita, uste danez, ikasieak beste ieku batzutara joan-bearra izan eben eta orduan ikasle batzuk Jesus'en bizitzeari eta irakastaldiai buruz edesti osoagoa idaztea erabagi eben. Olako lau edesti daukaguz eta Mateo, Markos, Lukas eta Juan idazleai ezarten jakez Edesti onei, gerkerazko berbea artuta, "Ebanjelioak" Barri Onak esaten jake.

- Lau liburu oneik alkarren parean ipiñi ezkero, lenengo ikuspegi baten auxe ikusiko dogu: Lenengo irurak alkarren antz aundia daukeia, alde batzuk eukiarren, (orregaitik esaten jake "sinoptikoak", irurak iru agetan alkarren parean batera ikusteko ipiñi daikezelako, orrelan antzak eta aldeak errez ikusten dirala) eta laugarrenak ez dauka ainbeste iru orrein antz.

Elerti-azterpen sakonetan oiñarrituta, auxe esan geinke:

- Markos'en ebanjelioa laburrena da eta gitxi diño Jesus'en irakatsiai buruz: ez dau besterik egiten Berak gizonen aurrean zer egin eban agertu baiño. Izkuntza arrunta dauka.

Markos'en ebaniehoak **diñoana ta** dana dago Mateo **ta Lukas en liburuetan eta ori jazoten danean iru liburuak gauza bardiñak esaten dabez**. **jazoerak urrengorik urrengora bardin doaz** eta berbak be bardm-antzekoak dira

-• **Mateo'k eta Lukas'ek, Markos'en edestietatik kanpora, Jesus'en** irakatsi asko **dakarrez (ipumak, itzaldiak, esaldiak**...) **etaolakoaksarritan euretariko** batek bakarrik ekarten dauz, beste batzutan bietan datoz eta berba **bardiña-kaz:**

- **Juan'en ebanjelioak ez dauka besteen antzik. Antzik geien daukan zatia**

nekaldiari dagokiona. **eriotzearen eta** berbizkundearena be or dagoala.

**Mat 8,14-15**

**Eta Jesus'ek**
**Pedro'ren** etxera
eldu zanean
**Onen** amagiñerraba
**ikusi** eban
ogean
sukarragaz
eskutik oratu **eutson**
**eta sukarra joan** jakon.
jagi egin **zan**
eta otseintzen asi jeken

**Mk. 1,29-31**

Eta gero
sinagogatik urtenda
Simon'en eta **andres'en** etxera
**joan zan**
Santiago **ta Juan'egaz**
Simon'en
**Amagiñerraba**
ogean egoan
**sukarragaz.**
**Eta aitatu egin eutsoen**.
Urreratu **egin zan** eta jaso
**eskutik** oratuta.
Sukarrak itzi eban
eta bera otseintzen asi jaken

**Lk.4,38-39**

Sinagogatik urtenda
**Simon'en** etxera
**sartu zan**.
**Simon'en**
**Amagiñerraba**
sukar aundiagaz
egoan
**eta bere** alde
eskatu eutsoen.
**Beragana makurtu zan**
**sukarra uxatu**
eta onek iges egin.
beingoan jagi
**eta otseintzen asi jaken**.

## 2. Ebanjeiioen jatorria

**Or egindako oarrak kontuan dirala; ebanjelioan jatorria onelan azaltzen dabe:**

- **Markos'ena da lenengo idatzi zan ebanjelio-iiburua**. **Orregaitik da laburrena ta** errezena. 70n, urte-tnguruan tdatzi zan.

- **Mateo'k eta Lukas'ek aurrean** dauke Markos eta onegandik artzen dabez gauza batzuk eta urrengorik **urrengora bere antzera dakarrez Jesus'en** jazokizunak.

**Baiña**, batera, biak artzen dabez **beste gauza batzuk Jesus'en irakatsiak eukazan beste agiri batetik**.

Eta **gaiñera oneitariko bakoitxak Jesus'en beste irakatsi batzuk dakarrez** beste agiriren batetik edo Apostoluak irakatsi ebenetik zuzenean **artuak: Orregaitik esaten dabezan gauza batzutan batera** datoz eta gauza oneik **ez daukaz Markos'ek**.

- **Juan'en Barri Ona da azkenengo idatzia, lOOn. urte-inguruan. Onek aurrean daukaz beste iru ebanjelio-liburuak eta orreitan agiri ez dana** idazten alegintzen da.

APOSTOLUEN BERbVVALDIAK

Beste agin
**batzuk**

**MARKOS**

**MATEO**

**Jesus'en irakatsien**
**"txarteltxuak"**

**LUKAS**

**JUAN'ek**
besteak osotzen dauz

### 3. Ebanjelio-liburuakbanaka

• Baiña **ebanjelio-liburuak egiten dabena ez da bakoitxak idatzita aurkitzen** dauzan agirietan **artu. beste bank: Euren erara** idazteko lan aundia agiten dabe **eta liburua bakoitxak dauan elburura zuzentzen da**.

- **Markos'ek Jesus'en irudia aurkezten dau**.

**Orregaitik, lenengo zortzi ataletan olako itaun bat agertzen da asarritan- "Nor da au"? eta zortzigarren atalean 27-30 ataltxuetan Jesus'ek berak zuzen-zuzenean** agertzen **dau itauna: "Nor nazela ni diñozue?" Eta emendik aurrera Markos'en ebanjelio-liburuan bigarren zatia asten da, Jesus** benetan itxaroten izan dan Mesias dala agertzeko, baiña **iltera datorren** Mesias, **gero berbiztuko dana**.

- **Mateo'k** Juda-tarrentzat idazten eban **lez, ardura aundia** dauka auxe agertzeko: **Jesus'egan beteten dirala antxiñako igarpenak**. **Eta ori bein eta** baniro esaten **dau**.

**Jesus'en irakatsiak bost zati aunditan banatzen dauz: Mendiko itzaldia (5-7) Apostoluak aukeratzea eta bialtzea (10), Erreiñuari buruzko ipuiñak (13), alkarteaz irakastaldia (18) fariseoakazko aurkaketa (23)**.

- Lukas'ek Juda*tar ez diran irakurleak daukaz aurrean, batez be.

Orregaitik Jesus errukitsua agertzen dau sarntan, pakatarien lagun dan eta oneik billaizen dauzan Jesus; sarritan agertzen dau, baita, bakarrik dabi-*Uen* Jesus, *otoitzeca emona: eta aitamen berezia izaten dau Jesus'egaz dabil*-tzan emekumeentzat. Ba-daukaz bereak bakarrik diran parabola batzuk be: Aberats jatuna eta Lazaro eskekoa, samaritar ona, epaikari okerra eta afargun txiroa.

Juan'ek beste iru ebanjelio-liburuen uts-uneak bete nai dauz.

Orregaitik, bere edes-erea ez da besteen antzekoa: iru sinoptikoak agertu ez dabezan jazokizun balzuk aukeratzen dauz eta oneik zeatz edesten dauz, Jesus'en berbak eta bere ikuspegia agertuz; irudi asko darabil eta itun zarra sarritan aitatzen da. Berak argi-argi agertzen dauan lez, bereelburuaauxe da: "Jesus Jaungoikoaren Semea Mesias dala sinistu dagizuela eta sinismen orregaz, berari eskerrak, bizia izan dagizuela" (Jn.20,31)

## 4. **Aportoluen Egiñak** l**iburuata** San **Paulo'ren idazkiak**

### a) Apostoluen Egiñak.

Lukas'ek bere lan guztia ale bitan idatzi eban: Lenengoa bere ebanjelioe-liburua da; Gero Apostoluen Egiñak liburua idatzi eban eta au aurreragoko liburuagaz alkartzea egiñez asten da.

Emen lenengo alkarte kristiñauen kondaira azaltzen dau eta oneik azi egiten zirala diño, Apostoluen berbaldiai eta Espirituaren indarran eskerrak "Ames-giroko alkartea azaltzen dausku, kristiñau guztiak alkarren maitale ta laguntzaille dirala eta apostoluen berbea entzun eta otoitzean eta Eukaristia ospatzean alkartzen dirala (Ap.Eg.2-42-;4,32-47). Alkarte oneitako alkarkideen artean sortzen diran arazoak be gogoratzen dauskuz (Ap.Eg. 5, t -11 ;6, l - 7). Alde guztietatik sortzen dira jazarpenak, batez be kristiñauak erriaren er!e-jiñoa zapuztuten dabela uste daben Juda'tarren agintariakandik.

9n. ataletik aurrera Lukas*ek ia besterik ez dausku aitatzen Tarso'ko **Saulo** apostolu barria baiño Onek gero Paulo izena artu eban

b) San Paulo'ren idazkiak

Olako alkarte askori idatzi eutsezan idazkiak Paulo'k eta idazki oneik be Bilbia'ren barruan dagoz

- 50-51 n. uriean idazki bi egin eutsezan Tesalonika'ko kristiñauai. Oneik dira Itun barrian lenengo idazkiak.

- 56-58n. urteetan bere idazkiak luzeagoak eta garrantzi aundiagokoak dira': Korinto"ko kristiñauai bi, Galazia'koai bat, eta Erroma'koai beste bat. Oneitan bere irakatsi nagusiak agertzen dauz: Moises'en Legeak ez daukala gu salbaltzeko indarrik, Kristo'gan fedea bear dala.

- 60-62n. urteetan, Erroma'n espetxean egoala, "Katigutzako Idazkiak" esaten jakenak idatzi ebazan: Filipos'tarrai, Kolosas'tarrai, Efeso'tarrai eta Filemon'eri.

- Azkenengo idazkiak bere ikaslerik maiteenentzat dira, Tito'rentzat bat eta Timoteo'rentzat bi. II baiño gitxi lenago idatzi ebazan antza (Erroma'n samea ebagi eutsoen 67n. urtean) edo ba-ieiteke bera il ondoren, bere ikasleren batek idatziak izatea. Bere azkenengo gurariak agertzen dauz, kristiñau-alkarteak ondo eratu eta Knsto'gan dauken fedeari oso-osoan eutsi dagitsoen.

## 5. itun Barriko beste idazki batzuk

Itun Barriko ogei ta zazpi liburuen zerrendea osotzen dabenak oneik dira: San Juan Apostoluarena dala esaten dan Apokaiipsis, Ebertarrai Idazkia idazlea nor dan jakin barik, San Juan'en iru idazki, Judas Tadeo'ren bat; Pedro'ren idazki bi; Santiago'ren idazki bat.

## 6. Fedeko Kristo'gandik Kondaira'ko Jesus-egana

• Itun Barriko idazki guztiak Jesus'egan sinisten dabenak idatziak dira. Orregaitik, batzuk esaten dabenez, guk dakiguna areek sinisten ebena da, baiña ez "kondairan" jazo zana. Baiña len esandako zioak alde batera itzita. idaz-

leak eurak sarntan esaten dabe entzuna ta ikusia emoten dabela zeatz eta zintzo, eurak dirala Jesus'en berbearen lekuko. Orrek ez dau esan g'ura Jesus'en berbak itzez itz esaten dauskuezenik baiña bai gure fedearentzat oiñarri dan kondaira-gaia ziurra dala.

Jerusalen: Jesus'en eriotzea
izan zan lekuko uria.

• Kondaira-gaia naikoa ziurtatzen da Biblia'tik kanponkoak diran barri-iturriakaz:

Iñok ezm daike ukatu Jersus benetako norki bat izan zala eta gure aldiaren asieran. Erroma'ko Aginte-erriaren toki urrin baten bizi izan zala. Apostoluen arerio ta jazartzaille diranak iñoz ez dabe esaten eurak asmau ebela Jesus.

- Plinio Gazteak 110n. urtean, Asia Txikiko Kontsul-orde zala. Trajano Agintari Nagusiari eskutitza egin eutson, kristiñauak geroago ta geiago dirala eta jentillen gurtza-etxeak utsik izten ebezala esanez.

"Batzuk knstiñau izatea itzi egin dabela esaten eben ... Euren erru edo oker guztia auxe dala esaten eben: Egun izendatu baten. eguna argitu baiño lenago alkartzen zirala euren artean txandaka ereserkia abesteko Kristo'ri Jaungoiko lez eta zin egiten ebela ez txarkeri bat egiteko. lapurretarik ez egiteko, alderdi iltzailletara ez sartzeko, ezkontzea ez austeko, emondako berbea ez ukatzeko eta eskatzen eutsenean artutakoa emotea ez ukatzeko baiño.

Orren ondoren, alkarrangandik banandu egiten ziran gero barriro janan bat artzeko alkartu daitezan, baiña janaria oso-osoan arrunta eta ezelako **errurik bakoa da...**

Nik ez dot or ikusten errazoi-bako sorginkeri bat baiño".

- Tazito'k 115n. urtean, erromarren Kondaira-zale izanik, Neron"ek kristiñauen aurka izan ebazan jazarpenak aitatzen dauz, Erroma-erre ondoren'

"Izen au Kristo'gandik dator. Au eriotzara eroan eban Pontzio'k Tibeno Agintah Nagusi zala. Aldi baten zapalduta dagoan sorginken gogaikarri au

barrtro zabaltzen da eta ez Judea-aldean bakarnk, antxe sortua da izan be Erroma'n berlon be bai eta emen diran gauza iraingarri ta lotsagarri guztiak egokitu asko aurkitu dabez etorri diran orrein artean . "

- 120n. urte-inguruan Suetonio deritxon beste kondairalah erromatar batek Klaudio'ren bizitza idazpurua daroan bere liburuan auxe diño: Klaudio'k "Erroma'tik kanpora bialdu ebazala "Chrestus"en indarraz bein eta barriro nasteak ateraten ebezan judatarrak".

Idazki oneri buruz ikusi Apostoluen Egiñak 18,2.

- 98n. urte inguruan Erroma'n il zan Flabio Josefo kondairalariak "Judatarren antxiñako gauzak" deritxon liburua idatzi eban eta diño:

"Aldi onetan gizon jakintsu bat izan zan, Jesus izenekoa, jokabide zuzenekoa, bere onoimenak guztien eritxiz onartuak ziran. Judatarrak eta beste erri batzutako askok berari ikasle lez jarraitu eutsoen. Pilato'k kurutzerako epaia emon eutson eta kurutz-iltzatu egin eban. Baiña bere ikasle egin ziranak bere irakatsiak zabaldu ebezan. Kurutzean il eta gero irugarren egunean agertu jakela esan eben, eta bizi zala. Bear ba'da au izango zan igarleak gauza arrigarriak ezarri eutsoezan Mesias".

• Labur-labur, ez da fedenk bear Jesus mundu onetan izan zan benetako norki bat dala sinisteko.

Baiña fede-bideko jokabidea bear da Jesus berbiztu egin dala eta benetako Jaungoikoa dala onartzeko ta autortzeko.

## Egin geinkena

## Talde aundietan azterpena

- Ikas-gelakoak talde aundi bitan banatzen dira: Ikaslerik erdiak baten eta beste erdiak bestean

- Talde bakoitxak izparnngi bat aztertzen dau; izparringi biak, bakoitxa jokera batekoa, egun beratakoak izan bear dabe. Au errezago egiteko, esandako egun orretan ikasleak betera dagoz ikas-ge!ara bakoitxa edo iru nai lauen artean, euren taldeari dagokion izparringiagaz etorteko.

Albiste-bide bien aztertzea egiteko. eztabadea ondo egokitu bear da. gaink gai joanez Ona emen artu ieiken bide bat

- **Izparringi bietan dagozen barnak Barn bakoitxa** zeian agertzen daben a2tertuz. **Idazpuruak, emoten** jakon **garrantzia, irudi** lagungarriak, zenbat **age,** zein orrialde edo saille.

- Ajentzien **barriak** izparringi **bakoitxean:** Zelan **begiratzen diran**.

- Atarikoak tzparringi bakoitxean: Gaia, zelan begiratzen dan.

- **Izparringi batek bai** eta besteak **ez** daukezan sailieak. Zergatik?

- Azterpen osoaren laburpena.

- **Azkenengo** azterpena ta **ondorena (au irakasleak egin lei, ikasieak** eurak be **bai): Emoten dan** albistea geiletan zelan **emoten dan izaten da (Barria emoteko** bideak **bere ikutua dauka** mezuan).

- **Ekintza onetan ikusi dozuna ekarri orain gure gaira: Au** irakasleak egingo dau.

**Mezu bat ber-egitea**

- **Irakasleak ikasie bakoitxah eskaria egiten sautso, al danik zeatzen idatzi** dagiala ikastaldiaren asieran esan dan esaldia.

- **Esaldi ori idatzita eukiko dau irakasleak, esaldi oargarha izango da eta** luzeerea amar eta ogei **itzen artekoa**. **Asieran esaten** dauanean, ez dautse ikasleai **ezer esango esaldi ori ekintza baterako artuko dala agertzeko**. Esate baterako olako **zerbait esan lei: "Kontuan artu esaldi au** ..." **eta** gero **bere azalpenean jarraitu.**

- **Ikasle** bakoitxak banaka **esaldi ori ber-egin dauanean, guztiak** irakurten dira.

- **Laster** agertuko da **banakuntza ta ber-egiteen** aldakuntzak.

- **Irakasleak** ondorena gaurko gaiari ezarriko **dautso**.

**Irakasleak** ....

Amabost edo ogei berba daukazan esaldi bat esaten dautso ikasle bateri bakarrik, Onek urregoari **esaten dautso. Eta orrelan guztiak. Azkenean** artzen **dan** esaldia ta irakasleak esandakoa ipiñi alkarren parean. **Ondorena** gaiari **ezarri.**

**Margotu ....**

**Gai onen 1° puntuan laukian** ageetan aurkeztu dan sinoptikuen edestia, **arau oneik artuta: Itz bardiñak azpi-marratu ebanjelari bitan** dagozanak Baltzez, **iru** ebankelarirenak **gorriz eta batenak urdiñez. Zein** margo dago gaien? eta gitxien? Aztertu.

**Idatzi**...

Ikasle bakoitzak itun **Barriko liburu guztiak**, **burura** datorkozgnak. Amaitzen danean ez dagozenak **sartu 27'ak osotu arte**.

**Alkartu ...**

**Gai au elertiko beste gai batzukaz: "Mio Zid"en** abestiagaz, Mester **de** Juglariagaz, Erromantzegilleakaz, erderearen aurrerapenagaz, sefardrten gaztelereagaz.

**Aurkltu**...

**Norentzat eta non egiten dauan berba Pauio'k Ap. Egiñakliburuan 13,16-41 eta nori eta non Ap: Egiñak 17,22-32'en.**

Berbaldi **bi orreik alkarren parean ipiñita, ikusi zertan diran antzekoak** eta **zertan ezbardiñak.** Zergaitik lenengoan ez da aitatzen **olerkaririk?** Zergaitik **bigarrenean ezdan aitatzen igarlerik?**

**Zeln da** ...

Jaiotzea eta Jesus'en **etorrerea** ospatzeko liturji-aldia[9] Zelakoa da?

## **VIII.** GAIA

# ZER ESATEN EBAN JESUS'EK?
## (Jesus'en berbaldietako oiñarri-ardatza)

**Zoriontasunen mendia.**

Gai onetan auxe EGINGO dogu...

* Jesus'en mezuaren oiñarria, Jaungoikoaren erreiñua dala ulertu.
* Jaungoikoaren erreiñua zer dan eta zer ez dan bereiztu.
* Jaungoikoaren Erreiñuan Jesus'en zeregiña zer dan aurkitu.

I2AN BE...

* Mezu bat artu edo ez artu egiteko, ezagutu egin bear da.
* Jesus'en mezua, Jaungoikoaren Erreiñua, barria baiño barriagoa da, Iraultzaille baiño iraultzailleagoa eta beragana gu eroateko indartsua baiño indartsuagoa.

OARRAK

1.- Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñua aitatzen eban

* Barri ona iragarten asi ziraneko Apostoluen lenengo berbaldiak irakurten ba'doguz, (Ap. Eg. 2,24-32; 3,15; 4,2-10 eta abar...) laster konturatuko gara euren gai nagusia beti daia bat, Kristo berbiztua.

Baiña Jesus'ek il baiño lenago bere berbizkundea ezin aldarrikatu eban ezkero, oraindiño jazo bakoa zalako, itaun au egin-bearra daukagu: **Zeri buruz** egiten eban berba Jesus'ek bere berbaldietan?

* Itaun oneri erantzuteko ikas-gelan itaunketa bat egingo ba'genduke, asko batuko litzakez onein antzeko erantzunak:

1°. Beste munduko gauzak iragarten ebazan: eriotzearen ostean zer dagoan, onai ta gaiztoai zer jazoko jaken, nortzuk gaitzen diran eta nortzuk salbau, salbamena lortzeko zer egin bear dan...

2n. Biziteko era barri bat irakasten eban, ebanjelioaren bidea, persona bat benetakoa izateko zelako jokabidea euki bear eban esaten eban: Oitura utsen aurka jokatu (fariseokeria) erlejiño-arloan naiz erri-arloan, egizaiea izan, agintzen dabenen aurrean adoretsua izan, alboratuakana urreratu, gizon guztien senidetasuna, asmoai balio geiago emon egiteai baiño, eta batez be, lege guztiak bitan batu: Jaungoikoaren eta urko lagunaren maitasunean.

* Erantzun bi oneik, ez dira egi osoa, ez dira oiñarrikoak Jesus'en Mezuan.

Baifia ba-dauke egiaren zati bana. izan be:

1° Jesus'ek ez eban bere irakatsia geroko bizitzan oiñarritzen, baiña bere mezua artzen dauanak geroko bizitzea beste era batera ikusten dau.

2n. Jesus'ek ez dauz bere irakatsiak bizikera barria agertzean oiña-rritzen batña bere mezua onartzen dauana beste era batera bizi izango da

* Zer da ba Jesus'ek bere berbaldietan benetan azaltzen dauana? Ebanjeiioak irakum ezkero, ori errez aurkitzen da; Markos'en ebanjelioan Jesus'en lenengo berbak oneik dira: "Bete da epea, Jaungoikoaren Erreiñua ur dago (Mk. 1,15)

Orregaitik ba, Jesus'ek berbaldietan benetan esaten ebana, Jaungoikoaren Erreiñuaren etorrerea da.

2.- Jaungoikoaren Erreiñua zer ez dan

Ez dogu asko aurreratu lenengo itaunari orrelan erantzuteaz, Jesus'ek bere berbaldietan zer azaltzen eban esateaz, emon dogun erantzun bakarra Erreiñua azaltzen ebala izan dalako, baiña Erreiñua zer dan esan barik. Gaiñeva, asko izan dira Erreiñuan buruz okenezko eritxiak euki dabezenak edo Jesus'ena ez dan eritxia eukt dabenak.

Izatez, JAUNGOIKOAREN ERREIÑUA

— EZ DA erreinu **politikua,** ori zelotak itxaroten eben Israelentzat, eta erbestetarren menpetik askatzekoa zan...

... BAIÑA bai ba-dauka errigintzarako era barri bat.

— **EZ DA Moises'en Legearen errernua,** ori fariseoak itxaroten eben eta gizon guztiak Lege ori onartzen dabenean etorriko da...

... BAIÑA legea beteteko era barri bat bai ba-dakar.

— EZ DA apokalipsis-Erreiñua edo munduaren azkena eta mundu barria gogoratzen dauzana, orretan Jaungoikoaren eragin berezia dala. eta indarrez egokttasun barria dakarrena, Juda'tarren arteko erlejiño-jokabide batzuk itxaroten eben lez...

... BAIÑA bai Jaungoikoaren doia, emoitza.

- **EZ DA gizonaren** barruan dan **Jainko-miña** (ori esaten eben joan dan gizaldiko teologo protestadunak) Jainko-min ori Jesus'egan beste iñogan baiño indartsuagoa izan zan, baiña edozein gizonengan be izan daiken Jainko-miña...

  ... BAIÑA bai Jainkoari buruz bizi-ikasi edo barrumin berezi bat.

— **EZ DA Zerua.** gaurko kristiñau askok uste daben lez, arimeak Jainkoaren poza gozatuko dauan lekua.

  ... BAIÑA Erreiñu ori ez da bere betean agertuko zerura gu eldu arte,

3.- Jaungoikoaren Erreiñua zer dan.

* Orain arte naikoa ondo esan dogu Jaungoikoaren Erreiñua "Zer ez dan"; baiña ez dakigu ondo "zer dan". Arlo onetan geure buruak argitzeko berba bi erabilliko doguz: **Jazokizuna** ta izatea.

* Jaungoikoaren Erreiñua jazokizuna da.

Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñua *datorrela jragarten dauanean,* jazokizun bat datorrela iragarten dau, "jazoko dan zerbait": eta zer jazoko dala iragarten dau?: **Jaungoikoak bere ekiña asiko dauala** eta **gjzonen Errege ta Jaun** lez agertuko dala.

Guri "Jauna" berbeak ez dausku ondo joten belarrietara, berba orren aurkakoa dan "morroia" gogoratzen dauskulako. Baiña orduko Juda'tarrentzat ez eban orrelan joten belarrietara. Eurentzat Jaungoikoaren Erreiñua amets aundi baten betetzea zan (lurrean iñoz bete ez zan amets batena izan be) jaun baten ametsa ezinduai makalai eta txiroai laguntzera datorren errege zuzen baten ametsa.

Orregaitik, Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñua iragarten ebala esanbearrean obeto esango genduke Jaungoikoaren **erregetza** iragarten dauala. "Erreiñua" berbeak lurralde bat gogoratzen dau, baiña "erregetza" berbeak aldi bat esan gura dau, errege bat errege dan aldia, baten-baten erregetza-aldian asten dan erregetza-aldia, eta bri jazoten dan zerbait izaten da, ez lurralde bat: Jaungoikoa asten da errege

izaten, Jaun lez onartu izaten eta orrelan asten da ontasunaren, egiaren, zuzentasunaren eta zoriontasunaren erregetza.

Jesus'ek diñoan lez, Jaungoikoaren Erreiñua ez dago "emen edo an". Begiratu: Jaungoikoaren erreiñua zeuen barruan dago (Lk. 17,21)

* Baiña oraintxe **jazoten** dagoan **jazokizuna** da: izatezkoa.

Jaungoikoaren Erreiñua ez da burutasun utsa edo gero etorteko dan zerbait, Jesus'ek erreiñuaren barruan bizi izan eban izate bat da eta berak beste guztiai be eskiñi eutsen.

— Jesus Jaungoikoaren Jauntza-barruan bizi izan zan, ez eban biHatzen berak nai ebana, Aitak nai ebana baiño (Jn. 5,30). Baiña Jaungoikoa nagusi ebala bizi zan, berak nai ebala, bere barruan Jainkoa indartsu eta ur somatzen ebalako. Ain ur somatzen ebalako esaten eutson "abba" (gure izkuntzan "aitatxu" esango genduke) eta ori ezin zeitekean Juda-tarren buruan sartu, ori esatea lotsagarria **zan,** Jaungoikoaren ize na erabilli-bearrean, itzaltasunaren ezaugarri lez isildu egiten ziran edo beste berba batzukaz agertzen eben areintzat.

— Jesus Jaungoikoaren maitasunak artuta bizi zan. Eta ori agertzeko maitasuna zabaltzen eban bere inguruko guztiengan: fkasleengan (Jn. 13,1) gaisoengan (Mk. 1,29-34) zerga-batzailleengan (Lk. 7,36-50) eta kurutzean bere parkamena eskiñi eutsen arerioengan be bai (Lk. 23,34).

Jaungoikoaren Erreiñua ez da beste bank Jesus'ek aurretiaz, 2.000 urte lenago bizi izan eban gauza bat, gaur be jazoten dan gauzea da:

— Persona batek Jaungoikoa bere Jaun lez artzen dauanean eta Jaungoikoaganako maitasuna bere bizitzako egieetan agertzea nai dauanean, esaterako mesede bat egiten dauanean. laguntza emoten dauanean, mundu zuzenago baten alde egiten dauanean, eta abar...

— Personen talde batek txikia izan (sendia, ikas-gelakoak) naiz aundia izan (uri bat, aberri bat) oinkada bat emoten

dauanean artu-emonak obetzeko: itzaltasuna, alkar uler-*tzea,* zuzentasuna, alkar-lana, eta abar.

A M A I T Z E K O

* Jesus'entzat Jaungoikoa Jauna da. Baiña "abba" edo adiskide dan aita baten antzera.

* Orregaitik, Jaungoikoaren Erreiñua "maitasunaren Erreiñua" da: Jaungoikoa gizonengana dator maitasunez; Gizonak berak maitatuta ikusten dabez euren buruak eta bera maitatzen dabe.

* Eta maitasun au urko lagunaren maitasunean agertzen da, senide dodazan gizon eta andra guztiak maitatzean.

* Jaungoikoaren Erreiñua andra-gizon guztiak daben zenidetasunaren erreiñua da eta oneik Jaungoikoa dabe euren Jaun eta Aita.

* Jaungoikoaren Erreiñuko otoitza Gure Aita da.

* Eta Jaungoikoaren Erreiñuko agerpena Zoriontasunak dira.

Zoriontasunen Eleizea

## 4.- Jaungoikoaren eta Jesus'en Erreiñua: Mesias.

### Juda'tarren Mesias

Israel Erriaren kondairea eragozpenezeta ondamendiz beterik dago: Gudaketak, erbesteratzeak, Jaungoikoa aiztuteak... Eta gauzak

orrelan dagozela, Judatarrengan aldakuntza baten itxaropena sovtu zan, Jaungoikoa lagun dala, eragozpen orreik azpiratzeko eta Juda' tarren erriaren betiko ondamendiak alboratzeko egoera barri baten itxaropena. Jaungoikoaren Erreiñua ezartearen itxaropena. Erreiñua Juda'tarren guztiak itxaroten eben, baiña euren artean ez zan beti batdin ulertzen: Batzuk politika'ko Erreiñua, beste batzuk Legearen Erreiñua, beste batzuk apokalipsis eta Jainkoaren agertze-erreiñua, eta abar...

Jaungoikoaren Erreiñuari buruz egoan itxaropen onegaz batera Juda'tarren artean Mesias'en itxaropena sortu zan (berbea eberkeratik artu da eta "igortzia" esan gura dau -Jaunaren igortzia- eta gero gerkerara itzulita "Kristo" berbea sortu zan).

Baiña Jaungoikoaren Erreiñua era askotara ulertzen zan !ez. Mesias zelakoa izango zan be era askotara ufertu zan: politikako Mesias. Mesias Lege Maixua izango dana, Jaungoikoaren agerpenaren igarle izango dan Mesias, eta abar...

**Jesus** Mesias dana

Astiro-astiro, maillaka, Jesus Mesias lez agertu zan. Eta apurka. Apostoluak Mesias lez ezagutu eben. Orrelan ikusi eben Jaungoikoaren Erreiñua agertu zala Jesus agertu zalako. Baiña Jesus'ek ez eban argi-argi esan bera Mesias zanik, jenteak ori txarto ulertuko ebalako, bakoitxak bere burutasunak eskatzen eutsoen lez. Apostoluak eurak be ez eben ondo ulertu zelako Mesias zan Jesus, berau il eta berbiztu arte: Berbizkundeak agertu eutsen Jesus Mesias zala; eriotzeak ba-dala agertu eutsen, baiña ez diruaren, ospearen edo indarraren bidez, apaltasunaren eta nekearen bidez baiño.

**Jesus'ek zelako** Mesias izan gura ez eban.

Jesus'ek berak be izan eban bere denporako eritxiak itxaroten eben lako Mesias izateko tentaldia. Baiña ori alboratu egin eban eta sendo aukeratu eban Jaungoikoaren eginbideagaz baterakoa zan Mesias izateko erea. Au labur-labur agertzen da basa-rnortuko ten-

taldien edestiao (Ml 4,1-11). Ona emen **Jesus'ek** aiboratu **ebazan** iru Mesias izateko cu

— **Ez Mesias** gauza-zalea (Mt.4,4)

Ori litzake jenteari dirua ta gauzak eskintzeko tentaldia. Baita jentea bere eritxira ekarteko eragin aundia arlzeko bidea be. Ori Jaungoikoaren Erreiñua ba'litzake iez.

Tentaldi au alboratu ebanean Jesus'ek txirotasunaren bidea artu eban. Izan be "gizona ez da bizi ogi utsaz, Jaungoikoaren agotik urteten dauan edozein beibaren indarraz be bizi da" (Mt. 4,4)

— **Ez aztikerizko Mesias** (Mt. 4,6)

Gauza arrigarriak eta mirariak egin eta jentea erotuta iztearen bidea izango litzake au, orrelan sinistea baiño beste bidenk izan ez dagien (beste gai baten ikusiko dogu mirariak beste esangura bat daukela). Eriotzan bertan be Jesus'ek tentaldi oneri aurka egin eutson: "Israel'go Erregea dala! Jatsi daitela kurutzetik eta sinistuko dautsagu ori" (Mt. 27.42).

Tentaldi au alboratu ebanean, Jesus'ek apaltasunaren eta eguneroko arazoen bidea artu eban.

— Ez Mesias politikua (Mt. 4,9)

Aimenaren tentaldia da au eta onek Jaungoikoaren Erreiñua beste poiitika-erreiñu bat biurtuta itziko eban. Edo, baita, politikako indarra artuta Jaungoikoaren Erreiñua indarrez sartzeko tentaldia be.

Jesus'ek alboratu egin eban tentaldi au eta beronegaz batera olako Mesias izatea. Ogiak eta arraiñak ugaritu ondoren, errege egin gura izan ebenean iges egin eban (Jn. 6,15). Eta laterrietako agintariai be azterpena egiten dautse, zapalketa egiten daben aundiai be bai (Mt. 20, 25-28).

- Jesus'ek aukeratu eban Mesias izateko erea.

Isaias'ek dakarren Jaungoikoaren Otseiñaren erako Mesias izatea (Is. 42, 1-4; 52,13-53, 12}

— Indar barik eta guzti-guztien laguntzaitle
  Apala, apaldua izateraiño.
— Aundikeri bakoa, apalen aukeran dagoana.
— Gizonen bear-izanai buruz arduratua.
— Baiña zabala, Jaungoikoaren ondasunen eta almenaren bidera zabatduta dagoana.

Jesus'ek ez ebazan tentaldiak onartu: Jaungoikoaren Erreiñua asten dauao Mesias da bera.

Orregaitik, Jesus'ek azpiratu ebazan tentaldiak azpiratzen doguzan neurrian eta Jesus'en izakerak eta jokabideak gugan sortzen doguzan neurrian, egongo gara gure bizitzetan eta gure munduan Jesus'ek iragarri eban Erreiñua bera egiten.

EGIN GEINKENA

Itaunketa

— Ikasie bakoitxak berbea emoten dau, ikas-taldekoa ez dan persona baten erantzuna ikas-geiara ekarteko.
~- Itauna au izan daiteke: Zer esaten eban Jesus'ek, zetzaz egiten eban berba?
— Erantzunak batu ondoren, bakoitxa bere lekuan ipinten dira.
— Erantzunen eta erantzuleen adiñaren artean diran zer-ikusiak be aztertu leiz; edo erantzunen eta lanbideen artean diranak (lanbideak ezaugarn izaten dira bakoitxaren gizarte ta ekonomi-egoerea agertzeko); edo erantzunen eta seksuaren artean diran zer-ikusiak.

Ezarpena...

Irakasieak egokien dala uste *dauan* trebe-bidea artuta (idaztea. bakoitxaren lana, taldeko lana, gaia zabaltzeko berbaldi txikia) aztertu Jesus'en ipuiñen gaia.

Billatu...

Paraboletan Mt. 13'an. Jaungoikoaren Erreiñuaren berezitasun batzuk.

Autarki-bidez esan...

Mat. 13'ko zein parabolak obeto agertzen dauan, ikaslearen ustez, beretzat Jaungoikoaren Erreiñua zer dan.

Azaldu...

ikasle bakoitzak berba arruntakaz eta orri-erdi baten, geiago ez, Jaungoikoaren Erreiñua zer dan.

**Billatu...**

Eta taldeakaz artu-emonak izan, ezagunak dirala naiz ez dirala, baiña Jaungoikoaren erreiñua egiten aiegintzen diranakaz. Eurakaz berba egin klasean al ba'litz.

**Billatu...**

Zer dan erromaniko tankerako "Pantokrator" edo Alguztiduna, eta zer esan gura dauan.

Gogoratu...

Labin, lurralde-buruak *ze\'* ziran. menpeko langilleak zei ziran. Billatu onek guie gaiagaz dauan zer-ikusia.

Azaldu **geinke...**

Gure Aita esaldirik esoldiera?

Esan non dagoan...

Gaurko munduan gauza-zaleen eta ereste-zaleen tentaldia, azti-tentaldia eta politika-jokoaren tentaldia.

**Zer ete** da...

Garizumea deritxogun liturji-aldia?

**Irakurri...**

Itun barrian zoriontasunak. Gero azaldu zergaitik diran Erreiñuaren agerpena.

Billatu...

Is. 42, 1-4; **52**,**13-53;** 12. I**rakurrj** zati orreik eta **aza**l**du** ikas-gelan.

JX. GAIA

# ALDATZEA
(Biurtzciako Deia)

**Itun** Zarreko Jeriko'ren **ondakiñak.**
**Jeriko'n entzun** eban deia Zakeo'k
eta aidatu egin **zan.**

Gai onetan EGINGO doguna:

* Bere aldiko erlejiño-gizartetik Jesus zelan eta zenbat urrindu zan ikusi.

* Jesus onartzeko, ez dala naikoa berari buruz gauzak jakitea, ulertu: Burua aldatu bear da, bizitzea aldatu, biurtu.

* Aldakuntza au egm leikena dala ikusi, Jaungoikoak gure ba-rria ba-dakialako (ulerkoia da) eta itxaroten daukagulako (errukitsua da).

IZAN BE:

* Jesus'en Mezua ez da burubide utsezkoa, deia da.

* Deia entzuten danean, erantzun bi dagoz: jarraitu edo ez jarraitu (ez da natkoa entzutea eta ezagutzea).

•k * *

## OARRAK

1.- Jesus'ek **irakatsi "arriskutsua"** iragarten dau.

Jesus'en lenengo iragarkia auxe *aa:* "Damutu zaiteze, Erreiñua ur dago-ta" (Mk. **1,15).**

Aurreko gaia ulertu ba'dogu, orain errez ulertuko dogu Jaungoikoaren Erreiñua iragartea gizonentzat pozerako bidea dala: Barri On bat da, Jesus.ek dakarren Barri Ona, emon leuskuen Barririk Onena.

Baiña Jesus'en entzuleentzat, batez fariseo ta erriko agintarientzat, irakatsi ori arriskugarria zan. Ba-dagoz orretarako errazoi batzuk:

## ONEXEN BILLA

Saria: Betikotasuna

Nazaret'eko Jesus. Galileatarra. 33 urte, azal baltzerana, bizarra ta uleak hippi'ren antzekoak, eskuetan eta oiñetan zauri osatuak. Lepradunak, eskekoak aurrean erabilliak eta amabi bere jarraitzai-l!e dabiltz beragaz. Erri-jentea okerbideratzen dau iraultza-giroko esaldiakaz, esaterako: "Alkar maite izan zaiteze" eta "Arerioai be parkatu egiezue..." Aurkitzen ba'dozu jarraitu bere oiñatzak.

* Irakatsi arriskugarria zan, eurak ziraia erri guztian gizon zuzen bakarrak uste ebelako; eurentzat Juda'tarren erria *zan* Jaungoikoaren salbamena artzeko erri bakarra: Jaungoikoak au-keratuak ziran bere erririk maitagarrien lez, Moises'en bidez berba be egin eutsen, igarleen bidez be bai, eurakaz alkartasun bat izenpetu eban Jaungokoikoak, eurai beste erriai baiño geiago lagundu eutsen... eurak ebela salbamenaren eskubide bakarra esaten eben.

Jesus **ostera**, gizon guztiak sartzeko zan erreiñu orokor bat aitatzen agertu zan. Eta erreiñu ori emen dago, azi egiten da eta onak eta txarrak daukaz barruan (Mt. *13,* 24-30), zuzenak eta okerrak be

bai. Urko laguna maitatzea ez da, beste barik, erri aretako personak maitatzea: Atzerritarrak eta arerio !ez artuta dagozenak be maitatu egin bear dira (Lk. 10, 25-37). Eta Jesus'ek beste au be esaten eban; Ganantzi aundiko gauzea ez zala Juda'tarren errikoa izatea, egite onen ondorenak emotea baiño; eta Juda'tarren frutu onsk emoten ez daben ezkero, erriñua kenclu egingo jake eta ori dagokien beste batzui emon. (Mt. 21,43).

Labur.

Erreiñua orokorra izatearen
berezitasuna, irakatsi
"arriskugart ia" zan.

* **Irakatsi** arriskugarria zan erlejiño-aldetik Juda'tarren erriarentzat jauzarik aundiena legea ondo ta zeatz betetea zalako.

Jesus'ek ostera beste era batera ekiten dau. Ez dautso ardura legea bertan bera izteak, gizonai on egiteak ori eskatzen dauanean. Esaterako, ez dauka eragozpenik zapatuz gaisoak osatzeko, beretzat gizonen osasuna garrantzi aundiagokoa dalako, legeak zapatuan ezarten eban atseden osoa betetea baiño; Legea gizonari laguntzeko egiña dala diño eta ez bestetara (Mk. 2,27); bafio dabenak gizonaren biotzeko asmoak dira, ez agirian aginduta dagozan egite batzuk egitea, legearen aginduak betetea (Mk. 7, 15-23); Jaungoikoaren Erreiñukoa izateko fariseoak eta idazkariak baiño gorago egon bear da (Mt. 5,20).

Labur:

Gizona Moises'en Legea baiño garantzt
aundiagokoa izatea,
irakatsi "arriskugarria" zan.

* **Irakatsi arriskugarria zan** eurak Mesias antzatsua 'txaroten ebelako, irabazlea, politikako gidaria, Erromatarren menpetik aterako *ebazana. Orregaitik aukeratu* nai dabe Jesus Errege (Jn. 6,15).

Jesus'ek ostera, apaltasun aundiagoagaz jokatzen dau, Ez dau nai gizonak menperatzea, beti eurai laguntzea ta otseintzea baiño; eta bere Erreiñuko izan gura dabenak olantxe jokatu bear dabe (M t. 20, 25-28) Jesus'ek auxe diño: "Billatu egizue lenengo Jaungoikoaren Erreiñua ta onen zuzentasuna eta gaiñerakoa geigarriz emongo jatzue" (Mt. 6,33); eta gogoratu dagigun Jaungoikoaren Erreiñua billatzeak auxe esan gura dauala: Jaungoikoa Aita lez artu, Gizon eta emakume guztiak senide lez onartu, Jesus'en bizitzearen antzera bizi.

Labur:

Jesus zelan agertu zan eta zer egiten eban ikusita,
bere irakatsiak "arriskugarriak z irala uste izan eben.

2.- Jesus lagun txarrakaz ibilten zan

* Fariseoak talde berezia ziran eta ez ziran besteakaz nastaten. Txiroak alboratu eta irrikatu egiten ebezan, gaisoak, batez be lepradunak, ez jakiñak, pekatariak, zerga-batzaiileak eta Legea zeatz beteten ez eben guztiak bardin.

* Baiña Jesus'en jokabidea ez zan orreiakoa: Lenengo txiroak billatzen dauz eta bere Erreiñuan sartzeko lenengoak dirala diño (Mt. 5,3; Lukas 6,20 eta 24) lepradunakana urreratu eta osatu egiten dauz (Mt. 8, 1-4); Andra ezkontza-ausleari parkatu egiten dautso (Jn. 8, 1-1 i) eta andra galdu bat fariseoak baiño goragokotzat artzen dau (Lk. 7, 36-50); zergabatzaillea dan Zakeo'ren lagun egiten da (Lk. 19, 1-10) eta Mateo artzen dau bere taldean zergabatzaillea au be (Mt. 9, 9-13).

Fariseoak jokabide guzti oneikaitik aztertze zorrotza egiten dautsoe eta "lagun txarrakaz" dabillela diñotsoe. Lagun txarrakaz ibiIH eta eurakaz maian jarri eta janariak banatu be bai. Eta au ez da sakontasun bako egite bat, ez da alkar-lagun izate uts bat: Eurakaz jatea Jaungoikoaren Erreiñuaren asierea da eta alkarragaz jate ori anaitasunaren eta Erreiñua aurrean egotearen ezaugarria da.

**3.- Jesus'ek biurtzera** deia egiten dau

Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñuaren Barri Ona iragarteagaz gizon guztientzat salbamena eskintzen dau: Ez naz etorri iñor kondenatzeko, guztiak *saibatzeko baiño.*

* Iragarte au Jesus'en dei **au,** gizonen aldetik arduraz entzutea zor jakon gauzea da (entzutea ta arduraz entzutea ez da bardin); arduraz entzutea arreta aundiagaz egin bear da. Erreiñuaren balioak, zati on bat, gure gizartearen balioen aurka dagozelako.

* Jesus'en deia arduraz entzun ondoren, berak dakarskun Erreiñuaren iragarkia ondo ulertu ondoren, zein izan leiteke gizonaren **erantzuna?** Erantzun au aurkitzeko, jarraitu dagigun Jesus'ek itzi eban bidea.

Jesus'ek lepradunak osatu eta eurak urrin bizi izan arren gizartera sartzen dauz (Lk, 5,121 6. Baiña gaisoak osatzea, orrez gaiñera, gorputza osatu ondoren, osatze sakonago baten ezaugarna da: Osatzea. pekatutik askatzea, auxe da izan be gizonaren oiñarriko gatxa. Jesus'ek berak alkartzen dauz sarritan osatze bi oneik zeatz eta argi esanaz. Esaterako, osatzen dauan elbarrituari (paralitikuari) lenengo pekatuak parkatzen dautsoz (Mk. 2.1-12); andra ezkontza-ausleari ta galduari pekatuak parkatzen dautsez eta alboratuta eukazan gizartera sartzen dauz (Jn. 8.1-11; Lk. 7, 36-50); guztiai esaten dautse: "Zoaz bakean eta ez egizu barriro olakorik egin". Amaitzeko, Jesus'ek bere Erreiñua aurrean dagoala diñoanean, biurtzearen bear-izana be iragarten dau (Mk. 1, 14-15).

Eta auxe da gizonok Jesus'en deiari eta bere Erreiñuaren iragarteari emon bear dautsagun erantzuna: Biurtzearen jokabidea.

4.- Zer da biurtzea?

Biurtzea, aldatzea da.

Biurtzea, pentsaerea aldatzea da burubideak aldatzea afdakuntza egin arte baliotzat ez geunkazanak balio lez aurkitzea eta beste gau-

za batzuk alboratu, aldakuntza egin arte asko maite genduzanak izan arren.

Baiña biurtzea ez da bakarrik pentsaerea aldatzea; izan be, pentsaerea benetan aldatzen danean, ekiteko erea be nai ta nai ez aldatzen da. Biurtzea beste bide bat artzea da (ekiteko ere aldatzea) gaur daukagunak elburutik aldendu egiten gaituala ikusi dogulako (pentsaerea aldatzea); biziteko tankera barri bat artzea da, bizitzeari zentzun barri bat aurkitu jakolako.

Adibide bat ipiñi dagigun: Juan Bateatzailleak biurtze au bearrezkoa zala iragarri ebanean, berari entzuten egozanak ez dautsoe itauntzen aurrerantzean zelan pentsau bear daben: Gauza zeatzak eskatzen dautsoez, zelan jokatu jakiteko. Eta orduan bere erantzuna artzen dabe: Jantzi bi daukazenak, ez daukanagaz banatu dagiala, janari daukanak bardin egin dagiaia; ez eskatu eskubidea daukazuen baiño geiago; ez iñori gogokeririk egin... (Lk. 3, 10-14).

Labur:

Igarleen antzera, Jesus'ek gizonak daukan pekatu-egoerea salatzen dau.
Parkamena ta salbamena iragarten dauz,
Jaungoikoaren aldetik eta duan, maitasunez, eskiñita.
Biurtzea da naikoa, burua aldatzea, bizi-erea atdatzea.

## 5.- *Jesus'entzat "ikusi-ezina"*

Jesus'ek eukan gauzak egiteko erea eta berak esaten ebana, f.ariseoentzat, erriko zuzendarientzat eta euren buruak ontzat aukezenentzat gorrotogarri biurtu ziran eta Jesus bera alboratzeko jokabidea sortu eben. Orduan Jesus, antza dagoanez, kontakizunak esaten ona be ba-da eta, ipuin edo parabola batzuk esaten asi jaken eta ipuin orreik egoki-egokiak ziran euren bizitzetara ekarri egiezan; gura ebana orrelan bere iragarria ulertu egiela eta biurtu zeitezela zan (Lk. 15, 1-3).

* "Errukraren parabolak" esaten jake onei eta Lukas'en Ebanjelio'ko 15n. atalean dagoz. Olako ipuiñetan Jesus'ek argi agertzen

dau bere zeregiña pekatariak salbatzea dala; orregaitik, osagillearen antzera egunero dago gaisoagaz artu-emonetan, gaisoa da osagillea bear dauana eta ez osasunduna {Lk. 5,32). Berak gaisoak billatu egiten dauz eta eurakaz artu-emonak izan.

* Parabola edo ipuin oneitan geien azpimarratzen dana pekatari baten biurtzeak emoten dauan poz aundia da. Ipuin oneitatik irugarrena dan "seme ondatzaillearen "ipuiñak (Lk. 15, 11-32) irakurte berezia ta arretazkoa merezi dau; idazpurua ori izan arren, norki nagusia ez da etxetik doan sema, etxera datorren semeari parkatzen dautsan jeta maitasun aundia ta neurribako poza agertzen dauan aita baiño.

* Mateo'k bere aldetik beste iru ipuin dakaz, Jesus'ek esanak eta fariseoai argi ta gogor berba egiteko diranak (Mt. 21,28-22-15), parabola oneitan Jaungoikoaren deia entzuten ez dabelako salatzen dira eta pekatariak, zerga-batzailleak eta andra galduak, eurak baiño lenago sartuko dirala Erreiñuan esaten jake eta zemaia be egiten jake Erreinutik kanpo geratuko dirala eta erreiñua frutua, egite onak, egiten dabezenentzat izango dala esaten jake.

Fariseoak, erantzun lez, Jesus irrikatu, guzurrez salatu, aurrean erabilli egiten dabe eta euren artetik kentzeko bideak artzen dabez, "ikusi-eziñeko" lez agertzen dabe: Ez dabe entzuten biurtzera deia.

6.- **Artzeko naiz** izteko askeak.

* Mendiko berbaldian (Mt. 5-7, eta auxe da Ebanjelioaren ardatza, Jesus'ek nai dauana da txirotasuna ezartea, edo aurrean erabilliak izatea onartzea, ez dautso iñori ezer ezarten. Berak egiten dauana ez da besterik zorionerako bide bat agertzea baiño: "Zorionekoak txiroak..., zorionekoak gogorkeri-bakoak..," Bide au berak egin eban lenengo eta gero aurkeztu egiten dausku, orretarako deia be egiten dau, Kristo onartuz eta beragan uste ona jarriaz, urratzak emon geinkez bide ori egiteko edo gengozan lez jarraitu be egin geinke: Askeak gara izan be.

* Baiña, bide argia izan arren, ez da bide erosoa. Or diran balioak gure gizartekoen aurkakoak dira. Ezin daikegu ba bide ori jarraitu aurretiaz geure burubideak aldatu barik; aurretiaz geu "biurtu" barik esan gura da.

* Baiña iñok ezin daike iñor beartu biurtzera; biurtzea ezin izan leiteke kanpotik datorren ezarte bat, orrelan aldakuntza kanpokoa, azalekoa izango litzake, baiña personen biotzak aldatu barik.

Jaungoikoa bera da askeak izateko egin ginduzana. Eta Jesus'ek be gizonen askatasuna it zaltasunaz begiratzen dau. Biurtzea, benetan, gizon askearen egite askea da.

* "Nigaz etorn nai dauanak..." (Lk. 14,26); "osoa izatea nai ba'dozu..." esaldi orreik sarritan esaten dauz Jesus'ek eta argi diñoe bere jarraitzaille ezin daitekela izan iñor, "gura ba'dau" bera onartuta baiño, askatasun osoagaz onartuta.

Jesus'ek ez dau bere legea ezarten
almenaren indarragaz:
eskiñi egiten dau
gure kontzientziak nai ba'leu
onartu dagian.

**Biurtze bat:** Zakeo (Lk. 19, 1-10)

Jesus'ek Jeriko erria igaroten eban, Jordan ltxas-1 llera sartzen dan lekuan. Antxe bizi zan zerga-batzaiileen buru zan bat, bere ardura orretan, larkeriz, lapurretan eginda aberastua. Jesus Jeriko'ra etorrela jakin ebanean, berau ikusgurea sortu jakon: ez zan besterik etorrena ikusteko barrumiña baiño, onek Jaungoikoak bialdutako igarle-entzutea eukalako (korrikalari ospetsuak ikusteko, baiña ez eurakana urreratzeko ta berba egiteko, elburura joaten dan jentearen anteefca ). Jesus'ek inguruan jentetza aundia ekarren eta zergabatzailleen buru zana txikitxua zan eta ezin ikusi ondo. Ariñeketan joan eta aurrerago egoan iko batera igon eban. Au Jesus'ek eroian bidearen ertzean egoan. Jesus eldu zanean begiratu egin eban ikusgarri arrigarria ikusteko: Jaun aundi bat, "dirutza-Begiratzaillea" ikoaren abar artean ostonduta, Jesus'ek **deitu** eta berba egin eutson, adiskidetasuna eskiñi eta beragaz apaldu-naia agertu: Batera joan ziran Zakeo'ren etxera. Ez dakigu -Barri— Onak ez diño-ta alkarrari zer esan eutsoen, baiña bai azkena zelan izan zan: Zakeo "biurtu" egin zan: Zintzotasuna eta Jesus'en lagun izatea dirua baiño beiñagoak zirala ikusi eban,

batez be lapurretan lortutako diruak baiño geiago, eta bere bizitzako jokabidea aldatu egin eban: "Begiratu, Jauna, nire ondasun erdia emoten dautset txiroai eta ostu dautsedanai alako lau biurtuko dautxet".

Alperreko biurtze bat ( Mk. 10,17-31)

Beste sarritan lez, Jesus bidez joian eta gazte bat urreratu jakon beragaz berba egiteko gurariagaz. Gazte au mutil ona zan: Umetatik aginduak beteten ikasia eta ori errez egiten ebana. Jesus'ek maitemiñez entzun eutson. Eta, mutillak bere berbetea amaitu ebanean, orrelantxe jarraitu bear ebala betiko bizitzea lortzeko esan eutson. Baiña mutilla gazte urduria zan, ez egoan pozik bere bizitza orregaz eta bere buruagaz (ain zan gauza erreza aginduak betetea!) zerbait geiago nai eban, obea izan, aidatu, biurtu,. Orduan Jesus'ek bere jarraitzaileen taldera sartzea eskintzen dautso: "Azkeneraiño eldu gura ba'dozu, zoaz eta saldu daukazuna ta emon txiroai eta zeruan ondasuntza aundia izango dozu, eta gero zatoz neugaz". Mutil a persona ona zan, baiña Jesus'ek eskatzen ebana larregi jakon eta berak ez eban nai orrenbeste, aberatsa be ba-zan eta maite ebazan bere aberastasunak eta erosotasunak. Orrexegaitik ez eban itzi bere bidea, ez eban aldatu bizitzea, ez zan biurtu; eta or amaitu zan beartsuakaz alkar-banatzearen poza eta Jesus'en jarraitzaillea izatearen aiaitasuna. Jesus'ek berari ezer ezarri ez arren, itun geratzen da, gazteak eskintza orionartu ez ebalako. Eta bere ikasleakaz onelan berba egin eban: Ze gauza gaitxa izango jaken aberatsai Jaungoikoaren Erreiñura sartzea!"

## EGIN GEINKENA

### Zeregiñak aldatzea

— Aukeratu, edo obeto eurak eskiñi, ikasle bi.

— Oneitarako bakoitxak billatu edo aukeratu "onulari-iaguntzaille" bat.

— Batak egingo dau "salatari" lana; besteak "aldelariarsna".

Aukeratu gai bat edo norki bat, batek aldezteko ta besteak salatzeko. Gaia naiz norkia edozen izan daiteke, baiña "serne ondatzaillea" aukeratzeko bidea eskintzen dogu (Lk. 15, 11-32) gai onegaz zer-ikusi aundia daualako.

Bost minututan salatariak eta aldelariak euren aldeko ta salatzeko itzaldia gertatzen dabez, bakoitxak aukeratutako onulariak lagun dirala.

Gero salakuntza asten da lenengo (geienez 5 minutu) eta urrengo aldelaria (epe bardiña).

Ekintza biak amaitzen diranean, asikeratik asten dira ikasle biak, baina zer-egmak aldatuta (Salatzallea aldelari eta aldelaria salatzaille).

Bigarren ekiñaidi au amaitzen danean, banaka, laurai itaundu, gaiari edo norkiari buruz, oraingo onetan seme ondatzailleari buruz, amaitzerakoan eritxi bardiña dauken asikerakoa bera. Ekintza aztertzen da.

Ekintza au gure gaira sartzea: Bat biurtzen danean gauzak beste era batera ikusten dira.

## Eztabaidatzea

Ikasgelan aztabaidatze aske bat sortzen da gai oneri buruz: Gure gizarteak maite dauzan balioak eta Jaungoikoaren Erreiñuarenak.

20 — 30 minutu iraungo dau. Izlariak: askeak, eskua jasota. (Irakasleak giroa sortu bear dau kideko izatea ugaritzeko).

Aldia amaitzen danean eskatu ikasleai lauki labur bat egin dagiela eta or agertu age bitan gure gizartearen balioak eta Erreiñuarenak.

## Billatu...

Iztegian "alboratua" ta "alboratzea" berbak. Gero ikasle bakoitxak idatzi dagiala burura datorkozan alboratze-motak, taideak, gi-"Arte-rnaillak, norkia, gizarteak edo beste norki batzuk edo talde ba-

tzuk alboratuta dagozenak. Azkenez, ikasle bakoitxak bere ariketan billatu bei ekintza onek gure gaiagaz dauan zer-ikusia. Bide bat: Bear ba'da onek Erreiñuaren orokortasunagaz izango dau zer-ikusia. Idatzi bear ez dan azterpena: Ikas-gela onetan ba-dago alboraturik edo alboratzerik? Eta nire lagun-taldearen barruan? Eta nire sendian?

Aurkitu...

Gizona legearentzat eta ez legea gizonarentzat daben gaurko egoerak.

Erantzun...

Izan daitekez Erreiriuko Balioak kristiñau ez diranen artean?

Laburtu...

Geienez ogei berbatan, itaun onei erantzunak: Zergaitik eskatzen dau biurtzea Erreiñua onartzeak? Zertzuk aldatze dira biurtzean?

Azaldu...

Orrialde erdian geien dala, eta azaldu orain San Paulo'ien berba oneik (Errom. 12,2): "Ez zaiteze mundu onetara egokitu, aldatu zaiteze burua barriztatuz, Jaungoikoaren nai ona, atsegingarria ta osozkoa zein dan jakin dagizuen".

# X. GAIA

## ZERGAITIK EGITEN EBAZAN MIRARIAK JESUS'EK?
## (Mirariak Jaungoikoaren Erreiñuaren ezaugarriak)

Betania. Lazaro'ren Mlobia.
**Jesus'ek berbiztu** egin eban.

EGINGO DOGUNA...

* Kondaira-ikuspegitik ikusi Jesus'ek mirariririk egin ete eban ala ez.

* Jesus'en mirariak barru-barruan zer esan gura daben ikusi: Gizonen artean Jaungoikoaren Erreiñua izaten asi dala agertu.

ZERGAITIKORI...

* Mirariak umeen antzera ezagutzen ba'doguz errez alboratuko dogu kristiñauen fedea, benetan kristiñauena ez dan fedea.

* Mirariak ba-dira deadar edo oiu bat be eta askok ez dakigu mirarien esangura ori.

## OARRAK

### 1.- Nok sinisten dauz gaur mirariak?

* **Urte batzuk dirala, gure gurasoak eta aitita-amamak errez sinisten ebezan ebanjeiioko mirariak, eurak bizi eben jakintza-giroa**, **Jaungoikoa zuzen agertuta. dana azaltzekoa zalako. Orrelan azaltzen ziran ekaitzak, gaiso-aldiak eta olako asko.**

**Kristiñauen fedea benetakoa zala agevtzeko be avgumentu au erabilten zan orduan: Jaungoikoak baiño beste iñok ezin egin leikez mirariak eta orregaitik, Jesus'ek mirariak egiten ebazan ezkero, Jesus** Jaungoikoa da eta beragan daukagun fedea benetakoa.

* Baiña **gaur** bestetara jazoten da, **Gaurko mundu sekularizatu** onetan (Jaungoikoa aitatu barik dana azaidu nai dauan mundu onetan) **zientzien aurrerapenak gauza asko azaltzen dauz jazo-bearreko lez** (esaterako ondo baiño obeto dakigu ekaitzak zeian eta **zergaitik sortzen diran) eta teknikeak bide asko eskintzen dauz len** Jaungoikoa **aitatuta** bideratzen **ziran arazoak beste** era batera bideratzeko **(gaiso-**tuten garanean, osagilleagana joaten gara).

**Askorentzat gaur** mirariak Jesus'egana urreratzeko bidea **izanbearrean, orretarako** eragozpen **dira: Onein ustez Jesus'en mirariak antxiñako gizaldietan asmau diran ipuiñak dira eta Jesus sinisten da**be **bere mirariak sinistu barik eta al izan ezkero mirariak** ebanjelioe**tatik kendu egingo leikeez.**

### 2.- Mirariai buruz *zer* da sinistu bear dana?

* Baiña ez **da jakintza sekularizatua izana, mirariak** sinisteko eragozpen bakarra. Ba-dagoz **siniste** orren aurka **bultz egiten dauskuen beste burutasun batzuk be:**

— **Mirariak izadiko legeak austen** dabezan **arrigarriak dirala uste** (esaterako, sagar **bat bota etxe baten laugarren etxe-maillatik eta astuntasunak eskatzen dauan lez jausi barik zortzigarrenera-igon).**

OARRAK

1.- Nok sinisten dauz gaur mirariak?

* Urte batzuk dirala, gure gurasoak eta aitita-arnarnak errez sinisten ebezan ebanjelioko mirariak, eurak bizi eben jakintza-giroa, Jaungoikoa zuzen agertuta, dana azaltzekoa zalako. Orrelan azaltzen ziran ekaitzak, gaiso-aldiak eta olako asko.

Kristiñauen fedea benetakoa zala agertzeko be argumentu au erabilten zan orduan: Jaungoikoak baiño beste iñok ezin egin leikez mirariak eta orregaitik, Jesus'ek mirariak egiten ebazan ezkero, Jesus Jaungoikoa da eta beragan daukagun fedea benetakoa.

* Baiña **gaur** bestetara jazoten da. Gaurko mundu sekularizatu onetan (Jaungoikoa aitatu barik dana azaldu nai dauan mundu onetan) zientzien aurrerapenak gauza asko azaltzen dauz jazo-bearreko lez (esaterako ondo baiño obeto dakigu ekaitzak zelan eta zergaitik sortzen diran) eta teknikeak bide asko eskintzen dauz len Jaungoikoa aitatuta bideratzen ziran arazoak beste era batera bideratzeko (gaisotuten garanean, osagilleagana joaten gara).

Askorentzat gaur mirariak Jesus'egana urreratzeko bidea izan-bearrean, orretarako eragozpen dira: Onein ustez Jesus'en mirariak antxiñako gizaidietan asmau diran ipuiñak dira eta Jesus sinisten dabe bere mirariak sinistu barik eta al izan ezkero mirariak ebanjelioetatik kendu egingo leikeez.

**2.- Mirariai buruz zer da** sinistu **bear** dana?

* Baiña ez da jakintza sekularizatua izana, mirariak sinisteko eragozpen bakarra. Ba-dagoz siniste orren aurka bultz egiten dauskuen beste burutasun batzuk be:

— Mirariak izadiko legeak austen dabezan arrigarriak dirala uste (esaterako, sagar bat bota etxe baten laugarren etxe-maillatik eta astuntasunak eskatzen dauan lez jausi barik zortzigarrenera<igon).

- Mirariak ikusle diranen eritxia sendotzeko izaten dirala uste dabe beste batzuk (esaterako Jesus'ek Jairo'ren alabea berbiztu eban, ikusleak ziurtatu egien bera Mesiaszala).

* Baiña ori izan, orrelan ete da? Izadiko legeak austen dabezan zerbait ete dira mirariak? Ete dago izadiko legeak ausi ez arren miraris dan ezer? Ziurtasuna sortzeko egiten ete ebazan Jesus'ek mirariak? Mirari bat ikusten eban edozeiñek sinisten ete eban?

* Itaun onei erantzuteko izadia eta mirarien esangurea obeto ezagutu bear doguz. Orregaitik, lenengo, ikusi dagiguzan Bibliatik kanpora egindako mirariak eta gero, Jesus'en mirarietara oso-osoan sartuta, laster ikusiko doguz Jesus'en mirariak eta onetzaz konturatuko gara: Jesus'en Mirariak dauken esangurarik aundiena ez dala "izadiko legeak ausitea" edo "ziurtatzekoak" izatea,

## 3.- **Bibliakoak ez dira** mirariak

Kondairak ba-dakaz Jesus'enak ez diran, beste batzuk egiñak diran mirariak be. Olako edestiak erlejiñoak irasi ebezenen edestietan aurkitzen doguz. (Zaratustra, Buda, Mahoma...) Agintari Nagusien bizi.tzan (Bespasiano), tenplu batzutako jaungoikoen edestietan (Eskulapio'rena Epidauron), alazgilleen edestietan (Tiana'ko Apolonio). Olako edestietan beti agertzen diran **jakingarriak** oneik izaten dira:

a) Edesti orreik auren idaz-tankera berezia dauke (mirarien idaz-tankera) eta erakunde ziurra, guztien gaiak. Eskulapio'ren tenpluan izandako osatze bi artuko doguz adibide lez:

Erromatarren tenplua.

Ara *zer* diñoan kondairak...

| Erakundea | 1° adibidea | 2n. adibidea |
|---|---|---|
| 1 Zelako gaisoa | Eusifo'k sei urtetan eroian lantza erpiña agin-oiñean sartuta. | Alieis'ko Anzetes itsua zan. |
| 2.- Osatzera datorrena. | Santutegian lo egoala, Jaungoikoak lantza erpiña atera eta eskuan ipiñi eutson. | Jaungoikoa beragana etorten ikusi eban amesetan, atzamarrakaz begiak zabaldu eutsozan eta santutegiko zugatzak ikusten asi zan. |
| 3.- Osatzea ziurtatu | Goizean osasuntsu ta argi urten eban, lantza-eripiña eskuan ebaia. | Goizean osasuntsu ta argi urten eban. |

b) Mirari oneik jazo eta urteak geroago idatziak diralako, jozokizun arrigarria geroago ta arrigarriago biurtzen da. Arrantzale batek be kilo erdiko arraiña atrapau eta urrengo egunean kilo batekoa atrapau ebala esaten dauan antzera, irugarren egunean gilo bat baiño geiago euka^a esaten dau eta zar egiten danean bere illobai bein baten bost kiloko arrain bat atrapau ebala esaten dautse.

c) Edestiak aldatuta dagozela argi ikusi arren, ezin ukatu let oiñean kondairazko jazokizuna dagoala, zeozer drrigarria bai jazo zala. Gero beste arazo bat izaten da, Gauza arrigarri ori zelan jazo zan azaltzea: aztikeriaren indarraz, barru-bar'ruan ori sinistu ebalako, parasikoloji-giroko jazokizun lez, Jaungoikoak ori egin ebalako...

d) Batzutan mirari orren lagungarri lez tenplurako edo mirarigillearentzako sari bat emotea be agertzen da. Eta ori izan leiteke edestia sortzeko zio bat ( aurrerantzean be dirua artrea) edo mirarigilleak mirariak egiteko izan daiken beste zio bat: Berak biziteko ori bear daualako.

e) Edesti onetan miraria beti agertzen da isilleko indarren agerpen lez, batzutan indar onak agerizen dira, beste batzutan txarrak, baiña beti mito-giroko mundu baten barruan agertzen dira. Olako indarrak toki batzutan agertzen dira (tenpluetan) eta gizon batzuk izaten ori euren esku daukenak (mirarigiileak). Gauzak mito-giroan ulertze au ez dator batera gaurko jakitunen pentsakereagaz, oneintzat ez dago isilleko indarrik, izadi-legeak dira dana.

f) Batzutan miraria norki baten aunditasuna agertzeko izaten da edo Jaungoikoak berari emoten dautsan laguntzaren ezaugarri be bai.

Sasia erre egiten zan
baiña iñoz kizkaldu barik...

## 4.- Bibliako mirariak

* Jesus baiño lenago be agertzen dira mirariak Biblian. Baiña gauza arrigarria da Itun Zarrean gitxi dirala, Barriaren parean.

* Zer da miraria israel'dar batentzat? 107n. salmoak agertzen dausku erantzuteko bide bat: Lau norki talde dagoz (basamortua igarota datozen bidelariak, askatuta datozen katiguak, osatzen diran gaisoak eta ondamentidik bizirik urten daben itxaskariak) eta oneik Jaungoikoari eskerrak emoten dautsoez bere ontasunagaitik eta bere egite arrigarri (mirariak) gaitik, gizonakaz orrelan jokatu daualako.

Jazokizun orretan ez da esaten bereziak edo eziñak diran. Garrantzia daukana, gizonak salbamena lortu izatea da eta salbamena lortze orretan euren Jaungoikoaren esku indartsua ikusten dabe.

* Israel'darren fedeak Jabe'k gizona zaintzen dauala uste dau, baiña baita erria erri lez zaintzen dauala be eta fede ori argj agertzen da mirarien edestietan, erria Israel Erriak Ejipto'tik urten ebala, basamortuan bidea egin ebala eta lur-eskiñira eldu *zala* esaten danean: Kizkaldu barik erreten dan sasia, (Urt.3)f Ejipto'n ezarritako amar zigorrak (Urt,. 7-12), Itxas-gorria igarotea (urt. 14...) mana jausi eta ura agertzea (Urt. 16...) Jeriko uriko ormak jaustea (Jos. 6). Mirari-

giroko edesti oneik Israele'n fedea agertzeko dira eta "gure leiñuak (sendiak) agindutako lurrean bakean eta aske bizi izatea azkenean ez dala geuk irabazia eta geure politika-joko zurragaz lortutako gauzea, gidari dogun eta zaintzen gaitun Jaungoikoa emondako gauzea baiño" agertzen dau.

Mirariak, bere erriagandik ur dagoan Jaungoikoaren salbatze-ekintzaren ezaugarriak dira.
Gaur be babesle dan eta gero salbamena ekarriko dautson Jaungoikoak bere erria babesten dauala aldarrikatzen dabe mirariak.

5.- Jesus'en mirariak edestuta dagoan lez jazo ete ziran?

Aurka doazenak:

— Izadiko legeak ausi-eziñak dira.

— Lenagoko beste mirari askoren antzera, Jesus'enak be berau goratzeko bide bat izan daitekez.

- Mirarien beste edesti batzuren antzera, ebanjeliokoak be erakunde au zaintzen dabe:

| Erakundea | Epidauro'renean | Mk. 1. 29-33 |
|---|---|---|
| 1.- Gatsoa zelako dan | Eusipo'k agiñen oiñean lantza-erpiña dauko sartuta. | Pedro'ren amagiñerraba, sukar-gaisoaz egoan |
| 2.- Osatzera datorrena | Lo egoala, Eskulapio'k lantza-erpiña atera eutson sgin-oiñetik. | Jesus'ek eskutik oratu eta jazo egin eban. |
| 3.- Osatzea ziurtatu | Eusipo'k osasuntsu ta argi urten eban, lantzaerpiña eskuan ebala. | Sukarra kendu jakon eta jagi eta mirabe-lanetan asi jaken. |

Ebanjelioetan be ikusten da mirariak aundiago lez edestera joke-*red.* Esaterako Mk.1,34 Jesus'ek gaiso **asko** osatu ebazala diñoeta ori Mat. 8,17 diñoanaz batera dator eta au geroago idatzia izanik **guztiak** osatu ebazela diño.

Alde datozenak:

— Jaungoikoa izadiaren egille dan ezkero, izadiko legeak aldatu legiz.

— Ebanjelioko mirariak ainbeste diran ezkero, ezin itzi leiz kontuan artu barik.

— Jesus'en Barri Ona zabaltzea ta ekintzak osotu barik geldituko litzakez mirariak kendu ezkero: Jesus'ek Jaungoikoaren erreiñua iragarri eta ekarri egiten dau eta mirariak erreiñua etorte onen ezaugarriak dira.

— Jesus'en arerioak eurak be (fariseoak, eskribak eta abade-buruak) ez dabez ukatzen Jesus'en mirariak, noren almenagaz egiten ebazan baiño (Lk. **11.15)**

— Kondaira-idazieak, mirariak ondo aztertu-ondoren, edesti oneik egizkoak dirala esaten dabe.

— Jesus'en mirari baten be ez da agertzen esker onezko ordaiñen sustrairik.

Nain. Jesus'ek erri onetako andra alargun baten semea berbiztu eban.

* Baiña ezarri dogun itaunari erantzun baiño lenago ("Jesus'en mirariak esaten dan lez egin ete ziran?") erantzuteko ikuspegi zabalago bat bear dogu oraindiño. Azkeneko erantzuna emon baiño lenago, urreratu gaitezan Jesus'en mirarietara.

## 6.- **Jesus'en mirariak zer esan gura** dauskue?

* Ikusi dagigun Barri Onaren idazleak zergaitik edesten dauskuezan Jesus'eri mirariak, zer agertu gura dauskuen. Orrelan, lengo itaunari erantzuten dautsagunean ez dogu utsik egingo.

ZUZENEAN esan gura dauskuena ez da Jesus izadiko legeak aldatu eikezan azti bat zala. Orduan ez egoan izadiko legeen ezaupiderik be *(ori* XVI gizaldian *agertu zan gauzea da, gaurko zientzi-ghoak eka*rri eban gauzea) eta or miraria zan, eguneroko gauzea ez zana eta euren ustez izadiko indar ezkutuak egiten ebena.

ZUZENEAN esan gura dauskuena auxe da:

-- Jesus'egaz Mesias'en aldia eldu dala. "-Zu zara etorteko dana eta beste baten zain egon bear dogu?" Jesus'ek erantzun eutsen: "-Zoaze eta esan Juan'eri orain ikusi eta entzun dozuena: Itsuak ikusi egiten dabe, errenak ibilli, lepradunak osatu, gorrak entzun, illak berbiztu, eta txiroai Barri Ona iragarten jake" (Mt. 11,1-6).

— *Jaungoikoaren Erreiñua oraintxegandik gure artean dagoaia. Argi* esan eban Jesus'ek txerrenen buru danaren indarragaz egiten dauzala bere ekintzak salatu ebenean (Lk. 11, 20).

Jesus'en mirariak, Jaungoikoaren Erreiñua etorri dala
eta gure artean dagoala diñoen ezaugarriak dira.

Jesus'en Barri Ona iragarteagaz barru-barruan alkartuta dagoz
eta iragarritako erreiñua egite2
agertzen dabe.

Galilea'ko Itxasoa menditik ikusita.
Olako toki baten ugaritu ebazan Jesus'ek
ogiak eta arraiñak.

**7.- Jesus'en mirariak zer** izan ziran

Artu dagigun orain len egindako itauna eta erantzun barik itxia. Eta auxe da erantzuna:

a) Egia da Jesus'ek egite arrigarriak egin ebazala

Bai. Jesus'ek mirariak egin ebaza, baiña ez ziran guztiak jazo,

ebanjeho-liburuak diñoen lez. Ezin ukatu egokitzeak eta aunditzeak daukezala edesti oneik, naizta ebanjelioan iñoz be izan ez iñor iruzurtzerik esan gura ebana argiago agertzea baiño. Olan izan arren, jazokizunak apainduta agertu arren, mirariak benetako jazokizunak izan ziran. Ikusi dagigun adibide bat.

Mk. 1, 29-31 ataltxuetan Pedro'ren amagiñerrabea zelan osatu zan edesten jaku. Artzen dauan erakundea, "mirarien edestia"rena da, izkuntzak berak artzen dauzan jokabideak agertzen daben lez, baiña oin-oiñean kondairazko edestia da: Kepa eta Ander'en etxean jazo zan eta eguna, uste barik Jesus bertara urreratu zan egun bat; aundikeri bako miraria da, adiskidetasun-giroan egiña eta zalantza barik Kepa' ren bizitza-idazleak edestu ebezan antxiñatik artutako edestien artean batua.

Kafarnaum'eko etxe-ondakiñak.
Jesus'ek mirari asko egin eban
lurralde onetan

b) ...egite arrigarriak baiño zerbait geiago dira...

Gutzat, izan be, alatzak jazorikoak izatea baiño bearragoa da, fedebegiakaz mirariak begiratzen ebezanak zer ulertu eben jakitea: Jaungoikoaren Erreiñua gure artean dagoaia eta mirariak Jesus'en bidez Jaungoikoak beteten dauan erreiñu orren jazokizun zeatzak dirala; salbamena etorri dala eta mirariak banakako salbamen-betetzeak dirala. Orixe da Jesus'en askotariko mirariak agertzen dabena,

Illobi santuko arria.
Miraririk aundiena, Jesus
bera geiago ez ilteko berbiztua izatea da.

— Osatzeak, salbamena gorputzarentzat be ba-dala agertzen dabe.

— Txerren-ateratzeak (eksorzismoak) saibamena txarraren oiñera arte eltzen dala adieratzen dabe, izan be Txerrena da txarraren ezaugarria.

— Izadian egindako mirariak (ur-gaiñean ibiltea, ekaitza baretzea) Jesus munduaren jauna dogula adierazten dabe.

— Berbiztuteak Jesus'ek eriotzea azpiratu daula eta biz'ta dakarrela adierazten dabe.

c) ...eta fedea daikenak ulertzen dabez.

Fede barik ez dago mirariririk. Mirariak ez dabe beartzen fedea eukitera, geienez be orretarako deiak dira. Federik ez daukenak mirari bat ikusten dabenean, gauza arrigarria ikusten dabe, baiña ez, ori Jaungoikoak egiten dauala (Lk, 11, 15); edo Jesus'eri jarraitu-bearrean, berau alboratu egiten dabe (Jn. 11, 45-53); Jesus'ek miraria egin-aurretik eskatzen dau fedea (Mt. 9, 28-29), Nazaret'en (Mt. 13, 58) eta Herodes'en aurrean (Lk. 23, 8-9) ez dau mirariririk egiten federik ez dagoalako.

Amaitzeko

* Mirariak Jesus dala gizon guztientzat salbamena agertzen dabe.
* Mirariak Erreiñua agertu ta **asi** egiten dabe, Jesus'ek iragarten dauan artean. Mirarien edestiak egokituta egon arren, benetako jazokizunak dira eta benetan asten dabe erreiñua.

## EGIN GEINKENA

Mai-ingurua

— Ekintza au egiteko ondo etorriko litzake, al izan ezkero, Fisika ta Kondaira-irakasleak eta osagille edo gogo-aztertzailleren bat bertan egotea.

— Mai-ingurua bera asi aurretik, ikasleak, talde txikietan, aztertu nai dabezan mirari-ikuspegiak eta erantzuna bear daben itaunak zerrendan jarten dabez.

— Mai-ingurua osotzen da, erlejiñoko irakasleagaz eta beste, irakasleakaz eta ikasle batzukaz. Bat izango da eratzaille eta onek lenengo

itauna ezarnko dau. Gero eztabadatzea dator, baiña maikoen artean bakarrik.

— Mai-ingurua egtten dan artean ikasleak ez dabe parterik artzen, baiña gaiak eta itaunak idatzi egiten dabez. Azkenean epe bat emoten da itaun onei erantzuteko.

Biilatu...

— Keparen amagiñarrebearrena ez dan osatzen bat.
— Jesus'en txerren-kentze bat.
— Gaian agertu ez dan izadiko mirari edo alatz bat.
— Gaian aitatu ez dan berbizkunde bat.

Erantzun...

"Zid neurea" olerkiak Zid dan baiño aundiagoa agertzetik atera ete Sei Zik iñok ez dala izan? Edo Zid'ek gauza berezirik ez ebala egin? Esan ori eta mirarien edestiak zertan diran antzekoak.

**Zer** ete da...

txerrenak artuta egotea? Gai oneri buruz ezagutzen dogu pelikularik edo liburutik? Gai oneri buruz geiago jakiteko irakaslearen laguntza eskatzen dogu.

**Batu...**

"miraria" aitatzen daben erriko esaidiak. Azaldu.

Irakurri...

Barri Onaren liburuetan agertzen diran ogi ta arrain-ugaritzeak. Zenbat ogi ugaritu ebazan Jesus'ek, eta zenbat arrain?

Esan labur-labur...

idaz-lan baten eta Lourdes-eri buruz, aurretiaz batu dozuzan barriak.

Esan labur-labur...

gai osoa orrialde baten erdian.

Gero...

gaia azaldu ondoren. ikasleak barriro irakurten dau amar minutu inguruan eta bururatu jakon zalantzaren bat agertu.

Azaldu...

esaldi au: "Mirariak ez dabez artzen fedea daukanak baiño".

**Bereiztu...**

argi ta garbr sasi-osagille baten osatzeak eta mirariak dauken aldea.

**Ber-ikusi...**

lau ebanjelio liburuak eta egin Jesus'en rnirarien zerrendea. Lan au taldean be egin leike.

**1° DE BUP**

XI. GAiA

# **ERRI LEUNA** ARRITUTA EGOAN
## (Jesus'en nortasuna eta ondoren ona)

Beien. Artzaiñen zelaia.
Norki leunak entzuten eutsoen Jesus'eri.

Gai onetan egingo doguna

* Jesus'en nortasuna apur bat ezagutu.
* Erri leunak Jesus zelan artzen dauan agertu.
* Jesus'ek bere aldiko alboratuakaz izan ebazan artu-emonak ikusi.
* Erreiñuaren agerpen lez Zoriontasunak erakutsi.

IZAN BE...

* Jesus'en nortasuna ta jazokizunak ezagutu barik ezin geinke bera uiertu eta ezin berari jarraitu.
* Eta, gaiñera, bere bizitzan, Jesus astiro ezagutu ez dauanarentzat jakingarri arrigarriak dagoz.

•k * *

OARRAK

1.- Asierako ondoren ona.

* Jesus'ek ern-aurrean egin eban ekintzan aldi bi ikusten dira:

— Galilea'ko ekiñaldia, dana arrigarria eta jentetza aundia jarraitzen. Ondoren ona ta baiezkortasuna.

— Jerusalen'era bidea, erriko jentetzak ez dabe ulertzen bere jokabidea eta erlejiño-agintariak alboratu egiten dabe, azkenean kurutzera eroateko.

* Zertan agertzen da Jesus'ek asieran izan eban ondoren ona? Mt. 4, 23-25'ean agertzen da Jesus'ek Galilean izan eban ekiñaldiaren laburpena: Itxaropenez eta baiezkortasunez azaltzen dau Jaungoikoaren erreiñuaren etorrerea; gaisoak eta txerrendunak osatzen dauz; Jentetza aundiak joakoz entzutera eta osatzeko gaisoak eroatera, guztiak geratzen dira arrituta: "Ez dogu sekula olakorik ikusi" (Mk. 2. 12) eta pozez gaiñezka agertzen *d'tra* ("Errege egiteko *eroan na't* izao eban") (Jn. 6, 15). Jesus asi da ikusten Jesus'egan "mundura etorteko zan Igarlea" (Jn. 6, 14) itxaroten eben Mesias.

Juda'ko Basamortua.
Orra joaten zan Jesus
sarritan bakarrik.

* Baiña une onetan Jesus gelditu egiten da: "Barriro joan zan mendira bera bakarrik" (Jn. 6, 15); eta ori Berak izan gura dauan Mesias ez dalako erriaren irudimenean egoana, ez eta Apostoluen irudimenean egoana be (Mt. 16, 20-25; Ap.Eg. 1, 6). Orregaitik "Ordutik aurrera ikasle asko atzeratu egin ziran eta ez jakozan geiago urreratu" (Jn. 6, 66).

2.- JESUS'en nortasuna.

Zergaitik sortu eban Jesus'ek asikerako arridura au? Eukan nortasuna eukiteagaitik. Oneik dira nortasun orren berezitasunak:

Erri-gizona

Jenteak Jesus'egan ez dau ikusten agintari bat, edo jakitun bat edo sal-erosle ospetsu bat; ez dago jente *teunaren* gaiñetik *eta* onegandik urrinduta; Nazaret, Galilea'ko baserri txiki baten bizi da (Lk. 2, 39); bere sendia leuna da, eta bere aita be, bera lez arotza: orregaitik bere berbak eta mirariak arritu ta gaizpidetu egiten dabe (Mk. 6, 2-6; Mt. 13, 53-58); arrantzale batzuk artzen dauz ikasle {Mk. 1, 16-20); erria-ren bizitzatik ateratako adibide ta jazokizun leunak artzen dauz irakas-teko: Ereillearen ipuiña, gari ta bedar txarrarena, ziape-aziarena ta legamiñarena... (Mt. 13).

Aginpidez berba egiten dau.

"Kafarnaum'era sartu ziran eta urrengo zapatuan sinagogara joan eta irakasten asi zan. Bere irakatsiaz arrituta egozan guztiak, agtnpidez irakasten ebalako eta ez idazlariak lez" (Mk. 1, 21-22).

Jesus'ek irakatsiak eta idazlarienak ez ziran bardiñak: Oneik euren bizibidea ori zalako irakasten eben, sarritan orretarako jokera barik eta larregi esaten ebena sinistu barik; baiña Jesus'ek berotasun aundiaz egiten dau berba, esaten dauana sinistuta, barruan daroana ta sakon bizi dauana agertzen dauala. Jesus'en aginpidea aundia da eta bai idazlari ta fariseoen irakatsiak (Mk. 7, 9-13) eta bai Moises'en legea bera (Mt. 5, 21-48) zuzendu egiten dauz.

Askatasunez ekiten dau.

Askatasuna Moises'en legearen aurrean: zapatuetako osatzeak (Mk. 3, 1-6),

Askatasuna idazlari ta fariseoen aurrean, orregaitik ez dauz onartzen bere lanerako ezarri nai dautsoezan baldintzak eta agiri-agirian aztertzen dauz (Mt. 23).

Askatasuna bere etxekoen eskarien aurrean, zorotzat artu ebenean (Mk. 3, 21); beragan usterik ez daben bere arritarren aurrean (Mk. 6,

2-3); errege egin gura daben bere jarraitzailleen aurrean (Jn. 6, 15) eta azkenean bertan bera izten dabe (Jn. 6, 66).

Askatasuna Herodes'en zemaien aurrean (Lk. 13, 31-33) eta Abade--buruen alderik urreratzen jakon eriotzarako arriskuaren aurrean (Mt. 16,21-23),

Guztiontzat zabal agertzen dan gizona.

Norkiai bidera urteteko eta batez be orduko gizarteak alboratuta eukazanakaz artu-emonak izateko lan aundia egiten dau (lepradunak, emakume gaiduak, zergalariak...). Fariseoen deia be onartu egiten dau. ez daukaiako aurka agertzeko bildurrik eta salbamenerako eskintza eurei be egiten dautselako (Lk. 7, 36; 19, 1-10).

Beti doa bidez eta ez dauko jateko astirik be (Mk. 6, 31), nekatuta txalupa baten egiten dau lo (Mt. 8, 24); baiña ba-dauko adiskideentzat asti-aldia be: eztegu batera doa (Jn. *2,* 1-12), eta bere adiskideekaz astiro berba egiteko lekua be ateraten dau (Lk. 10, 38).

Erlejiño-giroan sakontasuna dauan gizona.

Israel-erriaren kondairari onetan jarraitzen dautsola, bere nortasunaren sustraia, Jaungoikoaren experientzi sakonean dago, beretzat Jaungoikoa ur dago, eta Jaungoikoaren Erreiñua gizonen artean ipinteko erabagia daroa, orretan lan egiten daben guztiakaz bat eginda. Ortxe dago beretzat Jaungoikoa ur egotea eta "Abba" edo Aita-adiskidea esaten dautso. Eta Aitagaz ondo iotuta dago Jesus, beronen janaria Aita'ren naia egitea dala esan arte (Jn. 4, 34) eta Aitak mundura bialdu lez ikusten dau bere burua (Jn. 17, 3-18) eta beragaz ordu-luzeak egiten dauz otoitzean (Mt. 14, 23).

Alboratuen faguna.

Bere aldikoak arrituta geratzen zirala, Jesus erritar alboratuakana ta erlejiño ta erri-arazoetan eskubide barik egozanakana urreratu zan.

Ori ikusi dogu len be !X gaiaren 2'an. Eta arrituta geratu ziran Juda'tar lege-betetzailleak oneik ezin ebelako olako erritarrakaz artu-emonik izan, fariseoen legeak iñoenez, "legea ezagutzen ez dauan jentetza ori Jaungoikoak rnadarikatua dalako" eta "fariseotar bat ez zan euren etxean ostatuz geratzen eta eurak etxean ostatuz artu be ez". Jesus'ek atboratuakaz eukazan artu-emon oneik Jaungoikoaren Erreiñuari buruz berak egiten ebazan berbaldiakaz batera doaz eta Jaungoikoak maka-lakaz eta etorpide bakoakaz dauan ardurearen ezaugarri bizia da. izan be Jaungoikoa olakoentzat zuzentasuna egingo dauan Erregea da: Eldu da eurentzat Jaungoikoaren Maitasuna nagusi izatea.

## 3.- Zoriontasunak.

Jokabide onegaz oso-osoan batera datoz Zoriontsunak (Mt. 5, 3-10) eta oneixek dira Jaungoikoaren Erreiñuaren benetako agerpena eta Jesus'en Barri Ona'ren biotza.

Beste gai baten ikusi dogunez (Ik. IX gaia, 6 z[a]) Zoriontasunak ez dira goitik bera ezarten dan lege bat, eskintzen dan zoriontasunerako bide bat baiño. Jesus'ek bere bizitzan egin eban bidea da ori. Kristo'-gan sinisten dabenentzat bakarrik dauke zentzuna zoriontasunak: Jesus'eri gure konfiantza osoa agertzea lez dira, berak eroan eban antzeko bizitzea bizi eta orrelan zoriona lortuko dogula ustea, ez beste gauza askotan gure ustea ipintea, sarritan egiten dogun lez. F'edenk ez daukanarentzat zoriontasunak iñoz bete ezin leikenen amets utsa dira.

Guztiok izan nai dogu zoriontsuak, baiña guztiok ez dogu billatzen zoriontasuna bide bardiñetatik. Batzuk diruan aurkituko dabela, beste batzuk atsegiñean, beste batzuk almenean, edo bizitza erosoan edo egotean... uste dabe.

Zoriontasunen mezua apur bat argitu nai ba'dogu, auxe esan bearko dogu:

Zoriontsuak izateko lenengo baldintza, **askeak** izatea da. Eta askeak ez bakarrik kanpoko loturetatatik, gure barrua lotzen dauan danetik be bai, esaterako:

— Diru-zalekeritik. Beti geiago nai dogu. Eta dirua geure bear-izanetarako artu-bearrean, bere morroi biurtzen gara. Jesus'ek diñoana gogoratu;

"Zorionekoak txiro izatea aukeratzen dabenak,
olakoak Jaungoikoa dabe errege".

Txiroa izatea ez da geiago edo gitxiago eukitea, biotza aske eukitea baiño; geiagoren billa ez ibiltea, daukaguna, gitxi naiz asko, banatzea.

— Atsegin-zalakeririk. Guk jolasean bakarrik dagoala alaitasuna uste izaten dogu. Eta ara Jesus'ek zer diñoan:

"Zorionekoak neke-artean dagozanak,
olakoak poza artuko dabe-ta".

Orrek ez dau esan gure nekeen billa ibilli bear garanik, edo sufritzearen masokismora jausi bear garanik, baiña bai gaisoa, alboratzea, norkeria, ez-eukiak... datozenean, orduan be zoriontsuak izan geintekezeia.

— Almenaren zalekeria, Agintzea, goi-maillako lekuetan egotea, besteak baiño gorago egotea nai izaten dogu, geiago ezin ba'dogu gure anai-arreba edo aizta-neba txikiak baiño gorago egotea. Zaratatsuenak berak nai dauan lekura eroaten dau taidea. Baiña entzun Jesus'en esana:

"Zorionekoak gogor-zaleak ez diranak
olakoak lurraren jabe izango dira".

Orrek beste au agertzen dau: Ontasuna, egia ta maitasuna indartsuagoak dirala txarra, maltzurkeria ta gorrotoa baiño.

* Barruko askatasun oso au lortzen dogunean, diru, atsegin edo almen-zaiekeriaren morroi ez garanean, orduan bai asi geintekez ekintza-arloan. Best'e au be ba-diño Jesus'ek:

"Zorionekoak zuzentasunaren gosea ta egarria daukenak,
oiakoak asetuak izango dira".

Lenengo egin bear dana, zuzentasuna da, bakoitxaren eskubideak aintzat artzea, bakoitxari dagokiona emotea, bakoitxaren zeregiña ondo betetea... Eta ori dana bizi artu bear da, gosea eta egarria bizi asmatzen diran antzera.

* Baiña, zuzentasuna gauza aundia izan arren, ez da dana. Beste au be ba-diño Jesus'ek:

"Zorionekoak errukitsuak,
olakoak errukia lortuko dabe-ta".

Errukiz —maitasunez— jokatzea, zuzentasun estuaren barruan ez geratzea da, agindua zeatz betetea ez daia naikoa uste izatea. Orrek esan nai dau, zuzena dana egin bear dala, bai, baiña gero aurrerago joan.

* Ori dana egiteko gai ba-gintzakez, ez litzake gitxi izango. Baiña Barri Onak geiago eskatzen dau. Jesus'ek au diño:

"Zorionekoak biotz garbikoak,
oiakoak Jaungoikoa ikusiko dabe".

Ez dira naikoa, egiten doguzan agiriko gauzak, asmoak be aztertu egin bear dira. Biotz garbia, utsa, eukiteak biotz kutsutu-bakoa, maltzurkeri-bakoa, zatitu-bakoa eukitea esan gura dau, ez batzutan bai esaten dauana eta urrengoan ez, bere elburua argi daukana baiño, elburu orretara gogotsu doana. Biotz-garbitasuna egian baiño ez dago.

* Orduan bai, orduan lortzen dogu bakea dan benetako zononta-suna. Orixe da Jesus'ek esan gura dauana:

"Zorionekoak bake-egilleak
olakoai Jaungoikoak seme-alaba esango dautse".

Bakea, benetako zoriontasuna da eta bide orren azkenean dago. Bakez ez da benetakoa, askatasunean, zuzentasunean, maitasunean eta egian oiñarritzen danean baiño.

* Dana dago onartuta, baiña ez da dana izango larrosa kolorekoa, Zoriontasunerako bide au artu eta jarraitzen dogunean, gu inguruan

egotea askorentzai azpergam iz;»ñgo da, eurak beste era batera jokatu nai dabelako Oneqaitik diño Jesus'ek azkenean:

> "Zononekoak zmtzotasunagaitik aurrean erabillita bizi diranak, olakoak Jaungoikoa dduk'? erregetzat".

Zoriontasunak onartze.:,
Jesus'ek eskintzen dau?n
Jaungoikoaren Erreiñuko bidea
adoreagaz eta alaitasun<gaz artzea da
eta ori da zorion-iturria

## EGIN GEINKENA

Taldeetako azterpena

— Ikasleak lautik seirako taldeetan batzen dira.

— Talde bakoitxak aldi onetan ezagunena dan iragarki bat aukeratzen dau (izan daiteke telebistakoa nai izparringi edo kale-esietakoa...).

— Talde-barruan, lenengo al danik ondoen zeaztu iragarkia.

— Gero iragarkia aztertu egiten da
 * Daukan mezua.
 * Zelan zabaltzen dan: a.tutako albiste-bidea, orretara zelan egokitu dan, psikoloji-ar'oko eragilleak joko orretan, berbak, irudiak...
 * Entzun-ikusleagan dauan ikutua.
 * Zefako erantzuna billa+zen dauan: Onartzea, alboratzea, bardin-izatea, arrituta iztta, guraria...
 * Zefako erantzuna billatzeo dauan jazokizunak.

— Talde bakoitxak aztertu dauanoan, guztien ondorenak agertzen dira ikas-taldearen aurrean eta zabal'<undeari ta konsumoari buruz alkar--izketa bat egin lei.

— Amaitzeko, alkarizketea edo e.^tabadatzea egin naiz ez egin, gaiak

ekmtza orregaz daukan zer-ikusia agertzen da. Bide bat; Ori dana txirotasunagaz zelan atkartu.

Zatiak eta osotzea (Kolax)

Ikasle bakoitxak ekarri begi eskolara esaldi bat edo argazkia edo gaiagaz bere ustez zer-ikusia daukan zerbait, irudibidez besterik ezean (Esaterako: diru-kartilla bat, espetxeratuen irudia, diru asko irabaztea eskintzen dauan iragarkia...).

— Ikasie-talde batek dana batu eta ulertu egiten dau.

— Talde onek orma-irudi edo kolax aundi bat egingo dau, gai orreik ederkiro alkartuz: gauzak, irudiak, esaldiak... ikasleak ekarria dana.

— Idazpuru bat ipiñi bear jako.

Erantzun...

itaun onei idatziz eta labur: Zein da Barri Ona'ren eritxia dirua aurreratzeari buruz?

**Ipiñi alkarren parean...**

*Mateo'ren zor'iontasunak* (5. 3-10) *eta* Lukas'enak (6, 20-26). Zertan dira bardiñak eta zertan ez?

Billatu...

munduan gitxi gorabera gosea ta dirua zelan banatzen diran, orretarako jakingarri bitzuak irudi bakar baten batuta.

**Aztertu...**

Markos'en ebanjelio-liburuan 8n.atala baiño ienago ta geroago giro--aldatzea igarten dan.

Billatu...

iztegian "txiro" berbea. Esangura ori ipiñi Ebanjeliokoaren parean.

Irakurri...

gizarte-maillea zer dan. Zenbat gizarte-mailla ezagutzen doguz?

Emon...

ikasle bakoitxak "lider" zer dan zeazketea. Ezarri ori Jesus'eri.

Zenbat diru...

gastaten dozu astero? Ikasle bakoitxak oar idatzi bat ekarten dau, izen barik, zenbat gastaten dauan agertuz. Zenbat gastaten dau astero ikas-taide guztiak? eta illero? eta urtero?.

Zeintzuk Jesus'en izakera, 2 z[a]'n agertzen diranetatik. dira zutzat arrigarrienak? Zergaitik? Esan beste izakera batzuk. Ze'mtzuk dira?.

Irakurri...

Mt. 5-7 eta azaldu ikas-gelan bakoitxak arrigarriena dala uste dauan gaia artuta.

Egin...

Nazaret'eko Jesus'eri alkar-izketa bat. Edo itaunketa bat. Aurretiaz, itaunak ondo aukeratu eta eratu. Aurkitu Jesus'ek emongo leukezan erantzunak al danik zintzoen.

## XII. GAIA

# AGINTARIAKAZ ALKARREN AURKA

(Jesus eta Israel'go aldunak alkarren aurka)

**Jerusalen "Dominus flevit" eleizatik ikusia.**
**Uri** orren aurka jokatu eban Jesus'ek.

Gat onetan egingo doguna...

* Jesus agintarien eta Israel'go erakundeen aurka jarri zala baieztatu.

* Aurka egite au nondik sortu zan ikusi.

ETA ORI...

* Askoren ustez Jesus bakean eta arazo barik bizi izan zalako.

* Baiña, egiz, Erreiñuaren etorrereak burruka gogorra ekarten dau eta ez da betetzen aurka iñor ez dala, sarntan aurka eta gogorkeriz.

XII. GAIA

# AGINTARIAKAZ ALKARREN AURKA
## (Jesus eta Israel'go aldunak alkarren aurka)

Jerusalen "Dominus fievit" eieizatik ikusta.
Uri orren aurka jokatu eban Jesus'ek.

Gai onetan egingo doguna...

* Jesus agintarien eta Israel'go erakundeen aurka jarri zala baieztatu.

* Aurka egite au nondik sortu zan ikusi.

ETA ORI...

* Askoren ustez Jesus bakean eta arazo barik bizi izan zalako.

* Baiña, egiz, Erreiñuaren etorrereak burruka gogorra ekarten dau eta ez da betetzen aurka iñor ez dala, sarritan aurka eta gogorkeriz.

## OARRAK

### 1.- Jesus eta bere arerioak

* Batzuk uste dabe Jesus on utsa zan norki bat izan zala, biots-zabala, guztiak onartzekoa, guztientzat maitagarria, arazo barik bizi zana naizta bekaitzez beterik egozan gitxi batzuk artega ibilli eta azkenean eriotzara eroan.

* Baiña burutasun ori ez da egiagaz batera doana. Jesus'en inguruko giza-giroan inguru estua ta arazoz betea egoan: Aurreko gaian ikusi dogu erriak asieran pozik jarraitu eutsola baiña gero alboratu egin ebala (Jn. 6,41...) bere etxekoak zorotzat artu eben (Mk. 6, 2-6), amabien taldeak ez eban ulertzen bere jokabidea (Mt. 16, 22-23; Mk. 10, 35-45; Ap. Eg. 1,6) eta Jesus saldu egin eben (Jn. 18, 1-4; 15-18).

* Jesus'ek izan eban alkar ulertu-eziñik aundiena fariseo idazlari eta abade-Buruakaz izan zan. Ebanjelioa irakurriaz argi ikusten dogu Jesus'ek erlejiño-arloko aldun oneikaz izan eban aurkaketa ia jarraikoa izan zala:

Idazlariak eta fariseoak Jesus'en aurka berba egiten dabe pekatuak parkatzen dauzalako (Mk. 2,7), pekatariakaz eta zergalariakaz jaten daualako (Mk. 2,16), zapatuetan gaisoak osatzen dauzalako (Mk. 2, 24); gaizpidea artzen dabe (Mt. 15,12); eztabaidan ibilten dira (Jn. 8,41) (Jn. 8,48); bera arrapau naian dabiltz (Lk. 11, 53-54); baiña oraindiño aurrerago jarraitu eta bera ilteko erabagia artzen dabe(Mk.3,6)

Abade-Buruak be antzeko erabagiak artu ebezan tenpluan egozan saltzailleak kanpora atera ebazanean (Mk. 11,18)

Eta Erri-Batzarrean be, Lazaro berbiztu eta gero, bitdurra dauke: "Guztiak beragan sinistuko dabe eta Erroma'tarrak etorri eta Toki Santua ta Aberria apurtuko dabez" (Jn. 11, 48)

* Jesus'ek berak be aurka egiten dautse: Ezin sartu$_t$ leiteke Jaungoikoaren Erreiñuan eurak lakoa dana (Mt. 5, 20); ikasleai eura-

**kaz kontuz ibilteko esaten dautse (Mt. 16, 6); euren arrokeria aztertzen dau (Lk. 18, 9-14). azalutsak dirala diñotse sendo (Mt. 23, 1-33).**

* Baiña **aurrera be gure pentsabidea okerra izan daiteke, Fa**riseoak eta abade-Buruak **txarrak eta okerrak zirala uste izan** ezkero. **Ez. Persona arruntak ziran baiña euren burubideak eta gurariak Jesus'enen aurka dagoz; Paulo fariseoa zan. Nikodemo be bai (Jn. 3.1....)** eta abade-buru askok ebanjelioa **onartu eben (Ap. Eg. 6**,**7)**

**Zergaitik sortu eta zan ain aurkaketa gogorra? Non ete** dago **burruka onen oiñarria?** Aztertu dagiguzan **iru** arazo, ori azaltzeko: Legea, **Tenplua ta dirua.**

**2. Alkarren arerio, Legea zala-ta**.

*** Fariseoentzat** Moises'en **Legea zan salbamenerako biderik ziurrena ta** bakarra. Baiña, **gero, Lege au liburu santuak baiño aurrerago eroaten eben** eta Lege orren ondoko arauak **egiteko**, oiturak artzen **ebezan**, **bizitzako zeaztasunik txikienetarako be bai eta arnasarik artzeko be ez eben nasaitasunik izaten. Legorrak eta eskaritsuak ziran eta** arrokeri **aunditzat euken fariseoak izatea, ez-jakiñak ain**tzakotzat **be artu barik (oneik, euren ustez, ezin** l**ortu eikeen** salbamena, **aginduen zerrenda** l**uzea** ez ekielako eta orregatttk ezin bete ebezelako).

* **Jesus pentsabide** orren **aurrez-aurre jarri** zan: Legea austen **dau,** esaterako gaisoak osatzeko, zapatuko atsedenarena, berak esaten **eban** l**ez,** l**egea gizonarentzat** egiña dalako **eta ez bestera (Mk.** ***2,*** **27); pekatariakaz eta gaisoakaz artu-emonak ez eukiteko diñoan** legea **be ausi egiten dau, bere ustez** l**egeak ezin itzi daikelako kanpoan** norkien taldertk.

**Kafarnaun'ko** sinagogearen
etxe-ondakiñak, **ementxe**
**azaltzen eban Jesus'ek**
Legea **uiertzeko** bidea.

* Jesus ez doa legearen aurka legea dalako (Mt. 5,17), iegea betetzea naikoa dala eta beste egin-bear batzuk bete barik barrua bakean daukenen jokabide okerraren aurka baiño. (Mt. 23, 23); eta Lege-betetzearen arrokiaren aurka be jokatzen dau (Lk. 18, 9-14), legea beteteagaz bakarrik Jaungoikoak salbamena zor dautsela uste dabenen aurka eta legea beteten ez dabenak Jaungoikooak kondenatu egin bear dauzala uste dabenen aurka.

* Jesus'ek eskeintzen dauana Legea betetea da, baiña barrua barriztauta, ez lengo lako tankeraz: ez betetearren bakarrik, betete ori barrutik sortzen dala baiño, biotzetik (Mt. 6, 3-5; eta 17-18) (Ikusi XVIII gaia).

* Orregaitik, bizitzako jokabidean arau nagusia ez da Legea, Jaungoikoaganako maitasuna bera baiño: "Izan zaiteze errukitsuak, zuen Aita errukitsua dan lez" (Lk. 6, 36); gizon guztiakana eltzen dan maitasuna, "arerioakana be bai (Mt. 5, 43-47)

3.- TENPLUA DALA-ta alkarren arerio.

* Juda-tarrak bein eta barriro egiten ebezan tenplura joan-etorriak eta an beti egozan abereen opalkuntzak eta asko ziran liturgia betetzeko bertako serbitzailleak. Tenpluaren zaintzea egiteko eta bertako altzariak zaintzeko arduradunak abadeak ziran (erlejiño-giroko zeregiña, bai, baiña ekonomi-arlokoa be bai).

* Jesus'en eta abade-buruen arteko alkar ulertu eziñak bere gorengo maillea lortu eta lertzeraiño eldu zan, Jesus'ek tenpluan egozan diru-aldatzailleak eta saltzailleak kanpora atera ebazanean, tenplua negoziaketa-leku biurtu ebelako: Une aretatik artu eben erabagia bera ilteko (Mk. 11, 18).

* Une au ez da besterik, lendik datorren arazo-bidearen azkena baiño. Jesus'ek lendik abadeak aztertzen ebazan, tenpluko oiturak bete ezkero, urko-lagunari laguntzea bete ez arren, Jaungoikoagaz bakean bizi leitekela uste ebelako. (Lk. 10,30-37); Jesus'ek tenpluari garrantzirik ez eutson emoten eta beretzat ez zan Jaungoikoa aurkitzeko leku bakarra, Jaungoikoagaz alkartzea eguneroko bizitzan

egiten da (Mt. 22, 1-7), batez be urko lagunari laguntzen jakonean (Mt. 25, 31.46). Ez dautsazue Jaungoikoari gurtza emongo, ez mendi onetan eta ez Jerusaien'en... eidu da ordua benetako gurtzailleak gogoz eta egiz Jaungoikoa gurtzeko" (Jn. 4, 21-23). Jesus'entzat tenplua zan kultoa ikusteko eran eta agirian egiteko tokia, une guztietan eta leku guztietan egin bear dan kultoa bera: Otoitz egin eta Jaungoikoari gurtza emon.

* Orrexegaitik atera ebazan kanpora diru-aldatzailleak eta saltzailleak: tenplua "otoitz-etxea da" eta ez Jaungoikoa aiztuta egiten diran tratuak eta negozieketak egiteko lekua (Lk. 19, 46).

* Orregaitik: Zure oparia altarara eroan eta an konturatzen ba'zara anaiak zure aurka zerbait daukol a, itzi egizu oparia an altara-aurrean eta zoaz ienengo zure anaiagaz bakeak egitera; gero biurtu zaite eta aurkeztu zure eskintzaria" (Mt. 5, 32-24).

4.- Dirua dala-ta alkarren arerio.

* Abade-Buruak, fariseoak eta jakitunak, diruari buruz eurak eukezan eritxiak eukezelako, Jesus'en aurrez-aurre aurkeztu ziran.

Abade-buruak aberatsak ziran, opariak egiteko eta eskintzetarako abereak euren eskuetan egozalako eta orreik salduta sortzen ziran tenplurako irabazien ardurea eukelako; eta ez da aiztu bear tenpluak artzen ebazala Israel'dar guztien eskintzak eta opariak. Jesus'ek saltzailleak tenplutik kanpora bota ebazanean "ekonomi-giroko Santutegi" au alboratu eban eta euren aurka gezizorrotza jaurti eban.

Fariseoak "diru-zaleak" ziran (Lk. 16,14) eta Jesus'ek aberastasunen arazoa aztertzen ebanean, barre egiten eutsoen.

Jakitunak Jesus'en salakuntzan irabazi eben "otoitz luzeak egiteko atxakiagaz alargunen ondasunak jaten" ebezala.

* Baiña auxe da Jesus'en jokabidea:

## Jaungoikoa ala dirua?

"Zorionekoak txiro izatea aukeratzen dabenak, oneik Jaungoikoa izango dabe Errege" (Mt. 5, 3): Auxe da Erreiñura sartzeko baldintza; Norberaren gagoz artutako txirotasuna (Ikusi X!, 3 gaia) Orregaitik: "Ezin zeinkeez dirua ta Jaungoikoa otsendu" (Mt. 6,24); Gauza gaitxa izango da aberats bat Jaungoikoaren Erreiñura sartzea. Barriro diñot. Errezagoa da ganbelu bat orratzaren zulotik sartzea, aberats bat Jaungoikoaren Erreiñura sartzea baiño (Mt. 19, 32-24).

## Oirua ez da pillatzeko.

Billatu bear dana ez da dirua: "Ez egizuez aberastasunak turrean pillatu, zitzak eta ugarrak jan egiten dauz eta lapurrak orrnea zulatu ta ostu egiten dabez-eta" (Mt. 6.19) "Alboratu egizue zekenkeria, norbera diruz ondo ibilli arren, bizia ez dago ondasunen menpeaneta" (Lk. 12,15).

Billatu bear dana Jaungoikoaren Erreiñua ta bere zuzentasuna da" (Mt. 6, 35), billatu Jaungoikoa Errege lez dauken senide-giroko mundua" (Lk. 18,8-9)

## Dirua banatzeko da.

"Saldu zuen ondasunak eta emon limosna lez" (Lk. 12,33). ZakeoYen jazokizun aretan (ikusi IX gaia) au diño: Ondasunik erdiak txiroai emoten dautsedaz eta iñori dirua kendu ba'dautsat, lau bider geiago ernongo dautsat", eta Jesus'ek esan eutson: "Gaur etorri da salbamena etxe onetara" (Lk. 18, 8-9).

* Eta Jesus'ek ez dau txirotasuna berbaz bakarrik agertzen: Bera da txiroa. Sendi txiroan jaio zan (bere gurasoak tenplura aurkeztu ebenean usokurne bi eskiñi ebazan, semerik sarrena aurkezten ebenean txiroai egokien lez, eta bere bizitza guztia igaro eban txiro biziten eta orren aurka joiana aiboratzen: Lukiak euren abiak daukez, baiña Gizonaren Semeak..." (Lk. 9,58).

EGIN GEINKENA

Aldien mendizuloa

— Irakasleak ekintza au eskintzen dautse ikasleai. "Iruditu Jesus'ek gaur zer egingo leuken" itaun batzuk arin-arin eginda.

Ikasle bakoitxak idatzi begi bere ingurraztian bere ustez Jesus'ek gaur egingo leukena.

— Ez begi irakasleak asti aundirik itzi itaun baten eta urrengoaren artean, baiña aurretiaz esan bear dautse ikasleai asti gitxi izango dabela: Bat-batean idatzi bear dabe zentzunez burura datorkena.

— Itaunen zerrenda bat eskintzen dogu eta irakasleak ugantu naiz aldatu egin lei. ikasleen girora egokitzu eta gaia zelan aztertu dan be kontuan artuta:

"Idatzi Jesus'ek gaur zer egingo leuken:

a) Eleiz batera sartuko ba'litz.
b) Loteriak urtengo ba'leuskio.
c) Laterri-buru ba'litz.
d) Atorno-gudea aortuko ba'litz.
e) Eskoi-aldeko arduradun bat aurkituko baleu.
f) Ezker-aldeko arduradun bat aurkituko ba'leu.
g) Milloidun baten semea ba'litz.
h) Lan barik dagoan langille baten semea ba'litz.
i) Banku-gizona ba'litz.

— Itaunak egin ondoren, erantzunak klasean irakurten dira eta ondorenak atera.

Ikertu

— Taldeetan banatuta, ikasleak ikustaldia egiten dabe, talde bakoitxak toki edo erakunde batera: Esaterako talde bat Kari-

tas'era, beste bat Kurutze-Gorri'ra, beste bat erriko auzorik txiroenera, beste bat kartzelara...

- Ikustaldian talde bakoitxak barriak artuko dauz, al dauanik geien, ikusitako tokiari eta jenteari buruz.

— Gero, talde bakoitxak ikusi dauanaren barria emongo dau.

Erantzun...

Jesus sartu ete zan politikara?

Irakurri...

Bibliaren zati oneik: As.l, 29; Mt. 6,24; Ap. 2,45 eta 4,32-35. Azaldu zati orreik banaka eta esan batzuk besteetatik indarrik artzen daben eta osotzen diran ala ez.

Ipiñi alkarren parean...

Grezia'tarren, Erroma'tarren, Arabia'tarren, Juda'tarren, Katolikuen, protestateen, Buda'tarren. Egipto'tarren... eleizea eta ori begiratu barrutik eta kanpotik. Orrek esan gura dau, begiakaz ikusten doguna eta orrek esan gura dauana.

Aurkitu dozu...

Zuzena ez dan legerik? Ikusi dozu iñoz legea ez doala gizonari laguntzera, bestetara baiño?

Azaldu...

Batikano'ko IM'ren esaldi au: "Lurra ta lurrean dagoana Jaungoikoak gizonak eta erriak erabilli dagien egin dau. Orregaitik ondasun egiñak guztiakana eldu bear dira barditasunaz" Elejzea eta gaurko mundua. 69"

# XIII. GAIA

## JESUS ZERGAITIK KURUTZEAN *1L* ZAN
(Jesus, gizonen salbainenerako kurutzean il ebena)

Orio-Mendia: Jesus'ek ba-ekian ilgo ebela.

Gai onetan EGINGO DOGUNA...

* Jesus Kurutzera eroateko bidea ziran jazokizunak aztertu.

* Jesus'en *Nekaidia* ta Kurutzeko *eriotzea,* bere *bizitza* argt'aren eta egiaren alde jokatzearen ondorenak izan zirala ulertu.

* Jesus'en nekaldia ta eriotzea, eredugarri baiño geiago dira: Atea idegiten dauskue, benetan, Jaungoikoa aurrez aurre aurkitzeko.

OARRAK

1.- Jesus'en en'otza gogorkerizkoa ezin ete eitekean alboratu?

* Batzuk diñoe:

-*- "Jesus ez da eredugarri. Berak ba-ekian zer jazoko jakon eta berbiztu egingo zala. Nik ez dakit zer jazo letxikidan".

— "Jesus'ek ez daust balio niri. Nik asktasuna nai dot eta bera Jaungoikoaren eskuetan dagoan andrakil bat da".

— "Jesus'ek ez daust niri balio. Nik bizia rnaite dot eta berak egiten dauana nekeak eta eriotzea goratzea da"

* Baiña olako eritxiak ez dabe Jesus'en benetako kondaira ezagutzen eta gaiñera ebanjelioa ume lez irakurrita daukeia agertzen dabe.

— Izan be, Bere arerioen aurrean, erri zeiaren eta ikasleen euren aurrean be, kurutzeko eriotzea ondamendia izan zan. Berbizkundea izan eta gero bai ulertu eben ikasteak kurutzea garaipena izan zala eta Jesus'en ondamendia itxurazko antzekoa. Orduan izan zan, berbizkundea jakin eta gero, ebanjelioak idatzi ebezan unea, orregaitik emoten dabe antza, dana egoala argi asikeratik, Jesus'en eriotzea ta berbizkundea be bai.

— Izatez, Jesus ez zan nekeak sufritzen dauzan eta Jaungoikoaren eskuetan egoan andrakil bat, ez zan Jaungoiko Aitak zigor lez ezarrita kurutzekoeriotzea ezin alboratu izan eban bat.Jaungoikoaren Semeak, mundua salbatzeko giza-izate ilkorra artu eban eta argi ta gogoz joan zan kurutzerantza ez giza-giroko jazokizun uts batera lez eta ez nekeak artzen zalea zalako, Jaungoikoaren Erreiñua iragarri ebalako eta mundu usteldu baten barruan bere zeregiñaren testigantzea emon ebalako baiño. Orregaitik apaltasunaz eta gogoz artzen kurutzeko eriotza gogorra eta maitasunik aundienaz eskintzen dautso Aitari gizaki guztien pekatuen zorra bardintzeko.

Jesus ez da Grezia'ko trajedietan *agertzen diran gizadien antze*koa, ez da Jainkoen jostaiiua, asieratik erabagita dagoan elburu edo

adu bat beteten dauana. Jesus'en azken larria, bardin-bardiña izan ez arren, Sokrates lako gizonen antzekoa da geiago (au itaun artegaganiak egiten ebazalako eta politikako ilketa baten kide izan gura ez ebelako il eben) edo Luter King'en eriotzearen antzekoa (au Laterri batuetan baltzen eskubideak aldeztu ebazalako il eben).

— Jesus ez zan joan nekearen eta eriotzearen billa, ori nai ebalako edo olako jazoerak errazoi barik goratzeko. Arriskugarri agertzen dan bidean jarraitzen dau, datorren ondamendia ez dala azkena garaipena dakartson atea baiño; bere nekeak eta ondamendia, izatez, Bizitzarako ta Maitasunerako bidea dira.

2.- Erlejiño-giroko epaibidea.

* Aurreko gaian aztertu genduzan Israel'go agintariakaz Jesus'ek izan ebazan ulertu-eziñaren goraberak. Ikusi dagigun orain alkar-ulertu-ezin orrek zertan izan eban bere azkena. Azken onen aurretik auziak edo epaibideak datoz: Erlejiño-giroko epaibidea Batzordearen aurrean eta erri-giroko epaibidea Pilato'ren aurrean.

* Jesus atxillotu egin eben erlejiño-giroko aintarien aginduz (Mk. 14, 43) eta agintari orrein aurrera eroan eben epaitu eta il egin nai ebelako (Mk. 14, 53-57).

* Ez da gauza erreza Jesus zertan salatzen eben zeatz jakitea. Oneik izan leitekez zioak: Moises'en Legearen aurrez eukan bere egoerea (Mk. 2, 24), guzurrezko igarlea zalako (Lk. 7, 39), Jerusalen'eko Jauretxea, tenplua, apurtu eta iru egunean barriro egin leikela berak, esan ebalako (MK. 14, 58).

* Zergaitik emon eutsen Jesus'eri eriotzarako epaia? Legebidean eriotzarako epaia emoteko baliokoa zan zerbait izan bear. Izan zeitekean:

— Biraolaria zalako: Iru ebanjelio bardintsuak batera datoz eriotzarako epaia emoteko zioa erlejiño-gai bat zala: "Biraoa esan dau!" (Mk. 14, 61-54, Mt. 26,57-68)

— Ba-diñoe batzuk Abade Nagusiaren itaunai eran-bearren, ISIllik geratu zalako arrokena izan zala zioa be (Mk. 14, 60-61).

- Bear ba'da Jesus isiltzea, Herodes'en aurrean mirariak egiteko izan ebazan antzeko ziokaitik izan leiteke (Lk. 23,8-9): Fede-girotik kanpora gauza ikusgarri lez miranak egiteari ezetza emoten dautson antzera, bera salatzeko eta ez egia jaiteko *asmoagaz itauntzen dauanari* be, ez dautso erantzuten.

3,- Erri-giroko auzibidea.

* Erri-Batzordearen auzibidea egin ondoren, Jesus Erromatarren epaitegira eroan eben. Baiña ez egoan ba erioUarako epaituta? Zergaitik orduan epaitegia aldatu?

- Bear ba'da, erromatarrak baiño ez eukelako eriotzarako epaiak beteteko eskubidea.

Bear ba'da, Erri-Batzordearen kidekoen eritxiak *(esaterako Fariseo* ta saduzeoen artekoak) eriotzara epaitzeko zioan batera ez etozalako edo Jesus erri-giroan onartu izanik epaia emotera eurak ausartzen ez ziralako, naizta Jesus il egin bear zala esatean guztiak batera etorri. (Jn. 19.19),

— Egia auxe da: Jesus politika-giroan aurkalaria zalako ilten dabela ("Judeuen Erregea" izango da kurutzearen gaiñean irrika ipiñiko daben idazkia). Pitato'k eriotzarako epaia emotea fortzeko, erri-batzordekoak erriko zurrumurruak artzen dabez: Jesus Erromatarren eginpidearen aurka joiala eta arriskukarri ebela esanez: Jentetza aundia batzen dau, Zesar'eri ze rgak ordaintzea ukatzen daujudeuen errege lez agertzen da... Pilato'k ez dau argi ikusten Jesus errudun danik (Jn. 19,4), baiña judeuak egiten dabezan bultzakadak ikusita ("ori askatzen ba'dozu ez zara Zesar'en laguna" Jn. 19,12) eta Erroma'ko agintariaren aurrean barriak oker emon ezkero, bere agintea galtzeko bildurra eukalako, Jesus eurai emoten dautse kurutze baten il dagien. Banakakoen gurariak eta agindu-gureak makalaren egia ta bizia *zapaldu eg'in* ebezan.

4.- Jesus gure pekatuakaitik il zan.

Kondairearen joanean errubako asko il dira okerreko epaia emon jakelako. Jesus ez da otako bat baiño besterik?

Kristiñauen fedeak Jesus ez dala olako bat beste barik autortzen dau. Bera "Gure pekatuakaitik eriotzaratua izan zalako" (Errom. 4. 25), "edozelako txarkerietatik gu askatzeko" (Tit. 2,14), atzeratu eziña dan askatzea lortu dau (Eber. 9,12). Azaldu dagigun au.

*idatz-zati onen* idazpuruak *esangura* bi dauz:

a) Gure pekatuak Jesus iltearen zio dira. Izan be Jesus bere erriki'deen eta bere aldikoen pekatuen ondorengo ilgai izan zan: Fariseoen itxitasun eta lege-zalekeriagaitik, abadeen eta saduzeoen ekonomi-gurariakatik, Herodes'ek eta Pilato'k izan eben agindu-gura eta ardurarik ezagaitik, erri zeiak izan eban ulertu-ezin eta ezer ez egiteagaitik. Batzuk eriotzara bultzatu, beste batzuk il egiten dabe, beste batzuk ilten itzi... Guztiak egiten dabe alkar-lan bat, baiña eriotza au ekarri ebenak Jesus'en errikideak eta aldikideak bakarrik izan ziran? Barru-barruan Jesus'en aurkako pekatu au erri guztietan zabal dagoan eta aldi guztietan bein eta barriro jazoten dan pekatuaren ordezkoa da eta bere jatorria jatorrizko pekatuan dauka, ortikdatoz etorri be, beste pekatuak eta orrek beteten dau gizon-egitearen eta salbatzearen bear-izan guztia.

Orregaitik, "gutariko bakoitxak geure pekatuakaz Jesus il genduala" esatea ez da esaldi utsa, olantxe dan gauzea baiño: Gure peka*tua ez* da Jesus'en aldikideak egin eben pekatuaren antzik bakoa (Itxia izatea, legekeria, bekaitza, agindu-gurea...) gure pekatuakaz Jaungoikoa iraindu eta bere esanak betetea ukatzen dogu, gure pekatuak sarritan geidea il edo eskubideetan zauritu egiten dogu eta geideagan Jesus bera dago (Mt. 25, 41-45), gure pakatuak Jesus barriro iSgo leuke gaur gure artean biziko ba'litzake.

b) Jesus'en eriotzeak pekatutik askatu egiten gaitu.

Gizonen pekatuak Jesus'en eriotzea lortu eben; baiña Jesus'en eriotzeak, berak askatasunaz artuta, gizonen pekatu guztien parka-

menerako eta ordoz berak Aitari maitasunez beterik eskiñi ondoren, Aitak orrelan artuta, pekalu guztien eriotzarako bidea lortu dair Gizon guztien S3lbameneiako eriotzea da. Ori agertzeko esan eban Juan'ek Jesus "munduko pekatua kentzen *dauan* Jaungoikoaren bildotsa zala" (Jn. 1,29): Bildotsaren odolak Isaiael'darren seme nagusiak salbau eta Egipto'tik urteteko erri guztiari bidea idegi eutson antzera (Urt. 12, 12-13) Jesus'en odolak. isui i zanean, gizon guztiak askatu ginduzan pekatuetatik.

5.- Oparia, pekatu-ordea, bir-erostea.

Itun barrian eta Eleizearen kondairaren joanean sarritan aitatu da Jesus'en eriotzea gizon guztien ordez Jaungoikoari eskiñitako opari lez, gizadiaren pekatuen ordezko lez eta gizaki guztiak ber-erosteko bide lez.

Kristiñauen fedeko giltzarri diran baiezpen oneik txarto ulertuak izateko arriskua dauke, beste erlejiño batzutan be jazoten dan lez, Jesus'ek dakarren berezitasuna ulertzen ez ba'da, eta au, barru-barruan bera baiño aurreragoko erlejiño-bideari egiten jakon a2terpena da. Ikusi dagigun ba, zein dan iru burutasun oneik kristiñau-giroan dauken esan-naia.

Oparia.

Berba onek asikeratik daukan esangure artu ezkero, gauza bat sagaratzeko bidea da edo persona bat erlejiñobako erri-girotik ate-rateko bidea, orrelan gauza edo persona ori Jaungoikoari eskiñita-ko lez artzen dala.

Oparietan gai oneik agertzen dira:

a) Gauza edo persona bat Jaungoikoari emon edo eskintzea.

b) Eskintzen dan ori apurtzea, erlejiño-bakotasuna galtzen dauala eta Jaungoikoaren gauza, gauza sagaratu, bturtzen dala adierazteko.

d) Doia eskintzen dauan abadea.

e) Eskintze orregaz zer-ikusia daukenengan ondorert bat.

Ebertarrai egindako idazkia irakurri ezkero ondoren au ateraten dogu: Jesus'en eriotzea gai guzti orreik dauzan oparia daia, baiña era guztiz berezi baten egindako oparia.

a) Eskintzen dan doia ez dira gauzak eta abereak, Jesus bera baiño.

b) Apurtzea Kurutzeko eriotzea da; eta berbizkundea ezauqarri, Jesus'ek eriotzea benetako oparia dala agertzeko, Jesus Jaungoikoagana doalako eta Jaungoikoak bere Sernearen Jaungoikotasuna agertzen daualako

c) Abade Jesus bera da, berak eskintzen dau oparia. Eta batera, bera da opari-gaia: opari lez eskintzen da.

d) Ondorena, Jaungoikoari egindako iraiña bardintzea ta gizonen salbamena dira.

Pekatu-ordea.

Burutasun au ia erlejiño guztietan agertzen da esangura bi dituala: Bata Jaungoikoari egindako iraiña bardintzea eta batera egite orren ondorena dana bestea, kaltea bardintzea.

Arlc onetan be Jesus'en eriotzea pekatu-bardintzea da, barña era oso berezi baten: a) Jaungoikoari begira gizon batek egindako ekintza dalako (Jesus'ek bere bizia eskintzen dau gizonen alde, onein pekatuak bardintzeko); b) Baiña Aitaren egitea be ba-da, (onek Kristo'ren eriotzea pekatuen orde le2 artzen dau); d) eta Kristo'ren eskintzea eta Aitaren aintzat artzea gizonen onerako dira: Jaungoikoak gizonari parkamenaren eta bere adiskidetasunaren grazia emoten dautso.

Ber-erostea.

Burutasun au be ta erlejiño guztietan agertzen da: Erostea adieraz-

ten dau sta jaungoikozko-ondasun bat da erosten dana, neum edo ordain bat bide dala

Eta Kristo'ren eriotzea be ber-erostea da baiña era oso berezi baten: Gizonen pekatuak parkatzeko Jaungoikoak eskatutako ordaiña dalako eta Jaungoikoaren aldetik egite bat dalako, orrelan ori onartzen dauan gizona Jaungoikoaren jabetzara sartzen dala eta Jaungoikoa Errege ta Jaun lez artzera eltzen dala.

Labur-labur, oparia, pekatu-ordea, ber-erostea, gure salbamena lortzeko Jesus'ek egin eban bide neketsu ta gaitxaren guganatzea da. Ez ulertu bide au, gizonen iraiña bardintzeko Jaungoikoak eskatu eban ordain lez, Jesus'ek, gizadia salbatzeko ez ebata gizadiaren kondaira alde batera itzi, kondaira okertua ta pekatuzkoa bere gaiñean artu ebala eta berak pekatu barik bizi izan ebala agertzeko baiño, orrelan gizonen bide okerrak Jaungoikoaren burubideen *arauz barr'iro* bideratu ebazan: orregaitik aurka aurkitu genduan guk, bera il genduan gizonok.

Jaungoikoak eskatzen dauan ordaiña
ez da bakarrik irainduta egoan Alguztidunari
egindako iraiña bardintzea,
gure munduaren kondaira
Jaungoikoaren burubideen arauz
zuzentzea be ba-da.

## EGIN GEINKENA

### Jesus'eri auzibidea

Ekintza au beteteko, zeatz gertatu bear da. Orretarako:

— Ikas-taldea bost taldetan banatu.

— Oneitariko talde bakoitxak bere errazoiak gertatuko dauz eta bere zeregiña alkarrari lagunduta, ebanjelioetako Jesus'en nekaldi ta eriotzearen kondaira irakurtea oiñarri dala. Gaiñera, talde bakoitxak ordezkari bat izendatuko dau eta onek gero

berak gettatu dauan zeregiña bete: Epaikari, lekuko, -edo lekukoak- salatari, aldelari edo salatu.

Ainaitu eta epaia iragarten danean, ikas-talde osoak, irakaslea lagun dala, ekintzaren neurtzea egilen dau.

Azterketea.

Aztertzeko gaia gure Aste *Santuak izan* leitekez.

* Zer agertu bear da Aste Santuan? Zer esan gura. dau? Zer da?.
* Zer dira, izatez, eleiz-ibillakdiak? Zer izan bear leukee? Nik zer deritxet?.
* Ba-dakigu liturjia zer dan eta liturjiko aldiak zer esan gura daben?.
* Zer egiten dau jenteak geienetan Aste Santuan? Zer esan gu^a dau egiten daben orrek?,
* Nik zer egiten dot Aste Santuan? Zergaitik?

Irakurri...

ebanjelioetan nekaldia ta eriotzea, ikusi apostoluen egoeiea zein izan zan, eta zein erriarena. Gero esan al izango dogu esaldi iabur baten zein zan Jesus'en egoerea?

Zer diñosku guri...

Jesus'en Jetsemani'ko ortuko il-zorian egoteak?

Eriotzeak...

ezagutzen eta maitatzen dogun baten eriotzeak, ze ondoren izan eban gugan?. Zer da nitzat eriotzea?

Billatu...

eriotzearen aurrean gizon batek izaten dauzan kezkak argi agertzen dauzan olerki bat,

Aukeratu...

geien atsegin jatzun kurutzeko eriotzearen lauki bat.

Biilatu...

kristiñauak kondairan izan dabezan jazarpenak. Bearrezkoa ete da kristiñau izan ezkero aurrean erabilha izatea?

Ezagutu...

ondo zer dan eta zer esan gura dauan Aste Santuak Eleizearen liturgi-bidean.

Egin...

Jesus'en eriotzearen barria dakarren izparringi baten lenengo orria: Indazpuruak eta idazkiak. Iru talde egin ezkero, baten egin lei izparringia, fariseoak egingo eben lez, beste baten Jesus'en iagunak egingo eben lez eta beste baten zelotak aterako eben orri bat.

Agertu...

Isaak'en oparian, oparia, pekatu-ordea eta ber-erostea zer ziran.

# XIVGAIA

## BERBIZTU EGIN El DA!
(Jesus'en berbizkundearen lenengo lekukoak)

'Ecce Homo'ren arkua, Jerusalen'en. Baifia Jesus'en nekaldiaz ezzan amaitu bere bizitzea.

**Gal onetan auxe egingo** dogu...

* Jesus'en berbizkundearen testigantzetara urreratu.

* Berbiztuagan sinisteko erabilten diran elerti-motak ezagutu.

* Berbizkundea gude tedeari emondako edorebidea dala ikusi.

ZERGAITIK...

* testigantza onein literatura-motak jakin barik, ez dogu ondo ulertuko emon gura dauskuen barria.

* Testigantza onein bidez baifio ezin geintekez sartu Jesus'en berbizkundeagazko artu emonetara.

1. Jesus'en kondaira **ez** zan **amaitu**

* **"Jesus'en kasua" bere illobiratzeagaz amaitu ba'litz besteen** antzeko **bat litzake Jesus, gizon arteza eta** zeregin zuzen bateri oso-osoan eskiñia, bere aldiko gizarteak eriotzaratua, bere **urtenbidea onartu ez zalako. Eta orrelan,** ixarraren indarrak **beste** bein, gudaldia irabazi izango eben, ez guda osoa, errazoia **emongo eutsoen "bizitzea ondo ulertu eta biziten dakienai" "Dana dakienai", "ona ez dala izan bear orrelan iñori onurak emon eta norberak ez dauala aurrerateen" esaten** dabenai.

Baiña Jesus'en azkena **ez zan izan illobia. Bera ii eta egun gitxi barru, berbiztu egin dala** egrten dabe deadar eta deadar onek ezaupude **barria** damotso Nazaret'eko arotz iztariari: Ez da ilketa baten kasu **zuzena.**

* Gaiñera, **apostoluak ori azaltzen astendiranean, euren gaia berbizkundea da.** Berbizkundea da dana argitzen dauana, Jesus'en jarraitzailleak **bera ii** zanean **ikusitako** ondamendia **zelan azpiratu eben eta zergaitik ulertu** eben **Jesus'en nortasuna**, **lana ta berbea era barri** batera.

**Luther King: Gizon zuzen** eriotzaratua: Jesus **ez** da ori, beste barik.

**2. Berbizkundea nondik dakigun**

* **Zer izan zan? Zelan jazo zan? benetan jazo zana? Eriotzearen** ostean **Jesus'egan jazo zana, Pazko goizean jazorikoa**, **iñok ez eban ikusi zuzenean, berbiztuari buruz lenengo kristiñauak itzi eskuezan testigantza idatzien** bidez **dakigu.**

* **Orregatik jakin gura dogu berbizkundea zer dan, zelan izan zan, Kristo bizi da!a esateak zer esan** nai dauan, zergaitik daukon orrek ainbesteko garrantzia **lenengo kristifiauentzat**, **daukagun barri-bide bakarrera urreratu** bear gara ba, ftun Barrian geratu dan Jesus Berbiztuagan daukagun fedearen testigantza idatzira. **Urreratu** gartezan testigantza orreitara eurak ondo ezagutu **ela zer esan gura** dauskun ulertzeko.

## 3. EdestJ orreKan dagozan eleril-motak

*** Idazki orreik alkarren parean ipinten** doguzanean, **iru gauza arrigarri ikustendoguz:**

- **Ez dlra danak bardiftak:** Ebanjelari batzuk, agertzeak Galilea'n **izan zirala diñoe (Mt. 28, 16...)** Beste batzuk **Jerusalen'en izan zirala (U. 24,33...)**

- **Alkarren aurka be ba-dagoz:** jiiobi utsaren edestia, esaterako, edestuten dabenean, Markos'ek difioanez, iru andra dira Jesus **igortzitera doazenak; Markos'ek ostera gazte bat egoala zuririk eta Mateo'k aingeru batek kendu ebala aurreko arri aundia. Markos'ek** andrak **bildurtuta joan egin zirala diño**, **eta ez eutsela iftori ezer** esan, **Lukas'ek** ostera **biurtu egin zirala** eta apostoluai **barria emon**, Mateo'k bakarrik dinosku biurtu **ziranean** Jesus'ek urten eutsela bidera.

- **Jaklngarri batzuk ezaugarrl-gtrokoak dlra geiago kondal-ra-girokoak baifto,** Lukas'ek esaterako, agerpenak berrogei egu-nean **izan** zirala difto, **eta egun orreik igaro ziranean, Jesus** zerura **igon** zala (Ap.Eg. 1, 3). BaiAa Biblian **"berrogei" ezaugarri-giroko zen-**bakiada: 40 urte Israel basamortuan, 40 egun **Jesus** basamortuan...

* Or argi agertzen **da, edestiak ez dirala** gaurko izparkarien erakoak, jazo zana agertzeko, **eta** mezua **ez** dagoala edesten dabezan **gai** txikietan, lenengo aldietako Eleizeak be alkarren aurkako gauzak or ikusi arren, **errez onartu** ebazalako.

Orregaitik, izparringi baten antzera **irakurribearezba'dira**, **kondaira-liburu** baten tankerakoak **ez ba'dira, zetan irakurri bear dira liburu oneik? Zein da euren elerti-mota?** Goazen **zatiak, urrrengorik urrengora. len aitatu** doguzan Berbizkundearen testiganza-erak aztertuz:

**Fede-autortzak, Agerpenak edestlak eta Illobf utsarenak.**

4. **Fede-autortzak**. **Paulo'ren** testigantzea

Aposioluen Egiflak libunjan eta San Paulo'ren idazkietan agertzen diran apostoluen berbaldietan datozan Berbizkundeari buruzko esaldi bardifiak dira. Oneik dira testigantzarik antxiñekoenak, Paulo'ren idazkiak ebanjelioak baino lenagokoak diraiako eta Apostoluen Eginak liburuko berbaldiak Apostoluen lenengo iragarpenaren usaiña daukelako.

Era bitako fede-autorpenak aurkitzendoguz:

- Zatl bakarreko esaldlak: Eriotzea ta barbizkundea batera aitatzen dabez eta Jaungoiko Arta da Kristo berbiztu dauana. "Jaungoikoak berbiztu egin dau Jesus eriotzatik" (Gal. 1,1; Kor. I**, 6, 14; Ap.** Eg. **17,** 31).

- **Zatl bltan** dagozan esaldlak: Eriotzea eta berbizkundea argi agertzen dira alkarren aurkako gauza lez: "2uek kurutzen il zenduen baina Jaungoikoak berb^tu egin dau" (Ap. Eg. 2, 23-24).

- Fede autorpen guztien artean, Korinto'koari egindako lenengo idazkiean Paulo'k dakarren fede-autorpena da oargarriena: **"Nik** artu nebana emon neutsuen zuei: Kristo gure pekatuakartik II **zala,** Liburu Santuak diñoenez, IIloblratu egln **ebela,** eta irugarren egunean berblztua tzan zala Uburu Santuak diñoenez eta agertu egln zala. (Kor. 1,15,3-5).

Idaz-zati onen garrantzia onetan dago: a) Antzifiatik etorritako barriadala, Paulo baifio lenagokoa, ogei ta amargarrengo urteen erdi inguruan dagoana: b) au ez dala ez zati bakarrekoa eta ez zati bitakoa, lau zatiduna baiño: II egln **zan, IIlobiralu egln eben, berbiztua Izan zan,** agertu egln zan Lau zati onei geroago idatziko diran ebanjelioen laburpena dira: lenengo ementxe zrtatzen dira agerpenak 5, 6 eta 7 atattxuetan (esakJi orren ostekoak dira) Paulo'k agerpen batzuk aitatzen dauz, baina zelan izan ziran azaldu barik.

* Baifia esaldien eta fede-autorpenen gaiñera, beste testigantza bat daukagu, *au zuzenean, bamrik barriena: Apostoluen* Egifiak *imtan aitatzen* dabe Paulo'k Damasko'ra bidean izan eban berbiztuagaz aurkitzea: (9, 22-26 ataletan). Aurkitze au gogoratzen dau Paulo'k, au diñoanean: **"Nik** iragarri dautzuedan Barri Ona ez da gizonen asmakizuna, eta neuri be ez. daust iragarri iñongo gizonek, Jesukristo'ren iragarpenak baiño... Nire amaren sabeletik aukeratu eta bere graziz deitu eustan Arek bere Semea agertu eustan

Juda'tar ez **diranai** iragarri dagiisedan... Asia'rantza **urten nintzan eta** andik ***barriro* Damasko'ra *biurtu (Gal* 1,11-17)**.

**Iru** errazoigaitik da garrantzi **aundikoa** Galaziatarrai egindako **eskutitzaren zati au: a)** Paulo **ez zan izan, beste** aposloluen **antzera, i! aurrean** Jesus'en jarraitzaille: b) edesti au da bakarra, agerpena ikusi ebanak edesten dauana d) agerpenaren edestia laburra da, garrantzia daukana ez dalako **Paulo'ren experientzia, kristifiauen fedea** sendotzeko izatea baiño **eta** experientzi berezia dafako, bearba'da, ez dauko orr agertzeko berba egokirik.

* **Fede autorpen oneik** berbiztuagaz izandako alkartzean zomau ebezan oarmenak ez dabez agertzen eta ez **Jesus'eri berbiztu zanean zer** jazo jakon be, ez diralako albiste-bideetarako barri-emoteak, lenengo kristiñauak euken fedearen agerpen laburrak dira eta jesus'egan sinisten dabenak egiten dabez agerpen orreik.

**Illobiratze santua**. Carvaggio'rena. Batrkano'n. Jesus'en **eriotzeak ez** eban amaitu bere bizia.

## 5. Agerpenen edestiak

**Lau ebanjelio-liburuen** azkanean **Jesus berbiztuaren agertze batzuk** edesten **dira: Maria** Magdalena'ri ta beste **Maria'ri,** Maria **Magdalena'ri bakanrik, amaika apostoluai**, **amar apostoluri Tomas ez egoaia, Emaus'ko ikasleai, Agerpen onein lekua ez da beti bat: Jerusalen (illobi utsetik urrean,** amaikak **batuta egozan etxean) edo** Galilea'n (mendi baten, **Tiberiades zingira-ondoan). Eta unea be ez da beti bat: Berbizkunde egun beratan (Lk**. **24, 13) zortzi egun geroago (Jn. 20**,26) denpora-aldi bat geroago Jn. 21,1).

**Ortik ateraten dan ondorena argi dago: Edesti guztiak alkartzerik ez** dago, jazokizun bat bera agertzen dabe baifia era ezbardiñak artuta, ebanjelio bakoitxak beardauana eta artu dauzan idazkerabarriakaurrean dirala. Orregai-**tik** dauke edesti **guztiak** eskema bardin bat; a) irakaslea eurakaz eukitearen egoerea; b) Jesus agertzea; d) Jesus'en agurra; **e) jarraitzailleak** Jesus ezagutzen dabe;f) Jesus'en berbea edo agindua ta bialtzea.

## Jesus ikusl eben

Lukas'en eta Joanen edestietan Jesus eurakaz jan be egiten agertzen jaku eta ortik pentsau lei bear ba'da, agertze orren argazki bat be atera leikela, baifia ori uste izatea. elerti-era ori ez ulertzea da, ori ez da ebanjelarien agerbidea, orrelan ba'lrtz, apostoluak ez litzakez izango fedearen lekuko berbiztuari buruz, berbiztua ikusi egingo teukeekako, eta Paulo'k be ez eban izango zertan azterketea egin berbiztuen gorputza zelakoa izango dan agerlzeko. (Kor. 1,15,35).

Baiña agertze orreik ez ziran izan amets utsak be, ez ziran izan eurak zomau eben barruko oarmen utsa: Ez da esaten "ikusia izan zala" Jesus, bera "agertu egin zala" baifio Eta agertze ori askori batera egiten jake batzutan (San Paulok berak be ba-diño 500 senideri egin jakela agerize bat) eta ez da errez jazo leiken gauzea batera orrelako ametsa guztiak eukrtea.

Agertzeak experientzi bereziak dira, bai, baifia benetakoak, jazorikoak. Zori txarrez gure izketea, begiak ikusten dabena agertzeko dan lez, apurtu egiten da, ez dauka bear dan besteko neurria, izatez goitik gauzea agertzeko: Benetan ikusi eben Jesus, naizta guk jakin ez, zelan.

Izan ziranak izan zirala, jazo ziran lez jazo zirala, agertzeak guri esan gura dauskuena auxe da: Lurreko Jesus'en eta Jesus berbiztuaren artean gorputz-giroko jarraipena dagoala.

Jesus'en aldiko Juda'tarren illobia. Jesus'ek illobiratu ebenean be ez eban bere azkena aurkitu.

## Jesus'ek berba egin eutsen

Bear ba'da Jesus ez eben bardin ikusi, gauzak egunero ikusten doguzan lez, bear ba'da entzun be ez jakon egiten. Baiña Jesus'ek berbak esatea edo ez esatea ez da garrantzia daukana. Agerpen oneitan garrantzia daukana, lenengo Jesus'egaz benetan alkartzea da (Jesus ikusi eben) eta gero Jesus'egaz artu-emonak izatea; Jesus'ek ulertu eben mezua emon eutsen, berbakaz zala naiz beste era baten zala.

* Agertzeen edestiak elerti-era **berezia dira ba: experientzi bakarri buruz lekuko bereziak** egiten daben agerpena. Ez dira agerpen egokia edesti **orreik, eta orrelan izan bear, Jesus Berbiztuaren** goi-experientzia agertzeko gizonak ez daukeiako ez berbarik eta **ez elerti-era egokirik.**

## 6. Hlobl utsaren edestlak

*** Lau ebanjelioak jazokizun bat** bera edesten dauskue: Jesus **illobira-**tzeko **artu eben** illobia utsik egoala. Edesti onen **elburua ez** da agerpenaren **edestiena bera, ikusiko dogun lez; ez dira sinisteko errazoiak, berbiztuaren ezagurribatbaiño.**

*** Gorago ikusi doguz illobi utsaren edestian dagozan ezbardintasun** batzuk, ebanjelio bakoitxak bereak, **Izan be, ebanjelioen** ardurea ez da **gauza txikiak** kondairara sartzea, **sakonagoa dan zerbait baifio.** Esaterako Markos'egan **Andrak zurlz jantzitako mutilla aurkitzen dabe, Lukas'egan zuriz** jantzitako gizon **bi,** Mateo'gan aingeru **bat.** Baifta berbak bardiftak **izan ez** arren, **irurak** dakarre jazokizun bat bera apaingarri ezbardiflakaz: **"Ez da izan lapurreta** bat, edo **oker-ulerlu bat; Jesus** ez dago **emen, berbiztu egin** daiako. **"Juan'en ebanjelioan (20**, **1-10} ez** dago olakorik ezer, buru-zapia eta zauri-zerrendak baino **ez: Hori** ikustean **sinistu** egin eban"; Pedro'ren eta **Juan'en** fedea, **illobi utsaren** esangurea benetan ulertula, beste **ebanjelioetan** norkiak esalen dabezan berben esangurea bera da.

* Zer da barru-barruan, edesti oneik **illobia utsik agertuz guri esan nai dauskuena? Jesus ez** dagoaia **llda, berblztu egln dala. Eta berbiztu** dana **kurutzean ll eta lllobIratu ebena bera dala, orain utsik agiri dan** illobi orretan ollobiratu ebena.

Illobi **utsa ezaugarria** da, Jesus **Berbiztuaren ezaugarria eta** orrek alkartzen dauz lurreko Jesus eta Kristo berbiztua.

## EGIN GEINKENA

**Gogoratu... VI** gaian Biblia'ko KJazkerai edo **elerti-motai buruz ikasia eta** alkartu **gai**onetan idazkera edo elerti-erai buruz ikasiagaz.

I**rakurrL. Pauto** Jesus'egaz alkartzea **Apostoluen Egiñak liburuan 9, 22 eta** 26 ataletan agertzen danez.

I**rakurr**l**... illobi** utsari buruz Mateo Markos eta Lukas'en ebanjelio-liburuetan datorrena, **ipini orri baten iru agetan eskema** l**ez eta ikusi zertan** dagozan bateraetazertanez.

Z**enbatu... irakurri ondoren,** lau ebanjelioetan datozen Jesus'en agertzeak.

**Gogoratu...** zuzengekeriz **epaituak eta** eriotzaratuak **izan diran** norkien kasuak.

Z**enbat...** zifiopa edo martiri ezagutzen doguz? Zein **izan zan martirien aldia?** Zein da *martiri baten eta Jesus'en eriotzearen añean* dagoan aldea?

**Azaldu**... **esaldi au "Kristo berbiztu** ez ba'da, gauza utsa da gure sinismena"

**Jrakurrl...** Emaus'ko biai egindako agerpena. Gero kjatzi barriro elerti-giroan.

Z**er** da... eta zelako garrantzia dauka Pasko-egunak kristifiauen **jai lez?**

**Esan labur...** gaia dana, luzeen dala onrialdearen erdian.

**Idatzl...** ikasle bakoitxak argitzea **nai** Seuken gai-zatia, gaia azaidu ondoren. Irakasleak galdera oneik **batzen** dauzanean, berak **gaia zel**a**n ulertu dan** jakiteko btde izango jakoz.

XVGAIA

8ER8IZTU EGIN DA!
(Berbizkundea: Edestien oiñarrian dagoan kondaira; **zer izanzan;** ezkutukia)

Jesus'ek berbiztuaz, gizonentzat gauzak aldatu egrten dauz

**Gal onetan EGINGO DOGUNA...**

Aurreko gaian aztertu doguzan gaien barruan zer dagoan, billatu.

* Edesten dauskuezan jazokizunak argitu.
* Jazokizun oneik agertzen dauskuena bera argitu.

**ZERGAITIK...**

Berbizkundeak esan gura dauskuna sakonetik argitzen ez ba'dogu, jazokizunen azaiean geratzeko arriskua daukugu.

* **Fede kristiñauaren barru-barrua** galduko geunke, **et ori kendu** ezkero ezdagofedekristifiaurik.

TCwWWW

## OARRAK

1. Jazoklzunen antzez-mlntza (pelikulea)

* Berbizkundea zelan izan zan zeatz eta meatz jakin nai dogunean, oziopo aundi bat aurkitzen dogu: ebanjelioak diñoskuena ez dagoala orrelan idatzita, ez dala izparringietarako barri-emote bat, berbiztuagan eurak dauken tedea guri emoteko gai diran erak artzen dabezela eta or ez da nai zeaztasuna, mezua bera agertzea baiño.

* Berbizkundearen inguruko jazokizunat buruz ezin geinke esan zeatz zer jazo zan, noz, non eta zelan jazo zan. Illobia bai, utsik eta zabalik agertu zan. Andrak ziur euken eurentzat berbiztu egin zata. Agerpenak bide dirala, apostoluak azkenean, astiro-astiro ufertu eben agertze orreik zertarako ziran, Jesus'ek zer esaten eutsen, eurak zer egin bear eben... Euren bildurra adore biurtzen da, goibeltasuna alaitasun, ituntasuna itxaropen. Berrogei ta amar egun geroago, Pentekoste egunean, jazokizun arrigarri bat jazo zan: Apostoluak Jesus berbiztuari buruz berba egiten asten dira, Jesus il eben uri aretan bertan (Ap, Eg. 2, 14. .) Jaungoikoaren indar berezi batek bultz eraginda: Espiritu santuaren etorkizuna (Ap. Eg. 2,1-3).

2, Berblzkundea zer ez **dan**

* Orain arte esan dogu apostoluai zer jazo jaken. Baifta zer da berbizkundea? Obeto argitzeko esan dagigun lenengo zer ez dan.

EZ DA ildako bat barriro bizirik agertzea. Lazaro, Jairo'ren alabea eta Nain'go alargunaren semea bizitzara biurtu ziran, baifia geroago bam'ro itteko.

EZ DA gogoa Il-ezlña **fzatea:** burutasun ori oso gitxi agertzen da Biblian. Ebanjelioetan argi argetzen barbizkundea gorputz arazoa dala: Gorputza bertn'ztu da.

EZ DA gogoa barriro aragi batera, iengo gorputza barik beste bat dan aragirasartzea.

EZ DA, jazoriko gauzea izan arren, baieztatu leiken zerbait, eta olako jazokizun asko dagoz. Jazo z iran baiña ez dabe ondorengo agihrik edo astarrenik itzi. Berbizkundea ezin leike baieztatu kondairako jakin-gaiak baieztatzen diran antzera, iftok ez ebalako ikusi Jesus berbiztuten eta testigantza zuzenik ez dagoalako: fedearen ikuspegitik ezagutzen da berbizkundea.

### 3. Berblzkundea zer dan

* **Berblzkundea, Jesus lurreko** bere blzltzatik, blzitza barri batera Igarotea da. Berbizkundeari Pazkoa be esaten jako, eta pazkoa Igarotea da. Igarote au Kurutzeko erbtzearen bidez egiten da.

* Kurutzeratuta II zan Jesus, **bera** da blzirik dagoana. Bizirik dagoana Jesusosoada, ez bere gogoa bakarrik.

* **Jesus'ek erlotzearen kateak apurtu dauz.** Illak bizien artetik banatzen dauzan bitarte-zuloa: Apostoluakaz artu-emonak daukoz.

* Baiña ez dauz apurtu eriotzearen kateak, barriro lengo bizitzara biurtzeko, {Lazaro'ren antzera esaterako). Berbiztua Jesus bera da, Nazaret'eko Jesus, Maha'ren semea, Pedro'ren laguna, baifta bere bizitza barria gorago-ko bizitza da, barriro ez iltekoa (Errom. 6, 9). Orain oso-osoan bizi da eta gizonakaz artu-emonak dauz, munduagaz eta Jaungokoagaz be bai. baina guk susmohk be artu eziñeko era baten: "Jaungoikoaren erara". Eta berak danari dagokion bizitzea dauka: Jaungoikoaren Semearena: Aita Aintzatu nagizu zeure ondoan, mundua mundu zan baifio lenagotik zure ondoan neuken aintza emonaz" (Jn. 17,5).

Jordan ibaia. Ementxe artu eban bateoa Jesus'ek. Uraren bidez bizitza barri batera igaroten gara.

* Bizitza barri au Jaungoikoaren Erreiñuaren lenengo betetze osoa da, or betetzen da berak iragarh eban Jaungoikoaren Erreiñua: Jaungoikoaren maitasuna ta Nagusrtasuna Jesus'egan oso-osoan agertzen dira Berbizkundetik aurrera. Baiña erreiñu au ez da beteten osoan Jesus'en berbizkundeagaz... erreiñu ori gizon guztiakana eldu bear da: Berblzkun-dea Jesus'en bidea jarraitu nai daben **glzonerrtzat zabalik** dagoan Igarobidea da, gizon guztientzat da salbameneko jazokizuna. Ori orre-lan ulertu eben lenengo kristinauak: Jesus lo dagozenen artetik asikerea da

(Kor I, 15, 20), ondoren beste batzuk izango dauzan lenengo frutua; illen artetik lenengo semea (Agerp. 5) gero beste seme asko eta anai asko berbiztuen bizrtzan izangodauzana.

## 4. Berblztuagan tedea agertzeko erak

* Talde batek aztertze bat egin nai dau, egoera baten aurrean aztertze bat bera. Batek barriak emoten dauz izparringi baten, beste batek ipuin bat aldizkari baten, beste batek barre-gai dan marrazki bat, beste batzuk antzerki bat egitea asmau dabe, beste batek irrati-bidez egiten dau berba oso asarratuta... Aztertzea bat bera da, baifia aztertze orren agerpena ez da bakarra, agerpen au ulertu egin bear da mezua ulertu nai ba'da, era askotara emoten jakun mezu bakarra, dan lez artu nai ba'da.

Barbiztuagan daukagun fedeagaz be olako zerbart jazoten da: Jazokizun aberatsa da eta era askotara agertu bear, izan be gauza bat da berbiztuagan fedea eta beste gauza bat dira fede ori agertzeko erak. Berbiztuagan daukagun fedearen agerpenak. Agerpen oneik onelakoak izan daitekez:

### Fede-esaldiak

Oneik labur eta azalpen barik agertzen dauskue, esaldl laburren bldez, Jesus'en egoera barria: "Jaungoikoak berbiztu egin eban, eriotzearen lokarriak apurtuta" {Ap. Eg. 2, 19). "Zerura igon eta Aitaren eskumaldean jesarri zan" Mk. 16, 19) edo Jesus'ek gIzon guztientzat Ideglten dauan egoera barria (Jaungoikoak goratu egin eban eta guztion buru ta salbatzaille ezarri Ap. Eg. 5, 3. "Aginduta egoan Espiritu Santua artu eban Aitagandik etaguztiai isuri eutsen" Ap. Eg. 2,23).

### Agerpenak

Oneik edesti-bidez agertzen dabe, ebanjelioak edesti-girokoak dira izan be, berbiztuagan fedea eta apostoluak fede ori aurkitzea. Orregaitik, bear ba'da, zeaztasun batzuk tedea guri agertzeko bide edo era batzuk baiño ez dira, idazkera batzuk, baiña ez eurak fede orren gaia. Esaterako, agerpenen tokia edo egunak (ez dira bardiñak ebanjeiioen artean). jesus'^k esaten

dauzan berbak ez dira beti fedearen gaia agertzekoak, baiña bai agertzen dabe fedekoa dan zerbait: Jesus berbiztuak benetako artu-emonak izan ebazala apostoluakaz, berben bidez naiz berba barik, eta Berri Ona zabaltzen bialdu ebazala, gizon guztiakana.

### Illobl utsaren edestiak

Aurreko gaian esan genduan lez, auxe da illobi utsaren edestiak esan nai dauskuena: a) Jesus'en gorputza ez dabeia ostu, berbiztu egin da!a; b) lllobi utsa dala il zan Jesus'en eta berbiztu dan Kristo'ren arteko lokarria, eta ori ebanjelioen artean ezbardintasunak egon arren, ezbardintasun orreik agerbidekoak dira, ez oiñarrikoak.

### 5. Barbizkundea da giltzarria

* Jesus'ek errazoia eukan: Bere berblzkundeak agertzen dau orl. Juda'tarren Batzordeak eta Enromatarrak Jesus'eri eriotzarako epaia emon eutsoen, baifia berbizkundeak ziurtatzen dau jokabide ori okerra izan zala. "Zuek kurutzean il zenduen, baifia Jaungoikoak berbiztu egin eban" (Ap. Eg. 2, 23-24). Eta Jesus'ek errazoia izan eta berbiztu egin ba'zan, gauza egokia da, itxurak bestera agertu arren, egiagaitik eta zuzentasunagatik bunruka egin bear dala: Jaungoikoaren Erreiñuak ba-daukata etorkizuna.

* Jaungoikoak parkatu dautse glzonal: Berbizkundeak orl egiztatzen dau. Gizadiaren pekaturik aundiena Jaungoikoaren Semea iltea izan zan, bairia Jaungoikoak bere Semea berbiztuten dauanean, berbizkunde ori eskintzen dautse Jesus'egaz bat egin nai daben guztiai: Pekaturik aundienak be ezdau amaitzen Jaungoikoaren errukia.

* Azkenean apostoluak dana ulertu eben, berbizkundeari eskerrak. Berbizkundea da argi nagusia, apostoluen begiak idegiten dauzan argia, euren berbaldiak argitzen dauzana; eta berbaldi orreitatik sortzen dira lenengo aldietako katekesiak eta Itun Barrta bera: Orregaitik, Itun Barria ez zan idaztia izango, eta irakurriaz ez zan ulertuko, Berbizkundea jazo ezba'litz.

* Kristiñauen fedearen ardatza, Berblzkundea da. Orixe da apostoluak lenengo azaltzen dabena eta berbaidi guztien ardatza. Ori kendu ezkero ezerk ez dauka norabiderik: Fedearen kizia da.

*** DIru baten aide biak lez, berbizkundea ezin banatu leike Jesus'en erlotzatik**. **Berbizkundea** barik, Jesus'en eriotzea okerbidekoa litzake, **kondaira guztian emondako eriotzarik okerrena**. **Baifia Jesus'en eriotza** gogorra ta **zan iakoa izan ez ba'litz, bere lurreko bizrtzea izan ez ba'litz**, Barbizkundea **jazokizun utsa lez agertuko litzake, gu gizonen bizitzeaz zer-ikusirik ez**daukan gauza bat **lez**.

## EGINGEINKENA

**Elertl-motai buruz oar-lkasketa...** Ikasleak 5 edo 6*ko taldeetan banatu, talde bakoitxari gai bat ezarri eta azaldu dagiela talde bakoitxak bere trebe-bideagaz.

Gai bat "Berbizkundea" edo onegaz zer-ikusi daukana izango da.

Talde bakoitxak **artu begi elerti-mota bat, gaia azaltzeko era bat**, baiña talde bik ez dagiela mota bardiña artu. Oneik izan daitekez elerti-motak:

- **Irrati saiorako aria** (kasette'an **irarrita ekarri** ikas-gelara)
- Antzerkifc<ikibat(etaantzeztu)
- Izparringi baterako atariko idaz-lan bat.
- Egunkari baten, iru agetan, lenengo orrialdean argiratazeko albistea.
- Jakingaia-bideko barri-emotea edo sasoia.
- Elerti-edertasunadauan ipuiña.
- Batzarbaterakoberbaldia.

- Beste batzuk,

Talde **bakoitxak egin dauan lana ikas-gelara ekarri**.

Gero aztertu, gauza **oneik kontuan** dirala:

- **Esateko arlzen dan ereak bere ikutua izaten dauala eta iñoz** gauza bat bera ez dala esaten, gaia **bat izan** arren.
- Trebebide bakoitxak bere elburua dauka. Esan **zein dan.**
- Esaten danak edo gaiak bere baldintzak ezarten dautsoz esaereari.

**Izen-bako itaunktea...** Ikasle bakoitxak, orriladearen erdian, erantzun begio itaun oneri; "Zuk Jesus nor dala diñozu?"

**Erantzunak batu eta irakurri.**

Irakasleak erantzuna emon, osotu eta aztertu.

**Aurkltu... kondairako jazokizunak,** agiriakaz ezelan be baieztatu eziñekoak.

**Billatu...** Zergattik dan berbizkundea fedearen ardatza.

**Irakurrl... Lazaro'ren berbizkundea ipiñi Jesus'enaren** parean **eta billatu alde sakonak.ç**

**Antzak eta** aldeak.,. Judatarren pazkoan ospatzen zanaren **eta** kristiñauen pazkoan ospatzen danaren artean.

**Argltu ondo...** gogoa **il-eziña izateazergaitikez**dan berbizkundea

**Zergaltlk...** Jesus'ek bere ikasleakaz dauzan artu-emonak ez dauke ezelango antzik, gogozaleak aragoan dagozan gogoakaz diñoenez daukezan artu-emonakaz.

**Aztertu... Apostoluen /Egiñak liburuko itzaldi bat** (esaterako 10, **37-43) eta ikusi** orretan gaiaren 3n, z§,n esana **(Berbizkundeazerdan)**.

w *~pi ik*

$1^B$ **DE BUP**

XVIGAIA

NORDAJESUS?

(Jesus Itun Barrian **Kristo eta Jaun** !ez agertzen da)

TABORMENDIA

**Gal onetan EGINGO DOGUNA...**

* Jesus gizon-Jaungoikoagana urreratu

* **Lenengo kristiñauak Jesus'ek islIleko au zelan argitaratu** eben **jakiteko oinkadai jarraitu**.

* Jesus'ek agertzen dauskun Jaungoikoa zelakoa dan ezagutu.

**ZERGA**IT**IK...**

*** Jesus** kondairako norbait lez edo gogo-giroko aurrelari lez baiño ez artzea, berari garrantzia kentzea **dalako.**

* **Eta** beragana Jaungoikoa **dan lez urreratzen ba'gara, ezin geinke urrindu** Jaungoiko Aitagandik **eta ain gitxi ezagutua dan Espiritu Santuagandik**.

/*7 '3*f W J*f W

OARRAK

1. Nazarefeko Jesus'en Isillekoak

* Jesus'eri begira daukagun ezagupena erdiz-erdizkoa baiño ez da itaun bi onei erantzuteko alegintzen ez ba'gara. Nor da Jesus Izan? eta Zer irakatsl dausku Jesus'ek Jaungoikoarl buruz?

* Itaun biai erantzun arrunta emon geinkioe: Jesus, glzon egindako Jaungoikoaren Semea da. Eta Jesus'ek Jaungoikoa Afta, Semea ta Espiritu Santua dala irakatsi euskun.

" Baifia txikitatik dakiguzan erantzun oneik, esaldi utsak izan daitekez gutzat. Edo bear ba'da ez gara konturalzen zer esan nai daben. Esaldi utsak eta ulertu-ezifteko berbak izan ez dakiguzan, jarraitu dagigun kondairako jazokizunen bidea, ikusi dagigun lenengo kristiftauak zelan eldu ziran Jesus Jaungoikoaren Semea zala jakiiera eta nondik geratu ziran jakitun Jaungoikoa Aita Semea ta Espiritu Santua zala.

2. Berblztu-aurretik, zelako Jesus Ikusl eben jarraitzallleak?

Ez da gauza erreza au jakitea, ebanjelioak berbizkunde-ostean eta fedeak argitutako ikuspegiaz idatziak diralako. Baifta Liburu Santuai buruz ikasketa bereziak egin dabezanak uste dabenez, jarraitzailleak Jesus oso-osoan Jaungoikoa dala sinistera eldu ez ba'ziran be, bai izan ebezan naikoa bide gero berbizkunde-ostean arazoa argitzeko.

Jesus'ek arrltuta Izten ebazan. Jaungoikoaren Erreiñua eidu dala iragarten eban, eta ori aginpide aundiaz; Moises'en Legearen aurrean aske agertzen da; Jauretxe edo tenpluko oikune utsezko egiteak salatzen dauz; alboratuakaz dauz artu-emonak, mirariak egiten dauz. Ori dana ikusila, jentea artituta geratzen da (Mk 1, 22; 2, 12) eta itaun au egiten eben: "Baifia norda au? Aizeak eta itxasoak be esanak egiten dautsoez (Mk. 4, 41). ttaun orrek erantzuna izan eban Jesus il baifio asko lenago, erantzun argia, osoa izan ez arren, Jesus'en ikasleen aldetik eta Jesus'ek Berak be ontzat artu eban: GalileandanNazaret'ekolgarlea"(Mt.21,11; 13,57).

**Jesus'ek berari jarraitzeko dela eglten eban,** eta ez **bakarrik** jarrartzeko deia, bakoitxaren salbamena dei **orreri emoten jakon erantzunetik** datorrela esaten eban (Mk. 8, 38). Kondairan **asko izan dira** salbamena eragarri dabenak (Buda, Mahoma...) baina iñork ez dau bere burua salbamen **lez agertu**. **Jesus'ek** argi diño salbamena bere irakatsiak betetea dala eta salbamen ori bere eskuetan dagoala agertzen **dau: "Ni barik ezer be ezin** egin leikezue'*(jn. **15,5).**

Jesus'ek aglnpidea **eukan Moises'en Legearen aurrean** Esa~**terako, Mateo'ren 5n atalean Jesus'ek** sarritan esaten dau: "Au agindu jatzue-**la ba-dakizue... baiña nik auxe** diñotzuet... Judalarren arteko "rabi" edo irakasleak esaldi au erabilten eben beste "rabi" baten aurka zeozer esan bear ebenean, legea **ulertzeko** arloan, **baiña ez sekula** be legearen **aurka ezer** esateko, Legea ikutu-ezifla zan. Profetak eurak be **ez ziran iftoz** ausarlu, Jaungoikoaren izenean berba egiten ebenean be, olako esaldirik esaten: Auxe difño Jaunak, izaten zan euren esaldia, baina Jesus'ek beste au esaten eban:"Nikdiflotzuet".

Jesus'ek Jaungoikoari "abba[H] edo "Aita" esaten eutson. Berba au **Juda'tarren artean ez jakon iñori bururatuko** Jaungoikoari begira, baifla Jesus'ek **berba ori artzen eban,** Bera Semea zala eta Aita beragandik ur egoala agertzeko (Ik. VIII gala).

**Jesus'ek pekatuak parkatzen ebazan. (Mk.** 2, 5; Lk. 7, 48). **Eta au** egitea, Jaungoikoari bakarrik egokion gauzea zan eta orrek idazkarien asarrea sortu eban: "Onek birauak esaten dauz" (Mk. 2,7).

* **Jazokizun** edo bide guzli oneik argibideak **dira. Nazaret'eko** Jesus'en ostean **zer egoan** agerizeko. Noriasun berezia, ezbardiña eta goragokoa agertzen dabe eta ori ezin igaro zeitekean Jesus'ek ikasleen begietan, naizta guk argi ta zeatz **ez jakin eurak** Jesus'eri buruz orduan euken **errtxia.**

### 3. Berblzkundeak Jesus'erl buruz azkenengo argltzea egin eban

* Zalantza-bideak ez dira besterik orixe baino, zalantza-bldeak. itaun bat **izlen** dabe ostean, baiha azkenenko erantzuna emon barik. Bide **orrei jarraitu** ezkero, **billatzen dana aurkitzen da** eta aurkitzen danean baiho ez dira amaitzen zalantza-bideak, orduan baiño ez da sortzen argi osoa.

Egin dagigun, jaun batek amabost urtean, egunerik egunera. ez dauala bere etxekoakaz barbarik egiten bazkalorduan: ez agurtu, ez urrengora arte esan eta barretxu bat be: jan eta izparringia irakurri. Baiña egun baten pozik dator, izekaz ekiten dau, jatordu guztian barregaiak esaten dautsoz emazteari, esaterako "etxe eder bat erosiko dautzut", eta seme-alaba guztiai bete-ezinekoak diran eskintzak egrten dautsez. Emaztea ta seme-alabak azkenean asarratu egiten dira eta gero bere antzera berba egiten dabe. Egun orretan lanera doanean, iñoz ez lez, lankide guztiai mosu bana emoten dautse. Emaztea ta seme-alabak arrituta dagoz. Ba-dakie zerbait berezia jazodala, baifia zer? Artega ete dago? Ata gaisorik? ala zoratu egin ete da? ala lan-saria goratu ete dautsoe? ala zozketan dirutu ete da? Arratsalde orretan emaztea erosketak egiteko etxetik urten zan eta jente-artean naste aundia zomau eban eta itaunka asi zanean esan eutsoen: ez dozu entzun ala? Zure senarrari 60 midoik urten dautsoe zozketan! Sari nagusia auzo onetara jausi da! Orduan emazteak dana ulerlzen dau eta ondo ulertu be eta ba-daki bere senarrak jatordu aretan zergaitik arelan jokatu eban...

Illobi santua. Jesus'en gorpua ipiñi eben lekuko aitza estartzen dauan artzuria.

' Olako zerbait jazo zan Jesus'en berbizkundeagaz. Jesus'ek bere bizitza guztian izan eban gizonakaz jokabide berezia. Orregaitik apostoluak euren buruai itauntzen eutsen, jokabide ori oso-osoan argitzeko gai zan erantzuna lortu-eziñik. Jesus berbiztuagaz alkartzea izan zan azken-erantzuna, Jesus nor zan apostoluai ulertu-azoteko bidea izan zan argia. Berbizkundea ez da zalantza-bide bat, jazokizuna ta azken-erantzuna baiño. Berbizkundearen argiagaz Aposloluak Jesus'en bizitza osoa gogoratu eta bere mezua oso-osoan ulertzen dabe.

## 4. Jesus'eri ezarrrtako Izen barriak

* Berbizkundearen ondoren Apostoluak ulertu eben Jesus'en izakerea, zabala da eta izen bategaz ezin leike agertu. Jesus'eri ezarri eutsoezan beste izen batzuren artean Itun Barriak dakazen lau azalduko doguz:

Jesus Mesias da

**Itun Barrian** Jesus Mesias dala esaten danean, beste au be esan gura da: **Israel erriaren itxaropen osoa beragan** beteten dala, **Itun** Zarreko agintzari guztiak beragan eldu dirala betekizunera. Mesias zelakoa izango zan **argitzeko Israel'en** egozan burubideak gogoratu ezkero, auxe ikusten dogu: Jesus ez dala jarten olako burubide baten azpian **be,** bera, bere bizikeraz, benetako Mesias zala agertzen ikusten dogula. Eta gaiñera, **ain** geurea egin dogun **"Jesukristo"** izena bera be, fede-esaldi bat da eta Jesus **"Kristo" edo** "Mesias" dala esan gura dau (abertarren izkuntzan "Mesias" dana, bera da gerkeraz **"Kristo"),**

**Jesus** Jauna da

**Itun Zarrean "Jauna" izena,** Jaungoikoari bakarrik ezarten jakon. Orregaitik **Itun Barrian Jesus Jauna** dala esaten danean, Jaungoikoa dala esatea lez da.

**Jesus** Jaungoikoaren **Semea** da

Itun zarrean izen onek Jaungoikoak aukeratua **edo** Jaungoikoaren maiteena **esan nai dau** eta gero kristiñauok izen ori artu eben, berbearen esangura sakonago bategaz: **Kristo izatez,** Jaungoikoaren benetako semea da, berak mundura bialdua (Errom 8,3).

Jaungoikoak gizonai zerbait esan **nai dautse, berba egin dautse**. **Eta ez** edozeifier esateko lako berba bat, Jaungoikoaren barruan egoan eta gizonen artera agertu baifio lenago an personea **zan** berbea baiño; Jesus Jaungoikoaren mezua dakarskun berbea da, Jaungoikoak gizonai egiten **dautsen** berbea, eta onek esan dauskuna, beronen bizitzan agertzen dana, bere egite eta esateetan agiri dana.

Labur esateko, Jesus Jaungoikoa da, gizona ta Jaungoikoa, Jaungoikoa**ren** seme gizon egiña.

Benetako Jaungoikoa, Jaungoikoaren izatea dauana eta benetako **gizona,** gizonaren izatea dauana, danean **gu gizonon antzekoa,** pekatuan izen **ezik.**

Berbizkundeak azken-argiagaz argitzen dau Jesus.

**5. Jesus'erl ezarrltako izenak, glzonentzak adlerazpen** bere-**zia dauke**

*** Kristifiauak Jesus nor zan ulertu ebenan, eurak zer diran be** ulertu eben. Berbizkundea ez **da Nazaret'tarra goratzea beste barik,** gizon **guztientzat** salbamen-bide sendoa agintzea **be ba-da**. **Orregaitik, Jesus'eri** ezarten jakozan **izenak, bera nor dan difioskue, baifia** gizonentzat be esangureadauke:

- **Mesias** izenak **esan nai dau** Jaungoikoaren agintzariak, gizonai egifiak, bete egiten dirala Jesus'egandik **asita.**

- **Jauna** izenak be beste au esan nai dau, Jaungoikoa dan lez ;e-**sus'ek** ba-daukala almena gizonak salbatzeko.

- **Jaungolkoaren Semea** izenak esan **gura dausku, gu** gizonok benetan Jaungoikoaren seme-alabak izatera deituak **garala.**

- **Berbeak** esan **gura** dausku Jesus'ek Jaungoikoaren mezua dakars-**kula eta berak esaten edo** agertzen dautseJa gizonai Jaungoikoaren ezkutukia.

* Labur esateko, Jesus norki baten Jaungoikoa ta Gizona izateak esan gura dausku, gizon lez beragana urreratu geintekezela, bera ulertu eta berari jarraitu **be** bai; **eta** Jaungoiko **lez, bera aurkitzen** dogunean neurri-bakoaren eta zorionaren egarria Beragaz beteten jakula eta gure galderak eta oiñarrizko argibillatzeak beragan aurkitzen dabela erantzuna: Jaungoikoak bakarrik bete **leikezan gurariak**dira, Berak bakarrik erantzun leikezan **galderak.**

**6. Jaungolkoaren ezkutuklra sartzen gara**

Jesus'en nortasuna zelakoa dan **aurkitzea,** azkenez, Jaungoikoaren barruko ezkutukia aurkitzea da, izan **be** Jesus, Jaungoikoaren Semea eta Aita-**ren berbea dan** ezkero, gugana agertu danean, Jaungoikoaren barruko ta ezkutukizko izaerea be agertu dausku: I**rutasun** Guztiz Santuaren ezkutukia, Batikano'ko II Eteiz-Batzar Nagusiak labur difioanez, "Jaungoiko bakar baten **batasuna da**, **Aita, Semea ta Espirrtu** Santuaren **iru notifietan. (Unitatis** Redintegratio, 6).

**Berbizkundean Aita lez** agertzen **dan eta bere Semea eriotzan** izten **ez dauan Jaungoikoa**. **Bere lur-bizitzan Jesus'ek** Jaungoikoa Aita dala **esan eban, maitasunaz gizonen billa** dabillena **(ardi** galduaren alegian, seme ondatzailiearenean **eta abar). Jesus'ek Jaungoikoari** "ABBA" esaten dautso eta "Gure Aita" esanaz otoitz egiten irakatsi **euskun**.

- Berbizkundean **Jesus'egan seme lez agertzen jakun Jaungoikoa**. **Jesus bere bizitzan Jaungoikoaren Seme lez bizi izan zan** eta gaifiera ez gizon guztiok Jaungoikoaren semeak garan erara, beste era batera **baiño.** orregaitik esaten eban Berak "nire Aita" eta "zuen Aita".

- Berbizkundean **Espiritu Santu lez** agertzen dan Jaungoikoa. Jesus **eriotzatik ateraten** dauana, berbizkundearen bizi **barria emoteko Eleizeagaz** alkartzen dana. Lurreko **bizitzan bertan Espirituaren** indarra agertu **zan** Jesus'egan, **bere** berbearen indarrean **eta bere** mirarien almenean.

**Espiritu Santua da, Jesus'ek joan zanean kristiftauen artean itzi eban utsunea bete** ebana: Igokundearen ostean, **Pentekoste egunean, Espiritu** Santua emon jaken apostoluai.

- Espiritu Santua emotea Jaungoikoagaz artu-emon **zuzenetara sartzea da, bere bizitzaz betetua** izatea: **gure biotzetara isuri da eta** Espi**ritu orrek** Semeagaz bat egiten gaitu, Jesus'en Espiritua **bera** dalako, eta Semeagaz batera Aitagana garoaz, Jaungoikoaren benetako seme egifiaz.

- Espiritu Santua emoteak Aita, Semea **ta Espiritu Santua** lez ezagutu dogun Jaungoikoaren misterioa ezagutzera garoaz eta trutasun deuna autortzeko bidean **jarten gaitu, misterio au itun** Barrian bateorako **esaldian** aurkitzen **dogu: "Aitaren** eta Semearen eta Espiritu Santuaren izanean" (Mt. 28,19).

Kristo'ren berbizkundea gizonentzat be argitasuna da.

## EGIN GEINKENA

### Eztabalda orokorra

**Une onetan** ba-daukaguz **Jesus'eri buruz ezagupen eta burubide** batzuk, liburu au idegi genduanean baiño obeak. Zergaitik ipifii ez ikusten dogunarenparean?

- ikas-taide osoan eztabaidatze edo alkariziketa aundi bat egin geinke, burubideak batu **eta** aurrean daukaguzan **gauzetara ezarten** dogu- **zela:**

- Ezagutzen doguzan **erti-arloko lanak, zein da gitxien** agertzen daben Jesus'en ikuspegia? **Zergaitik?**

  **Guztiok ikusi izango genduan Jesus'eri buruz pelikularen bat**. Zelan itzi dau gure gogoa? Zer dago Iftoz agertzen ez danik? Zeri begira-tzenjakogitxiago?

- Gure gizartea, **gu bizi garan aldi au, ba-da Jesus'ek** nai eban lako **gizar-tea? Zergaitik?**

- **Gure** ikastetxea ba-da Jesus'ek gutzak nai izango eban lakoa?

- **Eta gure sendiak?** Ba-dauke **Jesus'eri buruz guk** orain daukagun pen-tsabidea? **Zertan urrintzen dira guk ikusi dogun Jesus'en** pentsabide-**tik?**

- **Eztabaidatzea egiten dan artean, beste gai** zeaztuago batzuk agertu leitekez: **Drogea, askatasuna,** adiskidetasuna, **maitasuna, ta abar**. Ira-kasleak **ekintza au artuko dau, itaun zeatz onei erantzuteko** dan **libu-ruaren** urrengo zatia aurkezteko.

**Azaldu...** Gure Arta, zatirik zatira. Noz emon euskun Jesus'ek?.

**Idatzl...** ikasle bakoitxak azalpen labur bat, esaldirik esaldira eta dana batera:

- **"Gizaldiak** baifio lenago Aitagandik **jaioa".**
- Jaungoikoagandik Jaungoikoa
- Argitikargia
- Benetako Jaungoikoagandik benetako Jaungoikoa,
- izatezAitarenbardiña
- danaeginebana.

**Billatu...** Makabeotarren I**I** liburuak dinoana (Mak. I**I,** 7, 8) eta azafdu gai onen argiaz.

**Irakurri...** Tabor mendiko antz-aldatzeari buruz, ebanjelioak diñoana (Mk. 9, **2-13) eta** aurkitu gai onegaz dauan**zer-ikusia**.

**Blllatu... Zeintzuk diran frai Luis de Leon'ek** Kristo'ren izenak derrtxon liburuan azaltzen dauzan Kristo'ren izenak.

Z**er** da... **kristiñauen** itxaropena?

Z**ergaltik...** kondairako Jesus bakarrik artzea edo gogo-bizitzako aurrelari **lez ikustea**, **ete** da Jesus osoa ez ikustea?

**Aste Santua**... **Zer** da? Zelan bizrten da? Auxe da, bear ba'da, unea, irakaslea lagun dala, Aste Santuaren aztertze zonrotza egiteko, norki-maillan **naiz gizarte-maillan. Baita ondo ulertzeko** lan berezi **bat** egiteko edo berbaldi batzuk eratzeko, ez jenteak zer dala uste dauan aztertzeko, benetan **zer dan** ulertzeko baino.

1[5] DE BUP

XVII GAIA

ANDRAMARIZURIA
(Leon'go Goztain-eleizan)

NAZARET'EKOMARIA

**Gai onetan EGINGO DOGUNA...**

* **Nazaret'eko Jesus'en Amagana urreratu.**

* **Geureamabeba-dalaulertu.**

* **Jesus'en bizitzan bere zeregiña zein izan zan eta gurean zein izan** beardan aurkitu

**ZERGAITIK...**

* **Edozefiegaz jazo leiteken lez, Jesus ulertzeko ta beroneri jarrartzeko**, lagungarria dogu Ama ezagutzea.

* Gainera, **jesus'en emak geuri be lagundu egiten dusku, gidari lez ela** ama **lez.**

pÇ'TO TVW *ri*

## OARRAK

### 1. Erriko andra bat

* Kristifiauek sarritan Andra Maria'gandik urrin ikusten dogu geure burua, bera an goian dagoala uste izaten dogulako, koroiz eta jantzi ederrez apainduta ikusten dogulako, inguruan izarrak dauzala, oinpean iretargia, sugea zapaltzen, aingeruak inguruan dirala... Dan ori errilarren oneraspenaren ondorena da, seme-alabak ama al danik gaien goratzeko irudimenez asmau dabezan gauza bereziak.

* Maria, izatez, erriko andra bat zan, aundikeri ta arrokeri bako andrea, ez da zerutik jatsi dan izar bat, Israel'go sendi baten, Nazaret izena daukan eta lur-irudietan galduta lez aurkitzen dan erri txiki baten jaio zan andra bat.Bere zereginak erriko andra errunt batenak ziran: ituritrk ura ekarri, senarrari lekak gertatu, auzokoekaz barriketan ekin, eta, batez be, bere semea maitasunaz zaindu.

### 2, Jaungoikoaren erriko andra bat

* Maria, erraraz eta tedez, Jaungoikoaren errikoa zan, israel erri aukeratukoa. Bere erriko beste andra guztiak lez, etorteko zan Mesias'en itxaropenanbizizan.

* igarleak, gizaldien joanean, Mesias onen etorrerea iragarri eben: Belen'en jaioko zala, Dabid'en sendikoa izango zala, Birjifia bategandik jaioko zala... Isaias igarlea izan zan, jazo baiño zazpi gizaldi lenago, ikuspen bat lez au agertu ebana: Begiratu: Birjifiea seindun dago eta semea izango dau, Emmanuel ezarriko dautso izena, esan gura dauanez, JAUNGOIKOA GUGA2.(Is. 7,14). Israel errian sarr'rtan aitatzen zan "Sion'en Alabea". Ezugarri-andra bat zan ori eta orregan ezarten ziran erriaren itxaropen guztiak.

Maria "Sion erriaren alaba" orren antzekoa da, salbamenerako agintzari guztiak beragan beteko diralako.

## 3. Berbea entzuten

Maria'k, erriko andra Jaungoiko-zale lez, sarritan entzuten eban Biblia erritarrak zapatuetan sinagogan batzen ziranean eta entzundako berba ori ondo aztertu eta biotzean zaintzen eban. Isabel bere lengusifiari egin eutson ikuslaldtan Jaungoikoari eskerrak emoteko abesti eder bat abestu eban eta abesti orretan salmoetako esaldi osoak eta Biblia'ren beste zati bztzutakoak agertzen dauz. (Lk. 1,46-55).

Baina egun baten Jaungoikoak era berezian berba egin eutson, Gabirel aingeruan bidez. Lenengotan, agur orrek arritu egin eban Maria: "Poztu zaite graziz bete ori, Jauna zugaz dago". Mariak arduraz entzun eban Aingeruak esaten eutsona: Goi-Goikoaren semea sortuko ebala, onen erreifiua betikoa izango zala... seme au Espiritu Santuaren graziz sortuko ebala, Espirituak bere geripzean artuta... Mariaren erantzuna Jaungoikoaren berbea osoan onartzekoa izan zan: Ona emen Jaunaren Mirabea! Bete beite nigan zuk diñozuna(Lk. 1,26-38).

## 4. Berbea glzon egin zan

[4] Maria, beti Jaungoikoaren berbea entzuten eta beronen naia onartzen eban, Biotzez sortuta eukan, orain bere sabelean sortzen dau.

Ikaratuta, itxaropen ez eban Jaungoikoaren aukerpena zalako, baiña batez be pozez beterik, bere semea izateko itxaropenaz bizi zalako, bere barruan zelan aundi egtten zan zomatzen dau, Belen'eko gau argitsu aretan gizonai emonarte.

Maria'gandik jaio zan umeari "Jesus" ipifii eutsoen izena, izen orrek salbatzaillea esan nai dau, bere zeregiña gu pekatu guztietatik sabaitzea dalako. Emmanuel bera da, (Jaungoikoa gugaz) Isaias igarteak esan eban lez,

* Orrelan.MariaJAUNGOlKOARENAMAbiurtzenda.Orixedakristinau-ak emoten dautsoen izen aundia, gizaldi guztietan. Kristiñauok orregaz ez dogu esan gura -ezelan be ez- Maria Jaungoikoa lez dala. Maria geure enda onetako andra bat da. Baifia berak ekarri dauan semea, Jaungoikoaren Semeaberada.

## 5. tIluntasun bako maitasuna

* Aingeruak Mana "grazia betea" esanez agertu eban. Esaldi orrek esan nai dauana auxe da" Jaungoikoak bere maitasunaren aberastasun guztia isuri dauaia Andra Mariarengaiñera. Etaberakgraziguzti oneik bere biotzean artu dauzala, bere bizitza osoan Jaungoikoak esaten dautson guztiari zintzotasunaz erarrtzunez

Bakoitxa bere amari begira guztiz pozik egon arren, ama aukeratzeko era berezia izan ba'leu obea egingo eban. Orixe da Andra Maria'gan betetzen dana, eta Andra Maria'gan bakarrik. Jaungoikoak aurretiaz bere ama izateko aukeratua izan zan eta orregaitik "egitekorik aurretiaz bere ama izateko aukeratua izan zan eta orregaitik "egitekorik ederrena" egin eban.

* Lenengo berezitasuna sortze-une beratan izan zan, jaio baifio be lenago, gizadi pekatari onen kideko garalako beste barik, guztiok ikututen gaituan jatorrizko obenetik aske aurkitu zanean. Jatorrizko obena ez da gutariko bakoitxaren errua, ezifia litzakelako jaio baifio be lenago erantzukizunik eukitea Jatorrizko obenagaz jaioteak "ondasun-etorpide barik" jaiotea esan nai dau. Jaungoikoak bere adiskidetasunean biziteko egin ginduzan, bere seme-alaba lez biziteko, baifia gure lenengo gurasoak, pekatu egin ebelako, adiskidetasun au galdu egin eben, guk jaiotzatik izango genduan adiskidetasuna, orregaitik Jaungoikoaren seme-alaba ta adiskide lez jaio bearrean "ondasun-etorpide barik" jaioten gara. Jesukristo'k ber-erosi ginduzalako, geuk ori onartu ezkero, Jaungoikoaren seme-alaba egiten gara. Andra Maria'k Jaungoikoaren emoitz lez, bere semea izango ebanaren irabazien aurre-doai lez, sorkundean bertan, Jaungoikoaren graziaren ugaritasuna lortu eban, Ori gogoratzen dogu Maria sortzez garbla artatzencfogunean.

"Maria, Kristoren gorputzkide
diran guztien benetako ama da...
bere maitasunaren laguntzaz kideko
izanzalako, Eleizearen buru
dan Kñsto'ren gorputzkide diran
fededunak Eleizanjaiozeitezan.

(Agustin deunak, Ik. Lumen Gentium 53).

**Aurreko zenbakian aitatu dogun** "Jaungoikoaren **Ama"** izenagaz batera, **Maria'ri Birjifta esaten dautsagu. Jaunak nai izan eban Jesus** bere Semea **era ezkutu batez jaiotea; Jose bere senarra ezetan sartu barik, Espirituaren grazi berezi baten** indarrez. **Orrelantxe azaldu eutson Aigeruak Maria'ri (Lk. 1,34-35)** eta **geroago Joseri berari (Mt. 1,18-21).**

**Jaunak ori orrelan izatea nai izan eban, ez** Jaungoikoak berak **ipiñitako** seksu-bidea onartzen ez ebalako, edo ezkontzea onartzen **ez ebalako, birjiña edo neskutsa izateak Maria'gan beteten zanaren ezaugarri batzuk** eskintzen ebazalako baifio.

- Birjintasunak **aukeratze berezla erakusten dau eta** Jaungoikoak beretzat artzearen **ezagurria da**. **Aingeruak "Espirituak bere** gerizpean **artuko zaitu" (Lk. 1, 35) esan eutsoenan, Jaungoikoaren artuemonetara** **sartu zanean** "laifio batek eslaiduta" agertu zalako **(Urt. 24, 15). Jesus bera be,** antz-aldatzearen mendian, **laiño batek etalduta** agertzen da eta antxe **entzun zan Aitaren abotsa: "Nire Seme** maitea, gurena" zala esan ebanean agertzen da.

- Birjintasunak Maria'ren **txirotasun osoa be agertzen dau, ez bakarrik diru-arloko txirotasuna**, danekoa **baiño. Maria txiroa da, bere** ustea ondasunetan ipinten ez daualako, gizonen laguntzan oiñarritzen ez dalako, bere ustea Jaunagan bakar-bakarrik daualako. **Semearen jaiotzan gizonik** ez **izateak auxe be agenzen dau:** Salbamen-bidean Jaungoikoa dala **bakarra** salbamen **ori emotean. or ez dauaia** ezeregiten gizonen alegiñak.

- Eta irugarren gauzea, **Jesus birjintasunaren bidez jaiotea, bere** Ama **birjiña** izatea, **Jaungoikoaren Errelftua gure artean** dagoala adierazleko bidea da. Berbizkundetik **aurrera osotua izango dan** Jaungoikoaren Erreiñuan **ez da izango ez sortzerik eta ezkontzarik**. Baiña **Jaungoikoaren Erreiñua oso-osoan ez ba'da be, gure artean asita** dago. Maria'ren birjintasunak balioen aldakuntza adierazten dau eta **Erreifiua** ur dagoala diñosku.

* **Birjiña eta ama, graziz betea, sortzez garbia dan Maria,** bere bizitza **guztian bere** semeagaz alkartuta **bizi izan zan**, **amaren maitasuna lokarria** daia, eta Jaungoikoaren grazi **guztiai berak emondako erantzuna ori zala**. Eriotzeak berak be ez eban **apurtu** alkartasun **estu au**. **Jesus il eta irugarren egunean berbiztu zan antzera, bere Aitaren maitasunera biurtu zan lez, Maria be bizitza** onetako bidea **amaitu ebanean,** gorputzez eta gogoz **zeruetara eroana izan**

zan. Gustiok izan bear dogun berbizkundea, Maria'gan aurreratu egin zan **eta** ez pekatuak **eta** ez enotzeak ez eben iñoz urrindu Jaungoikoagandik. **Eta** orain beragaz batera gure alde egiten jarraitzen **dau.**

## 6. Entzutetlk laguntzera

Jesus'ek Jaungoikoaganako **maitasuna, gizonai beti laguntze lez ulertu eban**. Eiaorrelantxe Maria'k be (L. G. 58).

Berak **semea** izango ebala **esan eutsoen une** beratan, **iragarri eutsoen** Eiisabet bere **lengusiñak** be **semea** izango ebala eta iru illebete barruan izan be. Mariaarinjoanzanlengusinarenetxeraoneri laguntzera(Lk. 1,39).

Kana'ko ezteguan **berak** ikusi eban ezkonbarriak **deituai emoteko** ardao barik **geratu zirala eta Jesus'eri emon eutson albistea** arazoa bideratu egian **(Jn.2,3).**

**Agiriko bizitzan bere lana Jesus'ek egiten eban aidian, ez dau** inork **ikusten,** baiña gero **adoretsu** agertzen **da** Kurutzearen oinetan (Jn. 19, 25-27).

Eta orretan, bere jokabidea ta ekintzak **beti** laguntzazkoak **zirala,** jokabide **ta ekintza orreitan maitasuna** agertzen **ebala, Maria lenengo kristiñaua izan zan, Jesus'en oiñatzai jarraitzen** lenengoa **eta orrelan agertu** euskun gure oinkadak zelakoak izan beardaben: Maitasun eta laguntzazkoak.

EGIN GEINKENA

Iztegia... Jakin berba oneik zer esan nai daben: Oneraspena, zerura jasoa, sortzea, birjina edo neskutsa, magnificat, sortu, zintzotasuna, sortzez garbia, sagaratua, antz-aldatzea, jokabidea.

Irakurrl... Magnificat eta egin gaurko izkerara eta askatasunaz rtzufketa (Lk. 1,46-55).

Blllatu... Lukas'en ebanjelioan Jesus'en jaiotzearen edestia. Antzerki arrtze-ra irakurri ikas-gelan. Adorea ba'daukagu gabonetan atzerkia egin.

Azaldu... esaldi au; "Berbizkunde-ondoren osotua dan Jaungoikoaren Erreiñuan, iftok ez dau sortuko eta iñor ez da ezkontzaz alkartuko".

Esan labur... gaia dana, gaienez orrialde baten erdian eta bost minututan.

Zeln zeregln da... Lekaimeak gaurko munduan daukena? Eta eleizetan[9] Atera ori gai onetan esan danari buruz aztertzea eginda.

Egln... lauki bat age bitan argi ikusteko, alde batetik kristiñauen jokabide ta egiterik ugarienak laguntza emoteko eta bestetik gaurko gizartean diran norberekerizko pkabiderik ugarienak.

Billatu... Lk. 1,26-38. Irakurri ondoren, azaldu zati ori idatziz.

**Zer** da... "oneraspena"? Azaldu zer dan kristiñau batentzat Andra Maria'ga-naoneraspena.

Ekarrl... ikas-gelara Maria agertzen daben erti-lanak, argazkiak edo postalak. Orreik ikusita, atera aldi bakoitxak Andra Maria'ri buruz izan dauan ikuspegia.

**Aukeratu... aurreko ekintzan** aztertu diran argazkien artean, zein **dan** bakoitxari geien esaten **dauskuna**.

**Zein da... emakumearen zeregifia gure gizartean? Zeintzuk bere arazoak?** Andrea izateak daukazan alde onak eta txarrak. Ori egiteko **bidea** ikas-gelan **eztabaidatze** bat egitea **litzake**.

**Zeln da..**. andrearen zeregifia **Eleizan? Ikusi Ebanjelioan** agertzen diran andrearen **norkiak, Maria be euren artean dala, eta zeaztu *zein* dan Jesus'en jarraitzailleak daben** alkartean andrearen zeregifia.

Z**eaztu... ama izatea zer dan eta amak zelakoak izaten diran**. Esandako ezarri Maria'ri eta ikusi aldeak eta antzak.

1e DE BUP

XVIII GAIA

G1Z0NAB1DEZD0A
(Kristiñau izatearen jokabide zuzen-arloa)

BIZITZEA BIDE DA NORATZA?

**Gal onetan EGINGO DOGUNA:**

* Gizonzerdansakonagotikjakin.
* Zelanjokatubeardauanagertu.
* Gizon kristiñauak zelan jokatu bear dauan ulertu.

**ZERGAITIK...**

* Gure BLzitzeagaz zer egin jakin gura ba'dogu, lenengo argi ikusi bear doguzergaran.

* Eta ekin egin bear dogu, gizon kristifiau lez osotu, gure bizitzea dan ametsezko ibillaldi luze onetan.

*'£ck^k~&*

OARRAK

1. ZerdaglIzona?

* Beti danik egin dautso gizonak bere buruari olako itauna; eta erantzuna bear izan dau ori barik bere bizitzea zertarako dan eta bizitzan zelan jokatu bear dauan ez leukelako jakingo.

Kondaira osoa dago bere buruari erantzuteko gizonak egin dauzan alegiñakaz beterik. Geiago, bear ba'da kondaira osoa da oiñarriko erantzun orreri azken-erantzuna emoteko alegin bakar aundi bat. Orretan ikusi dau gizonak:

- Izaki askea ta aukerapena dauana dala,
- Bera, bere buruagaz pozik ez dagoan izakia dala, eta danaren gaiñetik \fioz *lortu-ezin dauan zomnaren* billa dabille)a.
- Bera dala barrik beste gizon batzukaz eta izadiagaz banatu leikezan izaki bakarra.
- Berak Jaungoikoagaz artu-emonak dauzala, erlejiñoduna dala: Jaungoikoagaz bein eta barrito alkartu eta beragaz alkar-izatea egiteko gai dana.

Zabaltzeko:

Gizona: Izaki alkartzaillea eta Jaungoikoagaz artu-emonak dauzana.

* Jaungoikoa gizonarentzat, sustrai-giroko deia.

* Sustraizko dei onek bere agerbide dauz beste dei asko: Bizitzako jazokizunak.

* Gizonak, jazokizunen bidez agertzen dan Jaungoikoaren sustraizko deiari baietzezko ta askatasunezko erantzuna emoten dautson neurhan, bere burua osotzen dau gizon lez.

* Jesus'ek argi itzi eban deian eta erantzun joko ori, gure bizia or jokatzen dogula, gizonaren jokabide zuzena dala, bere egiteen norabidea.

Ortik ateraten dogu gizona jokabide zuzenaren izakia daia: Gizonaren jokabidea zelakoa da, onek lortu al izango dau edo ez, izaki lez bear dauan osotasuna; jokabide da ba gizonarentzat elbururako bidea eta orregaitik dau bein eta berriro aztertu ta bideratu-bearra; Auxe da jokabide-araudiaren zeregiña:

## 2. **Zer** da jokabIde-araudia?

* Berba onek adierazpen asko dauz: "morala" esaten jako gogoaren sendotasunari, "kiroi-talde ori "moral" aundikoa da", "gudarostea "morala" gaiduta egoan", edo oitura onak tndartzen dauzan jokereari (ikusgaia ori "morala"da).

* Baifia guk gai onetan ez dogu orreik lako adiezpenaz erabilliko, gutzat morala ontasunari edo galztakerlari begIra gIzonaren jokabIdea aztertzeko bidea, gizonaren egrieak eta oneik bideratzen dabezan arauak...

## 3. GIzakla bera jokabfde-araudiaren oifiarrIa.

Jokabidea irakatsi lez artu ezkero, gizonarentzat jokabiderako azterpenen eta arauen moitzoa daia esan geinke. GIzonaren duintasuna **da jokabIde-arauen olñarrla**. Gure egiteetan ona ta txarra zein dan jakiteko, azterpenak eta arauak zuzenak noiz diran jakiteko oiñarria.

Norkia zer dan argi ikustea da kristiftauen jokabideari buruz diran galderak argrtzeko giltzarria. Gutzat norkia gizonen alkartean kideko dan gizon bakoitxa. Bakoitza da, banakakoa, zeaztuta eta besteekandik bereiztua dan gizonbakoitza.

Alkartean kideko izatea edozein norkirentzat bearrezko gauzea da. Orregaitik, jokabide zuzenaren oinarna norkia dala esaten dogunean, beste au be batera esaten dogu: Guztlen ona dala jokabide zuzenarenoifiarria.

* Arlo onetan kristiftauen jokabide-arauak batera datoz gizabideko jokabide zuzenen arau-pentsaeran diran alegin baiezkor guztiakaz: Batera esaterako Giza-Eskubideen Agerpen Orokorragaz (au 1984'an argitaratu eban ONU'k) eta gizonen duintasunaren eta norkien aurrerapenaren inguruan ezarten dau erakunde guztia.

* Jaungoikoak agertu dauanelik asita, **kristiñauen** jokabide-araudiak azken argipena emoten dau, jokabide-arauak inguruan dauzan ardatz-balioa giza-norkia dala azaltzeko: Gizona Jaungoikoak egifia da, bere antz **eta** irudiko eta buru argindun **eta maitale sortutakoa** da **gizona: Jesus'ek** gizakia agertzen dau Jaungoikoaren seme edo aiaba !ez.

* Eleizearen **agiri askotan ekiten da giza-norkia, bere duintasuna ta** bere **aurrerapena** aldetzen. Esaterako Juan XXIH'aren "Bakean Lurrean" idazkian edo **Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiaren "Gaudum et** Spes" **agirian. Agiri onetan 12-18 eta 22 zenbakidun** zatiak irakurri **geinkez**.

## 4. GIzona obetzera dertua da

* **Norantza doa gizona? Bere bizitzako amesetan** norantza egin bear **dau** bidea? Ba-daukagu garrantzi aundiko jakingarri bat billateka au egiteko: Giza-Norkiaren duintasuna aldezten dauan edozer, bere ekintzetan gizonak billatu bear dauan elburua da.

Giza-norkiaren alde ez dagoana **orixe** da norkia izatetik **urrintzen** dauana eta orregartik, **orixe da** Jaungoikoaren bideetatik alboratzen dauana, jokabide zuzenaren arauetatik kanpoan dagoana.

* **Gaiñera, 3n. zatian** agertutako errazoien ondoren, **"Giza-norkiak deia** dauka Jaungoikozko **bizitzan,** Jaungoikoaren Santuasunean, kideko izateko" **(Batikano'ko II Eleiz-Batzarraren "Lumen** Gentium" **agirian, 39-42** zenbakietan) Ez da ba giza-norkia, Jaungoikoaren izaki egiña eta Jaungoikoa**ren semea beste barik, orrez gaiñera** gizonak **deia daroa bere burua** osotzeko, bere bizitzaosoan obetzen joateko; santutasunerako deiadaroa.

* Dei edo bokaziño au gizonaren **bizitzeari norabide osoa** emoteko da eta munduan izateak dauan norabideari bunjz diran galdeari erantzuna emoten dautsoa, giza-norkiaren duintasuna aldetzeko bideak ulertzera garoaz: Bide orreik norki lez obetzea ta osotzea lortzekoak dira, **gizon lez** ondamendira ez joateko laguntza dira,

5. Barru-argia: gure norabide-agertzaillea

Izaki guztien artean gizona da bakarra, erantzukizunerako barru-argia daukana. Barru-argi orrek sortzen dauan eritxiari eskerrak gizonak jakin leike une bakoitxaren zer egin bear dauan (irakurri Bat. II'ean, Gaudium et Spes agirian 16,1 zatia). Barru-argia da ba gure egiteen zuzentasuna naiz okerkeria *adlerazten* dauskuna

* Barru-argia ez da beti izaten zuzena edo artzera. Oker be egon leiteke beronen erotxietan. Barru-avgi okerra edo oker ulertua batzutan zuzentzeko lakoa izaten da (egin bea/ dan alegiña egin ezkero, oker orretatik urten leikena, orretarako aztertzeak, fcritxi-eskatzeak, sakontzeak eta olakoak egin ezkero) edo zuzendu-eziñeko okerrean dagoana (oker orretatik urteteko ezelako bidenk ez o'agoanean).

* Ez dago besle biderlk barru-afgiaren erabagiai jarraitzea baino. Naizta okerra izan. Baiña orrexek eskatzen dausku glzonak bere barru-argia eta onen erabagiak **zusentzeko eglnbear estua** dauala Barru-argi edo kontzientzi au, bakarra izanik, jatorrizko obenak kaltedun eta gitxituta itzi ebalako (Mt. 6, 22-23). Eta pekatuak gure barru-argiari bere ikutua egiten dautso naiz kanpotik datorkozan eragifiakaitik {onei, beste balio guztien geiñetik, errezena egitera erabilten eta burtzatzen ga'rtue) naiz barruko ikutuakaitik, oneik geugan sortzen dira, txarto egiten doguna be zuritzera buttzatzen gaitue eta au beste batzui agertzera eta geure buruari ondo egiña dala sinistera indar egiten dauskue.

6. Legea, gure ezauplde;:

* Baifta barru-argia ez da gizonari jokabidea agertzeko bide bakarra: Sarritan okerkerira joko genduke. Ba-dagoz gizonaren kanpotik datozen arau ba**tzuk** edo bide-argi-antzeko uatzuk be, guztientzat balioko izanik, gizonari zer egin bear dauan diñotsoenak, artu bear dauan videa kanpotik agertzen dautsoenak: tegeakdira,

Baifta sarritan legeak agertzen daben bidea ez da izaten egokia, eurak agertzen daben bidea ez da izaten zuzena: Legeak izan leiketez jokabide-zuzenen aurkakoak, naiz lege-egillea jokabide okerraren saillekoa dalako nazi kalte aundiagoak alboratzeko bide ori artu-bearra izan dalako. Olakoetan kristiftauak giza-legean aurrean atzertzaille izan bearizaten dau. Kristiñauaren legea, beste lege guztiak epaitzeko argibidea, kristo'ren legea da, Alkartasun Bama.

* Legea izan darteke: Izadikoa (gizonaren izateak berak eskatzen dauana danean) edo agInduzkoa (Jaungoikoak berak ezarria danean) edo gIzonena (gizon batek edo giza-erakunde batek ezani dauanean).

Alkartasun Zarreko agindua Jaungoikoak Moises'eri Sinai mendian emon eulson amar aginduen zerrendan sartzen zan (Urt. 20,1-17).

* Alkartasun Barriko Legea Kristo'k ekarri euskuna da. Lege au Jesus'en mezu osoan bere iragarpen guztien barruan aurkrtzen dogu, baifia esan geinke labur-labur mendio itzaldian dagoala, rtzaldi onen sarrerea zorion-tasunak dirala (Gogoratu VIII ta IX gaiak).

Krlsto'ren Legearen barritasuna, barritasun iraurtzarllea, ez dago Itun Zarreko arauak baifio arau ederragoak agertzen, bere Espirftua gizonaren barruan dagoala agertzen baifio. Bere Espiritua da Lege Barria: bere maitasuna da Ebanjelio'ko Alkartasun Barriko arauak beteteko almena izan dagian gizonari emoten jakon indarra. Dana da "Espirituak garoazen lekura joaten geure buruari iztea" (Gal. 5,18...).

Ondorenlez:

Gure kontzientzia legeakaz batera osotu bear dogu, zuzen goazelakoan okerreko bideetatik joan ez gaitezan.

Eta, batera, ez doguz legeak beste barik bete egin bear, gizabidea kontuan artu barik, eurak bide bat markatzen dauskuela jakinda baifio.

## 7. Btotza: IturrI bat

Emen biotza aitatzen dogunean ez dogu esan gura gorputzera edoala zabaltzen dauan gorputz-atala, gure egiteen iturri dan banua baifio, eta orrexegaitik, ekintza orrein asmoak eta errazoi sakonak agertzen dauzana. Izan be, egie batek berak jokabideko balio ezbardifiak euki lez, zein dan asmoa ta zeintzuk errazoiak jakin ezkero: lagun bat goratzen esaten dan esaldia bera, izan daiteke txalo-girokoa naiz irri, Izeka edo asperkunde-girokoa.

* Jesus'entzat, gutzat, gure egrteen balioa ez dator agirikp egindua betetik. "Suge-gorrien abia" (Mt. 12, 34-35) esaten eutsen Jesus'ek fariseoai legea ain ondo, baifia kanpotik bakarrik, beteten ebelako. Gure egiteen balioa

batez be. asmoetatik eta biotzaren barru-barruan **eragiten dauskuen errazoie-tatikdator**. **"Zori-onekoak biotz-garbiak" (Mt. 5,8)**.

**Jokabide zuzena zeregin aundia izango da** biotza garbitzea, **Jaungoikoak egiña eta berak deitua dan giza-norkiaren duintasunari dagokiozan asmo ta errazoiak eskatzen daben lez jokatzeko. Nai dana ez da etxura onez jokatzea, kanpotik eta barrutik ondo jokatzea** baiño, asmoak eta errazpiak garbitzea, **biotza**garbitzea. **Eta ori** ezin tortu ieike graziaren laguntzaz izan **ezik.**

## 8. Askatasuna... aukerafzeko

* **Gizona, bizitza osoan osotzen daoan egitasmoa da: dana izateko** dagoan umeagandik asi **eta berak aukeratu dauana izatera elduko dan gizon zarragana eldu arte, bitartean bizitza osoa dago, gizona**. **Eta bizitzearen** joanean gizon bakoitxak **aukerapenak egiten dauz, bere asmoak beteteko, bere bizitzako egin-bidea azkenera eroateko**. **Asmo ta gurari oneik, bakoitxak** aukeratzen dauan **bizitzearen eginbide oneik barruan daroa aukerapen oiñarrizkoa, bakoitxak askatasunagaz egin dauan aukeratzea**.

* **Beti onelan ez ba'da be,** guk egiten doguzan txikiak sarritan gure bizitzeko eginbidea agertzeko izaten dira, bizitzea zeian uiertzen dogun **erakusten dabe**. Esaterako, **gure elburua "asko eukiteko" bizitea ba'da, nik** alegiña egingo **dot gauza asko erosteko, eta gure elburua "alkar-banatzeko** bizitea" ba'da, **nik banatzeko lana** egingo dot. **Orregaitik persona batek dauan jokabide zuzenen bidea obeto agertzen da oiñarriko aukerapenetik edo bizitzarako egin dogun egitasmotik,** banakakok **diran egite batzutatik baiño**. **Oneik *bizitza osorako baiio gitziago dauke oifiarriko*** *aukerapena aldatzen* ***ez*** dabenean. Baiña au **jazoten ba'da be,** banakako egite orreik izan daitekez pekatu **astun** edo **mortala eta Jaungoikoari irain sakona** egin.

## 9. GIza-egiteak

* Gizonaren egitea **konturatu** barik egiten dogunari esaten jako, esaterako **arnasea artzeari. Baiña giza-egitea, ori baiño geiago da, norberak jakinda** egiten dana, gorberak gura dauala eta askatasunaz egiten dana. **Jakitea, gura-izatea ta askatasuna bearrezkoak dira giza-egitea egiteko**. **Eta** osagai oneik ikusi **bear doguz lenengo, egiteak norkiaren bizitzako** egilasmoagaz daukan zer-ikusia ikusiaz gaifiera, giza-egile baten jokabide zuzena aztertu naidogunean.

Baina osagai onein gaifiera, oneik giza-egiterako bearrezkoak dirala ukatu **barik, egiteak zuzenak diran ala** ez **epaitzeko**, **beste oneik ikusi bear** doguz:

- egitearengauzeabera,zeregitendan.
- egitearen alburua edo zertarako egiten dan.
- **egitearen** zerteladak: **noz**, zelan, non... egitendan.

Orrelan baifio **ez da** izango gure kontzientzia **bear dan ziurtasunaz giza-**egitearen zuzentasuna epaitzen dauana.

* Giza-egiteak **sarriran egiten diranean oiturak sortzen dira eta oneik** erreztasuna emoten dabe **olako egiteak bein eta barriro egiteko**. Onerako **oiturak artzeak ba, bizitza zuzena errezago lortzeko** laguntzen **dau,** oiturea gauzak beti bardin egite utsa biurtzen ez danean, beti-bardin orrek barruko jatortasuna kentzen **dautse egiteai eta jatortasun ori da giza-egiteak** bear daben askatasunaren iturria.

Beste alde **batetik,** txarrerako oiturak eragozpenak **jarten dabez** norkiak bere bide **zuenari jarraitu dagion.**

## EGIN GEINKENA

### Norablde billatzekoa

Ba-dakigu **zein lanbide edo ogi-bide artu bear dogun? oraindiño orijakin** ez arren, ondo lifzake *barriak balzen* astea, urtenbideak *zeintzuk* izan leitekezen ikusteko eta ori alde on bat izango da gure bizitzako egitasmoan

- Taldeetan banatzen gara.
- Talde bakoitxak lanbide-moltzo bat aztertzen **dau:** Non ikasten **diran, nondik** sartzen **dan, zenbat urte** bear diran, euren ondorengo lana, **ikasketa-maillak.**
- **Talde bakoitxak atera dauzan ondorenak** ikas-gelara ekarten daua.
- Azkenez, ekintza au ikusi dogun gaiaz **batu**.

Ikastetxean ba-lego, **norabideak emoten dauzanarl dei egin edo**, **ezin** ba'leu gogo-aztertzailfeari, eta beragaz norabide-batzarra egin.

Billaketea... Gai onetan ez dogu aitatu guzlien ona Taideetan banatu eta taide bakoitxak arazo oneri buruz lantxu bat egin.

Azaldu... esaldi au; "Nire askatasuna besteena asten dan lekuan amaitzen da".

Azaldu... gizonagan ikusten doguzan pozik-ezaren astarrenak,

Zergaltik... da personea bere jokabide zuzenen oiñarri?

Batu... Batikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusiari buruz barriak. Zer da Eleiz-Batzar Nagusia? Zer izan zan Baiikano'ko II Eleiz-Batzar Nagusia Eleizearen eta munduaren bizitzan?

**Emon...** izadi-legeen eta agindu-legeen adibide batzuk.

**Zer** da... lege zuzengea? Bete bearda? Zelan jakin zuzengea dala?

**Billatu..**. ebanjeliotean esaldiak auxe baiezteko: egite baten zuzentasuna agertzeko, zelako asmoakaz egiten dan ikusi bear dala.

Zergaitik... esan dogu gai onen toki baten "umea, dana izan daitekela" . Zein da esaldi onen esan-naia? Non esan dogu?

**Aztertu...** giza-egiteen ekintza zeatz batzuk, bere izatea, elburua eta zertze-ladakkontuandirala.

Adibldeak... giza-oituren mota ezbardiñetakoak.

Ikasl... ONU'ren giza-eskubideen Agerpen Orokorra eta ipiñi Laterri-Legearenparean.

I**rakurrl...** Bakea Lurrean Aita Santu-Agiriaren zati batzuk eta biliatu oiñarriko mezua.

XIXGAIA

## JESUS'EN OIÑATZETATIK
**(Jesus da kristiñauarentzat betiko eredua eta nortasunaren indariturria)**

JESUS'ERI JARRAITU; ORRA OR AMESEZKO EGIKIZUNIK AUNDIENA.
**BIZITZAGUZTIARAKOAMES-EGINKIZUNA**

**Gai onetan EGINGO DOGUNA...**

* **Jesus'egana, urreratu ez norki ospetsu bategana lez, gugaz eta gutahko** bakoitxagaz **zer-ikusi aundiadaukon bategana lez** baifto.

* **Bere bizitzeari eta berbaldiai jarraituz artu bear dogun egitasmoa berak agertzen dauskula ikusi**.

* **Berari jarraitzeko bidea, bere oiñatzak aurkitu**.

**ZERGAITIK...**

* **Jesus munduan izan dan beste edozeiñen modukoa ez dalako:** Gizon **bakoitxari, gutariko bakoitxari** dei egrten dautson **norbait da Jesus.**

* **Berari jarraitzeko era asko dagoz, bidea bera dala.**

OARRAK:

1. Ona emen gIzona

* Aurreko gaian ikusi dogun lez, "gizona zer dan" jakitea, arin-bearreko gauzea da gutzat geure buruak osotzea nai ba'dogu, gizona zer dan konfuan dogula geure egrtasmoa bideratu nai ba'dogu

* Eta bat-batean, ebanjelioan esaidi au aurkrtzen dogu:"Ona emen gizona"(Jn. 19,5).

* Jesus gIzona. Nazaret'en eta Palestina'n Jesus'en bizitzea zeaztuten daben jazokizunak baino arago ta onago., bera bizi izan zan inguruko gizarte ta jakintza-giroa baino arago ta onago, Jesus benetako gizona da, gizon !ez osotu nai ba'dogu, gizonak zelan izan jakin nas ba'dogu, billatu bear dogun erako gizona: Kristo da kristiñauentzat jokabide zuzenen *giroan* dan gorengo balioa *eta Kristo'ri* jarraiizetik *sorizen dira* beste balio guztiak.

* Geiago, Jaungoikoaren deiari emon bear dautsagun erantzuna zelakoa izan bear dan Jesus'ek agertzen dausku, bera da guk geure buruak begiratzeko izpillua, gure erantzunaren eredua.

2. Bere olfiatzetatik

* Kondairaren luzean andra eta gizon asko izan dira jarraigarhak, esatera-ko Sokrates, Isaias, Ramon y Cajal, Gandhi... baiña Jesus ez da olakoen maillan dagon eredu jarraigarri bat. Berak au esaten dauanean: "Neu naz bidea, egia eta bizia" (Jn. 14, 6) eredu lez agertzen da, beste edozein eredu egokia dan ala ez ikusteko bear dan eredu lez. Bera ez da bide **bat,** ez da eredu bat, bera eredua da.

* "Bidea" berbeak Biblian daukan esan-naia, basamortuan bidez doan bakoitxak aurkitu bear dauan zidorra da, bide ori barriro aurkitu bearda, areak estalduta dagoan lekuan billatu, aurretik joan jakozan beste *bidelari* batzuk be euren oar-ikasia emoten dabela. Orrelan da Jesus bidea, eta bide ori jarraitzea, ez da morroi lez bere antzera jokatzea, geure nortasuna alboratuta jarraitzea: Jesus'eri jarraitzea bakoitxaren eta jatorriko erabagiaren ondorena

da eta jarraitzea bera be bakoitxak berea egiten dau. Izan be, Egille dan Jaungoikoak gu jator. bakar lez egin gaitu, bakoilxa eta ez gaitu nai danok bardiñak, ertilan bakoitxak egiten dauzan lanak ezbardiñak diran lez, bakoitxak era barriak agertzen doguzala baiño.

3. Bere olñatzak diñoe bidea zein **dan**

* Jesus'ek daukan gauza arrigarria ta berezia auxe da: Bera gure bizitzarako eredu eta gure izakeren zeintzaillea dala. Beste giza-eredu batzukandik, oneik osoenak izanda be, Jesus bereizten dauana, bera batera gure bizitzak bideratzeko ta aurrebidean ipinteko eredua ta orrelan bizitzeko gai egiten gaituan **Indarra** dala. Ez da bidea bakarñk, bera dogu "bidea, egia eta bizia" (Jn. 14, 6) dana batera.

* Kristo'ren erara biziteko bultz egiten dauskun I**ndar** oneri grazia edo gol-eskarra esaten dautsagu: Gizonaren gogoan argi Ja indar lez agertzen dan Jaungoikoaren ekintza, indar orreri eskerrak, Jesus'en ebanjelioko bidea ibilteko gai egiten garaia.

* Pentekostes jai-egunean (lk. XV eta XVI gaiak) gauzatu zan Jaungoikoaren Espiritua, Espiritu Santua, Maitasun-Espiritua, gizonagan izatea. Jaungoikoaren Espirituz betetuak izan ziranetik, apostoluak gizon barriak dira, ebanjelioari begira zintzoak izateko bizia emoteraifio gai diran gizonak. Eta auxe da Jesus'en Berri Onak ekarri euskun azkenengo ondorena: Ez da gizona zelakoa izan bear dan eta zelan jokatu bear dauan agertzen dauan Barri Ona, beste barik, -naizta Barri arrigarria izan giza-bizitzan maitasuna dala gurena- Barri On orrek geu egiten gaitu gai maitasun ori biziteko, ezarten jakun eginbidea edo egintasmoa beteteko: Mezua da baiña mezu orreri jarraitzeko indarra be bai.

4. Berak bere oiftatzak ttzj dauskuz, berarl jarraitzeko

* Jesus gizonari egiten jakon dei indartsua da eta gizonak gizon izan nai ba'dau ezin itzi lei dei ori entzun barik, kristiñauaren jokabide zuzenen bizitzea eta bere bide osoa dei oneri erantzuteko izan bear da, "erdu eta jarraitu egistazu" (Mt. 4, 19) areri jarraitzea. Berba orreik (Mk. 1,16-20 eta Lk. 5.1 - 11 'n be aurkitzen dsra) gutariko bakoitxari esaten dautsoz Jesus'ek.

Dei onek gure aldetik eranizuna eskafzen dau (erantzuteko era bat **ez-entzun** egitea be ba-da, jaramonik ez egitea} eta ori une bitan **egiten da:**

- **Lenengo** unean gure zeregifia Jesus ezagutzea da: Bere bizitzea nondik norakoa dan, zeintzuk bere arrazoiak, bere **turraldea, bere** mezua, bere pentsaerea, **bere egite-erea personen eta** jazoeren aurrean, **bere gurari sakonak**, **bere balioen maillea, neketa**, **zuzenta-sunari buruz bere errtxia. Sendiari, almenari** eta diruari **buruz bere** joka-bideaketa abar...

- Bigarren unean gure jokabide **zuzenaren** zeregiña **geure biziztzea Je-sus'egan** **ikusi dogun** bizftzearen antzeko biurtzea da, gure asmoak eta jokabideak bereen antzekoak izatea lortzea. Ez **da** naikoa deia en-**tzutea, jarraitu egin bear da, ez da naikoa telefonoaren txirriña entzu-tea, erantzun egin bear da, ez da** naikoa Jesus'eri **entzun eta bera** ezagutzea, jarraitu egin bear jako. (Gogoratu IXgaia).

* Baiña beste au jazoten **da: Goi-eskarra lagun dala be, jarraitzeko Jesus'ek bere oiñatzak itzi** euskuzan bidean, **ez dala bide erraza eta** eurberea, **jazokizun aundietako bidea** sarritan izaten **dan lez, bide gaitxa da** baiña arrigarria. **Orregaitik gitxitan lortzen da** bat-batean Jesus'en Espiritua norbera-ganatzea, geienetan orretarako bide luze bat egin **bear izaten da,** alegiflen ondoren **onez eta *txarrez* beterik egoten bidea, baiña, *eta auxe* da kristiñauen bizitzan balio dauana.** Geroago ta geiago Kristo'gana urreratzen gaitu, geroago eta urrago eurkitzen gara **"gizon osoa" izatetik.**

* Kristo'ren bizikerea norberaganatzeko, inguratzeak eta gogo-galtzeak dauzan bide om' jarraitzeko era bi dagoz:

(Sakramentuak Jesus'en bidera urreratzen **gaitue)**.

- **Sakramentuak,** Kristo'gaz **alkartzeko bideak** diran ezkero, euren bidez sartzen gara Kristo'ren bizitzara, Sakramentuetatik sortzen **da kristinauen gogo-indarra,** jokabide zuzenerako indarra, ortxe tortzen **da** Jesus'en oinatzetatik **aurrera** egiteko bear dan adorea, baifia bafera **kristifiauaren** zuzentasunerako indar *au sakramentuetara* daroan bideziurrada.

- **Jokabide** zuzenaren indarra, **gure bizitzan Jesus'ek nai dauana** egiten **jarraitzeko eguneroko** zeregiña (orixe **da geuk be barru-barruan egin gura doguna) edo bardin dana berak gure lekuan ba'lego egingo** leukena. **Bere** burubideak gugan beteten **doguzanean**, **gure bizitzea (jokabideak, asmoak eta** gurariak) **Kristo'renetara** aldatzen dira.

* **Kristo ezagutzea geure buruak be ezagutzea da, gizona zer dan itaun oiñarrikoari erantzuna emotea**. **Eta Kristo'ri** jarraitzea **erantzun ori** egitez betetea **da, gizon lez geure buruak osotzea.**

Osotze-lan orretan gure bizitzea, Kristo'renagaz bat egiten dala, **oiñarrizko age bietan oifta dauala aldatzen joango da, fedean eta maitasunean oiñarria dauala. Orrelantxe aldatu zan Paulo'ren bizitzea be Kristo'ren oiñatzai jarraituz osotu zanean:**

**"Zeruan eta lurrean izen guztiak emoten dauzan Aitaren aurrean** belaunikatzen **naz eta auxe eskatzen** dautsat. **Biotz-zabal agertu daitela eta** Bere **espirituaz barru-Barrutik sendotu** zagiezela, **Mesias fede-bidez zuengan jarri daiten eta maitasunean oiñarritu ta sendotu zaitezen (Ef. 3, Mesias'egaz kurutzeratua izan 14-17) naz eta ez naz ni bizi, bera bizi da nigan ta nire giza-bizitza, maite izan eta nigaitik il zan Jaungoikoaren Semearen fedean bizitea da(Gal.2,19-20).**

## EGIN GEINKENA

**Norki arrIgarrIak... Gazteak gara eta geuk aunditzat daukaguzan gizonak eta andrak ba-dagoz. Guk sarritan gura izaten dogu uriiaren antzekoak**izatea.

- **Taldeetan banatuta, talde bakoitxak aukeratu bei persona bat taldeko geienak** aunditzat daukana.
- **Zein norki artu erabagi dabenean, taldeak al danik sakonen erantzu-ten** dautso itaun **oneri: Zergaitik jaku arrigarri norki au?**
- Gero talde **bakoitxak ikas-gelan norki aukeratua aurketzen dau eta zer-gaitik aukeratu daben esan.**
- **Azkenean, ikas-gelan, eztabaida txiki bat edo eritxi agertze bat egiten da, gazteentzat arrigarri nortzuk diran** ikusteko.
- Eteda Jesusorreinantzekoa[7]

Komika

Komik bateko norki bat aurkitzen dogu aztertzeko. Super-man edo besle edozein izan leiteke

Ikasle bakoitxak edesti txiki bat irakurriko dau, norki aukeratua nagusi dala. Irakurtea asi aurretik irakasleak norabide bat emoten dau: "Egin gura doguna ez da komika irakurtea, komik orrek ainbesteko ondoren ona zergaitik euki dauan jakitea baiño".

Irakurketa amaitzen danean, ikasle bakoitxak labur-labur agertzen dau, bere ustez zergaitik izan dauan ondoren onori.

Gero *alkar- izkelea egñen da. Ona emen* artu leiken aria:

- Marrazkia erti-bidekoa da ala irakurte askorentzat egiña?
- Komika irakurtean, konturatu barik, nogaz egiten da bat?
- Mundua onen eta txarren mundua da, or agertzen dan lez? Zergaitik dira beti onak norki nagusiak?
- Zergaitik agertzen da beti neska bat olako edestitxuetan?
- Edestitxu orrein kondairan gaurko gizarte-erea agertzen da ala alda-tzea ta obetzea nai dabe?

Azkenean, ekintza au gaiagaz batu bear da: Jesus, beste norki batzun antzekoa da, norbera be euren antzekoa izateko?

**Egin...** irudimen-munduko alkar-izatea bat Jesus'egaz eta egin, esaterako, gaurko abesiari bateri egingo geunskiozan itaunak.

Egin... orma-marrazki bat Jesus'en *izaerarlk berezienak agertuz*

**Egln...** laburpen-lauki bat eta ipiñi parean, gizarte onena, ametsezkoa, ta gaurkoa, ikastetxerik onena ta gurea, sendirik onena ta gurea, gizonik onena taJesus.

**Billatu...** mundu ezbardir'i.itako no/ki ospetsuak, al danik geien: abesti-arlokoa, zine-girokoa, elertkyiundukoa, kiroletakoa...

Zergaitik... esaten da gai.n Jesus'en deiari erantzuteko era bat ez-entzun egiteadala?

**Zer eta** da... grazia edo goi-eskarra? Zertarako ete da?

Azaldu... Jesus ezagutzea zergaitik dan geure buruak ezagut2ea?

l*f *p* W *p\r*

1[fi] DE **BUP**

XXGAIA

**GUREGORPUTZAU**
(Gorputza Jaunak esanaren argiaz ikusrta)

Gorputzak **ipinten gaitu bizrtzan** zutunik eta bere bidez daukaguz **munduagazko artu-emonak**

**Gal onetan EGINGO DOGUNA...**

***** **Gure gorputzak** zergaitik ezer **txarrik ez daukon ikusi**

* Seksu-bidea maitasunaren agerpenadala **ulertu**.

* Salbau ginduzan eta **Eukaristiaren bidez sabaltzen gaituan Kristo'ren gorputzeraurreratu**.

**ZERGAITIK...**

* Daukagu n **gorputza ez dogu txarto** erabilli bear

* Eta txarto ez erabilteko Jaungoikoaren eginbidea zein dan **eta** norantza doan jakin beardogu.

OARRAK:

1. Glzon bakoitxagan gizon bat bafflo ez dago

Une-giroko irakatsia izan arren, zelan edo alan giza jokabideetan ikuturik geien daukana manlkeismoa da Sortaldeko antxiñako irakatsietatik etorria da: jatorri bi, argi-iturri bi dagozela diño, bata onarena eta txarrarena bestea, eta gauzak be zeatz mota biten banatzen dirala, batzuk onak eta besteak txarrak, euren iturria zelakoa dan eurak be alakoak; gogo-arloa onarena da eta gorputzaren eta gauzen arloa txanarena.

* Orrez gaiñera, euren ustez gorputza ta gogoa edo erimea gauza bi oso banakorrak dira, Grezia'tarren filosofiak diñoan antzera. Orregaitik, aldi batzutan kristiñauen jokabide-araudiak be gauza-arloa baliobakotzat artu dau eta gogo-arloa baliokotzat eta gorputza pekatuaren iturri lez "txarra" ba'litza lez. Gorputzarengan ez da jarri uste onik.

* Baina Liburu Santuen irakatsia ez doa bide orretatik. Kristiñau-bideak. orretan gaurko osagilletza ta gogo-azterlaritza batera dirala, gizonaren oiñarria bakarradaladiño:soma tapsike betidagozalkarregazkoartu-emonetan.

2. Gorputza gauza **arrlgarria** da

* Gorputzagan "uste onfk" ez dabenen aurka, kristiñau-bideak gorputzaren balioa ziurtatzen dau, gorputza gauza arrigarria dala diño. Ona **ta txarra, blak,** norkiagandik datoz, gizonagandik, gogotik gauza onak etorri daitekez, ain onak ez diranak be bai; eta bardin gorputzagandik.

* Zergaitik da gorputza gauza arrigarria? Ona emen erantzuna: "Egin dagigun gizona geure irudi ta antzeko... eta Jaungoikoak egin ebana dana ikusi eban eta guztiz ona zan" (As. 1, 26-31). Idaz-zati orretatik asita, Jaungoikoaren antzeko egiña dan gizonaren gorputzak daukan esangurea zuzen ulertu geinke. Gizona askea eta maitatzeko gai dan izakia da. Jaungoikoak berakdiño"ona"dala.

Kristiñau-bideak gorputzaren balioa ziurtatzen dau. Gorputza gauza arrigarriadaladiño.

* Baiña **gizona bere gorputzagaz gauza arrigarria izatea** gorengo **maillara eldu da gizakundeagaz, Jaungoikoaren Semea gizon, Jesus. egin zanean (Jn**. 1,1-4) **eta egin be oso-osoan gizon, danean pekatuan izan ezik (Ebert. 4**, **15-16): Jesus'en gorputza, benetako giza-sona**, **ber-erosketa** ekintzarako bide izango da.

* Jesus **berbiztu** zanean, bere Espihtua bialdu eban eta **onek,** • graziaren **bidez bera artzen dauan gorputza Jaungoiko biziaren bizi-leku biurtzen** dau eta orrelan bere **elbururantza** doa: Betiko btzitzarako berbiztutera.

## 3. Zer egin gorputz onegaz?

**Gure gorpulzaren** balioa ulertuz **eta gorputzari buruz Jesus'en eta** Eleizearen pentsaerea **zein dan jakinda, argi dago zer egin bear dogun:**

### Zaindu

Bere zeregiña bete eta elburua iortu dagian, **gogoaren bide eta agerpen** izan daiten. Izan be, gure gorputzaren arazoak euren eragiña dauke gure agerbidean eta **artu-emonetan (gogoratu gorputzez gitxituak diranak zelako eragozpenak izaten dabezan artu-emonetarako), orregaitik** gorputzaren arazoak bideratu **egin bear doguz, aurrea artu.** Garbikuzia. osasuna, kirolak... jokabiderako arauen arjoan, baikorrak dira.

### Itzaltasuna Izan

**Gizonaren bizitzarako bear-bearrekoa** dalako, nork ez **dau onartuko Jaungoikoaren emoitza dan gorputza, bizia? Baifia itzaltasuna izatea ez da gorputza zaintzea** bakarrik, egokiro erabiltea be **ba-da. Gorputza ain gauza** arrigarna dalako, **arriskugarri be izan** daiteke: Norkien artean **ariu-emonetarako agerbide izanik, ain** gauza ederra dalako, **lilluratu egin geinkez eta bizitzea igaro, geure gorputzari edo beste persona batzunari** iotuta, **eta onelan, gorputza gogoa agertzeko izan** bearrean, estalki biurtuta **garatzen da. Emen dauko bere** esangurea lotseak **be**, **gure barru-bizitzea iñok erabilli barik zaintzeko laguntza lez eta lotsa orrek egiten dau gorputza ez** daitela **izan eragozpen, personen arteko artu-emonak egokiro joan daitezan** bide baiño.

Ondo eratu

Beste era batera esanda, norki osoagaz eta Jaungoikoaren eginbideagaz ondo alkartzeko bidean jarri.Jaungoikoa gizon egin zan, gizona izatea dana osoan artuta, pekatua izan ezik, pekatua dalako Jaungoikoaren eginbidetik aldentzen gaituana. Jaungoikoaren eginbide onetan gorputzarentzat lekua dago eta leku ondo berezia egon be. Baifia tokiz aldatzen ba'da, eta gorputza bera gurtzen asten ba'gara, gorputzaren eskariak aundiak izango dira, gurtza guztiak daukezan eskariak aundiak diran lez, eta orduan norkia beste balio batzuk alboratzen asiko da, goragoko balioak izan arren. Orrelan personen arteko artu-emonak gaitxagoak izango dira, eziñezkoak be bai, bear ba'da, gurtzen danak bere buruaren ardurea baiño ulertzen ez daualako.

Gorputza, gizonen gauzaguztiak lez,
baietzerakoa ta ezetzerakoa da.
Kristiñauarentzat baiezko balioa dauko;
Baifia ez da gogoaren ezpetxea eta ez dau
izan bear jainko-ordeko bat.
Personakaz artu-emonak izateko bidea da,
gogoa agertzeko izkuntza lez lez da.

4. Gure gorputza seksuduna da

* Eta gure seksua, gorputzaren antzera, Jaungoikoak egindako gauza eder bat da: "Gizona ta andrea egin ebazan Jaungoikoak (As. 1, 27). Orregaitik, dan lakoa, Jaungoikoak nai izan dauan seksua, berarentzat Jaungoikoak asmau eban eginbideak diñoan lez izan bear dau.

* Baifia ez dagigun nastau seksu-bidea sortzerako gorputz-atalakaz. Oneik ez dira besterik munduan gizonak ugaritzeko bear diran gorputz-atal eta almen batzuk baiño. Seksubidea, ostera, ez da gorputz atal batzun gauzea, bakoitxak daukagun izaera bat baifio, bakoitxak gizon lez edo emakume lez daukagun izaerea; eta gizona edo andrea izatea ez da agertzen sortzerako ataletan bakarrik giza-izaera guztian baifto, bakoitxaren izaerea da, gauzak ikusteko erea, arazoak bideratzekoa, eta abar...

* Seksu-bidearen neurri oiñarrizkoa da ugarfkorra izatea. Eta oiñarrizko neurri au ez da sekula be aiztu bear, seksu-bidea berez giza-bizia ugaritzeko bidea dalako: "Azi eta ugaritu zaiteze..." (As. 1,28).

Seksu-bidearen beste oiñarriko neurri bat gizonaren eta emakumearen arteko alkartzea ta alkar-izketea dira. Seksu-bidea indar aundia da eta seksu ezbardifiak alkartzera dei egiten dau; seksu-arloko atsegina, alkartze orrek sorlzen dauan poztasuna da.

5. Gure seksubldea ez da tabu edo Isllpekoa, altatu-ezina

* Seksu-arazoa gizarteko jazokizuna da: Ez da ba, norki biren artean dan arazo bakarra; norkia berez dagizarterakoa; eta gizarteak be, bere aldetik, seksu-arazoan bere ikutua dau eta eratu be egiten dau.

* Ortik argi ikusten da jakintza ta gizarte guztietan maitasuna ta seksu-bidea zelan edo aian eratuta eta erakundeetara sartuta dagozela: Gizartea osotuko daben kidekoak izango diran gizonak sortzea ezin itzi leiz seksu-griñaren edo bakoitxaren eritxien eskuetean.

Orregaitik, aldi, jakintza ta gizaldi batzutan seksu-bidea ta arlo onetako agerpenak ezkutatu egin dira, ez dira aitatu be egin, eta gizarte-giroan gauza txar, lotsagarri edo tabu lez agertu dira: Ulertu egin bear, ori eritxia daukenak gaberik gotzera ezin leitekezala aldatu.

Seksua, norkibirenarteko
maitasunaagertzeko
bideada.

* Seksuaren elburua **norki blren arteko** maitasuna agertzea da. Alkarrari barri-emote guztiak berbaz eta kinuz egiten dira. Seksuen alkartzea norki biren arteko maitasuna agertzeko bidea da, barru-barruko arazoak agertzeko bJdea . Orregaitik, maitasuna benetakoa ez ba'da, naikoa dan neurrian ez ba'dago, seksu-alkartzea Jaungoikoaren bidetik urrindu egin da. Ortxe dago edozein seksu-artoko pekaturen sustraia, norki biren artean benetako maitasuna agertzeko bidea ez izatean. Bakar-seksuan asi eta seksu-arteko artu-emonetara bitartean, seksu-arloko datorren jokabide oker bakarra, bestea edo norberaren gorputza maitasun barik erabiltea da, atsegina artzeko bide lez billaizea. Jokabide oker edo pekatu onen astutasuna neurtzeko, gizonen edozein egitetan jazoten dan lez, ezagumena, askatasuna eta zertzeladak euki beardira kontuan. (Ik. XVIII gaia)

Seksu-bidearen elburua,
bizi barriak sortzea da.

*** Eta, orregaz batera, seksu-arioak beste elburu bat** dau: **bizl barriak** sortzea. Orregartik, bizitzaren **ario** guztietan ardura aundiaz jokatu bear ba'dogu, gizabideko ugaritasunaren arioan be bai, Seme-alabak izatea **ez** da edozelan bete ieiken **zeregin bat**. **Arazo orreri esaten** dautso **Eleizeak** *"gurasolasun* arduratua". ***Ela* seksu-arioko egiteen zuzeniasunari buruz** epaia emoteko, **biren** alkar-maitasuna agertzen ete daben kontuan **izan** ba'dogu, **bardin, eta arduratasun bardiñaz esan bear dogu** guraso-izate **arduratuaren arlo onetan, au be len esan dogunaren** antzera, seksu-jokabidearen **elburua** dalako, bakoitxaren zertzeladak **eta Eleizearen irakatsiak kontuandirala.**

Orregartik, esan dogunagaz batera jokatu **nai** dauanak, **bide orretan rtzi** bear diran gauza asko aurkituko dauz eta itzi-bear orreik ez jakoz errezak izango.

Eta inguruan daukagun giroak gaiztasun **orreik** aundiagotu egingo dauz eta Jaungoikoaren Eginbideari **jarraitzea** gaitxago biurtuko dauskue: Gaur askotariko oiturak dagoz, oiturak edo jokabide zuzenaren aurkako egiteak, **gizartearen** aldetik ondo ikusiak, oitura-bidekoak eta egunerokoak.

Baiña Jaungokoaren Eginbidean zendo jarra'rtzea> orrek eskatzen dauan norberaren buruaren jabe izatea aiztu barik, benetako bidea da persona osoa gizon osoa, norberaren buruaren jauna, kristifiaua, Jesus'en jarraitzailtea izateko. **Beti ume izaten ez** jarraitzeko, norberaren gurarien eta oikeran **naiz** giroen menpean ez egoteko bidea da **ori**. **Orixe** da garb'rtasunaren balioa: Gizona, benetako **gizon** biurtu eta Jaungoikoak bere eginbidean ezarri dautson elburuaren gorengo tokian jarri.

## 6. Jesus'ek **be** gorputza dauko

* Gure lur onetan bizi izan zan artean Jesus'ek euki eban gorputza, salbamen-lana egiteko bidea **izan zan;** gorputz orregaz **bizi izan** zan, berbaldiak egin ebazan, bere barrua agertu eban, i! eta berbiztu ondoren Aitarenean dago.

* Baifia gorputz orrek **aurrera jarraitzen** dau bere **zeregiñean:** Adorea emoten eta gure salbamena lortzen. Eta geure artean dago, Eukaristiaren bidez: "Au da neure gorputza..." (Kor. 1,11-24...).

Eukaristian, bere gorputzeko odola isuriaz eta gura aide eskifiiaz Jesus'ek eskiñi eban oparia eguneratu egiten da.

Eta janari lez eskintzen jakunean Jaungoikoagaz alkartean eta aikartasunean janen gaitu eta Kristo'ren gorputzagaz alkartu, egunerik egunera gu atdatzeko eta bere bidean ipinteko, bere oiñatzai jarraitu al dagitsegun. Eukaristia ospatzea erarik onena izango da, ba, Khsto'ren gorputzari buruz Jaungoikoaren eginbidea jakin eta berak gure gorputzari buruz dauan asmoa aurreaneukiteko.

Eukahstiak Kristo'ren Gorputz ezkutua dana be egin egiten dau: orregaitik agertzen dausku gorputz orretan kideko diran besteen gorputzaren balioazeindan.

EGINGEINKENA

Itaunketea... Izenik agertu barik, ikasle bakoitxak itaun onei erantzuten dautse:

1. Nondik lortu dot gaur seksu-arloan dakidana jakitea?
2. Seksu bideandakidana jakiteko, naikoa daalageiago jakin beardot?
3. Seksu-arlo onetan, naikoa da jakitea, barriak aruea? Bai? Zergaitik? Ez? Zergaitik?
4. Gorputz-ataien arloan geiago jakin-bearra daukat? Idatzi zure zalantzak.
5. Seksu-bidearen gogo-arloko edo erlejiño-arloko arazoetan bear dot norabide argiata benetakoa?

Erantzuna emon danean, batu erantzunak eta egertu ikas-gelan. Erantzunak zelakoak diran ikusita ekintzaren bat gertatu lei ikasleen bear-Lzanai erantzuteko.

Eztabaidatzea... "Gizane onetan seksua zeian manipulatzen da" gaia dala: zelan seksua artzen dan bear diranak ez diran elburuak iortzeko, edo sarritan seksu-artokoak ez diran elburuetarako. Lenengo manipulatze oneik zeintzuk diran billatu eta gero epaitu.

**Idazketa...** Jaungoikoaren Eginbidean seksu-bidea zelan dan azalduz.

**Billatu...** seksu-bidea gizarte ezbardiñetan zelan gizarteralzen dan: zelako ezkontza-erak, zelan ezkon-aurreak...

**Seksu-artu-emonak...** ezkondu-aurrean izalea. Arazo oneri buruz eztabadatzea egin lei ikas-gelan.

**Zer ete** da... norberaren burua nekatzea? Zelan alkartu ori eta gorputza ondozaintzea?

**Bardln eie da...** seksu-arloko barriak artzea eta seksu-bidean eziketea lortzea?

**Billatu...** Gizonaren eta emakumearen gogo-izaera bereziak. Gizonak eta emakumeak bardiñak izan bear ete dabe? Gizartean zeregin bardiña bete beardabe?

**Azaldu...** seksu-bidearen elburuak lerro bitan.

**Ba-dauka elbururik...** abadeen ezkongetasunak? Zein?

**Batu barrlak,..** Kristo'rengorputz Ezkutuazerdanjakrteko.

# XXI GAIA

## BIZITZAN BIZI

(Kristifiauen jokabide-arauak gogo **ta gorputzaren bizitzako eskubideai buruz)**

## BIZITZA OSOA BIZITEKO. ZER IKUS! BEAR ETE DAU?

**Gai onetan EGINGO DOGUNA...**

**Bizitzeak dauan balioa ulertu**.

* **Biziaren aurkako arriskuak jakin**.

* **Biziarentzat bizitzako bidea aurkitu**.

**ZERGAITIK...**

* **Ete da baliorik aundiena,** Jaungoikoaren **urrengo balio nagusi bakarra, gizonaren bizia?**

* **Egun bakoitxean, une bakoitxean, ikusten doguz ainbeste ta era** askotako biziaren aurka doazen ekintzak...

## O**ARRAK**

## 1. **Blzftea...** gauza **ederra... baifia arriskutsua**

* Bear ba'da beste aldi baten **sekula ez ziran** geiago aitatuko gizonen **eskubideak, guztion artean egiten dogun XX gizaldi onetan baifio. Or** daukagu Giza-Eskubidean Agerpen Orokor ederra, or **eskubide orreik** kontuan artzen dabezan ainbeste laterri-lege nagusi. Batikano'ko Eleiz-Batzar Nagusiak **eta Aita Santuak** be ekin eta ekin ibilli **dira eta dabiltz** gizonen eskubideak kontuan artzea ez dala alboratu bear esaten.

* Baifta **arazo ori ainbeste aitatzeak ez dau esan gura, egitean beti** kontuan artzen dirala. Arazoa ainbeste aitatzeak, bear **ba'da, beste burutasun bat** dakarsku. Baifta esan geinke **(ez lar ozen,** abots leunagaz baifto) gaurko gizarteak kontuan artzen dauzala gizonak dauzan eskubideak eta beteten **ez** diranean, **gitxienez,** barruko artegatasuna izaten dabela..

* **Ba-dago zerbait** eskubide **guztiai** sendotasuna ezarten dautsena, zerbait ori barik eskubiderik ez liztake izango. **Guk eziketarako, osasunerako,** lanerako... eskubidea ba'daukagu, ilda **ez** gogozelako da: **Blzla da** bakoitxaren eta alkartearen eskubide **guztiak** izateko bidea zabaKzen dauana. **Bizia** ta bere **agerpen guztiak** kontuan artzea, **jakintzaren ezaugarririk** aundienada.

* Daukagun eta daroagun bizia ez da geuk asmaurikoa, gurasoakandik, **eta, azken baten,** Jaungoikoagandik, **artu dogu. Gure** Jaungoikoa **ez da** Jaungoiko **bizia**, **beste barik, biziaren** Jaungoikoa **da.**

* **Orregaitik idatzi** eban **Moises'eri emon eutsozan arrietan "ez dozu ifior ilgo" (Urt. 20,13). Eta** galerazotea naikoa ez dala uste **izanik, bera jarri zan** besteen lekuan: "Olako **nire senide txiki bateri egiten dautsazuena,** neuri egiten daustazue" **(Mt. 25,40).**

**Biziari** itzartasuna izatea ez da ba, ezelan be, **ez iltea, iltearen aurrean** geldi egotea; biziari itzaltasuna izatea gauza eginkorra ta baietzerako **da: biziera** egokian **biziteko laguntzea. Bizitzearen** zelakotasun **ona billatu** bear dogu ba, (eta ori ez da bizi-mailla goikoa ekonomi ta gizarteari begira, naizta bizikera on batek eskatzen dauan gauzea izan aurrera egiteko bear dan **neurri-ko mailla ori lortzea), giza-jokabideko eritxi bat izan** bear dau, **gizohak billatu** beardauana.

* **Orixe da** Jaungoikoaren bidea. Gizonak aitatu ta aitatu bai egiten dabez giza-eskubideak; baiña **eurak egiten dabe alegiña** bete ez daitezan -benetako alegiñak **dira izan be- era askotara biziaren aurka** egiten dabezenak. **Arrisku asko dagoz gaur biziaren inguruan, zemai lez** agertzen diranak **eta** bizHea gauza **arriskutsu biurtu jaku**. **Guztiz arriskutsu sarritan, eta** orretarako eskubiderik ez dago, orixe da oiuka jarten gaituana.

* Jaio-bakoak **iltea, eriotzarako epaia, drogak, gosea**, **errukarri** bizitea, bildurkeria, oiñazeak, gudea, izadia **zapuztutea, gogorkeria, eriotz-ona** ezartea, bide-izthpuak... **orra or gizonen zemai batzuk biziaren aurka.** Asko dira eta batzuk baiño ezin aztertu izango doguz.

## 2. Ume bat baiño ez zan... jalo barlk il zan

*** Gizartera bidean datorrenari bizia kentzea da sortuak iltea. Emen aitatzen dogun sortua iltea,** gurariz egiten **dana da beti. Au legeak zillegi emona izan leikete (eta orduan zuzena ta jokabide onekoa izan ez arren**, legebidekoa da) eta legeak zillegi emon ez dabena. Batzutan amaren bizia **onik** aterateko egiten da, (osabidekoa deritxo), beste batzutan umea txarto egifia jaio ez **daiten izaten da (oneri eujenesikoa esaten jako) edo** beste norberekerizko errazoi batzukaitik egin lei, naizta sarritan zuzentasuna aitatu (esaterako **ama izango dana orretara beartua** izan dalako **eta bere izen ona** galduko leukelako edo ekonomi-arazoakakitik...)

* Sinisgarhak diran eta Munduko Osasun-Erakundeak dakazan **jakingarriak difioenez, 1973'an eguneko 150.000 sortu il ziran eta orrelan 50 milloi bizi urreratu** ziran gizartera, eldu barik.

* Aztertu dagigun **sortu-iltea jokabide zuzena dan. Eleizeak, Jesus'eri** jarraituz, argi agertzen dau **jokablde okerra** dala: **edozein gizakik,** amaren barruan dagoan umeak be bai, biziteko eskubidea dauka, eskubide ori **zuzen-zuzen jatorko Jaungotkoagandik, ez gurasoakandik eta ez Iñongo giza-agintarlgandik, orregattik ez dago gizonik, ez agintaririk**, **ez gizonen** errazoi-biderik (ez osagille-arlokonk, ez eujenesikorik, ez gizartekorik, **ez** jokabideetakorik) **giza-bizi** emjbakoa kentzeko eskubidea daukanik.

Gubiziaren
**eta** biziteko eskubidearen atde gagoz.

* Eztabaida aundia sorlu dauan beste gai bat, sorluak iltea legeztatu ala zigortu egin bear dan izan da. Sorlu-ittea, lege-aldetik begiratuta, zigorgarria dan ala ez. Baiña ez aiztu, legeztatzearen alde dagozan askok jokabide okerra dala esaten dabela, naizta, beste alde batetik, zertzelada batzuk dagozanean zigorrik ez ezartearen alde egon.

Sortua ittearenakie dagozanenerrazoiakoneik izatendira:

- Sortua oraindiño amagaz bat dala eta orregaitik ama da!a bere gorputz erakundearen jabe bakarra, eskubidea daukana.

- Ez da gauza erreza sortu-barria benetan giza-bizia dala sinistea.

  Egitez, sorlua il nai dauan andreak izten, dauan legerik ez dagoa-nean, beste alderik ez dago itte ori isiilean egitea daifio, eta ori arrisku aundia da, osoagillearen begiratzerik ez dagoalako. Gaiñera aberatsak sortu-iltearen edozien legeren gaiñetik, eurena lortzen dabe eta legean astuntasuna txiroen gaiñera baifto ez da etorten.

  Sortu-itterako legeak ez dau iftor beartzen ilte ori egitera, egite ori bere barruaren aurka ba'lego. Ez dau besterik egiten, nai dauanari bidea zabaidu baino, orretarako ziurtasun batzuk emoten dirala.

- Sortu-ifteak batzutan katte aundiagoak alboratzen dauz, esaterako ume oker-osotuak izatea, nai ezdiran seme-alabak azi-bearra, egoera okerrak sortutako umeak azi-bearra (esaterako ama beartua izan danean)...

Balña...

- Jaioa bakoa, amaren gorputz-barruan bizi izan arren, ez da amaren gorputz-atala: beste izaki bat da. Eta jaio-bakoak amagandik kanpora bizi izateko dauan almenak ori agertzen dau.

Sortuak bere bizia dau sorkundetik asita. Une orretatik ez dau barririk ezer artzen, daukana aurrera atera baino.

- Legeak ez dau sekula babestu bear erru-bakoa iltea, makalenari beti laguntza emon baifio. Gizartearentzat ez da bide ona isillean egin lei-ken dana legez onartzea, esaterako lapurretak, izukeria, sortu-iltea...

- Umeak ez dau ifioz be gizartearen okerkerien errurik; ez dauko ba orrekaitik erantzun-bearrik, gizarteak berak erantzun dagiala eta artu dagizala bide egokiak olako okerkeririk izan ez daiten.

- Ez dago txarkeri aundiagorik bizia kentzea baino. Giza-bizia beti da gauza sagaratua: Jaungokoa da orretan egillea ta jauna. Eta, batez be, makalak maitatzen eta itzaltasunez begiratzen dauz. Gizarte gauza-zale au arriskuan dago gauzak eglten edo erosten dauzana baiño besterik ez orrartzeko. Baifia guk biziari beste era batera begiratzen dautsagu. Sortuak diran umeak oker eginda jaioteko arriskua dagoa-nean, il ba'leiz, bardin il bearko litzakez olakoak diranak jaio ta gero be.

- Gizarteko jakingarria da, sortua iltea legeztatuta dagoan lekuan, olako ilteak ugaritu egin dirala. Antza dagoanez, olako legeak jokabiderako barrua nasaitu egiten dabe.

- Baiña sortu-iltea ontzat ez artzeak, benetakoa izateko, gizartearen giroko eginbearra sartu bear dau, seksu-eziketa ona emoteko, bizitzako zertzeladak obetzeko, umeak seme-alabatza artzeko legeak eta egiteak obetzeko, ama ezkondubakoen bizierea erreztuteko. Eta biziaren aurka diran beste jokabide batzuk be ezetsi egin bear dauz, esaterako, eriotzarako epaiak, izukeria, ezbardintasunak eta abar...

Sortu-iltea, bciaren aurkako eg'rtea da.

3, Urdall-utsen jentetza aundlak

* Ain "aurreratua" dan gure izarbel onetan gosez eta janari bearrez urteko 35 milloi norki ilten dira. Eta XX gure gizaldi au, ba-da gosearen gizaldia be: Biztanleak ugarrtuz gosea be ugaritu egin da eta lenago baifio geiago dira gosedunak, zenbakiz naiz eunekoz. Munduaren kondaira ez da, bear ba'da, guk ikasten doguna, beste barik, gosearen kondaira be ba'da:

Bigarren Ludi-Gudaren aurretik, norki urri-janarituak euneko ogei ta amazortziziran.

- Guda aundi orren ostean, 1950'ean, jaten ez ebenak edo bear dan baino gitxiago jaten ebenak, euneko irurogei ziran.

1970'ean euneko irurogei ta bost ziran gosedunak.

"Txarrena, eskatzea da"
Goia'rena. Prado'n

- Eta gaur gosez ilten diranak eguneko eun **milla dira, illero ilten** diranak bizi izan ezkero. **uri** bakar bat osotuko ba'lebe, Madrid'en neurriko uri bat galduko litzake, urrengo illean Bartzelona lako bat... etaorrelan **illerik illera, uri** bat, beste **bat...**

* Etatxarrenaauxeda:

- Gaur dagozan **lur** askeak eta jakingaien eta trebebideen aurrerapena daukagula, munduan dan gosearen arazoa bideratu leiteke.

- Baiffia aberastasuna txarto banatuta dago eta gure gizarteak naiago **dauz** irabazteak personak baiño.

* Egoera au ez da Jesus'ek nai dauana: "Gose izan nintzan eta zuek ez zeunsten jaten emon" **(Mt.** 25,42)-

**Ez da kristifiauok nai dogun egoerea be:** "Jaungoikoak lurra eta lurrean dagozan gauza guztiak ipifii dauz, gizon eta erri guztientzat... **Gizonak txiroai** laguntzeko dagoz eta, ziur, ez larregi daukenetik bakarrik. Azkeneko estualdian dagonak, iñoren aberastasunetik **artu lei** beretzat bear dauana" (GaudiumetSpes69).

**Ezin** esan argiago

Gosea bizia kentzea da

## 4. Ildakoen glza-moltza

***** Ondamendi-giroko **beste ondoren batzun artean, Bigarren Ludi-**Gudak 32 **milloi gazte il** ebazan guda-zelaietan, 20 milloi emakume eta zar eta ume bonbaketa-aldietan **eta 23 milloi norki Giza-moltzoen zelaietan. Ori ez** ba'da biziarenaurkako jokoa, esan dagiskuela zerdanbiziaren aurka jokatzea.

"Orrenbeste ta geiago"
**Goia'rena, Prado'n**

Baiña Bigarren Ludi-Guda amaitu zanetik (1945) 1975'era arte 119 guda izan ziran eta guda aundi aretan baiño geiago dira oneitan ildakoak. Eta 1975'etikona be ainbat euri egin dau...

* Baina izkillu-gertatzea ez da gelditu eta laterri guztiak diardue gudarako gertakuntza egiten. 1980 urtean munduak izkillugintzan minutuko eun eta geiago milloi eralgiten ebazan, urtearen egun bakoitxean 150,000 milloi pezeta eta munduak urtean izkillugintzan erreten dauan diruaz gure izarbel au 50biderezereztulei.

* Auxe da kristiñauok arlo onetan daukagun eritxia: "Izkillugintza da gaurko gizartearen zauririk aundiena. Jaungoikoak munduari dautson ardureak bein eta barriro eskatzen dausku askatu gaitezela antxiñakoa dogun gudearen morroitzatik" (Gaudium et Spes 81). Egia da, norberaren burua zaintzeko gudea, zuzena izan darteke: Gudearen arriskua dagoan artean, eta laterri-arteko agintaritza egokirik ez dagoen artean, eta beste bide eginkorrik sortzen ez dan bitartean. Diplomazi-bideak eskintzen dauzan beste bakebide guztiak amartu diranean" (Gaudium et Spes 79,4). Baiña argi ta garbi kondenatzen da guda osoa, eta gudea alboratzeko ekintza guztiai indarra emotea eskatzen da (Ik Gausium et Spes 80-82). Kristiñaua ez da edozein bakeren gizona, bake-gizona baifio. Kristiñauen aukerapena ez da bildurrak eragina, bakea aukeratzea baifio eta bere bizrtzea ta bere lana bakea gertatzeko dira.

Gudeabiziakentzeada.

## 5. Morrol loguratsuen moltzoa

* Au bai arrigarria. Gizarteak droga batzuk debekatu eta beste batzuk artzea indartu egiten dabe. Gure lurraldean, urriñera begira ez geratzeko, alkoola artzea indartzen da, opioa ta ondorengoak artzea galazo. Aldien joanean eta jakintzak zeintzuk diran, droga batzuk galazoten dira, beste batzukindartu.

* Norki batzuk, gazte askok, gizarteak galazoten dauana artzen aurkitzen dabe, gizartearen aurkako asarrea agertzeko bide bat, batera-eza, aurka-jokoa agertzeko era bat.

* Baiña debekatuta dagoana artzea, aurrean dagoan **bizitzatik urrindu eta** amesezko atsegin-baratzetara urreratzea, ez da bide egokia gizartea aldatzeko **eta ez zoriona billatzeko**. **Drogea artuaz indarra emoten** jako alboratu nai dan gizarte orreri eta amesezko baratz orreik ondo dakigu ames utsa **dirana,** baifia ez baratz ederrak, ez bertan bizi izaten dan artean **eta** g'rtxiago barriro **mundu** onetara biurtu bear danean.

* **Ezin** geinteke **liburu onetan** droga-arazora **bear dan sakontasun guztiagaz sartu. Drogearen motak,** dakarren **morroitza,** giza-gorputzean daukezan ondorenak, norkien gogoetan **egiten** dabezan kalteak **ezin** izango doguz sakon aztertu. Baifia egi aundi lez esan bear dogu, daukenik txarrena sortzen daben **morroitza** dala. Asikeran artzen asten da (tabakoa erreten, esnrfatzen, eztitzen, edo gorputzera sartzen) zer dan jakitearren, edo gizarteari **aurka** egitearren, edo arazoetatik iges **egrtearren, baifia** iaster oratzen dausku **eta** morroi **biurtu: Ezin bizi** drogea artu barik, (baifia **bizi** leiteke). Morroitza edo zalekeria kate sendo ta ikusi-ezin baten antzekoa da **eta norkia morroi biurtzen dau,** droga bateri **lotuta** izteko. Morroitza ori batzutan gorputzezkoa izaten da eta geienetan gogozkoa. Eta **gelditu-**eziftean, geroago ta aurrerago joango da. Gorputza drogea arizera egiten danean, onen ondorenak gitxitu **egiten dira eta orregaitik,** geroago ta geiago **artu** bear asikeran izandako sentipeak tortzeko eta ortik sortzen da drogea lortzeko **sinistu-ezifteko** ekintzak egin-bearra. **Eta ortik dator batez be** gazteen artean zabaldu dan lege-austearen indar ikaragarria.

"Bako'renzinuak"
Goia'rena. Prado'n.

**Baiña, orrez gaiñera, drogak Irabazbldea dira.** Drogea sortzen dan lekutik artzen dan tokira bitartean, **diru-iturri aundiak** dagoz banatzea **egiten** dabenen sakelak beteten, Eta drogea artzen dauanak irabazte orreri indarra emoten dautso eta bere askatasuna gattzen dau, drogea artzeko eskatzen eban askatasuna bera.

* Drogea artzeko jokabide **zuzen lez onartu leiken** sasoi bakarra, osagilleak agintzen dauanean da,

* Drogearen aurka egln leiken ekintza **eginkor bakarra,** biziteko errazoiak emotea, **biziari elburua** emotea da, orrelan bizitzatik iges eg'rten ez **blziteko: sendiko** artu-emonak obetu, sendiko ta **gizarteko** arazoak bideratu, gizarte ta ekonomia obeto eratu, pozik biziteko gai dan mundua lortu, Drogea artzea, biziakentzeada.

## EGIN GEINKENA

### Eztabaldatzea

Gaia: Sortuak iftea.
Irakaslea izango da eratzaille.

**Lenengo unean,** ikasleak askalasun osoaz **eta uste onez, sortuak ilteari buruz euren eritxiak** agertuko dabez. Ikasle **batek kjaztolean idazti** beiz aldeko ta aurkako errazoiak.

Bigarren unean, orain irakaslea artean dala, ikasleak irakaslearen burubidea artzen dabe arazo oneri buruz, jokabtde zuzena dan ala ez azalduz.

Irugarren unean, azkenez, tkasleak barriro bideratuta, **aurkitu** begie zeintzuk diran **sortu-irtearen** alde dagozan **alderdi politikuak, eta zeintzuk** aurka dagozanak **eta billatu begie ez sortu-iltearen alde edo** aurka dagozan errazoiak **zeintzuk diran, ori len ikusi da, zergaitik alderdi batek** ori onartzen dauan, **zeintzuk diran "alderdiko" errazoiak** baiño.

### Barri-emotea

Drogak gai dirala. Taide txikietan banatu eta talde txiki bakoitxak lan bat **egin: Talde batek droga motak, beste batek** ondorenak, non sortzen dan, nondik **nora eltzen** dan erosleagana, bidean **ze diru izten dauan,** irugarren taldeak drogea artu daben edo artzen daben lagunen eta ezagunen egoerea azlertuko **dau,** laugarren taldeak **alkar-izketa bat egin osagilleagaz** edo osagilleakaz, bostgaren taldeak al ba'dau, egin begi ikustaldi bat drogazaleak osatzen diarduen etxe batera, edo gogo-gaisoen etxe batera. **Ekiñaldi oneik** amartzen diranean, talde bakoitxak lortu dauzan barriak ikas-gelan agertuko **dauz. Orrelan**drogeari buruz naikoa zeatza dan ikuspegi zabala lortuko da.

**Egln...** biziaren aurkakoak diran ekintza batzuren zerrendea.

**Zer** da... guda zuzena? Ba-dago guda zuzenik?

**Gosearen arazoa..** eta kristifiauen burubidea ondasunak banatzean **buruz**

**Zer uste dau...** Jesus'ek eriotza ona emoteah buruz?

**Irakurrl... ONU'ren** giza-eskubideen Agerpen Orokorra. Irakurri-ala, ikasie bakoitxak idatzi begi zer beteten ez dan.

**Jakln...** Gaur munduan **zeintzuk gudak diarduen** eta **zergaitik diran.** Gero **erantzun: Guda oneik amaitzen diranean, guda-iturri izan ziran** arazoak bkteratuta geratuko dira?

**Zergaltik...** bakoitxak lan labur bat gazteen lege-austeari buruz.

**Zatl bi egln...** Ikas-taktea. Erdiak agertu begiz "eriotzarako epaiaren" aldeko errazoiak eta beste **erdiak** orren aurkakoak. Irakasleak egin iei sarrera bat, asteko. Azkenean laburpena egin, agertu dan danari buruz eta irakasleak agertu begi arazo oneri begira Eleizearen eritxia.

# **XXII** GAiA

## **ASKATASUNA** DAUKAGU
**(Jesukristo** ta gizonaren askatasuna)

### Askatasunaren bidean jarraitu leikio Jesus'eri

**Gal onetan EGINGO DOGUNA...**

1 Askatasunadaukagulaziurtatu.

* Jesus'enaskatasunaaurkitu.

* Kristiñauarenaskatasunaezagutu.

**ZERGAITIK...**

* **Gizona askea ez ba'da, ezin leiteke osotu gizon lez**

* Askatasuna ez da emoten, **lortu** baino.

* Askatasunaren bidean baino **ezin leikio** jarraitu **Jesus'eri**.

»f W W W )*!

OARRAK

1. Askatasuna daukagu

* Guk askeak izan nai dogu, ori argi dago Baifta ete gara askeak? Guk geure barruan jazoten danaren barria ba-dakigu eta ezin aiztu. egin doguna geure eskuan ez dagozan errazoi askogaitik egiten dogula: gure ingurura begiratzen dogunean eta gure egiteak beartzen dituen sakakadak ikusten doguzanean, zalantzan jarten dogu gure askatasuna.

Ba-gara askeak?

* Batzutan urtenbidea billatzeko atzerantza egiten dogu eta au izaten da gure itauna: Zer da askatasuna? Eta erantzun asko emoten dauskuezan ezkero, bat be ez dogu artzen ziurtzat.

2. Askatasuna daukagu!

* Gizonak dauzan gogo-mugak euki arren, kanpotik datorkuzan mugatzeak etorri arren, guk askatasuna izan daikegu: "Zuek benetako nire jarraitzailleak izateko, nire mezu au bete bear dozue: Egia ezagutuko dozue eta egiak askatasuna ekarriko dautsue... Semeak baiño ezin emon dauketzue askatasuna, askeak izateko..." (Jn. 8, 31-36). Askeak izan gaitezan askatu ginduzan Mesias'ek... zuoi, anaiok, askatasunera egin dautsue dei..." (Gal. 5, 1-13)

* Gizonari buruz Jaungoikoak dauan eginbidea, gizona askea izatea da, "bere irudi ta antzeko egifia" dalako. Eta Kristo guk benetako askatasuna lortu dagigun elorri zan. Au ulertzeko, "askatasuna* berbea erabilli daiteken adierazpen bi jakin bear doguz: Ezetzaren alderditik ikusi ezkero, askatasuna loturarik ez eukitea da; baietzaren aldeari begiratu ezkero, norberak nai daunez eta arduraz ekiteko almena da.

Baifia zer dan zeatz esateak baifio garrantzi geiago dauka aurreko gauzen mundura begiratu eta Jesus'egaz artu-emonetan sartzeak, berau da zapalduak aske biurtzeko etorri zan gizon askea.

## 3. Jesus, glzon askea

* **Jesus'en bizitzea** ta bere berbak kontuan **artu** ezkero, lenengo agertzen jakuna auxe da: Berak beti billatzen ebala Jaungoiko Aitaren naia betetea, orretarako da bere **bizia, ori da bere "janaria" (Jn. 4,34).**

Eta Juangoiko Aitaren naia egite au **ez da** inoz be beste batek **ezarritako** gauzea: Jesus beragandiksortzendana baiño "Aita **eta ni bat gara-ta" (Jn. 10, 30).**

Baifta, orrez gaifiera, Jesus oso askea da. Askea, **mundu onetan** bere zeregifia beteteko gizonentzat oztopo diran eragozpen **guztietatik,** askatasuna kentzen dauskuen gauza guztietatik, **gizon** osoak izatea kentzen dauskuen gauza guztietatik. Ingurukoen zer-esanak dakazen **aurre-errbci guztietatlk (Mk. 12, 14; Mt. 11, 18-19); askea gauzak eukltetik, gorputzaren miñai eta eriotzeari** dautsegun **bildurretik, biidur orrek sarritan** azpiratzen dauz gure gurari onak (Jetsemani'ko ortuan izandako jazokizuna irakurri geinke; Nekeldiaren aurrean zan eta Jesus'ek bere barruan bildurra zomatzen **dau baiña bildur orrek ez dau geldi-azoten,** ez dautso bere zeregiña beteteko eragozpenik ipinten); **askea agintarlen aurrean** (Ik. XII ta XIII gaiak) Jesus Israefgo agintarien aurrean agertzen jaku eta bere **auzibidean erritarren naiz erlejiño-giroko nagusien** aurrean bere duindasuna agertzen **dau); askea sendlaren eta Ingurukoen bultzakaden aurrean (Lk. 2, 41-50; Mt. 16, 21-28; Mk. 10,** 35-40) eta ori ondo dakigu guztiok.

## 4. Kristlfiaua, glzon askea

* Kristifiaua, Jesus'en bidez, Semeagan Jaungoikoaren Semea da eta orregaitik Jesus'entzat izan **zan lez,** beretzat **be, bizitzaren oiñarriko** norabidea Aitaren naia biilatzea da. Baiña Aitaren naia egite au, Jesus'eri iñok ezarri ez eutson lez, kristifiauari be ez dautso iñok ezarten, barrutik sortzen **da** gurari ori, bere fedetik eta bere ziurtasun sakonetik. Kristiftauaren *askatasuna* **ez da "zeozetatlk aske egotea"** baino, askea Aitaren naia beteteko, orretarako eragozpen tzan leitekezan guztiak azpiratuta. "Zeozetarako aske" izate **au, "zeozetatik aske" izatea baiño** gorago dago. **Orixe da** zoriontsua izateko bidea.

* Jesus'en askatasuna oso-osoa zan, bera Jaungoikoaren Semea, Jaungoikoa bera zalako. Baifia gu gizonok ez gara Jaungoikoa, **gure askatasuna mugatuta dago. Eta** baidintza oneilan, **gure askatasuna oso-osoa ez** ba'da, zelakoa da **gure kristifiau-askatasuna?**

- **Amesez beteriko askatasuna** da, gauzen, gizonen **eta** Jaungoikoaren **aurrean aurrean uste soa daukana. Kristiñaua** baiezkorra da, mundua ta gizona sinisten dauz (Ap. Eg. 3, 6; **4,1**6).

- **Askakerla ez** dan askatasuna da. Jaungoikoaren Eginbidea betetea ez da norberari burura **datorkona egitea, bakoitxak egin** bear dauanaetaorrelaneginbeardalaikustendauana egitea baiño (Gal. **5, 13).**

**5. Jesus askea da eta geu be asko blurtzen galtu**

*** Israel'en itxaropena, erriaren askatzaille zan** Jaungoikoagan **egoan, em'a aske biurtuko eban** Jaungoikoagan. Azkenerako, Israel'en itxaropen **au** benetako akatzearen iragarpena eta irudia da; Bir-erosten gaituanean Khsto'k lortzendauana.

* Olantxe **argi ta** garbi diño Jesus'ek Nazaret'eko sinagogan **(Lk. 4, 18...) onelan berba** egiten dauanean: **"Gaur, amen zuen aurrean,** bete **da** idazki **au". Zein da Jesus'ek aitatzen** dauan idazkia? Lukas'ek orduan trakum' ebala diñoan Isaias'en zati au: "Jaunaren Espirrtua nire gaiñean dago, beral igortzs **nau, txiroai Barri Ona emoteko. Serak bialdu nau** katiguai askatasuna, itsuai **ikusmena emoteko, zapaiduak** eskatzeko **eta** Jaunaren grazinjrtea **iragarteko".**

* Jesus'egaz **asten da, ba, bere jarraitzailleentzat** askatasunaren bidea. Arago **doan** askatasunarena, gizarteko askatasuna (orrek ez dau esan **nai** askatasun ori lortzeko ez dala ekin bear) eta gutzat kondaira-artoko jazokizuna **eta bakoitxaren** erabagia **dan askatasuna: kristo'ren erlotzearen** eta **bertolzkundearen** jazokizuna eta berari jarraitzeko bakoitxaren erabagia.

[1] Bateoaren **bidez Kristo'gaz bat egiten** dogunean, **pekatutik askatuta geratzengara (Kol. 1,13) eta eriotzatik {lk**. **XVgaiaeta Kor.** I**, 15-16; Jn. 1, 3-14) eta** legetik **(Gal. 3,...) (Kor.** II, **3-17); eta ori betetea ez da kanpoko gauza bat. Espirituaren** legepean gagoz, izan be "Espiritua dagoan lekuan, antxe dagoaskatasuna".

* Baiña garrantitsuena barruko askatasuna izan zrren, kanpoko askatasunak be ba-dauko **bere garrantzia, kanpoko askatasunak** kentzea, norkiari **bere duintasuna kentzea da, norkia** zapalduta iztea. **Eta kanpoko askatasunik** ezak, **une askotan** askea ez izateak, barruko askatasuna **be ito egin** leike, **orren ondorena moltzoko gizonak izatea** liztake, taldeen menpeko gizonak, **edo galerazota dagoana *egdean barruko*** *askatasuna* jarten **daben** *personen* gurari bizia betetea galerazotan **da**.

## 6. Askatasunaren legea

**Ebanjelioaren aurrean zintzoak izatea eta Jesus'en** oifiatzai jarraitzeko adorea emotea, **Jesus'en Espirituak egiten dauana da, au gizonaren** biotzean dabil, gizonari jarraitzeko deia egrten jakonean: Grazia da Jaungoikoaren **bizitzara** sartzen **gaituan, eta** bere argiagaz **bultz** eg'rten **dauskun** jaungoikozko bizitza ori biziteko, Jesus'en **antzera geroago** ta geiago pentsateko, **nai-izateko, sentitzeko eta ekiteko.**

*** Graziaren aurrerapena batera** doa **guk Jesus'en *deiari* erantzuteko daukagun zintzotasunagaz: Jesus'en oifiatzai zintzo jarraitzen dautsegunean,** grazia ugaritu egiten da; grazia ugariago **biurtzen danean** onek geiago laguntzen dausku Jesus'en oiftatzai jarraitzeko.

EGINGEINKENA

Ikas-gelako lana

Gaia azaltzea amaitu danean, lan-ekiftaldia asten da ikas-gelan, **askatasuna aitatzen** edo gai daben edo **gai au** zelan edo **alan** ikututen daben abestiak, al danik geien, billatzeko.

Aurkitzen diran abesti guztiak idatzi eg'rten dira,

Azkenean, **itaun oneri erantzuten** aiegindu: Or agertzen dan askatasuna zelakoada?

Gero askatasun-era orren aurrean daukaguzan eritxi bardiñak eta ez-bardiñakagertzendira.

Billaketea

Gure askatasuna gitxrtuten daben eta guri egiten jakuzan kanpoko buftzakadak nondik datozen jakrten alegindu. Izan daitekez gizarteko aurre-eritxiak, 'norberaren aurre-eritxiak, zabalkundeko aurre-eriixiak, adiskideen arteko giroa, krrtrkak...

Zelan... alkartu leizaskatasuna ta tegea *edo* jokabide-arauak?

**Blilatu...** Zeintzukdiran askatasunaren mugak?

**Alkartu...** guztien ona ta askatasuna.

Aztertu... ikas-taldearen bizitzea eta ulertu bizitza orretan askeak garan eta sentrtzen garan ala ez. Lagun guztiak dauke askatasun bardiña ikas-gelan? Zergart^?.

Ulertu.,. Zelako askatasuna euki leiken espetxean dagoan batek, ezelakorikba'dauko.

**Biilatu,-** zeiako askatasuna euki leiken grifia batek azpiratuta dagoanak (esaterako tabakoak, alkoolak, drogeak,,.)

Aurkftu... eta adibkfeak esan eguneroko bizitzatik artuta, "nondik askeak" garan eta "zertarako askeak* garan adterazleko.

Aza!du..„ zelan eta zergaitik eta zelako pentsabideaz esaten dan gai onetan "askatasuna ez da emoten, lortu baifto".

Aunxltu... adiskide batzuk, askatasuna miñean dala, gizonaren oiftamko askatasuna kentzera datozenak

Nondlk... askatzengaitu Kristo'k? Zergaitik? Zelan?

# XXIII GAIA

## ASKATASUNA DAUKAGU; BAIÑA ZERTARAKO?
(Askatasuna ta kristifiauen eginbearrak)

Gure askatasunagaz, zeregingo dogu?

Gai onetan EGiNGO DOGUNA...

* Gure askatasunakzeintzukdiranjakin.
* Eskubide batzuk eta eginbear batzuk noraiñokoak diran jakin.
* Kñstiñauen askatasuna, eginbearrak beteteko dala baieztu.

ZERGAITIK...

* Gure askatasunak jakin eta ulertu ezkero, zuzentasunik-eza errezago ikusikodogu.
* Eta kristiñaua ez da agoz bakarrik dana: kristinau lez bizitea berbea emotea be ba-da.

*irfc-kirk*

## OARRAK

### 1. Etelzea askatasunaren alde

*** Eta ori, beste barik, Jesus'en** Eleizea dalakc eta Jesus gizon askea, gizon askeen **alde egoana eta eurak askatzera etorri zana zan.** Eleizeak **mundu guzliari agertu bear dautso eta eieizkide diranak euren barruan** daroen askatasunoarra erakutsi **bear dautse gizonai. Eta, gaifiera berak izan bear dau lenengoa** gizonen askatasunak aurrera ateraten eta zaintzen.

* **Batikano'ko I! Eleiz-Batzar Nagusiak testigantza argia emon** eban **gaurko Eleizeak arlo onetan dauan** pentsabidea agertzeko. testigantza **ori** bide dogula, gai **onetan askatasunaren arlo batzuk aurkituko doguz,** kristiñau bakoitxarentzat **naiz Eleiza osoarentzat askatze-zeregifia beteteko** bide izango diranak.

### 2. **Norberaren** eriejifto-errtxiak **betetearl dagokion** askatasuna

Eleiz-Batzar Nagusiak agiri oso bat egin **eban erlejifio-arloko** askatasunari **buruz eta agiri orretan 1 eta 2 zatietan auxe irakurten** dogu:

"Eleiz-Batzar Sagaratu onek ienengo ta bein auxe autortzen dau: **Jaungoikoak bide bat agertu dautsola gizadiari gizonak. Bera otseinduz,** salbau **eta Kristo'gan zoriontsuak izatera eidu daitezan**. **Guk sinisten** dogu egizko **erlejifio bakar au Katolikua ta Apostolu-bidekoa dan** Eleizean egiztatzen **dala eta Eleiza oneri emon eutsola Jesus** Jaunak erlejifio ori gizon guztiai zabaitzeko, zeregifta apostoluai berba oneik esan eulsezenean: "Zoaze **ba eta irakatsi erri guztiai eta bateatu Aitaren eta Semearen eta Espiritu** Santuaren izenean, **nik egindu dautzuedan dana beteten** ikasi dagien". **(Mt. 28, 19-20). Gizon guztiak**, **euren aldetik**, beartuta dagoz egia billatzeko, batez be Jaungoikoari ta Eleizeari dagokiezan gauzetan, eta egi ori ezagutzen dabenean onartzeko ta beteteko".

**"Gizon guztiak egon bear dabe, beartuak izatetik aske, eta ori bai** banaka-**koen aldetik eta bai gizarteko** taldeen aldetik, naiz edozelako gtza-eskubide-**en aidetik, eta ori beardan neurrira eroan bear da,** erlejiño-arazoetan **inor** bere **kontzientziaren aurka jokatzen ez beartzeko eta kontzientzi orrek** askatzen dauan **lez ekrteko ifion* etxean naiz kanpoan ezelako** eragozpenik **ipifii barik,** bakarrean naiz beste batsukaz alkartuta, egokiak diran mugen barruan".

Kristiñ]auak askatasun osoaz autortu bear dau Jesukristo'gan dauan fedea eta batera erlejiño-itsukeriaren eta seiakeriaren aurkakoa izan bearda.

3. Barrlak zabaltzeko **ta** eritxiak agertzeko askatasuna

Bazar Nagusiak beste **agiri bat egin eban albiste-bideai buruz eta egiri onetan gizonak barriak artzeko dauken eskubidea** aidatzen **dau, ba'ria euren eritxiak** askatasunagaz agertzeko **izan bear daben eskubidea, eskubide bi orreik guztien Onagaz zer-ikusia dabela**. **Agiri onen 5 zatian auxe irakurten dogu:**

> "Banaka **naiz taldeetan alkartuta, bakoitxaren zertzeladak kontuan** dirala, gizonai ondo **datorkezan gauzai buruz barri-emoteak egiteko** eskubidea dagogiza-alkartean".

Gero, **agiri onek, beste au diño: Barri-emotea beti egizkoa ta osoa izan bear dala, eta jokabide zuzenaren legeak, eta giza-norkiaren eskubideak eta duintasuna** zaindu bear dauzala, **eta ori** albistea batzen danean naiz zabaltzen danean. Argiago esateko, eskubide **orreik iñoz ez dira erabilli bear** giza-norkiaren **aurka:** ez **dago ba eskubiderik, barh-emote guzurrezkoak edo** osoak **ez diranak egiteko** edo jokabide-zuzenen aurkakoak edo lotsagarriak zabaltzeko; **eta ez barria ifior iruzurtuta lortzeko edo lortu dan** barria aldatzen **daben** martzurkeriakaz zabaftzeko edo aurkezteko.

**4, Alkarteak sortzeko ta batzarrak egiteko askatasuna**

**"Gaudium et Spes" agiriaren 68n. zatian** eskubide **oneik aitatzen** dauz BatikanoT<o II BatzarNagusiak:

> "Giza-nortden oiñarrfko eskubideen artean bat auxe da: Langiileak daben eskubidea **euren alkarteak askatasunaz sortzeko, alkarte orreik** langilleen benetako ordezkariak **izan daitezan eta ekonomi bizitzea zuzen** egoki-**tzen** lagundu **dagien**, **baita eurak daben** eskubidea ezelako zapattze **ba**-rik alkarte orreik ekintzetan kideko izan daitezan, askatasun osoagaz".

**Eta agiri beronen 75 zatian, oraindiño** gogotsuago, **mezu bat agertzen** da Alkarte Politikuaren eskubideai buruz:

Batzarretarako askatasuna.

"Norkien, sendian eta alkarteen eskubideak eta eskubide orrek betetea aintzat **artu, itzaltasunez begiratu et aurrera atera beitez... arduratu** beitez agintariak ezelako oztoponk ez ipinteko sendi-giroko, jakintza-arioko ta gizarte-sailieko alkarteai... I**fioz, Guztien Onak** eskatzen daualako eta aldi baterako eskubide **orreik lortzea atzeratzen ba'da, albait lasterren biurtu** beiteaskatasuna...

## 5. E2lketarako askatasuna

Askatasun onek eskubide bi daroaz bere bamian; Edozein gizonak eziketa **artzeko daukan** eskubidea **(au guztiak aintzat artzen dabe, gitxienez burubkjez eta sendiak naiz** edozein banakakoak ikastexea edo eskolea aukeratzeko daukon eskubkjea **(eskubide au ez dabe** onartzen eskola-bakarrarren alde dagozanak).

"Garvissimin educationis" deritxon agirian, lenengo zatian, Batikano'ko I! Eleiz-BatzarNagusiakauxe diño eziketarako eskubkJeari **buruz:**

"Edozein enda, biziera naiz adiñeko **gizon guztiak, norkiari dagokion duintasuna daukelako,** alboratu-eziñeko **ezkubidea dauke, euren** e!bu-ruari, izaereari, seksuari dagokioen eta jakintzari, asaben o'rturai zor jaken eta beste erri batzukaz anai-giroko artu-emonak izateko **zabalik** dagoan eziketeatortzeko".

Gero zeregin au beteten **alegintzeko gogo-emotea egiten dau,** baita abede-gabetuen eta ezjakiñan giroaren aruka ek'rteko **be.**

**Eta Agiri beraren 6n. zatian ikastetxea aukeratzerako** askatasuna aitatuz auxediño:

"Seme-alabak azteko lenengo zeregiña eta beste inork ezin bete daua-**na dauken** guraroak, ikastetxea aukeratzean askatasun osoa izatea bearrezko gauzea da[M].

Eskubide onek aldean daroa ekonomi, zerga ta politika-arloetan bide batzuk artzea, **dana geratu ez darten asmo onen maillan edo** ikastetxearen aukeratzea egrteko erea aberatzak baino izaten ez dabela.

## 6. Barru-eragozpena agertzeko eskubidea

* "Barru -eragozpena" diñogunean auxe **san gura dogu:** Bakoitxaren jokabide-arauen aurka doalako egokiera bat **ezinonartu izatea.**

**Ez da ba, beste barik, gudaritzari buruzko arazoa (naizta** geienetan **ori** ulertu) beste ***arazo*** guztietara be zabaltzen da, esaterako lanbide-arloetara, **politikakoetara ta abar...**

"Barru-eragozpena'ren eskubideak, aurrereago dauko beste eskubide **bat:** Bakoitxak **bere kontzientzia osotzeko** daukan eginbearra ta eskubidea. ONU'k Giza eskubideen Agerpen Orokorrean 18n. arauan auxe diño: Edozeiñak dauka kontzientziaren askatasunerako eskubidea, **baita erlejiñota** eskubideetarako **be. "Eta** Apostoluak **eurak be argi esaten eben: "Jaungoikoaren esanak egin bear dira, gizonenak** baiño beiñago". (Ap. **Eg.** 4, 19-20).

Barru-eragozpena sortzea **ez da egi utsaren eta oker utsaren** artean **kontzientzi biren artean, mundua *ia* gauzak ulertzeko *era b'iren arlean*** baifio. **Eta** kontzierrtzia **ez da iñoz** zapaldu bear.

* Zeatzago **ikusi dagigun arazo au bizienetarikoa dan kontzientzi** eragozpen baten, soldadu-laguntzaren arazoan, Ekintza au Ludiko I Gudaren inguruan sortu zan eta kontzientzi-eragozpena latern' batzutan onartua izatea **brtudau**.

"Banru-eragozpena daukenak oiñarri tez ezarten daben burubidea, **bake-bidekoa da: Errien** artean zuzentasuna egiteko bide iez gudea artzea, zorakeria **da. Eragozpendun batzuk bizi-biziak dira (oinantzat guda guztiak dira** txarrak) beste batzuk guda baten aurka **jarten dira (ez** doaz guda **orrelara, euren barruaren aurkakoa dalako, baifia onartuko leukee** beste gudaren **bat, zuzena** ta onartzekoa dala euren ustea izan ezkero).

**Jesus, bakearen buruzagia, iltera isillik eroan eben bildotsa, (Is. 9, 5, 9) da eta zorionekoak dirala diño bakearen alde jokatzen dabenak (Mt. 5, 9), areriorak maitatzeko diñosku (Lk. 6, 35) eta pedro izkilluz bere** alde **agertzen danean ez dau onartzen (Mt. 26, 52...). Eta Gaudium et Spes agirian, 79n**. zatian gaurokotu egiten **da errtxi ori,** Balikano'ko **II Eleiz-BaTzar Nagusian:** "Gauza egokia litzake, **baita, legeak, gizabideko** jokabideen **arazuz, "barruko eragozpenagaitik" izkillurik artu nai ez dabenen** egoerea kontuan artzea, olakoak beste era batera gizarteari laguntzeko gertu agertzen **diran ezkero"**.

Eleiz-Batzarrak berak guda osoa, naiz norberaren burua zaintzeko izan naiz ez izan, osoan aiboratzen dau. (Gaudium et Spes 80). Ta beste alde batetik, bakea zaintzeko laguntzen daben neurrian gudarostean laterriari laguntzen dautsoen lana goratzen dauanean, izadi-eskubideen aurkako agindurik ez dabela bete bear goratzen dau:"... esagintza rtsuak ez dauz zuritzen olakoak egiten dabezenak olako gauzak agintzen debezenen aurka jarten diranen adorea, txalogarriada".

Azkenez, benetako bakera daroan kristiñau-majtasuna egitez agertzeko, era ezbardiñak izan daitekez, personak nortzuk diran eta euren kontzientzia zelakoa dan kontuan artu ezkero. Baiña Jesus'en mezua maitasun ori egiten betetekoa da, baifia gizonen urtenbidea guztiak kontuan dirala, urtenbide orreik asmo onagaz, iztilluek konpotzeko gogoagaz egiten diranean, eta oraingo onetan izkilludun iztilluak dira.

## EGIN GEINKENA

### Taideetako blllaketea

5'etik 7'rako taldeetan banatu tkasteak.

Talde bakoitxak lanaren zati edo ikuspegi bat artu.

Billaketa-lana "BatikanCko 11 Ele^-Bafzar Nagusia" da.

Barriak batzeko sailleak oneik izan daitekez:

- Noz, nok, non, zergaitik eta zertarako egin zan Batzar Nagusira deia?
- Zenbat iraun eban?
- Zeintzukagiriakegin ebazan[9]
- Agiribakoitzaren laburpena.
- Gaudium et Spes-en azterketa berezia.
- Bazar Nagusiaren onOorena Eleizan.

Azkenean, talde bakoitxak ikas-gelara dakaz egindako lanaren ondorenak eta al izan ezkero bateratu egiten dira.

**Baiezpena ta baiezpen-aurka.**

**Ikas-taldea zati bi egin eta zati bakoitxak jokabide bat agertzen dau,** beste baten aurkakoak.

Oraingoan gaia **zu izango da: "Epaibideko iltea eta bizi-eskubidea".**

Lenengo erdi bakoitxaren abosdunak epai-eriotzearen aldeko errazoiak **ipinten dauz, eta** gero beste erdiarenak, aurkakoak.

Gero erdi bien artean eztabaidatzea egiten da klasean, irakaslea **eratzaille dala.**

**Azkenez, laburpena, egin, Irakasleak arlo onetan eleizearen** irakatsiak agertu ondoren, **eta** laburpen orretan eztabaidatzean izan diran zertzeladak agertu.

**Zer** da... berbea emotea edo bete-bearra artzea? Zer esan nai dau eta zer da kristiñauen berba emona?

**Zelan alkartu lelz...** erttxiak agertzeko askatasuna te izen ona zaintzeko bakoitxaren eskubidea?

**Zer esan nai dau...** eskubideak eta eginbearrak baiera doazela?

**Billatu... gure gaurfco mundu onetan** fede-giroko gogorkeriaren **adibide** batzuk.

**Ezagutzen dozu...** galazota dagonalkarteren **bat? Zergaitik?** Ezagutzen dozu galazoa **izan** dan batzarren bat? Zergaitik?

**Zer** eg!n... seme-alabak astea **nai daben leku lez** ikastexe bat aukeratzeko gurasoak benetako aimena izan dagien, bear diran ekonomi ta politika giroa **lortzeko?**

Z**eintzuk laterriak...** dauke kenduta eriotzarako epaia emoteko eskubidea?

**Zelntzuk legebldeak... nor izan zan** Gandhi **eta zer lortu eban**. **Zein zan** bere ofñarri-burutasuna.

**Azaldu...** kanpoko askatasunak barrukoa lortzeko dauken garrantzia.

**Eratu...** eztabaidatze bat, gaurko ezibidean dan aukera bardinen egoereari **buruz.**

AURKIBIDEA

Liburuau...

Lenengo zatia: Gu eta erlejiñoa

1[2]gaia: Er1ejirioarenjazokizuna{Erlejino-]azokLZunatakristiñau-jazokizuna)

1. Erlejino-arazoa or dago.
2. Oifiarriko itauna.
3. Erlejifto-jazokizuna orokorra da.
4. Eriejifioaundiak.
5. Erlejifio-giroko izkerea.
6. Kristifiauntzea, besteak iakoa ez da erlejiftoa.
7. Kristiñau-bidearenjatortasunataazkenenkoberbea. Egin geinkena.

2n.gaia Zerjazotendagure inguruan? (Erlejifto-jazokizunata kristiñau-bidea gaurkomunduan).

1. Entzuten diran esaldiak.
2. Zer esan nai *dabe* esaldi *orreik?*
3. Zerjazodaemen?
4. Erlejifiorakooztasuna.
5. Gorarrtzaugeregiten.
Egingeinkena.

Blgarren zatia: NAZARETEKO JESUS

3n.gaia Jesus zelan agertu dan. (Jesukristo'ren trudiak: Lenago izandako irudiakaztertzea)

1. Zergaitik?
2. Irudirikzarrenak.
3. Erromaniku-aldia.
4. Gotiku-aldia.
5. Bir-jaiotza ta gizabide-aldia.
6. Barroko-aldia.
7. Mundu sekularitzatua.
Egingeinkena.

4n.gaia: Jesus, non?(Jesusbizi izan zan aldia ta tokia)

1. Jesus'enlurraldea.
2. Berekondairatikzerbait.
3. Jesus'en lurraldeko lurra.
4. Jesus'en errikideak: Ekonomi-egoerea.
5. Jesusenarrikideak:er1ejiñoa.
6. Jesus'en errikideak: politika ta ertejiño-taideak.
   Egingeinkena.

5n. gaia: Jesus'en sustraiak: {Jesus'en kondaira-aurrea: Israelgo erria ta eheji-ñoa).

t. Israei'enkondaira:

   a) Aitaienenaldia.
   b) urteereataKanaaneskuratzea.
   d) Erregetza.
   e) Zatitzeataerbesteratzea.
   f) Erriabarriztatzea.
   g) Grezialarren eta erromatarren aldia,

2. Israei'eneriejiftoa.
3. Israel'ek bere kondaira idazten dau.
4. Bibliarenbesteliburubatzuk.
   Egingeinkena.

6n. gaia: Biblia: liburua, ulertzen asteko bideak.

1. Bibiia, liburua.
2. Zer da goietorria?
3. Bibliarenizkerea.
4. Elerti motai buruz zerbail.
5. Biblia, erlejiño-liburua. Urteera liburuaren lenengo atalak agertzen dabezan arazo bereziak.
   Egingeinkena.

7n.gaia: Jesus'egana geiago urreratzen (Itun barria: ebanjelio bako'rtxaren sortzea, oiñarriko erakundea ta osotzea. Nazaret'eko Jesus'eri buruz kondairazko jakingarriak.

1. Ebanjelioakosotzea:

   a) Lenengo aldia: *Jesus'en* rtzaidiak.
   b) Bigarren aldia: Apostoluen rtzaldiak.
   d) Irugarrenaldia: Idazketa.

2. Ebanjelioen jatorria.
3. Ebanjelioakbanan-banan.
4. Apostoluen egiftak eta San Paulo'ren eskutrtzak.

   a) Apostoluen Egifiak.
   b) San Paulo'ren eskutitzak.

5. Itun Barriko beste idazki batzuk.
6. *Fedearen* Kristo'tik Kondairaren Jesus'era.
   Egtngeinkena.

8n. gaia: Jesus'ek zeresaten eban? (Jesus'en berbakjien otñarri-ardatza).

1. Jesus'ek Jaungoikoaren Erreiñua aitatzen eban.
2. JaungoikoarenErreifiuazerezdan.
3. Jaungoikoaren Erreifiuazer dan. Jaungoikoaren Erreifiua ta Jesus:Mesias.
   Egingeinkena.

9n. gaia: Aldatzea. (BJurtzera *dela)*

1. Jesus'ek irakatsi arriskugarria iragarri eban.
2. Jesus "lagun txarrakaz" ibilten zan.
3. Jesus'ekbiurtzeradeiegineban.
4. Zeretedabiurtzea?
5. Jesus *"onartu* bakonorkia". Artzeko edo ez artzeko askatasuna daukagu.
   Egin geinkena.

10n. gaia: Jesus'ekzergaitik egrten ebazan mirariak (Mirariak Jaungoikoaren *ErrelOuaren* ezaugarriak).

1. Nork sinisten dauz gaur mirariak[9]
2. Zersinistubeardamirarietan?
3. MirariakBiblia'iikkanpoan.

4. Bibliako mirariak.
5. Jesus'en mirariak, zer esan naidauskue?
6. Jesus'en mirarien benetako izatea.
   Egingenikena.

11 n. gaia^ Erri zeiak arrituta begiratzen dautso (Jesus'en nortasuna ta ondorenona).

1. Asikerakoondorenona.
2. Jesus'ennorlasuna.
3. Zoriontasunak.
   Egingeinkena.

12n. gaia: Agintarien aurrez. (Jesus Israel'go agintarien aurrean).

1. Jesusetaberearerioak.
2. Legeadala-taalkarrenarerio.
3. Tenpluadala-taalkarrenarerio.
4. Diruadala-ta alkarren arerio.
   Egingeinkena.

13n. gaia: Zergartik il zan Jesus kurutzean? (Jesus gizonen salbamenerakokurutzeratua).

1. Alboratu-eziña ete zan Jesus'en eriotza gogorra?
2. Erlejirx)-girokoauzifcMdea.
3. Erri-girokoauzibidea.
4. Jesusgurepekatuakaitikilzan.
5. Oparia, oben-ordaiña-bir-erostea.
   Egin geinkena.

14n. gaia: Berbiztu egin dala difioe! (Jesus'en berbizkundearen lenengo Jekukoak).

1. Jesus'en kondaira ez zan amartu?
2. Nondikdakigu berbiztueginzala?
3. Edestietakoidaz-motak.
4. Fede-autortzak: Pauto'ren testigantza.
5. Agertzen edestiak.
6. Illobi utsaren edestiak.
   Egingeinkena.

I5n. gaia: Berbiziu egin da! (Berbizkundea edestien ardatza; jazokizuna, ezkutukia).

1. Jazokizunen arrtz-mintza edo pelikuia.
2. Berbizkundea zerez dan.
3. Berbizkundea zerdan.
4. Berbiztuagan fedea agertzeak.
5. Berbizkundea giitzarria da.
   Egingeinkena,

16n. gaia: Nor da Jesus? (Itun Barrian Jesus Kristo lez eta Jaun lez agertzen da).

1. Nazareteko Jesus'en isillekoak.
2. Jesus berbiztu aurretik, zelako Jesus ikusten dabe jarraitzaileak?
3. Berbizkundeak argi barria egin eban Jesus'eri buruz.
4. Jesus'eriezarrrtakoizenak.
5. Jesus'eri ezarritako izenak gizonentzat zerbait esan nai dabe.
6. Jaungoikoaren ezkutukira sartzen gara.
   Egingeinkena.

17n.gaia: Nazaret'ekoMaria.

1. Errikoandrabat.
2. Jaungoikoaren erriko *andra* bat.
3. Berbeaentzuten.
4. Berbeagizoneginzan.
5. Genza-bako maitasuna.
6. Errtzutetik serbitzaitle izatera.
   Egingeinkena.

lrugarrenzatia:GUTZAT BIDEA

18n.gaia: Gizona bidez doa (Kristiñau izatearen jokabide zuzenen neurria).

1. Zerdagizona?
2. Zerda jokabtie zuzenen *araud'ia?*
3. Giza-norkia, jokabide zuzenen oiñarria.

4. Gizona obea izatekodeitua.
5. Kontzientzia norabideko ikurra.
6. Legea:gure ikurra.
7. Biotza, rtunri bat.
8. Askeak...aukeratzeko.
9. Giza-ekintzak.
   Egin geinkena.

19n. gaia: Jesus'en oiftatzak *jarraa'itzen. (Jesus betiko eredua, nor dan* jakiteko oiñarria kristifiauentzat).

1. Onaemengizona.
2. Bere oifiatzaijarraitzen.
3. Bere oinatzakbideazeindanagertzendabe.
4. berak bere oiñatzak izten dauz berari jarraitzeko.
   Egingeinkena.

20n. gaia: Gure gorputz au (Gorputza, Jaungotkoaren agerpenaren aurrean).

1. Gizon bakoitxagan gizon bat baifo ez dago.
2. Gorputzagauzaarrigarriada;
3. Zeregingorputzonegaz?
4. Guregorputzaseksudunada.
5. Gure seksu-bidea ez da isiipekoa edo aitatu bear ez dana.
6. Jesus'ekbegorputzadauko.
   Egingeinkena.

21 n. gaia: Bizitzea bizi: gorputzaren eta gogoaren bizirako eskubidearen kristiñau-jokabide zuzena).

1. Bizrtea, gauza ederra... baiña arriskugarria.
2. Umebatzan...ezzanjaio.
3. Urdailutsenmoltzoa.
4. ildakoen moltzoa. Loguradiranen morroi-moltzoa.
   Egingeinkena.

22n. gaia: Askatasuna daukagu! (Jesukristo ta gizonaren askatasuna).

1. Ba~daukagu askatasunik?
2. Askatasunadaukagu!
3. Jesus.gizonaskea.
4. Kristiñaugizonaskeada.
5. Jesus askeak gu be aske egiten gaitu.
6. Askatasunaren legea.

Egingeinkena.

23n. gaia: Askatasuna daukagu, zertarako? {Askatasuna ta kristiñauen eginbearra)

1. Eleizea askatasunerako.
2. Norberaren erlejifto-ziurtasunak beteteko askatasuna.
3. Barriak artzekota zabaltzeko askatasuna.
4. Alkarteak sortzeko ta batzarrak eg'rteko askatasuna.
5. Eziketarako askatasuna.
6. Barru-eragozpenerako eskubidea.